

GARROA

DOMINGO AGIRRE

— APAIZAK —

— EGINDAKO —

Irakurgaiak



ESTABLICIMIENTOS DE

1138

A	T	V
3	6	7
		7





REPUBBLICA ITALIANA
1138
MINISTERO DELL'INTERNO



M - 11079
R - 5261

A.T.V.
3622

GARROA

DOMINGO AGIRRE

— — — — —
APAIZAK
— — — — —

— — — — —
EGINDAKO
— — — — —

Irakurgaia



DURANGO'N

Florentino Elosu'ren echean

MCMXII - GARREN URTIAN



Handwritten scribbles and markings in the top right corner, including a large 'V' and some illegible characters.

Corep / To / Parai S. I

IRAKURLEARI

Egun on ta berri on, adiskide.

GAROA naiz, KRESALAREN anai gaztea; baño menditarra, Gipuzkoako izkeraz jantzia.

Nere anaiari abegi ona egin zioten euskaldunak.

Gaurko egunean edozeri jotzen zaizka ta, Euskalerrian azi zalako, tsalo batzuek jo emen zizkaten.

Baño ni eznator tsalo billa. Nere aitak esan dit buruauste gogorren erdian sortu naizala, zeregiñ askoren tartean, tsolartietan, atalga ta pitinga; arantzapeko lore gaisoa diruditala, eguzki gutsiko landare maskarra.

Bai, nere aitak dionez, KRESALA ta ni almen gabeko gizonaren egintzak gera, zazpikiak, eta gure aitak ondo ezagutzen gaitu.

Ni jaio baño len zerbait izango nintzala uste omen zuan, baña jaio ta gero, zelaiña naramala, begira begira egon zait eta utsune agiriak idoro

dizkit azalean, ustegabeko erkintasuna errai-ma-
miñean.


Ala ere, arrera tsarrik ezaldirazu egingo. Apa-
lari etzaio iñon gaizki begiratzen.

Ta gañera, nai degunik eztegu, irakurle, ta
aldeguna bearko. Gaur eztago aukerarik.


Erneko aldira euskeraz irakurgai gozo, ugari
ta mardulak. Betoz ordu onean, betoz ainbat
lasterren.

¿Nork daki, ni añ kaskarra ikustean, liburu
cder bat zenk asmatuko ezpadezu?

Baño bitartean, ara ni naizen bezela. Tira,
ikusi zazu Joanes artzaia, (1) ireki zaiozu atea,
irauli zadazu orria.



(1) Nere artzaia beste mendi-mendiko artzairen bat ba-
ño aurreragokoa da. Begira **Revista Internacional de los
Estudios Vascos** deritzaion albistaria, bere lenengo zen-
bakian.



I.

JOANES ARTZAIA

¡Ura zan gizona, ura!

Zazpi oiñ ta erdi bai luze, makal zuga-
tzaren irudira zuzen, pagorik lodiena bai-
zen zabal, arte gogorra bezela trinko, go-
rosti ezearen antzera zimel.

Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Sendoak zeuden oraindik artzai zarrar-
ren beso zaiñtsuak, tsit azkarrak bere
oñak, zindoak bere bular-auspoak.

Irurogeta amabi aldiz ikusi zuan, Aloña
mendiko ariztietan, ostro berdea berriz
jaiotzen; baña etzion eramango emeretzi
urteko mutill batek ez aizkora jolasean, ez
burni astuna jaurtitzen, ez mendietan gora
edo ibarretan zear laisterka.

Kaiko andi bat esne goizean jan, azpan-

tarrez izterrak estaldu ta makilla bat eskuan artu ezkeru, prest zegoan egun osoan, zein ariñago bezela, beorren atzetik ibiltzeko edo, neke askorik gabe, ardi galdu gaisoaren billa gau guztia igarotzeko.

Argiak ziran Joanesen begi gozoak. Oitua zegoan Joanes zerura ta lurrera, gabaz ta egunez, arreta andiz begiratzen; ta inok baño lenago ikusiko zuan, goi aldetik, odei tarteko arranoaren ibillera apaña edo ia gizon danentzat estaldurik zegoan izarren kiñua, ta lur aldean, lokatz biguntako aberc oñatza, bide ondotik joan ziran eperren aztarna, sasi mardularen ertzeko erbi-oi zapala, arkaitz zuloetako egazti arraparien kabia, ta an bebeian agiri zan urlia erriko orduari (1) zar ta illun samarra.

Ernaiak ziran Joanesen belarriak. Oso egiña zegoan Joanes mendi-oiartzun guztietara. Milla aldiz bai entzun zituan, bakar-tasunaren erdian jarrita zegoala, urrutiko trumoiaren orrua, ekaitz aizearen durundia, artzaiaren deadar luzea, egurgillcaren aizkorakada neurtua; basaurdearen arna-

(1) Orduari—Reloj.

sotsa, otsoaren alarua, azeriaren zaunka, beorren irrintzia, mosolloaren oiua, basaintz bildurtiaren zalaparta; abere arranen dulun-duluna, ardien bee negartia, suge zarraren tsistua, belien garrasi latza, sosoaren tsortsorra, tsori kantari askoren tsio-tso alaiia, errekastoen poll-polla, zugatz ostroen pir-pir biguna, eltso gogaikarrien zunburruntsoa... itz gutsitan esateko, iza-kiak berez dituan ta mendi basoetan diran abere, pizti ta sortutako gauza guztien amaigabeko soñu tsiki ta andi, isill ta bizi, garratz ta gozo, miñgarri ta eztitsu, pozkor ta ikaragarrizko danak. Berialase antzematzen zion Joanesek nondik zetorren soñua, ta baita ere esango zukean garbiro ta zuzen zer zan ta non zegoan soñu bakoitzaren jatorri eskutua.

Etzan Joanes jakituri andikoa, baña bai asko ikusia, ta asko ikusi duan gizonak beti daki zerbait, eta sarri jakintsu usteko askok baño geiago.

Bazekian non ta noiz jaiotzen ziran gibelurdiñik gozoenak eta zein tokitan zeuden kamamilla, belatseta, karraskilla ta beste orrelako belar mota gizonarentzat osasungarriak.

Bazekian non idoroko zituan artaldearentzat bear ziran janaririk on ta egoki-enak.

Bazekian nola sendatu bear ziran beor, bei ta ardien zauri ta gaisotasun ezagutu-enak.

Bazekizkian baso guztietako laster bi-deak eta bost ordu bide inguruko arkaitz zulo ta aterpe denak.

Bazekizkian zer leku zeuzkaten goi ur-diñean izarrik nagusienak eta artizarrak batez ere. Eguzkian bertan ikusten zituan, geienbat, egunaren orduak; illargiaren jiran, aizeak zeraman bidean ta laño ta odeien egoetan irakurtzen zuan urrengo egunerako girona edo giro tsarra.

Bazekian, gañera, ta au zeukan gauzarik onentzat, guraso zarrak erakutzi zioten Eleizaren legea ta Jesu-Kristok lurtean erabilli zuan bizitza samurra, ta lege ta bizitza oiezaz bakartadean gogoraturik, ikasi zuan, dana Jaungoikoari zor zion gizonak tsit apala bear zukala izan, bere nekietan patsada andikoa ta lagun urkoaren naigabietan egiazko onginaiz betea.

Kristoren legea zan Joanesen argia ta argi orretan ikusten zituan, kupidaz, gizonen argaltasun ta ibilpide okerrak.

Oroitzen naiz nola ezagutu nuan nik Joanes artzaia ta nere jakinai bizian zenbat galdera egin nizekion.

Bagiñazen beñ mendian gora lagun batzuek, orain urte asko dala, udako bero galdatan, izerditsu, arnasestuka, oso nekaturik, Aitzgorriko goi gallurrera igotzeko asmoetan, ta Urbiako zelai ederra igarota laster, aurrez aurre billatu genduan gure artzai zintzoa, kerizpean, zugatz andi baten sustraian jarrita, artillezko galtzerdia egiñaz ta an urrean zebiltzan ardiai begira.

Aldamenean zeukan zakurrak, sumatu genduzanean, ongi-etorri gaiztoa emateko itsurak artu zituan.

—Ona, Tsuri,—deitu zion artzai zarrak —geldik emen ijum!

—Egun on—oles egiñ giñon Juanesi—egun on, adiskidca.

—Baita zueri ere,—erantzun zigun, gozoro irribarrez.

—Jarleku ona billatu dezu.

—Beste asko dauzkat basoan, ta danak ezagutzen naute igaroko urtietan.

—¿Urteak dira noski emen zabilzala?

—Berrogetamarretik gora onczkero.

—¿Ta beti mendian zaude, bakarrik?

—Bakarrik ez, nere Jaungoikoarekiñ.
¿Nun biziko naiz paketsuago ta obeto?

—¿Ain ondo bizi alzera?

—Bai, ¿ta nola ez? Nai detan aña jaten det, nai detan aña edan, ta nai detana agindu. Nere ustea da—jarraitu zuan parre antzean—nere ustea da emengo legea, ta nere aginduaren aurrean eztu inork ezeztzik erantzuten. Inguruetakoko jabe ta jaun bezela bizi naiz.

—Ezta gaizki, ez; baña esan zaiguzu, galdera okerra ezpada gurca. ¿Zer jaten dezu?

—Taloa ta gaztaia batzuctan, taloa ta esnea geienean ta ongarritsoren bat astia izan ezkerro, gaur bezela.

—¿Zer ongarriri?

—Baba beltz ederra, urdai apur batekiñ.

—¿Ta edan?

—Arkaitz iturriko ur garbi garbia.

—¿Baña eztezu emendik inora ertetzen?

—Bai, bai; udea da emen igarotzen detana, nere baserrian lan andirik ezpadago, Epailletik asi ta Azaroraño. Ala ere, morroia badatorkit, larunbatetan jaizten naiz Zabaletara, nere emazte, seme, illoba ta basterrak ikusiaz, barruko jantzi garbiak

ipiñi ta tabakorri piskabat artzera; ta igandetan igotzen naiz berriz, Aranzazuko eleizan Meza entzun da gero. Morroia larunbatean ezpadator, jai egunean bertan joaten naiz Aranzazura, ta an izaten da ordurako etsekoren bat tabakorri ta jantzi garbiarekiñ.

—¿Zortzian beñ ikusten dituzu beraz etsekoak?

—Basetsean lan askorik ezpada bai; baña gure Zabaleta orretan eginbear estuak badaude, eguzki goiztarra baño goiztsoago jaiki, beti bezela, ardi guztiak jetsi ta zelaira eraman, esne ontziak lepoan artu ta an izaten naiz laster, zazpiretako bai. Bertan dago Zabaleta, or Gogordo azpian: ordu biko bidea geinez emendik ara.

—¿Ta lanera joaten altzera?

—¿Zetara ba? Atsurrera edo laietara edo beardanera, eguzkia gorde artean beintzat. Eta illunabarrean, aldapari arpegia eman da, goruntz osterare, kankarroak lepoan ditutala.

—Eztezu lotarako gogoa makala ekarriko.

—Zerbait bai; baña eznaiz beti berealakoan lotara joaten. Ardiak batu bear izaten dira eskortaldera lenbizi, ta pozik bat edo

beste galdu ezpazait. Orduan izaten dira istilluak, arren billa gaberdiraño edo bear dan artean....

—¡Ori bizitza daramazu, gizona, daukatzun urteakiñ!

—Ona nik, Jaungoikoari eskerrak. Nere semeak esaten dirate, zarra naizalata, jetsi nedilla Zabaletara betiko, berak edo morroiak egingo dituela emengo eginkizunak, baño ez tet nai. Danak baño geiago naiz mendiko gauzetan, ta ezta arrotasuna egia baizik. Aiek eztaude ni añan oituak.

—¿Eta ezaldezu ostaturik emen urrean?

—¿Zetarako ostatua? Ara or non daukatan nere jauregia; atozte zeñ polita dan ikustera. Atozte, emango dizutet esne pis-ka bat egarria kentzeko.

Joan giñan artzaiaren atzetik eta ikusi genduan Joanesen tsabola.

Jauregui ura jasotzeko, arri batzuek alkarren gañean tolestatu ta aien buruan aga bat, lau ostro ta lasta pilla batzuek tellatutzat jartzea baño beste lanik etzuten egiñ. Etzan tsabola zazpi oiñ zabal, amar ez luze, gorutz etzitian zortzi. ¡A! Baño bazuan atc zar bat eta gauza anditzat erakutsi zigun artzaiak.

Lurrean, alde batera, tsillarra ta garoa zeuden zapaldurik: ura zan Joanesen oia.

Beste aldean, egur batzuek sutan, ta egurren erdian baba-eltzetsoa gargar: ura zan Joanesen sukaldea ta asti egunetako janari ona.

Su ondoan, artiriñaren zorrotsoa, lurrezko katillu andia ta zurezko kollarea agiri ziran.

Etzegoan beste gauzarik: ez mairik, ez jarlekurik, ez beste osterantzeko etse-tresnarik.

—Eztezu gauza asko bear bizi izateko—
esan giñon artzaiari.

—Beste edozeñek aña beardet,—erantzun zigun—baña gutsitan artzen det bear baño geiago.

—¿Emen jaten dezu?

—Emen jatekoa egiñ; zelaian jan, girona bada.

—¿Ta emen lo?

—Ederki.

—Sartuko zaitzu aizea galanki irriñarte oietatik.

—Aizea ona da, udaldean batez ere.

—¿Ta etzera bildurtzen gabaz, bakarrik?

—¿Zeren bildur izan bear det Jaungoi-

koarekiñ ondo banago? Gañera, eztator ona iñor, zuek bezelakoren batzuk ezpada, ta etzerate zuek artzaia mendian ikaratzeko gizonak. Gaiztoak or bealdean bizi dira, diotenez; zenbat eta berago, gaiztoagoak; zenbat eta erri andiago, okerragoak eta ugariagoak. Eztakit nik nola dan, baña gizon tsarrak gutschitan oidira mendizale.

Arren egin giñon Joanesi lagun zaigula Aitzgorri gañeraño, astirik bazuan, ta lagundu zigun.

—¡Ura gizona! csan bear det berriz ere. Beti aurretik zijoan, izerdi *tantorik* gabe, beti parre antzean, jolasean bezela, ta guk, ogei urteko mutillak, izerditan urtutzen ta biriak aotik boteaz, ezin giñon jarraitu.

Atzean ez gelditzeagatik egiñalak egin genduzan, baña alperrik. Azkenerako, Joanesek, gure neke ta larria ikusi zuanean, errukituta, kendu zizkigun berotasuna baiizen besterik ematen etziguten geure jakak eta goian zerbait artzeko geramakigun janari-otarratsoa. Lotsatzekoa zan, baña ezkiñan lotsatu: arritu egiñ giñan.

Aitzgorriko bizkarretik ikusten dana ezta beste iñondik gure Euskalerrian ikusten. Mendiak, mendi anaiak lenbizi: Ernio

ta Izarraitz, Aralar ta Gorbea, Arno ta Atsu, Oiz ta Anboto, Mendoegi, Etsalar, Oiluz ta beste asko, egundaño ikusi ezti-ran gisan, lur ta errien gañetik beren bu-ruak jasoaz alkarri begira, uri andi bateko eleiz-torreak alkarri begiratzen dioten an-tzera; baso andi zugatzez beteak gero: Us-turre, Otsabio, San Adrian, Elgea, Zارايا, Sollube, Bizkargi, Andia, Belate ta nik ez-takit zenbat geiago, denak ostro berde be-riak zeruruntz jasoaz, Jaungoikoari es-keintzen zitzaizkion lorontzi (1) eder ba-tzuk ziruditela; belardiak eta soro landuak urrengo, zatika zatika, aldapa ta ibartsoe-tan zabaldurik zeuden zapi lodi mardul batzuen itsuran; euskal uri jakiñak oso be-ian, geure oñetan batzuek, Kantauri er-tzean beste batzuk, lur-barruan askotso, denak koskor ta kaskar, andienak ere urri ta tsiki, gizonen kabiak alkarri erantzita zeukazkitela eta kabi oien burualdeak go-rrri gorri, zeru goi urdiñaren anditasun ta apainduriak ikustean tsit lotsaturik baleu-de bezela; ibai ta erreka garbiak nonai, mendi naroak urietara biraltzen dituen

(1) Lorontzi = Florero.

opari onak, baso tartean bera murmurrean ta ibarretan zear dizdizka, ispillu bizi ibillkorren irudira; bideak, alde askotan, indarraren indarrez gizonak uri batetik bestera egin dituan bideak, or gorde ta emen agertu, an oker ta arutzago zuzen, beti estu estu, danean zuri zuri, norbaiti arilletik erori zaion ari albañu luze baten taiuan; ta azkenez, gizonaren jakituri ta alizatearen erakutsirik andienetakoa, suburdi beltza bere burni lerrotik barruna laisterka, tsistuka ta zarraparrean, arrotasunaren agerpena bezela ke matasa lodi zikiñ bat kopeta gañean arro arro daramala.

Guk ikusi genduan suburdiak bere atzetik utzi zuan keia, apurtso batean goietan egonda bereala, zabaldu zan, makaldu zan, urratu zan, gutsitu zan, utseratu zan, gizonik andienen izen ta entzutea laster asko utsera etortzen dan era berean.

¡Benetan! Aitzgorri gañetik begiratu ezker, be aldeko gauza guztiak ume jolasak dirudite.

Mendiak bakarrik dirade andi, mendiak eta beren Egille Jaungoiko altsua.

Ta ala ere an zegoan, Aitzgorri gañeko elizatsoan, Jesus Jaungoikoaren irudi mai-

tagarria, kurutzean josirik eta apal, oso apal, gizon arroai apaltasuna erakutsi naian.

Baseliz artara eraman genduzan Joanek, antŕen erakutsi zigun bere anima ederreko siñismen bero ta itŕaropen ezta, antŕen irabazi zidan osoro nere biotza.

Etzait geiago astu, nere bizitza guztian, Joanes artzaia.



II.

BASERRIA (1)

Geroago esagutu nituan, Joanesen oroi-
men gozoak artara eramanda, gizon bikaiñ
orren etse ta ondorengoak.

Gogordopeko zelaitso baten, garometa
andi batzuen urrean, soro eder narotuz
inguraturik, bene benetako patsadan ze-
goan Zabaleta baserria. Bere alboetan,
amari gonetatik utsika dauden aurtsoak
bezela, etse nagusiari lotuta, bestetso bi
agiri ziran: bata ogi edo artoa erretzeko la-
bea, bestea abere janariak gordetzeko le-
kua; ta auekandik ez urruti, zerbait mendi
aldera ta beregaiñ, neguan ardiak idukitze-
ko ellorra. Etse nagusiaren arpegi aldetik,
sarrerako ate gañean, lore ta usai gozodun

(1) Basetsea legoke obeto, bada erririk ezta izaten ba-
soan, auzotegiren bat geienez ere; baña etse bategatik
bas-erri esaten oitu gera ta ala esango det nik ere, noi-
zean beñ basetse ipiñtzeari utzi gabe, itz egoki ori bela-
rrietatik sartu daikigun.

belarrez egindako bi sorta legor ikusi nituan, oitura zarrari jarraituaz Done Joane goizean ipiñiak, esan ziratenez; atcaren erdi erdian erantzita, argizarizko gurutze tsiki zapal bat, etsekoen kristautasuna erakutzi naian.

¿Toki aien barruan zer zegoan jakiñ bearrik bai alda? Basetsetakoak badakite, baño ez itsastarrak: ezta, bada, aiñ gaizki etorriko auentzat emen zerbait jartzea.

Labaldean etzan gauza andirik: abar batzuk, ia erdi erretako *pala* zatar bi, ta la-beoia garbitzeko ipizkia (1). Janari etsean, lastoa ta belar-ondoa ugari, sapaian (2); atsur, eskobare, sarda, tsardango, golde, periki, besabe, gurdi, gurtezi, orrazi, kabi-lla ta ustarriak lur-gañean. Etse nagusian, sartuta bereala, sukaldea, lasai samarra, euskal baserri guztikoen irudira, etsebizi-tzarako ta lur-langintzarako bear ziran tresnaz betea. Bertan zeuden, su-aurrean, zumitzezko jarleku apalak eta keak eta urteak leundu zuten tsisillu galanta, ta zapaldetan, sulla, morko ta beste urontzi batzuek, lu-

(1) Isatsa edo moltsa.

(2) Zurrunean.

rrezko tšali zabalak, erretillu andi sakonak, zurezko kollara belztuak, eta ogi, tremes edo artoa idukitzeko otarratšoa; antšen arkitzen ziran, ormetatik bera esekita, eltze, tupiñ, padel, talo-burni, burrunntzi, burrunztali, tanboliñ ta kresalluak; antšen, baster baten, beste atšur, lai, ortzbiko, sega ta itariak su egur, azpantar, abarka ta soka zarren laguntasunean; ta antšen egon oiziran askotan, ke zulo azpian, lurruntu, labatzetik (1) bera zinzilika, zeziñaren itšuran, bazerri artakoen azkiñiko (2) busti ta basaz loituak.

¿Ta zer geiago? Onezkero dena ipiñi bearko degula uste det, guretzat eman diguen etšeko basterrak ikusten gabiltzala esan badeiteke ere. Sukalde ondoko gelatšo batean zeuzkaten, oremai, legami (3), artiriñ, galbai ta arraskoa, ta gela ortatik atea bitarte, ukulluan, esne-bei, biantš ta tšekor gorri lodiak, belar gozoa mauska mauska jaten, tšerritšo bi beren ezi barruan etzanda ta ollo batzuek zitzetan asterka.

Auek danak bealdean zeuden. Goian

(1) Labatz, laatz, gelatsua.

(2) Azkiñikoak esaten diote Oñatin azpantarrak.

(3) Askarri.

berriz, gizategia, bost edo sei lo-gela, estu-
tsoak, argi gutsikoak, baña garbiak oso, ur
bedeinkatu ontziz ta Ama Maria ta beste
done batzuen irudiz naikoa poliki apain-
duak; eta gorago, etsearen gallur ondoan,
ganbara andi bat, mandio bezela, gari, arto,
baburrun ta sagar umatuak gordetzeko.

Etse orretan jaio zan gure artzaia, etse
orretan sortu ziran bere gurasoak eta gu-
rasoen gurasoak, etse orretara ekarri zuan,
bear izan zan eguncan, Garibaiko Ana Jo-
sepa, emakume marats, pisgor ta begira-
tua, besterik iñor Garibain bazan.

Sei seme alaba eman zizkon Joanesi Ana
Josepak, baña etsadi au guk esagutu gen-
duanean, iru bakarrik zeuden bizirik, se-
meak irurak. Lenbizikoa, José Ramón, ne-
kazaritzari jarraitzeko etsera ezkondua,
Manueltsoren aita, Araozko neskatza on
batekiñ senartua zegoan. Bigarrena, Iñazio
Mari, aizkolari trebea, czkongaia oraindik,
ikaskintzan ibilli oi zan luzaro Aralargo
mendietan. Gaztienak, Juan Andrés arri
zulatzalle ospetsuak, Oñati ondoko arrobi
baten zeukan irabazbidea, etsean lan andi-
rik etzegoan eretietan.

Irurak ziran morrosko eder sendoak.

Oñati aldeko baserrietan etzegoan Zabaletako semeak bezelako mutillik. Zazpi arroa bazan bakoitza; andi, lodikote, bular-tsuaak zeuden; ingurokoen artean ta batez ere be-urikoen ondoan, Erkules batzuk ziruditen; baña etzan iñor beren aita izan zan beste.

—Bigunegi asi zaituztet-jardun oi zien arrek-edo etzerate aitaren semeak. Nik egun berean egin izan det beti emendik Bitorirako joan-etorria, oñez, ta zuek be-rriz zalpurdia bear dezute Bergara edo Zumarragaraño joateko. Zuen *sasoian* aterako nuan nik ipurditik Anbotoko arkaitza bera ere, ta zuek, indartsuak zera-telata, laguna bear dezute zugatz zirzill bat gurdira jasotzeko.

Badakigu esate oiek geiegizkoak zirala, baña, egiaz, bazetorkion nunbaitetik bene-benetako galera Joanesen jatorri sendoari, bada berdiñeztasun andi ta agiria zegoan artzai orren ta bere semien bitartean. Zabaleta baserria Gogordopean bezela, Joanesen azpian egon bear izan zuten semeak, indar-ausietan, arrek irurogetamar urte zitu-arte. Ta gero ere, oraindik ere...¡ jum! Naiago zukean Iñazio Marik bere indarrak

aitarekiñ baño beste edozeñekiñ neurtu. Ta ez aitari itzal andia ziolazo bakarrik: itzala zion ta azpiratuko otezuan bildurra zeukan.

Iru anaiak ziran kristau onak eta... bai, eleizkoiak; baño ez gurasoak añan. Beraldera zijoazen, mallaka, mallaka, Jaunaren maitetasuncan ta animako gauzai zor zaien arretan. José Ramón zan kristaurik bero ta zintzoena, gurasoen urrengo. Au bai, au jaiero izaten zan Meza nagusia ikusten, askotan *bezperak* entzuten, naikoa sarri bere utseguiteak aitortzen. Azoketara geiegi joatea kendu ezkerro, etzeukan akatsik José Ramonck. Iñazio Mari, noizean beñ animako beroaldi on batzuek izanda ere, askozaz epelagoa zebillen geienetan. Apostu zalea zan mutilla, ta jai egunean iñon dema edo aposturik bazan, toki artara joateagatik, erraz utziko zituan Meza nagusi, *bezpera* ta beste eleiz-jai guztiak. Meza labur bat goizean entzun ta kito. Gañera, bere buruari geiegi zeritzon, arro samarra zan, ta jakiña, arrokeriak biotza betetzen duanean, toki gutsi izan oi da biotzean gure Jaungoikoarentzat. Juan Andres... etzan mutill okerra, ori ez, etzuan ezergatik be-

re jaiko eleizkizuna utziko; baña ala ere beste anai biak baño otzagotzat zeukaten etseko guztiak. Diru amesetan zebillen beti, dirua nola irabaziko, urrea nondik lortuko. Diru apur bat egitecagatik gau ta egun jardungo zukean lanean edo buruausten. Juan Andresek asmatutako dema, ziur ziur zan etsera dirua ekartzekoa.

Esagutzen zituan aitak, bazekizkian beren animetako argaltasun guztiak, eta etzuan usten beta on bat bakarra bear zana semeai esan ta erakutzi gabe. Batez ere jai andien aurrean, menditik etorrita laister abarkak aldatzen zegoala, edo apal ostean, edo ondoen zeritzoncan, asten zan galdezka:

—¿Azpiak atera aldituzue?

—Bai, jauna.

—¿Aberre jana ekarri?

—Baita ere.

—Ia ba, *konpesatzera* joan bearko diagu biar goizean. José Ramón, eramazak eurekiñ Manueltsō, bide ona ikasi dezan giza-gaisorrek. Ire, Iñazio, ezingo aiz egon arbi loreak jaio arte. Joari or Aranzazuko Mendibe A. Prailleagana: arekiñ *konponduko* aiz i... Ta utzizak beiñ jokorako griña gaiz-

toa. Jokoa ezta *errenta*, motell. Juan Andresek eta nik Oñatiko eleiz nagusian daukagu gure Aita. Biok joango gera, seme, alkarrekiñ, anima aberastzera, bada animako aberastasuna ohea dek lurrekoa baño, ta iraunkorragoa, gorde nai badegu. Pedro Antonek igo dezala mendira, ta emakumeak urrengo baten egingo dute beren eginkizuna.

Iru anaiak ziran izugarri langilleak, eta bear ere bazuten. Gauzak nondik eta nolatan begirutzen zaieten iruditzen zaizkigu andi edo tsiki, ta Zabaletako lurrak Arteagatik edo Aloñatik begiratu ezkeru uts irudikoak izanarren, tsit astunak ziran bear bezela maneatzeko. Tsara, gaztañadi ta be-lardiak neurtu gabe, amar golde lur ba-zeuzkaten lantzeko; ta karobia zala, laia zala, atsurketea zala, zimaurrak eramatea zala, arto ipintze edo kentzea, gari ebakitzeko edo jotzea, menditik orbel, garo edo gaztañak ekartzea, zeregin andia sortzen zitzaien era batzuetan. Ta berak, etsekoak, egiten zuten dana, batere auzolanik gabe.

Karobia izan ezik. Orduan bai, premiazkoa zan orduan norbaiten laguntasuna. Edonork daki: lurzulo biribill arriz jantzia

izaten da karobia, arri labea. Burua estali gabe idukitzen du, ta aurretik, be aldean, otea ta egurra sartzeko zuloño bat, ate bezela. Orretarako egun argi aukeratuetan, zamaten dute barru guztia kare arriz, ekartzen dute otea ta egurra gurdika ta gurdika, sartzen diote ate zuloñtik, su ematen diote, ta an egoten dira baserritarrak gau ta egun karobi aurrean, su-garretan, ke miñetan, gorri gorri, izerditsu, lukainkari bezela koipca dariotela, beti ere otea sartu ta sartu, sua makaldu eztediñ ta beren lan guztia galdu eztañkoten. Arretaz egiñ bear dana da kare erretzea, lan gogorra da, baño baserritar geienak billatzen dute bigungarri on bat, an nonbaiten gordeta idukitzen duten ardao zatoan. Zatoa eskuetan duela ikusiko dituzue, aoa zabalik, zerura begira sarritso, euririk egingo ote duan edo ez nonbait, bada euria kaltegarri andia da karobirako. Askotan iruditu zait neri nekeak eta suak baño zatokoak bero geiago ematen ez ote dioten. Karea ondo erretzen bada eztañ andiak egiten dituzte, ta eztañetan jan galanki, edan galanki, ta gero mosk... Orra, orraba esan isillik cuki bear nuana.

Zabaletakoak etziran ainbeste ardotara emanak, eta berentzat baño geiago izan oizuen ardoa auzoetako laguntzallientzat.

Karobikoa baizen lan gaiztoa da gari ebakitzekoa, baño orduan ere etzuten ardo edate andirik egiten Zabaletan. Lana bai zintzo. Jaikitzen ziran goizean goiz, iruterdietarako bai, lo aspertu bat egiñ gabe; joaten ziran, gozari tsiki bat eginda, soroetara, intza zegoan bitartean, eguzkiak erten baño lenago, belar gaiztoak kentze (1), azkenengo artajorrate edo beste orrelako lanen batzuk aurreratzeko asmoan; zazpiterdietatik zortziretara jaten zuten gozari obea-baratzuri zukua (2) ta pertzaka da bat arto-esne;—ta, ordurartekoa ezer ezpazuten itsuretan, guztiak errenkadan jarri, zumea bezela oker oker egiñ, beren buruak ia anketan ipiñi, ta asten ziran bizi-ziro ta jarraitzen zuten gogotsu, *rist* eta *rast*, bata bestearen leian, alkarri destañaka, jeupadaka, irrintzika, zeñek geiago irau, zeñek zaill geiago ebaki, nork gariko geiago lotu, nor nekezago aspertu, buru-

(1) Aien, saiñgorri, belaunbelar, barrabasbelar ta orlakoak.

(2) Sopa.

gañetik eskukada garia azkar jiratuaz, eguzkitan itaiari argi eragiñaz, kopetako izerdi galanta besoarekiñ kenduaz, cten gabeko arlo luze neketsuan eguardiko amabi orduak Oñatiko eleizan jo arteraño. Ta bitartean, gosetzen zanari etzitzaion debekatzten ogi-amesa, ta egarritzen zanak an izaten zuan ur-tsangilla arekaren baten, belarrez estalduta, bertako ur epelari maitero maitero zangada on bat eman nai bazion.

Eguardiko amabi amabietan gelditzen ziran lenbiziko atsedena egiten. Jartzen ziran lurrean zabal zabal, aurretiaz begiz jotako kerizpe batean, ipintzen zioten zamau (1) zuri garbiaren gañean janaria, ta iru edo lau *Aita gure* esan ondorean, ia mutillak, jura izaten zan jan-ontzitik aora ta aotik jan-ontzirako joan-etorri gogotsua, ura irentzi bearra, ura besoak luzatzea, ura ostera bakoitzean altzuen aña ateratzea! Etzan bidean ezer asko galduko, ez: oso ederki ikasia zeukaten kutsara zabalaren azpiko aldetik arto zati andia jartzea. ¿Zer jaten zuten? Ori ere bada ba jakinaia. Ogi zukua lenbizi, baburrun gorria edo baba bel-

(1) Mantel.

tza urrengo, urdai azpikoa gero, ta sagar erreak edo gaztai zati bat azkenean, sagardoaren laguntasunarekiñ. Etziran oraindik Zabaletara eldu gaurko baserrietan izaten diran arrautzopill, aragizerra, tripaki gozo ta beste orrelako, Ana Joseparen iritziz, geiegizkeriak. Gauza oiek eta geiago auzoko edo erbestekoak ziranean; etsekoentzat naikoa zan artoa ta babea, ugari eman ezkerro.

Ta egiaz Zabaletako mutillak etzuten geiagoren bearrik, betetze on bat eginda bereala, bata or ta emen bestea, lo kuliska bat egiteko asmoetan, zugatz azpian etzaten ziranean. Laster asko entzuten zuan aitak, pipa erretzen zegoala, eltsoen zunburrunarekiñ batean, semien lo-zurrunga lodia, ta baita laster deitu ere lengo lanbideari jarraitzera. Lasterregi, semien ustez.

Kentzen zuten orduan aiek, astiro astiro, buruko estalkia, nagiak botatzen zituzten, zorrotzen zituzten *dranga dranga*, aingura gañean, itaien aoak, jaikitzen ziran noizbait gizonok, eta berriren berriz asten ziran beren lanca; ez asi bakarrik, asi ta ekiñ, ekin ta jarraitu, aurrera ta aurrera beti, ez goizean baizen alai ta adoretzu;

baña bai ederki oraindik, iñoren aurrean ez lotsatzeko era onean ta beste edozeiñ basetseko mutillek baño geiagoan. Iñork etzukean, ezergatik, nekatu zala esango; baña arratsalde erdirako bat edo bati, izerdia kentzen zebillela, ertetzen zion onelako esakera batek: *¡bero zeok gaur, arra-ietan!* edo: *zail luzea dek au, egun batean dana egiteko.*

—¿Aspertu altzerate?—esaten zien aita, parre antzean.—Zaudete piska bat, nai badezute, nik jarraituko det.

Danak jarraitzen zuten. ¿Nola ez?

¿Ta siñistu aldeakegu? Orrelako lan gogorrean egun guztia igarota gero, apal ostean, illunabarrean, Joanes zarrak, pipea piztuaz, esne-ontziak lepoan zituala, artzen zuan mendirako aldapa latza, bere seme gazteak, oso auldurik, abereai jana emanda laster, lotarako gertatzen ziran bitartean.

Ezta orrenbestez amaitzen gariak ematen duan eginkizuna. Metatu bear dira gariakoak; eguzkitan legortu bear dira oraindik; arrian jo bear da gogotik galburua, zudur, belarri, ao ta kolkoa arotzez (1) be-

(1) Aukaz.

teaz; mallatu bear dira iregurrez (1) galondarrak, alea galbai edo arraskoan garbitu bear da, ta nik eztakit beste zenbat lan ematen dituan gariak mandiora sartu orduko.

Berebizikoa ibiltzen zan zeregin andiko egun oietan Zabaletako Ana Josepa. Ta barkatu, irakurlea, beragatik lenago ezer esan eztizutalako. Ez beragatik, ez etse artako beste enparauakgatik. Zabaletakoak ziran, aitatu ditugun gizon oiezaz gañera, Kataliñ, José Ramonen emastea, etsekoandre on gazte leiala, ta bere semetso Manuel, bederatzi urteko mutill soster polita. Orren urrengo izan zituen aurtsoak tsarranpiñak eramane zizkaten zerura.

Ta guazen oraiñ Ana Josepagana. Berebizikoa, nion, ibiltzen zala lan andi eguncetan. Goizeko irurak baño len asten zan deadarka, otoizka ta aginduka, gauza bat bestearen gañean esaten ta egiten zuala, aora edo burura zetorkion bezela. Jakiña zan asierea:

—*Gurutze santuaren señaleagatik, gure etsaietatik...*—Insió, jaiki ari, eguna

(1) Tralluz.

dek eta—*libra gaitzatzu gure Jauna ta Jaungoikoa.*—Kataliñ, piztu zan sua, tserrienzat zerbait gerta dezagun. Ta ez aztu ukulluko tšarkarta ekartzea.—*Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena...*—José Ramón, abereai botaiek zerbait, gero eztek astirik izango ta... *betor gugana zure erreinoa...* ¿Auspoan billa alabill? Ara non daukan, emakumea...—Ta orrela beti, itz, arren ta zereginiñetan beñere aspertu gabe. Irurogetasei urte bazeuzkan ta etzuten sorroctara eramaten, baña bazuan zeri eckiñ etse barruan. Berak egiten zituan oiak, berak tšukundu etsea, berak beiak jetsi, berak gosaria gertatu. Ana Joseparen ustez, arrek bezelako baratzuri-zuku gozorik egiteko emakumerik etzan oraindik sortu. Ezta sortuko ere. Ta orca berak bezela ¿nork egiñ? ¿Taloak zeñek erre? ¿Esnetarako artoa, me me, zeñek ebaki? Eziñ zuan arrek, zion, onelako edo alakoren etsean ezertso-re jan: *estopaua* tipulaz betea, urdai azpikoa erreigia, arrautzopilla koipe geiegirekiñ, naskatzeko bezela, billatu oizuan. Etzekiten da. Jaio egiñ bear orretarako ere.

Baña biotz ederraren jabca zan gurc

etsekoandre zarra, garbia, beartsuentzat oso emankorra, etsekoentzat eutsia, batzuetan eutsiegia. Ala zioten beintzat Zabale-tako aita semeak, eta aiek bazekiten.

—Jolas andiak izaten dira gurcan—esan oizuan José Ramonek—zerbait erosi bear degunean. Amak gordetzen du katu-larrua, ta ezin izaten zaio askatu erazi.

Beti aigera:

—Ama, dirua bear degu ba oraiñ ere.

—¿Dirua? ¿Beti dirua? ¿Zertako?

—¿Manueltsori praka batzuk eta abar-ketak erosteko.

—Ama Kataliñek egingo dizka prakak eure batzuekiñ.

—¿Jai egunetarako ere bai?

—Baita. Ondo ederrak dauzkak jantzi naiezta ganbarako aga zarrean.

—¿Ederrak, ama, atze ta aurre arabakiz beteak daudeta?

—Ezta ajola.

—¿Ta abarketak?

—Eztauzka oraindik aiñ zarrak.

—¿Zarrak eztauzkala? Ator Manuel, begiratu beio, ama, ara nola biatzak agiri dituan.

—Josiko dizkat biarko.

—¿Biatzak?

—Ara beste... argi-iturri.

—Tsapelare beardu.

—¿Zer? ¿Tsapela? ¡Aita ta semea...!
¿Noiz erosi nion nik azkenengoa?

—Orain bi urte.

—Orain bi urte ¿ta oster a tsapel berria?
Ondatuko zenduteke zuek *Drotsillen* abe-
rastasunare.

—Ez berorren eskuetan balego.

Azkenerako, Manueltsok berak esaten
zion, negar musinga:

—Erosi beit, amona. Zazpikiñeko muti-
llak berri berria dauka, ta nik zar zarra.
¿Erosiko aldit?

—Ez, ez, eztiat erosiko: alperrik abill.

Baña erosten zion bai. ¡Ez erosi bear,
alajaña, bere illoba bakarrari!

Ta ¿nork esango zukean, etsekoentzat
onclakoa izanda, agertzen ziran beartsu
guztai ematen ziena baño geiago eman nai-
an zebilela beti? Bazekiten ondo inguru-
etako eskaleak. ¡Amaika eskalari eskupe-
koa emanda gaiñera bete zien urdalla Ana
Josepak Zabaletako sukaldean, ta baita lo
ederra eragiñ ere aldemeneko guk esagu-
tzen degun sapai artan!

Bazezakean. Etsejauntzako semea zan
Joanes. Berea zuan baserria, bereak lurrak,

berea basoa. Lan gogorrean bizi izanagatik, artara oitua ta berez gogotsua zalako, etzeukan ogi gabe gelditzeko bildurrik. Pedro Antonek esaten zuanez, Andre Ana Josepak bazeukan urre mordoškaren bat norbaiti emanda ere, edo non edo non ondo gordeta.

Pedro Anton etseko morroi zar maitea zuten, etseko seme bezela. Etzan esagun Zabaletan zein zan seme ta zein morroi. Mai baten jaten zuten guztiak, guztiak berdin lo egin, danak egun osoan lanean jardun, danak berdin samarrean jantzi ta bear zan orduan alkarri lagundu. Etse artan zarranak ziran nagusi, ta beste danak anai-arreba kristau paketsu ta zorionekoak.

Gurutzearen itzalpean zegoan Zabaleta baserria. An zeukaten gurutzea, sarrerako ate gañean, egiazko anaitasuna erakusten. Eztegu nai ukatu an ere bazirala argaltasun ta griña batzuek. ¿Non ez? Baña Jaunaren legea zan Zabaletako argaltasunen sendatzaile ta griña gaiztoen lokarri, euskal basetse geienetan bezela.

¡A! ¿Zer izango litzateke gure baserrietan Jaunaren legeko ezi biguna urratuko balitz?

III.

BAKOITZA BERE ALDETIK

Iritzi bat gure buruan ernetzen bada, berealaŕe biraltzen ditu sustraiak biotzeraño, lurrean landareak baño askozaz errezago ta sakonago, ta eziñ izaten da, gero, dagoan tokitik atera. Lur ona billatzen du gure animan norbere iritziak.

Zabaletako gure mutill sendoai uste bat sortu ta erne zitzaien: bakoitza beregaiñ jartzea, ta uste ori ernetzen asi zan ezkerre etzeuden ondo beren jaiotetŕean.

Bazekiten: andiak ziran baserri artan utzi bear zituzten lanak, baño billatuko zuten gurasoak nork lan egiña; eltze betea zeukaten bertako sukaldean, baño beste baserrietan ere zerbait jango zan, eta, bear bada, eltze gozoagoa, Ana Josepak uste izan ezarren. Beti izan oida gozoagoa auzoko janaria.

Gañera berriz eztu janak bakarrik ase-

tzen gizona. Bakoitzak bere gose ta egarriak ditu biotzean: ongi baizen obeto izateko asmoa, lokarri gabe bizitzeko gogoia, maitetasun berriak billatu naia ta beste ainbat.

“Andia da lurbira—gogoratzen zitzaion Juan Andresi:—Euskalerritik ostean zer ikusi asko dira ta irabazbide onak ere bai naikoa, norbera zerbait azkarra ta langillea izan ezkeru. ¿Zergatik, bada, nik irabazi bear eztet, al badet? ¿Dirua irabaztea ta gordetzea baño gauza oberik bai aldago?”

Iñazio Marik berriz, berekiko: “Ezingo naiz mutill zar gelditu—esan oizuan.—Nere eltzeari bakarrik su eman bear diot, nere lapikoan sartu bear det neuk irabazitako urdai zatia, ta lukainka muturra ere bai, nai detanean. Ni mutill zar gelditzea, janariz betetako mai baten aurrean etsekojauna goseak egotea litzake, edo erriko agintaria jarleku gabe gelditzea, udaletsean. Eztago iñor, erri onetan, ezkontzeko nik aña aukera daukan gizasemerik.”

Ta egia zion arrosko arrek. Soraluzeko neskatsak, Askontegi, Arzubi, Goienetse, Balzategi, Eroztegi, Tsope, Urtiaga, Aingeru ta Azkarragakoak, danak nai zuten

berentzat gure mutill au. Ta ez gertukoak bakarrik, baita ere Araoz, Olabarrieta, Urrejola, Zubillaga, Garibai, Zañartu ta beste auzotegietakoak, bada alderdi guztietan zekiten Zabaletako Iñazio Mari mutill eder, ospetsu ta etse onekoa zana. ¡Amaita neska gaztek begiratu zion samurkiro, iñoizko aizkora jokoan, enparantzako buru ta agintari tseratua bezela ikusi zutencan!

Baño etzekian mutill orrek ainbesteren artean beretzat nor aukeratu. Zalla da aukera dagoancan aukeratzea. ¿Zeiñ izango zan neskatzarik onena? Onena, onena... Ezta erraz jakiten. Ezkongei daudenean, emakume guztiak onak; ezkondata gero jerdiak balira! Ezkondu artean, neskatza danak gordeta idukitzen omen dituzte beren gogo, griña, utsune ta orañak, bear eztan orduetan agertzeko. Ta orduan ordukoak. Baña estali gabe idukita ere, giza-seme gazteak eztakite neska ezkongeiaren tsaldankeri, zeta gaizto ta alderdi tsarrik esagutzen ta, begiak zabalik erabilliarren, itsu itsuan ezkontzen dira geientsuak. ¿Nola ez? Batzut emakumien edertasunari begira itsutzen dira; beste batzuk, esan dezagun obeto, beste askok, neskatzen di-

ru zorroari begiratzten diote; gutschik buru ta biotzari. Ta ille arroen azpian zentzun gabeko tšepetsburu asko izan oida, ta jantzi apañaren barruan bada-ezpadako biotz aldakor tšakillak ugari.

“¡Ba, ba!—esaten zuan Iñazio Marik orrelako gauzak gogoratzean.—Neuk iñorekiñ adiskidetasun berorik eztaukatan ezkerro, amak neurtuko ditu neskatša esagunen menduak (1), amaren begi biziak ikusiko dute garbiro zeññ dan bere semcarentzat emastegairik egokiena.”

Orretan zebillen Ana Josepa semcak uste zuan baño lenagotik eta berak aukeratu zuan azkenean ere onek bear zuan emakumea.

Jai egun baten Zabaletako etsekoandrea ta Azkarragako Mari Batista jastetsean bat eginda, onela izketatu ziran andre biak:

—Zure alabarekiñ etorri naiz bidean... Ondo neska ederra dago bera.

—¿Gure Mikalla? Bai oriše. Aren garraian gu ere bagiñan zerbait baña...

—¿Zenbat urte dauzka?

—Datorren illbeltzean ogeta iru.

(1) Mendu, carácter, prenda, gaetelarrez.

—Ona dirudi.

—Oso da ona, etsekoia ta maratza. Ez neurea dalako, baña eztago bera bezelako beste bat Uribarrin.

—¿Zer ezkontsari emango ziñokc?

—¡Ja jail Oriše da galdera polita, Ana Josepa.

—Ia ba, nik ere czkongaiak dauzkat eta...

—Bai, bai, guraso geran aldetik gure umien onari begiratu bear diogu, ta... Baña gurcan eztago zuenean beste diru. Mutill on baten bearra bai: aurten ere ler egin degu garia jotzen ta iñaurkiñak ekartzen. Bai ba, zartu egin gera ta. Gure Antonek ere, onezkero, irurogeta bostenbat urte izango ditu, senar emasteak eta alabatso bi bakarrik gaude, ta lanak dira emen.

—Orduan elitzake gaizki etorriko zuentzat gure Iñazio Mari.

—Ez oriše, ez Ana Josepa; ta biok uler-tuko (1) bagiña...

—Uler gaitezzen. *Tira*, ¿zenbat emango diozute zuen alabari?

—Baña gure etserako.

—Bai ba, zuenerako. ¿Zenbat?

(1) Konponduko esan zuala uste det.

—Eztakit ba nik ba. Bosteun dukat edo.

—¿Zer diozu, emakumea? ¿Bosteun dukat Azkarragako alaba zarrenari? Ikatzagakoak ere badu orrenbeste, maizterrak dirala gero.

—Ia ba, besteak ere, ezkontzen danean, zerbait izan bearke du ta. ¿Zeuek zenbat emango diozute mutillari?

—Guk zortzireun dukat eta bi etse-bizitza (1).

—Ezkabiltz ondo, Ana Josepa. Zabale-tako mutillak *nai lituke*, gutsienaz, milla dukat eta berak ikazkintzan irabazitakoak, bi etse *bizitza*, bi bei, ogei bat ardi, gurdi bat...

—Ezin ulertu geinkez, Mari Batista.

—¿Ezaldezu nai?

—Nai izatearekiñ ¿zer daukagu? Milla dukat eta eztakit zenbat ondasun gañera eman bear guk ¿eta zuek bosteuntso? Izango du Iñazio Marik milla dukatekoa, berak zortzireun eramanda ere.

—Eztaba zuentzat gauza andia milla dukat... Ara, zuek milla ta guk zazpircun. Gero ere, zuen mutill ori Azkarragara ba-

(1) Bi arrio.

dator, etsean geldituko dira gure *puskak*.
Eztago geiago zer esanik.

—¿Zer esanik ez, ostera? Bai, Mari Batista, bai. Au ezta asiera baño besterik. *Eskibrauak* gure paperak eguin orduko zer esan andiak emango dizkigu gaur asi degun autuak. Gañera gure Joanesek ondo jakiñ, ondo ikusi ta ondo neurtu nai izaten ditu seme-alaben gora-berako gauzak. Ni naiz Zabaletako etsekoandre, baña nere senarra beti etseko jaun, ta berari dagokio Zabaletako gauza guztiak erabakitzea.

—Ba, Joanesek, zenzunezko gizona da ta, milla dukat emango dizka semeari.

—¿Berriz ere? Gogoan artu dezu zeure eskabidea; baña alperrik zabiltz nerea astutzen bazaitzu.

—Guk aldegun aña, aldegun guzia emango diogu, orra.

—Eztago gaizki esana. ¿Zer Meza entzungo dezu datorren igandean?

—Zortziretakoa nik.

—Emen izango naiz ba, ni ere, Jaungoikoak nai badu, ta agur iganderarte.

—Agur.

Andretso biak gogamen batekiñ alden-

du ziran: egun artan asi zuten leloari nola bukaera on bat emango zioten.

“Ezta gaitz izango—esaten zuan beretzat Mari Batistak.—Ana Josepak nai du, igarri diot, eta orrek nai duana egingo da Zabaletan. Baño askatu bearke du ziskua, bai, Jaungoikoak laguntzen badit. Urre gorritan ekarri bearke ditu mutillak ezkontza diruak, *oiek* urre borobill asko omen dauzketa. ¿Noizko dituzte ontzako zarrak? Esandako gauzen gañera, nai litzake beste zertsobait.

Atsur batzuen bearrean gaude, ondo etorriko litzaizkigu lai berriak... Ikusikodet etsean zeren premia daukagun... Urbiako zelai zatitso bat emango baliguteke... Eskatu beintzat lenbizi, ta gero, ezin bada, gogorrean badaude, utziko zaio. ¡Jaungoiko maitea! Sitsak jandako abe ustelak gunden Azkarraga jaso eziñik, baña abe zindo berria datorkigu etseca erori eztediñ.

Iñazio Mari, zeruak zakarrez, geurea zera, eztirazu igesik egingo.”

“Urteak ere aurrera dijoazkio ta—zion bere artean Ana Josepak, Zabaletarontz zijoala—nonbaiten sartu bear nuan nere semea. Etse ona ta andre ohea izango di-

tuala deritzot. Aspaldietan neukan nik begiz jota Azkarragako neskatza zarrena; ez tet beraganakoa gaur goizeko amesa. Ta jnola erantzun dit Mari Batistak! Bigunago zegoan sasiko masustarik elduena baño. ¡Ba! Inazio Mari bezelako mutillik ezta soro basterrean billatzen. Joko zalca ezpaltz... Arantzazuko Amari *Salbe* bat, jokorako grina kendu daion: *Jaungoikoak salba zaitzala Erregina, erruki biziaren Ama, gure bizitza, gozotasun ta itsaropena...* Damu det zerbait geiago eskatu eza, baño ezta oraindik berandu... *Zuri deiez gaude Ebaren ume erbestetuok...* Eta ondo garbi ipini bearko da paperean beste alabari zer agintzen dion, biar edo etzi nasterik izan eztaigun... *Zuganako zuzpirioz ta negarrez gaude...*

Bi ama oiek buruauste gogorrean jardun zuten egun aietan. Batak eta besteak, alderdi guztietako aztarnak ondo artuta, jakiñ zuten norañokoa zan auzokoen ondasuna ta estaldu zuten norberea oso amarruki; biak, gonadun Meternik batzuek bezela, egiñ zituzten egiñalak gaitasunik andienarekiñ, alkar zuritzen ta zilibokatzen; biak galanki eskatu ta labur eskeñi zuten,

bakoitzak bereari gogor eutsiaz; biak ibilli ziran jatorduan ta lotorduan, egunez ta gabaz, esna ta amesetan, isiltzake, beti gauza bati eragiñaz: onenbeste *koltsoi*, orrenbeste maindira, orko beia, ango mosala, goiko zelaia, beko iñaurkina; eziñeike, badezakezu, eztaukagula, badezutela, eztanean ezta, nai danean alda; nondik baña, zenbat bada, geuk zer jango, nola biziko, besteai zer emango; aserre ta adiskide, azkor ta makal, ezetz ta baietz, atzera ta aurrera, gora ta bera; baño, azkencan ere, beiñ edo beiñ, Joanes ta Antonek alkar arturik erabaki ta korapillatu zan Mikalla ta Iñazio Mariren ezkontza.

Gurasoak lanbide ori zerabilen bitartean, gure gazteak ia etzuten alkar ikusi. Geienez ere, ustegabe iñon topoz-topo egiñ bazuten, bata bestearentzat egokiak zirala irudituaz ta zerbaiten berri bazekite-la aditzen emateko, parra-irri gozoz agurtu ziran, edo itz lotsati erdikaren batzuk esan zizkon mutillak neskatsari.

Onelako gertaerak ikustean, esan dezake norbaitek eztala ondo seme-alaben ezkontzak gurasoen artean egitea, aien berri gabe askotan. Izan leike: neuk ere esan

det lenago beste nunbaiten, guraso batzuek, berekorregiak eta diruzalegiak diranean, erraz dala zorigaiztoko elkartek egitea; baño aitortu bear det gaur, egiaren alde, badakitela gurasoak, onelako zeregiñetan, etsea jasotzen, ez bakarrik seme alaben kalte gabe, baita ere aien zorionari begiratuaz; sarri ikusten dutela ezkongai nolakoa dan gazteak baño askozaz obeto, ta eztirala beti tsarrenak izaten gurasoak korapillatu dituzten ezkontzak.

Eta, dana dala, Iñazio Mari ta Mikalla ezkondu ziran beintzat eta ezkonduak gelditu ziran betiko.

Jorraill ederreko asteazken baten, goizeko amaikak aldean, Zabalctatik Azkarragara dagoan gurdi bidetik bera zijoazen, baso-tuntuna aurretik zutela, neskamutill pill batzuek, oso apaiñ, tsit alai, guziz urduri, egundokorik tsoroen, deadar lekaio parregarriak egiñaz ta *dantzán* ezin asper turik. Apur bat atzerago zeramazkiten gizon soñekoz, oe-jantziz ta etse ta lanerako tresnaz ongi zamatutako gurditso bi, irrintzi bezelako, negar itsurako edo kurriskaren antzeko soñu luze, ezti edo latz, atsegiñ edo mingarrian, beti ere *juiiim jim*

jim... juim jim jim... grrast grrast ardatzari eragiñaz. Soñu ori, baserritarrentzat, ezti leun ta atsegingarria izan oida, ta erritarrentzat, asunarekiñ lepoan ikutzea bezela.

Egun alaia zan. Zerua, batere odei gabe, osoro urdiñ zegoan; mendi gallurrak, elur-estalki ta laño-tsapelak kendurik, garbi garbiro agiri ziran, ardi zuri otzanez orni-tuak; zelaiak, ezko, naro ta loretsu zeuden; zuaitz batzuek ostoa berri makalez jantziak, eta beste batzuk, jantzi naian, lertu-bearreko orri-buru berdez beteak; baratzetako baba landarak, elorriaren loreak eta sasi-tako arrosak usai on bigun biguna zabaltzen zuten; gari zall ederrak, aizetso-arekiñ jolascan bezela, zabunean zebiltzan, beren buruakiñ alkarri muñ egiñaz; tscnara pizkor eguski-zaleak, zeru aldean, iñoiz baño gorago ta azkarrago, tsirrio tsirrioka; tscoriandra egotsabalak, belardietan janari billa, noizean beñ buruak jasoaz, ernai zaudela adierazi nairik; tariñ, kardantsulo, tsirriskillo ta berderoiak, bata bestearen atzetik jira-bira bizibizian, iñon ere gelditu ezinda; lenbiziko tscimeletak, bada-ezpadako ibillera laburretan, egaka ikasten,

sasitik zelaira ta zelaitik zuaitzera, nagi nagi ta motel motel; ta erle pitiñ langilleak, lantegi billa edo lore gozuen kolkoan sartuta, bakartadean, isillik eta arlotsu, beren arazoari ezergatik utzi nai ezta.

Tuntuna ta gurdien soñua aditzean, sorolanetan zeuden auzoetako nekazariak, gizon ta emakume, beren besoak atsur kertenaren gañean toleztatuta, eztaietakoai begira gelditu ziran danak, urruti aldetik; batzuk zer gizadi zijoan ikusi naian, beste norbaitzuk, batez ere neskatšak, ondamuz, eztaietakoakgatik zerbait esateko gogo andiarekiñ.

Sorotik sorora asi zuten izketartea, deardarka:

—¡Jas! ¡Ori gizadiz dijoa!

—Larogei baño geiago omendira bazkaitan.

—¡Eztaramate izkanbilla makala! ¡Oiek parre algarak!

—¿Zein da, an aurrean, besoak zabalik eta bira-biraka, goru-ardatzaren irudira dabillan ura?

—¿Zein izango da? Peru Odolki.

—¡Ai, alper, trakets, ardozalea! Billatuko du bai orrek ardoa ta jolasa non dagoan.

—Bai, bai: orregatik ere esan dezakegu lenagokoagatik ziotena:

“Ankak ariñak eta
Burua ariñago,
Dantzan obeto daki
Artajorran baño.”

—Iso, iso. ¿Ikusten aldezute *arrioa*, bi gurditan?

—¡Ufa! ¡Zenbat gauza eder! Daukanak agertzen du bear danean.

—Miñ artuko zuan ba Zabaleko atso zimurrak, baña eman egiñ bear Azkarra-gara semea sartuko bazan.

—Eztu ez Ana Josepak toki tsarrera bota begia. Mikalla bezelakoak gutsi.

Talo itsurako arpegi zabal borobill ta matralla gizen gorridun atsur neska batek:

—Mikallak dirua ugari, dirua. Dirua kendu ezkerro, ura besteko neskatšak bada.

Aldameneko agure zar alargun batek, parrez ta isill antzean:

—Zeu bat, ¿ezta Luisa? Zeu bat. Nai-gabetan zaude, gaišori, eztaietara deitu ez-tizutelako; baña zu ta ni ezkontzen gera-nean, geuk ere eztiugu deituko.

Urreko atso guztiak.

—¡Ja jaiiii! ¡Orisen da *unoria!*

Urrutiagokoak, aoa zabalik:

—¿Zer dio Pedrok, zer dio?

—Luisarekiñ ezkontzen danean, eztiotela Azkarragakoai eztaictara deituko.

—¡Ijijiji! Baña guri bai, Pedro, guri bai.

Luisak, aserre, suak arturik eta sokorra joaz:

—Jolaserako gogoan bizarra daukazute.

Pedrok:

—¿Ez aldeitzazu ondo?

—Luisak:

—Ezkon zaite Anbotoko zorgiñarekiñ, nai badezu.

Eztaictakoen oiu ta santzoak mendi-oiarzun guztiak esnatu ta inguruko gizadien biotzak pizkortzen dakite; egun eder argiak, gozari onak, lanik-esak eta tuntunaren soñuak indar andia dute gogamen nairgabetsuak kendu ta ankarik astunenak astintzeko; baño, ala ere, etzijoan gure Joanes oso pozik bere semearen eztaietara. ¿Zer ote zuan? Aditu dezagun Iñazio Marikiñ zeraman jarduna.

“Atzo artean eztet nik ezer jakiñ Juan Andresen aotik. ¡Garai onean oroitu zaio

bideak egitera joatea, garai onean, zuk etsetik erten bear dezun egunetan! Emen urrera izan balitz ere, baño ñora ta Gastelerrira! *Atzerri otsoerri* esan oida, ta ala gertatzen da geienetan, bada erbeste-koari etzaio iñon ere aiñ ondo begiratzen, esagutu artean beiñik-beiñ. Nik badakit *beltz guztiak extirala ikatzak eta zuri guztiak iriñak ere ez*, nik badakit Gastelerrian ere gizadi onak badirala, gure artean gaiztoeren batzuk diraden bezela; baño eziñ asmatu neike zeintzuekiñ batuko dan gure Juan Andres. Nola nai ere Burgos aldean eztu euskerarik billatuko beintzat, eta euskerari utzitzen badio, euskalduntasuna ere or nunbait ibilliko da euskerarekiñ batean. Gordeko aldu gure euskera maitea bere biotzaren erdian, *Aita gurea* esateko bada ere. ¡Ezaldu galduko etsetik daraman garo usaia! ¡Ona izango alda dabillen tokian!“

“Baita zu ere, ona izango altzera, seme. Adi zazu zure aitaren esana nere mendetik zoazkitan orduan. Gaurtik aurrera lan berriak izango dituzu ta oraiñ artean baño lan andiagoak, baña ez ikaratu. Bildur bat

bakarra izan bear du gizonak: Jaungoikoarena. It̄saropen bat: Jaungoikoagan.“

“Zarrak eta nekatuak billatuko dituzu Azkarragako nagusi-et̄sekoandreak. Begiratu zaiezute guraso bezela, gorde zaiezute ille zuriai zor zaieten bigirunea. *Goiz guztiak dute beren arratsaldea*. Zartuko zera zu ere, bizi bazera, ta egintzazu oraiñ gaurko zarrakiñ zure buruari ordurako opa diozuna.“

“Izan zaite et̄searen zaintzalle, argalen indargarri, emastearen lagun zintzo. Emaste ona artu dezu, baño ez uste izan akatz gabekoa dala. Danok dauzkagu geureak eta orrek ere bereak izango ditu; baño dana leuntzen du maitetasunak... Naita naitzkoa da gurutzea jasotzea. Naigaberen bat, ezbearren bat datorkizunean, artu zazu pat̄sadan, alperrikako aserre gabe. Aserrearekiñ gauza on gut̄si egin oida, pat̄sadorekiñ bear dan guztia bear bezela.“

“Jaungoikoak seme-alabarik ematen badizu, asi zazuz bere maitetasunean edo egintzazu orretarako alegiña. Gero, beren erruz okertzen badira, zuk eztezu zer erantzunik izango.“

¿Entzun ote zuan Iñazio Marik aitaren

jarduna? Entzun bai, entzun bakarrik, zotionaren atarian gazte zoroak gizon argi naigabetsuaren illeta illun gogaikarria entzun lezakean irudira...

Azkarragara gure aita-semeak iritši zira-neko, an zeuden beste bazkaltar guztiak etše aurreko larrañean, oidan bezela, jolasak utzita, Iñazio Mariñ etše-bizitzea ikusten. Jostuna ta Ana Josepa ziran erakusle. Biak zeuden arazoaz gorri gorri eginda, baño Ana Josepa batez ere, buruko zapiaren azpitik, belarrondotik zear, ille motz zuri batzuek ertetzen ziotela. Eztakit nik etšeke andre au zerk zeukan aiñ ki-riotsu ta urduria: edo Juan Andresi laster agur egiñ bearrak edo lagun, aide ta auzoko askoren aurrean Zabaletakoen esku zabal, emankor, ioritsua erakutzi naiak. Nik ziur dakitana da naiago zukeala Ana Josepak Gipuzkoako andre danak Azkarragako larrañean egon baziran orduantše. Bai, ipuiak esaten ziran beragatik, baña ondo egingo zituan arrek bere gauzak. Ikusi zezatela.—“Ara emen (1)—zion—bi banasta, berri berriak, lanerako... Ara laiak, iru

(1) Orrelašen erakusten dira ezkon berrien etše-bizitzak Goierrri aldeko baserrietan.

itai, lau atšur ta basorako bi aizkora. Era-
billiak daude, baña onak dira: lengo as-
tean zorroztu ditu Manuel Motzak... Ara
bi lo-mai José Martiñi erosiak... Ara sei
esertoki. Bitoriatik ekarri ditugu, ta ez
merke merke... Jetši zadazute kutša ori
gurditik... ¿Astuna dagola? Bai ba, bete
betea dakarguta. Begira zer datorren ba-
rruan. Bat, bi, iru, lau: lau galtza urdiñ
astegunetan jasteko. Beste lau jaka, oiei
dagokizkoenak. Beste bi galtza ta bi amilla
(1) neuk irutako eunez egiñak, soro ta
basorako. Azokan erosten diranak baño
geiago iraungo dute oiek, bai... Beste bi
galtza ta bi amilla, oial lodizkoak, jai egu-
netarako; ta gaur jantzita dauzkanak gañe-
ra... Ara elizkizunetarako soiñ-gaiñ luzea,
kapa: ezta gaurkoa, neure aitarena zan,
baño eztiio sitsak ikutu oraindik... Bat, bi,
iru... ogetalau sudur-zapi, berri berriak.
Amabi alkondara, urdiñ ta gorri, algadoiz-
koak. Artillezko kalzerdiak amar *pare* (2),
aitaren eskuetatik erten duen egintzarik
onenak. Beste sei *pare*, ille bigunagoz

(1) Jaka.

(2) Biko. *Pare* esaten zuan beti Ana Josepak eta *pare*
ipiñi bearko degu.

errañak antolatuak. Bost *pare* abarka, lau lanerako ta bat jaietarako. Bost *pare* abarketa. *Zapatak pare* bat, eta soñekoak gañera.“

Billerako geienak erdian artuta zeukaten Zabaletako etsekoandrea. Emakumeak, jantziai ikutuka, nolakoak ziran ta nola josiak zeuden begira zebiltzen; gizionezkoak, beren beatz lodiak aizkora-itaien aoetan erabilliaz, atšurrez zelaia joaz edo laiakaz lurra jasotzeko itšurak egiñaz. Mikalla, etšera sartu zan, zerbait aldatzera; an barruan zebillen Mari Batista ere, beste emakume batzuekiñ, maiak jasten, noizean beñ larrañekoai begiratzea utzi gabe; Iñazio Mari, Antonekiñ batean, beiai jana ematen zegoan, ukulloan; Joanes, ate ondoko jarlekuan ešcrita, pipa erreaz, naigabetsu, antziñetako gauzak gogoratzen; Joan Andres, Azkarragako leio nagusitik etorkizunari gozoro begira.

Ana Josepak, joandako edo etor-bearreko gauzak gogoan zituan eztakit, baña ajoia andia zerabillen eskuarteko zeregiñean.

—“Ekarri oraiñ beste gurdi ortakoak— agintzen zuan.—Ara emen sei oe-bigunga-

rri (1), ondo beteak; sei buruazpiko (2), sei berogarri (3), bi berriak eta lau zarrak, danetara bearda ta... Araza-kutša orretan datoz gauza zuriak. Bat, bi, iru... ogetalau maindira, eun lodizkoak; ogetalau burko-zorro (4), danak berdiñak; amabi alkon-dara, kirruskoak; sei oestalki, zuri, me;ta garbiak; zamau (5) andi bat sei tšikirekiñ, ta sei legorki, batere erabilli gabeak... Atoz onera, Mari Batista, etšeko lanak nork egiña badaukazuta. Begira zazu: auek dira paperean ipiñita daudenak. Auek eta zor-tzireun dukat urretan eta gurdi bat bei bi-rekin. Naikoa dala uste det baserritar ba-tentzat. Baño beste oparitšo batzuek ere badakarzkigu: nere senarrak orrako eliz-oiala, *manteliña*, amarauna baño meiagoa; Jose Ramonek urbedeinkatu-ontzia, ain-geru ta guzti; Kataliñek sei *pare* kaltzerdi, arizkoak; Juan Andresek pertz oria, esnea egosteko; Pedro Antonek Aranzazuko Amaren irudia, eta nik gorua ta gorutša-pela, zillarrezko ariz *Santanako mojak* apaiñdua. Gorutšapel au baño politagorik eztezute ikusi.

(1) Koltsoi, gaztelarren izkeran.

(2) Buruazpiko, burko. *Almohada*.

(3) *Mantas*. (4) *Fundas*. (5) *Mantel ó servilleta*.

Azkenez, "oraiñ dirua eman da kito"—
 esanaz—sartu zuan bularrean eskua, atera
 zuan sudur-zapi urdiñ zimur bat, pelota
 bezala biribildua, askatu zizkon korapillo-
 ak, jarri zuan kutşa gañean, eta agertu zi-
 ran urre gorri zarrak: ogei ontzako, amar
 eun errealeko, bost larogeiko ta berrogei-
 ko bat. Estutu zan gizadizko esia kutşaren
 jiran. Danak ikusi ta ikutu bear zituzten
 urreak. Mari Batistak banan banan eskue-
 tan artu, bat edo bat buruko illean igortzi,
 besteren bat arri gañean jo, iru edo lau
 aldiz zenbatetu ta lengo sudur-zapian be-
 rriz lotu bitartean, etziran aldemenekoak
 išildu:

—Lenago ere naikoa igortzi artuak
 daude.

—Onak dira, bai. Asko bageunzka...

—Ederrak. Gure astoaren arranak baño
 soñu ohea dute.

—¡Zenbat ardo edan leiteke diru oiekin!

Ana Josepak amaitu zuan ainbeste lan
 eman zion arloa, jarri zan Bitoriatik eka-
 rritako eserleku baten, erabilli zituan in-
 guru guztian bere begi nabarrak, atsegi-
 ñez, ¿zer deritzozue? galdetuko balu be-
 zela, ta gero, buruko zapia askatu, bela-
 rrondoko illetsoak beatzakiñ jaso ta lotu

zuan osteraz zapi ori, tšiztanak, belarritšo biren irudira, tente ta lerdan jarriaz.

Orduantše atera zituzten billerakoak ezkonberrientzat zerkarzkiten eskindeak. Onek, urre itšurazko belarritakoak, (itšurazkoak bakarrik, bost errealean etzegoan oberik eta); arek, errirako esku-otarra; besteak, Mezatarako liburua; urrengoak, euri-estalpetšoa; urlia isebak azpirako gona gorria, sandia lengusuk sukalderako auspoa, auzoko lagun batek titare ta jostorratz ontzia...

—Gutši da baña parkatu—zioten eskintzalle danak—eta guztiai parkatu zioten ta baita eskerrak eman ere zekardena zekardelako. Artu, artu, artuak ematen du ogia ta.

Badira emakume batzuek bidean billatzen dituzten tšotš guztiak etšera eramaten dituztenak, naiz ta etšean gurdikada egurak saltzeko euki. Oietakoak ziran Ana Josepa ta Mari Batista. Etšekoandre bi oiek Azkarraga ta Zabaletako ganbaretan gordeta zeuzkaten tresnak nolakoak ziran eziñ siñistu liteke, ikusi gabe: galtza ta abarketa zarrak; atorra ta gona zatiak; kaltzerdi, jipoi (1) ta gorontz erdikak; ondo-

(1) Jipoi = Chaqueta.

rik etzuten tupiñ, pertza ta paelak; mutur, kerten ta belarri gabeko pitšar ta bonbillak; katillu ausiak, burni zatiak, piper potoak... ¿zer ez? Dana bitzen zuten arretaz, dana omen zan zerbaiterako, ta ez omen zan ezertšo ere alperrik galdu bear, ezta ari albañu bat ere.

Baño ez orregatik uste izan, irakurlea, garai danean, eztizutela emango gure base-
rrietan zure gosea asetzeko aña, ta zerbait
geiago. ¡O! Garai danean, eztago iñun eus-
kal-etšekoandrea bezelakorik jan-edana
ugari jartzen, ezeren erruki gabe.

Azkarragako eztaietan Mari Batistak ipi-
ñi zuan janari guztia iñork eztaki zenbate-
raño izan zan: ogiak, anegaka; barbantzoak,
imiñaka; urdai-lukainkak, arroaka; azatan,
baratzatšo bat; ukulluko tšekorrik andiena
oso osorik; arkumetan, artalde polita; ollo-
tan, lau edo bost etšetakoak; esne ta arrau-
tzatan, inguruko guztiak; ardo-sagardotan,
errotarri bat erabiltzeko beste. Gutšik era-
mango dio euskaldunari jaten da edaten,
baña Azkarragako eztaietan danak ziran
euskaldunak eta eziñ geinke jakiñ zeñek
geiago egiñ zuan. Guztiak bete zuten ur-
dalla galanki, guztiak lasaitu zuten larrua

ezin geiagoan, ia estanda eragiñ artean, baño etzan iñor lertu. Ez, etzuten oker andirik izan: gizonen batzuk, iñoiz baño geiago ta adiskidetasun andiagoan itz egin bearra, lenbizi; dantzan egiteko gogoia edo ezkonberrien alde itz neurtuak esan naia, urrengo; toteltasun apur bat gerošcago; zuzen ibilli eziña illunabarrean: neurriak gañez egitea, etšerako bidean; ta lo ederra, azkenez, oia arrapatu zutenak oian, ta Peru Odolkik Goienetše aldeko soro ertzean.

Bazan gizon bat, ala ere, gau artan lo andirik egin etzuana: Joanes. Jankar, nakar ta zurbill igaro zuan egun guztia gizagaišoak; ardoa bakarrik artu zuan, ardo piška bat, bere animako mikaztasuna itotzeagatik; baña etzitzaion ito, azalean zebilkion, igarian bezela, biotzaren erdian atzamarka egiñaz. Oi eder garbia jarri zioten Joanesi Azkarragan bertan, baño ezin zuan ezertarra lorik erakarri: esna zegoan, esna ta larri, bero ta kiškal, beiñgotik beiñgora buru, anka ta besoak aruntz ta onuntz aldatuaz, eta beti ere gogamen bat zetorkion biotzetik aora:

—¡Mutillaren burubidea! ¡Nora ta Burgos aldera!

IV.

LANDARE BERRIAK

Manuelt̃so zan Zabaletako giza-landare berria, ta t̃sit maite zuten et̃se artako denak.

Landare berriari beti begiratzen zaio zarrari bañõ pozago ta arreta geiagorekiñ. Zarrak zer eman duan jakiten da, bañõ ez gazteak zer eman dezakean. Zarra gogorra izan oida, sustraitsua, edertasun gabea, bere oiturari eutsia, t̃sertatzen gaiztoa. Gaztea berriz ezea, polita, biguna, guria, t̃serterraza. Zarra, iñausitzen danean, zapuztu egiten da, gazteak indar berria artzen du. Zarrak beti dauka zer erantzun, gazteak beti zer ikasi. Gaztetan egin bear da lan, zartzan gauza onik izatea nai badegu.

Orregatik zaintzen zuten aiñ ondo Manuelt̃so bere gurasoak eta bere aitonak. Argia zan mutilla: oso poliki zekian irakurtzen, bere izena paperean jartzen zuan, edozeiñ bañõ geiago zan kristau dotrina

buruz esaten, ta orrela zekizkian beste gauza on batzuek. Neguko gau luzietan, *errosarioa* esan ta laster *Testamentu zarrereko eta berriko Kondaira* eskuetan arzen zuanean, aoa zabalik eta lerdea zeriotela egoten ziran danak, baño Ana Josepa ta Joanes beste guztiak baño geiago.

—Eztek makala—esan oizuan amonak— orrelako liburu andia parra-parra irakurtzeko.

Eta *Jose Ramonek*.—Irakasleari eskerak, badaiki zerbait Manueltsok. Arrek egingo digu gizon gure mutilla.

Aitonak.—Arrek eta guk, lagun gaiztoak okertzen ezpadigute. Irakasleak eta gurasoak aña edo geiago eta beti errezago erakutzi oidute lagunak, eta oien bildur bear.

Jose Ramonek.—Bai erri andietan; ¿baña emen? Emen, aita, Manuelen lagun guztiak baserrietako umeak dira, mendi mutillak, ogi bedeinkatua bezelakoak.

Aitonak.—¡Ai danak balira, Jose Ramon, ai balira!

Beste giza-landare bat erakarri zuten Zabaletara Iñazio Mari ta Juan Andres etsetik joan ziranean: Iturraldeko Joše,

adiskide batzuen seme umezurtza, begi urdiñ gozodun mutill koskor polita, beiak zaintzeko, itaurrean ibiltzeko edo erri ta mendira osterak egiteko morroitso egokia.

Manueltsoarekiñ ikastetsean ibillia zan, oso bere lagun artua, Jaungoikoaren bildurrean ondo asia, masal ta pizkorra, ta umetsoa izanarren, garai batzuctan gizon batek aña on egiten zuan.

Pedro Anton morroi zarraren irudira etsekotzat zeukaten. Manueli tñaloak jotzen zitzaizkonean tñaloak izaten zituan Jošek ere, beti esaten zan biak zekitela berdiñ samar, biak zirala azkor ta ikastun, ta bientzat izan oiziran geienbat, Joanesek, sukaldeko iñillu gañean jarrita, zintzoro agertzen zituan erakutsaldi ederrak.

Etzuan arrek gastetsoai zerbait adierazteko mugaldirik beñere galtzen. Ara nik gau batean, Manueltso lapur-ipui bat eskatu zualako, artzai zarrari entzun nion jarduna:

“Eztago gaur ipuirik. Egia zor dizuet, nere umeak, eta egi samiña aitortzera nua, naigabez bada ere. Badakizute: mendizalea naiz ni, beste mendizalerik iñor baldiñ bada. Askotan esan det be-aldietan dirala

arriskurik andienak, eta orretan nago; baña goian bertan ere zerbaitzuk badira, ezin ukatu. Eztago iñon griña gabeko gizonik eta arantza gabeko lurrik. Emen ere sagarrik onenak izan oidute arjoa, lorien ondoan sortzen dira asun lakatzak, arkumeak dabiltzan tokian igarotzen dira otsoak eta ašeriak.“

“Au ezta gure egunetako gaitza, ez; antziñetakoa da; baño antziñetako gaiztake-riak alde batera utzirik, neuk nere begiak iñ ikusitako gertaera bat agertuko dizuet. Adi zadazute.“

Joanes gauza jakingarriren bat esatera zijoala ulertu zutenean, etšeko danak, eta mutikoak eztago zer esanik, oso urduri ta jorantsu, artu zituzten beren aulkiak eta inguratu zuten gure aitona, bere aotik zertortzkion itz guztiak tšit arretaz entzun ta gorde naian.

“Ni gastetšoa mintzala—jarraitu zuan Joanesek—esagutu nituan umekondo trakets bi, Manuel tšo ta Jošeren idekoak gutši gorra bera. Ašeri ta Otsoko esaten zioten. Etzan Ašeri Idiazabalgoa, Otsoko etzan Ataungo basoetan jai; baño jai! biak ziran euskaldunak, biak menditarrak. Ašeri, az-

kar, argi, bizi, asmutsu ta erkiñ samarra zan; Otsoko, lodi, lotu, baldar, narras, bizartsua. Ašerik asmatzen zituan egundaño-ko gaiztakeriak, eta Otsokok adiskidearen asmo danak beti ontzat eman eta guztietan pozik eta biotzez lagundu; arrek lapurtu inguruetan lenbizi asten ziran keriza, piko, sagar, udare, aran ta matzak; onek lagunari orman gora bultza, ta baratz barruan edo zugaitz gañean zebillen bitartean auzoetako bideak zaintu. Oso maiz egiñ oizuten ezbearren bat: gaur, nunbaiteko erleai ezitia kendu; biar, astoren bati buztana ebaki; beiñ eskale arrotsari arrika eman; urrengoan garometaren bat erre. Etengabe zegoan mutill aiekatik zer esana.“

“Gazte ziran artean, nekez ta egun bat edo bestean bada ere, eraman oizituzten irakastolara, baño alperrik. Otsoko burugogorrekoa zan, nagi ta motzegia ezer gauza onik ikasteko, ta Ašerik, ikastetšean zegoan bitartean, iñoren esana entzun ta zerbait ikasi baño naiago zuan irakasleari ziñuka egon, edo lagun guztiai zirika, edo burura zetorkion ames gaiztoai jarraika, etše artatik ertetzeko orduaren zaiñ, iñoren bildur gabe nai zuan guztia egiteko.“

“Gurasoak, beste askoren antzera, ar-
dura gabeak lenengo, berandutso ajolatu
ziran.”

“—Urlia, sandia,—esan oizioten—begi-
ratu zaiezute semeai, ertenegiak datoz.”

“—Umekeriak dira oiek—erantzun oi-
zuten gurasoak—etorriko zaiete zentzuna,
zerbait asitakoan.”

“—Baño galanki asi ta zearo indartua-
gatik, etzitzaien zentzunik buruetan sartu.
Ez: geiago ta geiago loditu zitzaien beren-
gaiñ naizutena egiñaz bizitzeko amesa, sus-
trai andia bota zioten griña tšar guztiak,
alperreri ta nagitasunak ordoitu zituan la-
nerako, eta mutikotzar aietatik etzegoan
ezertara ere gauza onaren itšaropenik.”

“Laster entzun zan Ašerik aldamen ba-
serriko olloak arrapatu zituala, Otsokok
ardirik onena jan ziola urreko artzai bati.”

“Orduan egin zuan oiu Ašeriren aitak:
—Eskua moztuko diot semeari.”

“Orduan esan zuan Otsokoren amak:
—Anka biak ausiko dizkat gure mutillari.”

“¡Bal! Eskua moztuta ere ašeriak ašeri
gelditzen dira; ankaezurak ausita ere otso-
ak beti otso.”

“Lagun gazte biak, geroago ta okerrago,

lotsagabeago, ausarkiago, arpegi eman zioten gurasoai, jarki zitzaizkoen erriko agintariari, mallaka mallaka berealako baten jetši ziran gizon gaizkiñen zelai galduraño, ta norbait zematu zutela edo etzutela, gizonen bati diru eske bidera erten ziotela edo etziotela, sartu zituzten beintzat gaiztote-gian luzarorako.“

—Orra, orra ibillbide tšarraren azkena.

“Etzan orretan amaitu. Noiz edo noiz urratu zitzaizten lokarriak, eta emen agertu zitzaizkigun berriro, izen gaiztoaren jabe, iñoiz baño beltzago, itzalago, bildurgarriago. Etzitian iñork begi onez ikusten: gizonak osta osta egin oizioten agur, ume ta emakumeak Ašeri ta Otsokoren izenaz bakarrik izutzen ziran. Naikoa zan “Otso-ko dator“ esatea umerik negartiena bereala išilltzeko.“

“Bazegoan zergatik bildurtu.“

“Auntza larrera bezela lengo bidera jo zuten obendun adiskide biak. Bai ba: ondo jan bear, asko edan nai, etšekoaz eziñ ase, lanerako gogo ta usterik ez, eleizatik urruti, zeta gaiztoak okerrera deiezka, gau-tšori biurturik, lapurretatik sortzen zuten alzan guztia. Andiak esaten ziran: gaber-

dian, onelako tokitan, bata besteari tšistuka zebiltzala; arabar mandazañari, makilka zuzitu ta gero, onenbeste diru kendu ziotela; Bizkaiko baserri baten arrigarrizko eriotza egin zutela, ta eztaikit beste orrelako zenbat albiste. Danak etziran noski egiak izango, baño neronek ikusi nuan egiazko jazocra negargarri bat. Esaten ere ikaratu egin bear da. Otsokok, jai arratsalde batean, ardangelarako tšanponik eman nai etziola ta beste gabe, jaizkoraz zatitu zion burua bere aita zar gizagaišoari!“

—¡Jesus!

—“Bai, José Ramonek ere badaki. Neuk nere eskutik eraman nuan gero urkamendira Otsokoren eriotza ikusi zezan, oben-bidearen gorrotorako.“

José Ramonek.—Oroitzen naiz; begien aurrera datorkit gizon arren arpegi zurbill, makur ta ezaiña; gogoan daukat nola esan zigun barkatzeko bere gaiztakeria Jaungoikoaren izenean, Jaungoikoak ere barkatu zezaion. Itz neurtuetan ipiñi zuten Otsokoren bizitza, ta ortše ziran nunbaiten euskerazko bertso berriak.

Manueltšok.—Nik uste nuan gizatšar guztiak urrutietakoak zirala.

Aitonak.—Etzenduan ondo uste.

Josek.—¿Orain bai alda emen era orretako gizonik?

Aitonak.—“Sustrai tsarrak edonun ta edonoiz eman dezake kimu berria, ta gizonak dauden leku danetan oidira gaiztakerirako sustraiak. Eztet nai egiaren argitasuna estali: orain ere azaltzen da gure artean otsokotarren bat edo beste; baña, esan dezagun gure biotzaren poztasunerako, ez urietan bezela maiz ta ugari, baizik noizean bein, urri, bakan, inoiz edo berriz. Ezin da gure lurrean orrelako landara ta piztirik ugaldtu. Gurutzearen itzalak galtzen ditu emen orrelako landara ta piztiak, gurutzearen itzalak eta guk geure izen onari diogun begiruneak. Bai, goialdeko basurdeak baño gciagotan agertzen dira baserrietara urietako zakur amorratuak, baña euskaldun gurasoak ajolarik ezpaluteke edo euskal mendietan gurutzerik ezpalitz, laster ugalduko litzatezke zakur, otso ta basurde amorratuak Euskalerrian ta baserrietan bertan. Arretaz bizi bear, beti arretaz.”

Manueltšok.—Ta ¿zer egin zuan Ašerik, aitona?

—“Ašeri, oso tsaldandua, moteldua,

gazterik auldua, sarpaz jantzia, zetakaz be-
tea, zorriz erdi-jana, aterik ate ibilli zan
errukarri, zorro zar bat bizkarrean zuala,
gizadi guztien iraiñtasunak iruntziaz, ta
beartsuen gaišotegi batean illtzan, inpernu
bizia lurrean igarota gero.“

Manueltšok.—¿Inpernu? Gaur goi-
zean, Mošolok, ikastetšera bidean, inper-
nurik eztagola esan dit.

Aitonak.—“¿Zer diok, motell! ¡Aitaren,
Semearen...! ¿Eztet nik esaten otsokota-
rrak badirala oraindik? Ara or bat. Mošo-
lo otsokotarra dek, Mañuel, uriko zakur
amorraturen batek kutsatu du, bere aita-
ren ardangelan noski. *Umearen sentzu-
na, etšean entzuna.* Jakinzak, illobatšo:
lagun orrek esan duanetik Otsokok egiñ
zuana egitera bide gutši zio, eta naigo ni-
kek, i Otsokoren bizitzan ikustea baño,
illoi batean luze luze ikustea.“

Amak.—¡Bai oriše, bai milla aldiz!

Aitonak.—“Eztek Mošolo ire erakus-
lea.“

Manueltšok.—Ez, jauna, Mošolo tšit
atzerea da. *Dotriñan* ere bera *dabill* az-
kenengo.

Aitonak.—“Siñistzen diat. Eztik arrek

gauza onik erakutziko. Bakoitzak dakiana erakusten du, ta gaiztoak gaiztakeria. Ez adi, bada, Mošolorekiñ egundaño ibilli. Ire lagunik andiena Joše izango dek eta erakusleak geu, etšeokoak, eta erriko apaiz jaunak, gurutzetarrak. Illobatšo, Joše, nere semeak: bizi zaitezte baserrian, toki oberik eztagota; maita zazute mendia, maitagarria data; baño mendian bertan piztirik billatzen badezute, alde Jaungoikoaren izenean piztietatik gurutze ondora.“

Orrela astertzen zituan Joanesek bere gizalanderak, orrela eman oizien buru ta biotzerako bear zuten janaria, orrela bizi zan, erbesteko semearen oroimenak ikutzen etzionean, atsegintsu ta gozoro, bizitza onak ematen duan animako lasaitasun eztian.

Ala ere Joanesek eta bere emasteak bazuten beren buruan beste zerbaiten utsunea. Gauza andia etzan. Ara: Zabaletan beste aurtšo bat ez izatea, alaba, neskatša. Bi amak kendu ezkerro, Zabaletako guztiak gizonetzkoak ziran, prakadunak. Ana Josepak zionez, amaika praka bear zan etše artan, ¡Jesus Maria ta Jose! Batean sasiak, oteak edo elorrantzak eldu ziotela, bestean

zugaitz adarrean katigatu zirala, ia egunero zekarden gizonak urraturen bat etsera, ta mutikoak berriz tšitean-potean (1) bear zituzten praka berriak. Manueltšok besteak baño geiago. Larruzkoak ere etziran naikoa ume arrentzat. Beti zebillen orbel, lasto edo garotan tšilipurdika, beti sasi tartean masusta billa, beti tšori kabitan inguruko zugaitzetara igonda. Ura mutil biurria, ura basakerra, ura katardea. ¡Uutikan mutillak! A ze izatekoak, ainbeste lan gurasoai eragiñ ta gero naizuten lekura igez egiteko. Beste gauza bat ziran neskatšak, esaneakoak, zuzenak, tšotillak, paketsuak. ¡Ai enel, ongi etorriko zitekean bat Zabalentan emakume bien laguntasunerako, etšea jasotzeko, amonaren ondorengotzat. Ori zan senar-emaste zar bien aspaldiko ames, gogo ta itšaropena. Emango alzioten Jaungoikoak.

Eman zioten. Egun batean Pedro Anton morroia berri on bat ematera joan zitzaion Joanesi mendira: etšean aurra jaio zitzaien ¡ta neskatša zan!

Gure artzaia Aloñatik jetši zanean, es-

(1) Tšitean-potean. Gastelarren á cada instante bezela.

pañetan zekarren barruko alaitasunaren pitsa, parrea.

Parrez erten zion emasteak ere ate ondora.

—Badegu ba—esan zion senarrari.

—Jaungoikoari eskerrak. Eta ¿nolakoa da?

—Zuri, eder, galanta: bere aita berbera dirudi.

—¿Oraindik? Zuek emakumeok berea-lan artzen diozute umelai norbaiten itšura.

—Alašen da bata. Zeuk ikusiko dezula laster. Jose Ramonen ta gure aurraren sudur ta kopeta berdiñ berdiñak dira.

—¿Ta begiak?

—Begiak zeurien antzekoak.

—¿Parre egingo aldet?

—Egiñzazu nai baldiñ badezu. Len ere etzenduan urruti. ¿Zer uste dezuz? ¿Eztizutala ikusi arpegian ta biotzean?

—¿Biotzean ere bai, emakumea?

—Baita. Orain ere badakit nik zuri zer gogoratzen zaitzun: aurtšoa geuk biok artu bear gendukela besoetan.

—Baña nik ezer esan ezpadizut.

—Baña nik igarri. Askotan izan naiz ni zure gogoen igarle. ¡Gaitz ere badata!

Aiton-amandrec biak jetši ziran Oñatiko eleiza nagusira aurtsoaren aitabitši (1) bezela. ¡Ta nola gero jetši! Ana Josepa bizi bizi, tšit orraztua, soñekorik onena arro erakutziaz, buruko estalkiaren tšiztanak iñoiz baño tenteago zituala ta aspaldian gordeta iduki zuan zortzi egiko oial andi loretua (2) lepotik bera egokiro ipiñita; Joanes ederki bizarra kendurik, ezkontzarako egin zitzaion jantziz antolaturik, ia oñetarañoko *kapa* lodi luze tolestua sorbalda gañean jasoaz ta eun bigunezko alkondara zuri garbia paparrean agiri zitzaio-la. Biak zijoazen edertuta, gaztetuta, alaituta, lekaio bana egiteko gogoetan; biak usai gozodun: gizonak eriñotz (3) usaia zerraman, andreak *alkanfor* usaia. Bazituen lagunak: auzoko emakume gazte apaiñ bat, aita Jose Ramon ta seme Manueltsõ, au, eliz-kandela ta apaiz-opillarekiñ.

Bidean, Manueltsõk begi-onez begiratzzen zion opill gozoari. Bazekian eleizan eskeñi bakarrik, apaizari erakutzi, eutsi ta tati egiñ ta etšera biurtzen zala opilla, ta

(1) Aitabitši, aita ponteko, aitabesuetako.—Padrino.

(2) Zortzi egiko oiala.—Zortzi puntako mantõia.

(3) Erramu.

ezin aspertu zan beretzat zenbat emango zioten galdezka. Bakarrik joan balitz iku-
turen bat ere egingo zion biatzakiñ edo
mingañarekiñ, nolakoa zegoan jakiteko.

Aiton-amandreak, noizean beñ aurrari
begiratuta:

—¿Lotañ aldijoa?—zioten—;Gaiñoa!
Eztedilla otzitu gero.

—Baizera otzitu—erantzuten zien an-
dre gazteak—dagoan beroan, Uztaillaren
22-an.

—Erri-sarreratik jastetseraño (1) oñatiar
guztiak, andrazko ta gizaseme, gure base-
rritarrai zerbait esan bearra bazeukaten.

—Ongi etorri, Jose Ramon, ¿landare
berriña aldozue?

—Kaiño, Joanes, ori gizon gordiña za-
goz.

—Apaña zatoz, andre Ana Josepa.

—¿Mutilla alda? ¿Neskatillia? Zer izen
ipiñi biar *ñaué?*

Eguneko donearen izena ipiñi zioten:
Maria Magdalena.

Bataiokoak eleizatik irten zutenean, uri-

(1) Baserritarak, urira datozenean, oñetakoak aldatze-
ko edo zerbait artzeko aukeratuta daukaten etserari esa-
ten zaio *jastetsera*.

ko ume soster guztiak, umeak etziran batzuckiñ nastatuta, eleizaren aurreko enparantzan idoro zituzten ¡bolo! ¡bolua! (1) ¡bolua! ¡je! ¡je! deadarka.

—Au ezta orregatik oitura ona,—esan zuan Ana Josepak—¿Zerdalata bota bear ditugu emen geure diruak?

Eta senarrak, eskukada bat tñanpon jaurtigiak:

—Zeuk esan dezu, ona edo tñarra, oitura dalako. Nik ona deritzot.

—Berealañe iñilldu ziran umeteri ta gañerakoen oiuk. Aitonaren jaurtigi ziñua susmatzeaz bakarrik, gizataldeko guztiak, artega, igikor ta irritsu, zabundu zituzten buru ta besoak, ireki ta ernaitu zituzten beren begiak alzuten añan, eta tñanpon gorri-beltz leunak izpi-une baten egaka bezela ikusita gero, auzpeztu ziran dirua erorizan tokira, denak batera, denak pilloan, burrukarik gogor, zoli, zital, ausarditsuena egiteko ustietan.

(1) **Bolo, bolua.** Onela deitzen diote euskaluri batzuetan bataioari. Agirian dago itz ori nondik datorren: ¿**Vis baptizari?** ¿nai aldezu bataiatua izan?—galdetzen du apaizak—eta **Volo,** naidet, erantzuten zaio; ta erantzuera oritatik dator gaurko **bolo, bolua.**

Baita egin ere. Lauoñean edo etzinda, bultzaka edo atzaparka, arpegiz lurra igortziaz edo azpikoari ler eraginda, ezeren armiñ ta iñoren ardura gabe, azkar egiñ ziztuzten ango tñanpon bitzeak.

Ta aurrera berriz ere bataiokoen atzetik ijel ijel! ¡bolo! ¡bolua! deiezka.

Baño ez guztiak. An gelditu ziran autsez loituta, miñez ta negarrez, tñiki, mengel, indarge ta makalak. Batari tñapela galdu zitzaion, besteari gonca urratu, norbaiti biatza ostikopean zapaldu zioten.

Zeñek egin *dotzu*, maite—galdetzen zion arri, eziñ ibilli zan atsotño batek, baster guztiak begiratuaz, zerbait alperrik galdu etzediñ.

—Mošolok egiñ *šao*,—erantzun zuan urratudunak—aretšek, lapurrak alakoak.

—Išo, ezta olakorik esaten da.

—Bai, andrea, egia data: neuri *ostudost* eskuan neukan dirua.

Oidan bezela andi ta indartsuenak atera ziran nagusi lenengo tñanpon eralgitzean, ta aiek zijoazen Joanesi jarraika ijel! ¡bolua! ijel! aspertu gabe oiuka.

Joanesez, emastearen esanei entzungor egiñaz, mutikoen atarrapuzka ta iskanbilla

ikustegatik, edo barruak eskatzen ziolako, beti parrez, atzera ta aurrera, ezker eskui botatzen zizkaten tšanponak.

—Gizona,—zion Ana Josepak beti ere —naikoa dezula. ¡Tšantšetako gauzea da! Orrenbeste diru estu iñork egundaño Oñatiko kale arian bota; ezta jauregiko zaldunak berak ere, emalea da baña.

Mutiko-neskatoak, tšanpon bitzea bukatu ondorean, beingo baten zabaldu ziran pelotalekura edo gozotegietara, ta gure Zabaletakoak, jastetšean sartu gabe, igo zuten tapa tapa beren baserri paketsura.

Baserri artan, egun orretatik aurrera, beste bizitza bat asi zan, obeagoa, bigunagoa, alaiagoa; len baño askozaz errezagoa zan etšeko guztien parre ta jolasa. Erdi umetu ziran danak, eta noiznai zeuden prest umekeriak esateko ta umekeriak egi-teko.

Jetši zuten seaska ganbaratik sukaldera, ta seaska ondoan makurturik, lanera baño len edo lanetik zetozenean, arpegirik gozoenaz, soñurik zamurrenaz, beti ari zitzaizkon aurrari Zabaletako gizonak:

—Ekatzu patšobat, pošpoliñ, ekatzu patšobat, arrosatšoa. ¿Noiz ikasi bear dezu

pa ematen? ¡Pa! aitatšori. ¡Pa! Pedro Antoni. ¡Pa! aitonari, maite maite zaituta. ¡Pa! onelašen. ¿Noiz ikasi bear dezu baña zeuk, noiz?

—Kendu zaiztezte ortikan,—esaten zien amonak—umetšoa musuka jan bear dezu-eta. Ara, arpegi guzia gorri gorri jarri diozute zuen bizartzarrokiñ. Ta negarrik ere ez berak. ¡Aingerutšoa! ¡aur zoragarria! ¡gure illargia! ¡Bai, illargia zera zu, illargi bete argitsua! ¡Nik erosiko dizut zuri jostallu ederra azokan, nik, bai, zuri, ederrorri!

—Baño batez ere Malentšoren amak, Kataliñ apal, belatz, lotsatiak, etšean baka-rik gelditzen zanean, bere aurrari egiten zizkon jolasak eta esaten zizkon tšera palaguak etzuten beñere azken ta neurririk. Sarri, bere magalean zeukala, begira begira egoten zitzaion, zertan zegoan ere astuta; anitzez, beste aurtšoen eriotza gogoratzean, estutzen zuan bere bular gañean sendoki; askotan, lo eragin nai zionean, cuskaldun ama guztiak oiduten erreztasunaz, eresi-tzen zizkon išill išill, eztitsu, eztitsu, bere biotza españetan zuala, onelako itz neurtu samur batzuk:

Seaska zarrak aur berria du
 Zernetatik jetsia,
 Aingerutsoak ekarri dute
 Ezur t'aragiz jantzia.

Jaunak emandit neretzat eta
 Nerea det nik Madalen.
 ¡Maite kutuna, ezaidazala
 Jaun zerukoak berriz ken!

Goi urdiñean izarrik aña
 Daude zeruan aingeru,
 Zabaletako baserritsoan
 Bat edo bat bear degu.

Nere laztana, nere bizitza,
 Nere erraien zatia,
 Ara zeñ bigun jarri dizutan
 Seaskatsoan kabia.

Seaskatsoan nai ezpadezu,
 Zuretzako det altsoa;
 Egiñ ementse lo ederrean
 Zerutar ames gozoa.

Manueltsõ, umea izan nonbait, ondamuak biotzean ikututa, ezpaz betea egon oizan gizagaiñoa aurrari esaten ta egiten zizkioten gauzak entzun ta ikustean. ¿Nola ez? Bera zan lenago ederra, bera mutill argia, bera etšcko maitea, ta oraiñ besterentzat ziran goramen ta ipui guztiak. Esagutzen zion amak semeari barruko illunta-

suná, ta zerbait gozatzeagatik eta aurraganako maitetasuna itsatsi naian, onela deitu oizion:

—Ator ia, Manuelt̃so, ator ia laztanori. Goiko kut̃san daukat nik iretzat gordeta udare andi andi bat, iretzat bakarrik dana. Asko asi aiz ta ezingo aut altsoan cuki, baña bai biotzean, bai, nere semea. Altsoan aurrak idukitzen dira, t̃siki t̃sikiak, Malent̃so bezela oñez ibilli ezin diranak. ¿Ikusten dek nolako polita dan gure Malent̃so? Nailuteke auzoan onelako bat, baño eztago iñun onelakorik. Geurea da, geure geurea. *T̃salopiñt̃salo* esaiok; tira, eskut̃soak artuta, orrelaše.

Beciñ baño geiagotan, Manuelt̃so amaren ondoan belauniko jarririk eta beste Zabaletakoz guztiak zutik edo erdi okertuta, Joanes aurrean zala, erestu oizuten, denak batera t̃saloak joaz, antziñetako aur cresia:

T̃salopiñ tsalo
 T̃salopiñ tsalo
 Katut̃soa mizpira
 Gañean dago;
 Badago bego,
 Badago bego,
 Zapatat̃so berrien
 Begira dago.

Ana Josepak ušatu oizítuan deadarka,
bera tarteko etzanean:

—¿Tšoratu alzerate, kristauak? ¿Ezal-
daukagu basterretan beste lanik?

Baña umetšoarean musu borobill polita
ikusi orduko, amona bera joaten zitzaion
aurrari atsegiñezko arpegiz losinga:

—Izan ere etšeko danak tšoratzeko nai-
koa zera zu ¡erregintšo! ¡elurgillo! ¡gaztan-
bera! ¡usakume! ¡lili zuri! ¡Ez, Urbiako ze-
laietan ezta zu bezelako lilirik sortu, ezta
sortuko ere! ¡Zu zera lore guztien lorea,
zu zera apainduri guztien apainduria! ¡Nik
ekarriko dizut, bai, amonatšok ekarriko
dizu jostallu eder ederra, zeu bezelako
jostallurik iñon eztago baña!



V.

AZOKA TA DEMA

Azoka ta dema zalea da euskaldun baretsetarra. Etengabeko lanean egongo da iru edo lau aste osoan azokaren pozez, baina etzaiozute azokaren itzaropenik kendu, bada orduan egoak moztutako tšoria bezela geldituko zaitzute, jangar ta nakar, abaildua ta ezertarako eza.

Azoka da, menditarrentzat, ez bakarrik salerosketako garaia, baita ere albisteak jakiteko era ederra, lagun arterako beta egokia, jan edanerako epe gozoa, atsedeen ordurik onen onena.

Gauza oiek guztiak bear ditu gizonak noizean bein, ta gure baserritarrak inork baño geiago noski.

Ezta padartzarako (1) jaiotako, bakartasunean bizi bada ere. Paduak (2) ezta izu-

(1) Padartza = Eremitargo.

(2) Padua = Desierto.

tzen, baño gogait cragiten dio. Mendian dauka kabi maitea, baño be aldietan biotzak eskatzen dion jolas deigarria. Atzeka, lotua, itz gutšikoa dirudi ez esagun ta andikien aurrean, baño iztuna, edegia, ausarta da bere ideko adiskidien ondoan.

Esan dezatela Tolosa, Billapranka, Billarreal, Zumarraga, Mondragoi, Bergara, Elgoibar ta Azpeitikoak, bada erri oietan izaten dira batez ere Gipuzkoako azoka ta demarik izentsuenak, eta bertan agertzen da gure mendi-gizona bera dan bezela, baxterre estalki gabe, anima guztia garbiro ikusten zaiola.

Nai ta naiezkoak dira Euskalerriko azokak eta ongarriak gañera uri ta etšadi askorentzat, baño ¿ta demak? Ez ongarri, ez nai ta naiezko, baserritarren gogokoak izanarren.

Bai gogokoak, bai oriše. Eztago dema bezelako akullurik nekazaririk tšepel, nagi ta geldoena dendatzeko. Naiz dala aberien ari topeka, ollar borroka edo idi dema, naiz dala gizasemien zama jasotze, lasterketa edo aizkora jolasa, oso aurretiaz jakiñ oidute noiz, nondik, nortara edo non, zeintzuk eta zergatik izango duten demaren

bat; biltzen dira gero sagardotegi edo ar-
dangeletan albiste berriak entzun ta esate-
ra; jartzen dira orkoaren edo emengoaren
alde, aide, auzo edo esagunak diralako ba-
karririk edo apostularien indar, mendu ta
almenak obeto dakizkitelako; jasotzen du
batak bere gizon autua Ernio baño gorago
ta jetsitzen du besteak it̄sasoko ondarreta-
raño; asten dira mingarrizko itzak alkarri
esaten; berotzen dira ezta-baida zitalean
irri ta ziri dabilzala; suak artzen ditu gei-
egizko jardun garratz amaigabean; joka-
tzen dituzte bero beroan aldean dituzten
t̄sanpon guztiak; ipintzen dituzte urlia edo
sandiaren eskuetan dema egiñ arteraño, ta
ainbeste bidar gogoratu zaieten t̄sango al-
dia datorrenean, apostu jakiñ orretako
egun andi alaia zabaltzen danean, goizt̄soa-
go jaiki, et̄scko lanak zerbait egiñ, igandie-
tako jantziak soñean jarri, aldiran diru
apurrak sakelean sartu emakumien iñillik,
eta badijoaz onelako edo alako errira gaz-
teak eta zarkoteak, erkiñak eta kankalluak,
jolas-naikoak eta jokalaria, burutsuak eta
buru gabeak, alderdi bateko ta besteko gai-
tasunak neurtzen dakizkitenak eta biotzak
dion aldera it̄su it̄suan daudenak, bide za-

baletan aurrera, bide zierretan barruna, mendian gora, basotik berã, zelai erditik zear, soro ertzetik aldamenka, amilla mengelak sorbalдан dituztela, makillatsoak eskuetan daramazkitela, biotzaren leiãz oso-ro beterik, barruko azkortasuna eziã gorderik, arro, artega, esale ta ameslari, zezenetara baño errezago, eztaietara baño gogotsuago, umeak gozotegira baño pozãgo, abere ospatsuen indarra edo gizon trebieñ adorea zelai edo enparantzaren erdian ikusteko asmoetan.

Done Tomas egun batean Mondragoira joan bearra izan nuan. Azoka eguna zan ta egunik andienetakoa. ¡Zazpi milla aingeru! Bazan uri artako kale arietan itzotsa, zaratea, iñkanbilla ta nastea galanki. Egurrez tontortutako gurdiak, errenkاداتik ertenda, urrengoai ibillera galerazitzen; atzetik zetozen itzaiak, mendian bezela oiũ egiñaz, beren uztarrientzat biderik eziñ edekita; jolasbilla edo apostura bakarrik joan ziran gizonak, ardangeletako ateaurrean, betiko leloari utzi gabe, alkarri ardoa eskeiñtzen; artu-emanera zijoazen emakumeak, beso ta buru otarraz beterik, zerbait galdu etzezen, alderdi guztietara begi-

raka ernai; leio burnietan lotutako beiak ausnarrean, kalearen erdia berentzat bear zutela; idizko edo biantša gazte izutiak, atzeraka ta alboraka zalaparta gogorrean, enparantzaruntz iñola ere joan nai ezik; patšadako asto zamatuak, nunbaitetik sartu bearrean, aldemenetako guztiai bultzaka; tšerrikume pizkor urduriak, beren talde-tatik arrapaladan iges eginda, gizartean edo aberien anketan usaika... nik eztakit zenbat tresna, ele, gizadi ta lazka ikusi nituan enparantzarako bidean. Edonun zegoan traba, ezia ta eragozketa; non-nai adarkada edo ostikada baten arriskua; bas-ter guztietatik entzuten zan oo ta aida, arre-ta iso, jeup eta kaišio, alajaña ta arraiopola, aspaldikoa ta lagun zarra, tšintšarria, kurrinka, orroa, marrua, arrana ta arrantzaz.

Lan andiak izan nituan enparantzara igarotzen.

Antšen zegoan azoka. Bertan zeuden salgai baserritarrak ekarritako edo baserrietan geienbat bear izaten diran gauzak. Alderdi batean, arto ta gari, baba beltz, zuri ta gorri, intšaur ta gaztañak zorroctan; udare, sagar, azi, landare, urdai, urdaiaz-piko, lukainka, gaztai, arrauts, ollo, ollar

iraindu (1), ollanda ta ollazkoak otarretan edo lurrean zabal zabalik; oial, tšapel, *zapata*, galtzerdi, mantar, soka, abarka larru, kopetako, paela, tupiñ, pertza, lai, sega, itari, atšur ta aizkorak mai gañetan, edo agatšoctan esekita.

Emakume saltzalle ta erosleak, jarrita edo zutik, ari ziran ekiñean beren gauzak gora jasotzen edo bera bota naian, cra ta gogoa zetorkioten bezela.

—¿Zer? ¿Eztakitala nik gaztaña zer dan uste aldezu? Au ezta bizkai gaztaña, au amalatz erdi ustela da.

—¡Jas! Orire esan. Gaztaña zindoagorik...

—¿Eta au zindoa alda?

—Bat edo bestek eztu ezer esan nai, emakumea. Bai, kendu zaiozu azala, ikusi zaiozu mintza. Gurean eztago amalatzik, gurean bizkai gaztaña, ibarbeltza ta tšapardo baño besterik ezta.

—Zerori zera zu naikoa tšapardo. Tira, danak eramatera ¿zenbatean emango dirazu?

.....

(1) Ollar iraindu=Capón.

—Ara errege sagar ederrak.

—Burdintšak nai nituzke, gaišoentzakoak.

—Burdintšarik eztaukat, baño bai urtebiak, kanpandojak, altšondoak... Danak dira onak, naiz erreta naiz gordiñik jateko. Artu itzatzu kanpandojak.

—¡Bai kaskarrak!

—¿Kaskarrak, ukabilla beste badirata?

—Ukabilla nolakoa dan.

—Beti andia, euskaldunarena bada. Atšurak eta laiak zabaltzen ditu eskuak galanki. ¿Zenbat ipiñiko dizkitzut?

.....

—¿Ollazkorik bear aldezu, andrea?

—Ez, *kapoi* batzuen billa nabill.

—Ikusi zaizkidatzu auek, artu zaizkidatzu eskuetan; badira amalau libra gutšienez.

—¿Ze amalau libra gero, ezurra ta azala besterik eztauketa?

—¿Nai dezu amabi baietz?

—¿Nai dezu ezetz?

—Pillumena, ekatzu pišu ori.

.....

Emakume saltzalleekin batera jarrita ikusi nuan Zabaletako Ana Josepa, illuntšo, aserre antzean, ia iñori itzik egiñ nai

ezta, arrautsa-ollazko batzuek saldu naian. ¿Zer ote zuan aĩn muker egoteko? Gero-
šeago jakingo degu.

Bezte alderdi batean agiri ziran tšerri ta abelgorri talde andiak. Bazcukaten gizonak naikoa zer ikusi. Urdama (1) nagı narasak, ume pilla guri politak, aketz gazte gogor sendoak, zezenko eder bizi mamin-tsuak, urruš egoki garbi tšukunak, esnebei gizen ta bikañak... danetik zegoan clea ugari, oso ugari baña.

Entzutekoak ziran baserritarren galdeak, abere jabien erantzuerak eta guztien gozko goramenak.

Tšal baten ondoan:

—Biantša polita dezu, adiskidea.

—Bai, ama ere eztu onek edonolakoa.

—¿Zenbat erralde bezela izango da?

—Ogetamaseitik berrogeira.

—¿Orrenbeste?... ¿Noiz jaio zan?

—Biar izango ditu amairu illabete.

(Alderdi guztiak begiratuaz.)

—Itšurazkoa da. Eztu aitzekiarik.....

(Egon egon eginda).

—¿Saltzeko aldezu?

(1) Urdama, tšerrama=Cerda con orias.

—Uste orretan ekarri det. Etšcan beste zazpi bei badauzkaguta...

—¿Zenbatean?

—Garestitšo. Jatorri onekoa nola baidan... Oraintšere onen amak sei pitšarro esne emango ditu, umea eginzuala bi illabete bada baña.

—¿Zenbat eskatzen dezu ba tšalagatik?

—Iru ontzako ta erdi eskatu bear ko.

—¡Gizona! Zillarrezkoa balitz ere...

—Ezta zillarrezkoa, baño bai aragiz ondo betea. Aragiak berak ere, erraldeko ogetamarrean, ia orrenbeste jotzen du. Begiratu zaiozu nolako atzealdeak dauzkan.

—Ez, ezta neretzako egiten dana; merkešegoa bear det. Billatuko aldegu, aukerara badagota.

—Gaitz izango dezu ba ona ta merkea billatzen...

Idi erraldoi biren aldemenean:

—Auetšek dira Tolosako dema irabazi zutenak.

—¡Mutillak! Egundaño ez tet onelako idirik ikusi.

—Bai, gure bei koškorrak baño baba geiago jan dute idi auk.

—Baita indarrare alaſen dute. Lau iltzeta erdi egiñ zituzten ordu betean berrogetamar *kintaleko* arriarekiñ.

¿Zenbat akullu ziran?

—Iru, onenetakoak.

—Asko esan nai du orrek.

—Bai, baña onak ziran Elgoibarkoak ere, aiek obeak idiak baño. Idietan zegoan alde guztia. Onelako idirik etziok lau *probintzietan*.

—¿Zetara ekarri ote dituzte?

—Erakustera. Bizkaitarren batzuk zale-tu omen dirata.

—Dirua bearko da ba. Neuk erosi albanitu... Pozik emango nituzke amar bat ontzako. Adiskidea, ¿zenbat eskatzen dezuz idiakgatik?

—Emezortzi ontzako.

—Lekutan zio.

—Esne bei on baten inguruan:

—¡Arranoetan! ¡Eztauka errapea makala! Au ezta orratik gure lurretako enda.

—Ez, olandatarra da.

—Esagun du ille ta adarretan ere.

—¿Otzana?

—Eztago arkume otzanagorik.

—¿Esnetsua?

—Bai, bai. Onck esnea iturriak ura bezela ematen du. Jokatuko nioke edozeñi eztala gaur Mondragoin onek aña esne ematen duan beirik sartu.

—¿Zenbat pitsarro?

—Amar baietzean emango nuke.

—Aita San Antoniok bedeinka dezalata, ederra beia.

—¡Izugarril!

Orrelako izketak zeuzkaten abelgorri tarteetan zebiltzan baserritarrak. Jo batera ta jo bestera, clerik egokienen ondoan gelditzen ziran geienbat gizon pillatsoak, beren iritziak esaten ta auzokoen aberasatasuna ikusten. ¡Ta nolako alaitasun ta arretaz ikusi! Ele aurrean jarri, anakak jaso crazy, kopetan atz egiñ, atzetik begiratu, lepoan ikutu, mokorrean igortzi, bizkarretik paparrera neurtu, aurtsoak oidirran gisara itz gozoz palagatu, musu eman ez beste guztiak egiten zizkaten. Askotan esan oidegu, ta egiaz, gure baserritarrak ukulluko beiari tñit samur begiratzten diola; baño ezta batere miraritzeko gauza: beia da, nekazariantzat, lanerako lagun indartsua, osasungarrizko janaria ematen dien aberca, etñe askotako onda-

sunik andiena. Ia non dagoan norbere ondasunari maitero begiratzten eztion gizon bat.

Asko ziran egun artan Mondragoira inguratutako azoka zalcak, baño dema zaleak askozaz geiago. ¿Demaren bat altzan? Bai ba, aspaldikorik andiena. Zabaletako Iñazio Marik eta Abadiñoako José Domingok egin bear zuten aizkora jokoa. Biak ziran trebeak, iaioak, izen andiko aizkolarriak; biak iduki zituzten illabete ta geiagan jaten ta edaten, arrautsaz ta aragiz asetzen, iñillikako indar neurtzeak egiten, ta egun orretan agertu bear zan bictatik zein zan nagusi.

Ori zan ba euskal gizaldien billaldirako Mondragoitarrak erabilli zuten kakoa, orrek erakarri zituan uri artara alderdi guztietako baserritarrak: Bizkai aldetik Durango, Iurreta, Garai, Berriz, Zaldibar, Abadiño, Izurza, Mañari, Axpe, Arrazola ta Elorriokoak; eta Gipuzkoatik, inguruetako zalpurdictan eraman al izan zituen guztiak eta ordu batzuetan oñez ibiltzeko almena zuten gizon danak.

Baster guztietara begira nebillela ta iñor

esagunik ikusteko usterik gutšien neukanan,

—¿Non zabiltz, mutill? — esan ziran norbaitek, bizkarreko bat emanaz.

—¡Patšiko!

—Berbera.

Nere umetako lagun bat zan Patšiko au, erri tšiki bateko sendakiña, baño erri andietakoak baizen argia; berritšu samarra, baño bene benetan jakintsua; edozeñen gaiztakeriak agertzen zituana, baño bakoitzari berea ematen oso zintzoa; euskalerritar itšutua, baño iñorentzat gorroto gabea; zerbait lotsagaldukoa, baño tšit egizale purrukatua; mingañ zoli garratzduna, baño biotz bigunaren jabe ona; beti erriertan jardun bear zuana, baño jolastzallerik andienetakoa; itšuretan norbaitzuen etsaia, baño egietan askoren maitalea; gizon bero, bizi, ospindua, baño adiskide leial ziur ziurra.

—Zorionean zatorzkit—esan nion.

—Zoritšarrean arkitzen zaitut — erantzun ziran.

—¿Nekeren bat aldezu?

—Zuri erakutzi bearra. Ezta neke tši-

kia, baño lagunagatik itz aspertu bat egin bearko.

—¿Aspertu altzera beñere izketan?

—Zurekiñ ez. Ni baño itz jario andia-goakiñ eziñ izaten det nai aña egiñ.

Ta neri ezer geiago esateko astirik eman nai ezta, berak galdetu, berak erantzun, ta ezer sakondu gabe, gogora zetortzkion autu guztiak lardazkatuaz, asi zan nere gizona:

“Utzi zadazu pakean itz zaparrada samihen bat entzutea nai ezpadezu. Gaur Gipuzkoa guztia ementsen da, batari ta besteari ongietorria ematen nabill, ez tet zurekiñ egoteko asti andirik izango, ta entzun zadazu piskatso batean. Onean nago, ta gozoro gozoro itz egingo dizut.”

“Zuk eztezu emen iñor esagutuko, itsas aldekoa zerata; baña nik bai, nik esagutzen ditut batzuek. Begira: lurrean dauden zuaitz-gerriak ikusten dagoan baserritar ura Beizamakoa da, iñork uste duan baño gizon maltzurragoa. Zerbait erabilliko du buruan, gaur dirurik ez galtzeko edo biar edo etzi beste aposturen bat asmatzeko. Esaten dutenez, nekazaritzatik baño geiago irabasten du jokotik. Ezta gaizki, betikoa bada irabaztea... Beste buru zuridun

agure ori, Zaldibiko artzaia. Orrek eztu tšanpon askorik egingo iñoren alde. Artilezko *jaka* dauka berak soñean. Eztira ikusten asko asko gure egunetan era orretako jakak. Lenago bai, oroituko zera zu ere, lenago gure baserritar geientsuak beren etšietan egiten zituzten etšekoentzat bear ziranak, lodiak, sendoak, iraupen andikoak. Gero berriz eztakit nondik agertu zitzaizkigun ille urdiñezkoak, oso apañak, idun-mauketan lerro gorriak eta paparrean bera *borlatšoak* zituztela, ta oiék izan dira, urtietan, emengo mendi gizonen jakarik politenak. Badira oraindik orrelako batzuek, bizkaitarren soñean batez ere. Ara orrako gizon kaikuak nolakoa daukan. ¿Zeiñ da bera? ¡A! Bai, Apatamonasterioko etšējauna. ¡Gizagaišoa! Irabazteko ustetan etorriko itzan baña emen utzi bearko dituk zizko berdean ekarritako urre zarrak. Etziok Bizkaian Zabaletakoari eramango dionik. *Nequaquam*. Aposutšo bat egin bear diot neuk ere etšējaun orri, ia gaurko aña irabazten detan... Emen gure ezker aldean daukagun mozkote gorri onek Eibarkoak izan bear du. Azokaguztietan izaten da, ta iñork eztu ezer sal-

tzen edo erosten egundaño ikusi. Baño eukiko du egiñkizunen bat. Tutean oso azkarra omen da... Eskui aldean dauzkagu beste gizontso bi, bata eztaikit nungo erro-taria, bestea badaikit nungo arakiña, sasi jakintsuak, malmutzak, *bertzolariak*, bes-tien lepotik galanki edaten dakitenak. Gaur ere sartuko dute urdallean pitšar bana gu-tsienez, ta goizaldean etorriko da oiek etše-ra orduko, buruak urdiñak dauzkate baña.“

“Aizazu: beste ulerkera batean bai ur-dintasuna ugari dagoala ementse. Tšapela urdiña, amilla urdiña, praka urdiña, pipe-tako keia urdiña, euritakoak urdiñak, dana da emen urdiña, alkondara, abarka edo abarketak izan ezik. Urdiña ta merkea. Izango dira berriz ere estulak eta alboren-goak sendatzalle gaišoari gaberdian jaiki erazteko. Zuk eztatizu nolakoa dan gure bizitza errukarria. Ordu onean egiñ ziñan apaiz.“

“Orratikan ere irauten dute oraindik gure antziñetako abarkak. Ikusi zazu: gi-zon zar guztiak dauzkate ta gazte askok, zuriak, bigunak, politak, muturrean begi beltšak dituztela. Oiek dira oñetakorik apainduenak, jaiegunetakoak. Astegunetan

beste batzuek izaten dituzte, zakarragoak, lodikoteak, begi gabeak, zimaurtzan edo lurpean erabiltzeko. Satorrak ere eztaukate begirik.“

“Eta ikasi zazu, bide batez, abarkadunetatik abarketak eta beste oiñzorroak jasten dituzten gizonetara dagoan gora bera ta ezberdiñtasuna. Nere iritziz, abarkadun gizonak menditarragoak, benatsua-goak, patšadagokoak, gizaseme zar ta agin-pidekoai begirune obean itz egiten dakitena dira; abarketadunak ostera ariñtšoa-goak, tšoro ta tšakillagoak, beren buruen irizte andikoak eta bestientzat destaña erreza daukatena. Basetsetarrak, nere ustez, lenbiziko abarketa jantzitzean galdu zuten apur bat beren baserritartasuna, ta larruzko oiñzorro argitsuak jastean berriz, ia uritartzat artu daizkegu.“

“Naigabe andia ematen dit neri onek, bada urietako euskaldunak, danak ez baña bai askotšo, azaletik bakarrik dira euskaldun, mingañez dira sorterri zale. ¡Tšimista gorria! Ezadazula arpegi beltzaz begiratu. Deadarka esango dizut, albiste berria ezta baña. Urietan izurri tšarra dago euskarentzat; urietan jazkera zarrakiñ batera

joan zitzaizkigun gure oitura zarrak, eta jazkera berriakiñ batera datorzkigu erdera, birao, nasaikeri ta tšankamekeria. Base-rritarrak eztira gizon doncak, ez. ¡Bai zera! Entzun didazu zer esan detan batzuekatik, ta eztitut guztien zauri ta zornak erakutzi. Orraztu bear andia daukate askok, badira norbaitzuk akerraren adarra baño okerragoak eta pozik astinduko nituzke gorosti makillaz pozik; baño ala ere, baserritarren artean, abarkadunen artean daude Euskalerra barruko euskaldunik egiazkoenak. Abarkadun gutši ikusiko dezue erderaz mintzatzen edo *abanera*, *šotis* ta beste arrotz dantza nastuetan. Orretarako abarkak kendu bear dira lenbizi.“

“Ara zergatik etortzen naizen, aldetan guztian, abarkadunen jai ta jolasetara. ¡Astakeri batzuek egingo ezpalituzkete! Aitzen dituzte ba bereak eta bi. Dana dala, ni beiti izango naiz abarkadunen maitale. ¡Zer arrai! ¿Nork eztu noizean bein astakeriren bat egiten?... Išo, išo. Apostulariak badatoz. Agur, mutill, beste bat arte, gero ikusten ezipagera. ¡Bost *duro* Zabaleta-koaren alde!“

Oarkera batzuk egingo nizkon Patšiko-

ri astirik eman balit: baño ¿zeñek artu gizon tširimol arreakiñ itz egiteko tarterik? Aitaren egiñ orduko eskutatu zitzatan, ta eznuan geiago begiz jo.

Baño baneukan zeri begiratu. Gizon gazte, andi, bikañ bi zetozen enparantzara, makutšik, astiro, ermo, lerden, ausarditsu, aizkora berri bana bizkarrean zekardela.

Iñazio Mari ta Jose Domingo ziran. Beren ondoan zebiltzan, toki egiñaz, aien alde, lagun ta auzokorik urrenak, arroško ta zurikeri andietan, alderdi guztietara begira, aizkolarien oso adiskide zirala adierazi naian. Arrokeriak ere bere mallak oiditu: gorengoan jarri eziñ dana, sarri egoten da goikoaren oñctan arro.

Jose Ramonek zekarzkian beste aizkora batzuk, anaiarentzako; ta beste askoren artean Peru Odolki zetorren Iñazio Marin aurretik, besoai eragiñaz, itza, pitsa ta kertenkeria zeriola. Joanes etzan iñondik agiri.

Aizkolari bietatik Bizkaikoa zan gaztie-na, gipuzkoatarra beziñ eder, zabal, sendo ta zaintsua. Oraindik etzuan iñungo enparantzan jokatu, baña bere erritarrak ziotenez, nai baño indar geiago zeukan, zumea

baño bigunagoa zan, ta begia ipiñtzen zuan tokian jartzen zuan aizkora. José Domingo azpiratzeko giñonik etzan jaio.

Orrela esan zioten beintzat Ana Josepari Berrizko sagar saltzalle batzuek, eta orregatik billatu degu aiñ muker ta añutsu. Albiste oiek entzun baño lenagotik ere naikoa kezka bazeuzkan Ana Josepak. Beiñ baño geiagotan aditzen eman zion berak semcari, kendu zezala jokorako zeta gaistoa, etzedilla geiago apostuetan sartu, lan egiñ zezala, etšcari begiratu zaiola; baña ezkonduta gero ere, lengo lepotik zeukan arrek burua. ¡Ai, nora joango ote zitzaizkon ezkonsaritzat emandako urre gorriak! Aranzazuko Amari *Abe Maria* bat mutill ura zuzendu zediñ... apostua irabazi ta gero. *Abe Maria graziaz betea Jauna da Zurekiñ...* Aitak ere ondo erakutsi zion bere aserrea, ta garbiro esan zizkon esateko guztiak. ¡Ez biguntzea mutilla!... *Bedeinkatua zera Zu andre guztien artean ta bedeinkatua da Zure sabeleko frutua Jesus...* Bai, gurasoak alegiñak egin zituzten Iñazio Mari bide oncan ipintzeko, baño alperrik. Nola be-

regaiñ bizi zan... *Santa Maria Jaungoikoaren Ama...*

Zabaletako etsekoandreak etzuan bere burua ondo ulertzen ta etzuan, gai onetan, egia osoa esaten, bere anima barruan zer gertatzen zitzaion etzekialako. Zalla da norbere berri jakitea. Semeari etzedilla apos-tuetan sartu esaten zionean, naieza baño bere mutilla parregarri geldituko otezan bildurra ta berak aurreratutako diru ederrren arriskua erakusten zuan geiago Ana Josepak. Aurretiaz izaten ziran beti onen erriertak, bada jokia irabazi ondorean etzegoan Iñazio Mari bezelako mutillik, batez ere tñanponen batzuk etsera eramaten bazituan. Iñoiz beñ Joanes argiak adierazi oi zion lausotasun au, baño errez astutzen zitzaion emasteari apuko berria zetorrenean.

Irakurlea: nik eztitut gauzatso auek Ana Josepa makurtzeagatik ipintzen. Eztira orrenbesteko akatzak: etsekoandrea zan, ta etsekoandre danak egiten diote diruari ongietorri andia; ama zan, ta ama guztiak nai dute beren semeak gallurrik gallurrenean ikustea.

Ama zalako zegoan esaten ari nintzan leku ta garaian, jokia asi baño lentsoago, armalla batera igota, beste batzuekiñ tsondortuta, gizadiaren erdira begira, seme maiteari begiak boteaz, ausarta eman naiaz, susmo tšarrean, aiene mintsuan, zitala, errea, pipertua, Bizkaiko emakumeak ziotena eziñ eramnik, bere tšiteari lagundu nai dion olloa bezela, erraietako umearen guda ikusten duan leoi-eme baten irudira, ta buruko illetatik edozeñi laster eltzeko gogo beroz. Zarra izanarren lanak emango zituan orratik bizkaitarren bati eltzen bazion.

Baño utzi ditzagun andrazkoak eta ikusi dezagun gazte adoretuen esetsaldia, Mondragoiko ikuskizunik andiena ori zan ezkerero.

Errizañak makilka ta bultzaka gizon-ustai trinko bat egiñ zuanean, eldu ziran jokalariaok zuaitzeraño, begiratu zioten alkarri itzerdika batzuk esan bitartean, aukeratu zituzten berriz, banan banan ikusiaz, lenago ere ondo aukeratuta zeuden aizkorak, entzun zituzten sasi jakintsuen azkenengo esanak eta jaurtigi zuan Juan An-

dresek ontzurre bat gora goraka jokalaria bakoitzari bere zuaitza izendatzeko.

¡Eldu zan ordua! Enparantzako gizatalde ugaria zabalundu zan ekaitzaren aizeak ikutzen dion zugaztia bezela; saltzalleak eta erosleak, gizonezko ta emakume dnak, utzi zituzten beren tokiak bere-bizikorik azkarren, urbildu ziran guztiak gizon-ustai trinkoaren atze aldera, ta mai gañetan, zorroctan, gurdietan, arri malletan, inguruetakoko leio ta tellatuetan, buru mordoska berriak agertu ziran artega, enparantzara begira.

Nik eztakit zergatik iruditu zitzaitan bildurra sartu zitzaietela gizon askori biotzean, bada lentsoago garrañika zebiltzanak iñill iñillik gelditu ziran, parre algaretan zeudenai kopeta lañotu zitzaien, ta destañarik andienak esaten zituztenak, ezia ipiñi zioten, españetan, biotzetik zetorkioten geigizkeriari. Bai, bildurrak zeuzkan gizonak beren marratik erten gabe, bildurrak zeuzkan alkarrri zor zioten begirunean, maite-tasunak baño askozaz obeto.

Ala ere bizkaitarren batzuk, beren ustea edo irabazi-naia ezin gorderik, bazebiltzan deadarrez:

—¡Ontza bat urre Abadiñokoaren alde!
¡Ontza bi urre Jose Domingon alde!

Ta gipuzkoatarrik beroenak edo jokalarienak onela erantzuten zioten:

—¡*Ai ba*, eginda daude bi ontzurreak!
¡Baita zortzi nai badituzu ere, baita idiak ere!
Peru Odolkik lepoa nai zuan jokatu.

Bitartean gure aizkolariok, aoa zabaldu gabe, osoro benaz, patšada onean, *plaza gizonai* zegokioten bezela, kendu zituzten oñetakoak, eman zioten eskuai tšistua, artu zuan bakoitzak bere aizkora, ta jarri ziran tente zuaitz gañean, beren lan ikusgarria asteko aginduaren zai.

¡Une larria! ¡Ergai estua! Apostularien deadarrak eta billera gizatsuko durundi zurrumurroak berealako baten bukatu ziztaizkigun, biotzak taupadaka geunzkan, ainbeste milla gizon eleizan beziñ geldi ta iñillik geunden.

Baño ezkiñan luzaroan egon.—¡Asi!—
esan zuan agintzalleak, eta gure gizaseme bikañ biak, bat batera, sartu zituzten beren aizkorak zuaitz lodien biotzetaraño, koiptan sartzen dan labana baño ainbat erre-zago. Ta aizkorak erortzeaz batean base-rritar guztiak, trumoj ikaragarriaren itšu-

rako alarau luze bat egin zuten, ta asi ziran batzuek berriren berriz biriak bota bearrean, estarriak eten bearrean ojuka:

¡Ia, Jose Domingo maitia, ekiñ ortše, ekiñ, zu lakorik eztagota! ¡Ia, Iñazio Mari, ia Inšio, ia Išio! ¡Aufa! ¡aufa! ¡aufa! ¡Ori dek, ori dek, ori dek jotzea! ¡Aurrera, aurrera, eurea dek eta!

Etzan lenengotik igarten garailari zeñ izango zan. Biak jokutzen zuten ederki; biak jotzen zuten zuaitz gerria gogor, azkar, zuzen, bear zan tokian bertan, alderdi batera ta bestera espal zati andiak boteaz, surtako egurrak tšingartak botatzen dituan gisara.

Lendabiziko zuaitza berdiñ berdiñean bukatu zuten... Orobat bigarrena... Ta irugarrenaren gañcan, asieran bezela zeuden jokalariak, zall, zimel, zauli ta kementsu, zizt eta zazt, dinbi ta danba, batak besteari aurrerik artu ezinda. Apostularien armintasunak etzuan neurrik. ¡Jaungoiko Donca! ¡Zerk gertatu bear ote zuan!

Jose Domingo ta Iñazio Marin erakusleak, gizon oituak, zuaitzen ondoan makurtuta, makillatšo batez erakusten zioten nun jo, ta eskuaz kentzen zizkaten kati-

gatuta gelditzen ziran espal zatiak, izugarri pizkor; ta aurrean zeuden beste adiskideak, ortzak estutuaz, españak okertuaz, buruari cragiñaz, ziñuka, inkezaka, jeupadaka, alegiñ guztiak egiten zituzten aizkoradunai laguntzen.

—¡Ia, Jose Domingo, — entzuten zan ziotela—ia, Jose Domingo, jo gogotik, ondo zuazda! ¡Alimo, Iñio, alimo, bestea nekatu dek eta, geiago aiz ta, alimo!

¡Egundaño alakorik! Azkenengo zuaitzean, seigarrenean, or nunbait zebiltzan biak, berdiñ samar zeuden oraindik. Berdiñ, baño biak unatuta, adikatuta, piper gorria baño gorriago, izerdi patsetan, koi-pe ta lurrunetan, arnasa estuz, sutegi-ko auspocn antzera puzka, ta okotzetatik bera esne itšurako pitsa erortzen zitzaiela. Amaitu bear zuan jokoak eta nola iñork etzekian. ¡Ura urduritasuna! ¡Ura ezurretañoko ikara! ¡Ura nik neukan errukia! Naiago nuan toki artara joan ezpantiz... Aizkolariok zearka begiratu zioten alkarri. ¡Aiene! Galtzeko zorian zeukaten lagunen dirua, etšeko pakea, erritarren arrera ona, ¡beren izen andial! Baño etzuten etsi nai, ez etsi beia jo arte. Len baño

gogorrago jarrai zioten beren arloari, len baño zoliago, biziago, nabarmenago jarrai zioten, ezker eskui, or ta emen, ongi ta gaizki, zuzen ta oker, gizon lauso aserratu-
 tuen gisara zuaitzak astinduez, ta iskanbi-
 llarik andiencan, ikusle guztien jia! jortše!
 ¡aurrera! jekiñ! ¡jo! ¡jausi! ¡bota! ¡ebak! ta
 beste oju estuen erdian... ¡et!... ¡et!... ¡et!...
 ¡¡biba!!... bukatu zan joko.

Orduantše erten zuten baserritar guz-
 tiak beren marratik, ibai ujoltsuak zelai ta
 soroetara ertetzen duten itšuretari; orduan-
 tše urratu ziran alkarren begiruneko loka-
 rriak eta ler egiñ zuten anima dollorren
 griña zatar ta arrokeri lotsagabeak.

¡An esan ziranak! ¡An entzun nituan
 gauzak!—¡Biba gu ta gutarrak! ¡Bera us-
 telak! ¡Astoak ukullura! ¡Beste gizonik
 Bizkaian bada, eman dezala arpegi! ¡Egus-
 kiaren azpian iñor baldiñ bada, agertu de-
 dilla emen! ¡Betik gora prakak jasten di-
 tuanik iñon bada, betor Iñazio Marin on-
 dora! ¡Eztago iñon gipuzkoatarrak bezela-
 korik! ¡Gora Gipuzkoa! ¡Gora Zabaleta!
 ¡Gora Iñazio Mari!

Nik eztakit nola ito etzan au adiskidien
 besoetan. Ainbesterañokoa zan danen le-

potik eldu bearra, besapetik artuta jaso naia, bular gañean estutzea, bizkarrekoak ematea, gizonari paketan utzi eziña. Etze-goan ura bezelako gizonik lurbira guztian, baserritarrentzat.

Jose Domingok etzuan izan ainbeste lagun. Azpian gelditzen danak beti du lagun gutši. Baño bai leialak.

—Eztotzu alde askogaz irabazi;—esaten zioten jastetšeruntz zeramatela—aizkora-kada bigaitik izan da guztia. Adarbegia idoro ezpazendu, zeurea zan jokoa. ¡Adar-begi añaniñua!..... Osta ostean irabazi ta alango arrokeriak. Ondiño ikusi bear do-zue ba alkar, bai Jaungoikoak gura badau.....

.....

Nik eznuan ikusi, baño badakit arratsalde artan bi jostallu erosi zituala Ana Jos-pak: aurtšoa miatzatzeko izaten duten ustaitšoa ta burni me argizko ume-tšintšar-ria, biak erreal batean, oso garesti. Ia ba, egun guztiak etziran berdiñak eta. Ma-nueltšori ta Jošeri zerbait erosteko ere egon zan, baño ¿zertako? Azukre koškor bana eman ta kito. Mondragoiko azukre, *konpita karamelo* guztiak baño gozoagoa

zan emango zien albistea. ¡Jas! ¡Zeiñ ederk
ki jokatu zuan Iñazio Marik! Joanese
esanak esango zituan, baña diruak irabaz-
ten zekian mutillak.

Illunabarrean, nere eginkizunak amaitu-
ta erri alderuntz nentorrela, baserritar as-
ko billatu nituan bideko ostatueta, oitu-
razko atsedetak egiten, premia gabeko jan
edanetan, beste dema batzuetarako asia
botatzen ta ardoak ematen duan indarrak
bertsoak eresitzen.

Ara nik zalpurdirako argi billa sartu
nintzan ostatu batean entzun nituanak:

Bertso berri batzuek
Nai ditut *paratu*,
Pulamentuz esanaz
Gaur zer dan *pasatu*.
Bizkai guztia emen
Guk degu ondatu
Ezta Isio Mari
Aifi gaizki *portatu*.

Gaurko apostu orrek
Badu *inportantzia*,
Itz bitan esango det
Bere *sustantzia*:

Bizkaitarren diruak
Bete dit *poltsia*,
Ara zergatik detan
Nere *alegrantzia*.

Etziran neri batere *alegrantziarik*
eman aien aoetan euskereak zeukan gor-
niak.

¡Eta aien aoetan bakarrik balitz!



VI.

ERRI TA ERBESTEAN

Juan Andres, atzerrira joan zan ezkeru, beñ bakarrik etorri zan Zabaletara. Urteak igarota beñ bakarrik, eta egun gutsi-tarako.

Lenengoetan, jaiotetsetik urruti, Gaztelerriko lur legor beroen erdian, erdaldunen artean, erderaz mintzatu bearrean, adiskide gutsi-rekiñ, gurasoen maitetasun gabe, sorterriko mendi berdeak ikusteko gogo andia piztu zitzaion, euskeraz itz egiteko ta Gorordo azpiko erreketan ur garbi otza edateko leia bizia; baña gero adiskide batzuek geiago egiñ zituan, Gaztelako izkuntza ta oitura berrietan zearo sartu zan, zeregiñ batzuek amaitzean beste batzuek agertu zitzaizkon, ta pitinka edo atalka, makaldu ta ill ziran Juan Andresen biotzean euskal-mendiak ikusteko leia, eus-

keraz itz egiteko gogoia ta Gorordoko ur garbiak edateko egarria.

Baño, esan det, etorri zan beñ *San Migeletan* gurasoen dei bigunari noiz-baten erantzunaz, etsekoai ezer lenago jakin crazi gabe.

Agorrillaren arratsalde batean jetši zan, Oñatiko udaletsearen ondoan, zalpurditik.

Etzuan inork itšaroten, etzuan inon olesik egin azkar ibilli bearrez, ta etzuten esagutu oñatiarrak Zabaletako arri zulatzaile ospatsua.

¿Nolatan esagutu? Etzan errez esagutzea. Illtedun oiñzorro lodiak zeuzkan oñetan, *panillazko* jantzi berria zekarren soñean, curitako (1) andi ederra ezkerreko galtzarpean, pardeltso bat eskuiko eskuan ta zillarrezko kate luzea, ainbeste lerrotan, tšilborretik bera esekita. Trinkoa zetorren, lodikotea; baño beltzerana, eguskiak errea, arrotz itšurakoa.

Zalpurditik jetši ta bereala, pardeltsoa curitakoan sartu, sorbalda gañean ipiñi, ta oiñkadarik sendoenaren oiarzuna atari išill zabalen aurrean utziaz, izpi baten igaro zitzuan Oñatiko kaleariak.

(1) Paraguas.

Emakumeak, gauza guztiak jakin nairik bizi diran irudimen azkarreko emakume urduri batzuk, bata besteari galdezka gelditu ziran:

—¿Zeiñ *ete* da gizon ori?

—Eztakigu ba.

—Goibela beintzat.

—Guztiz.

—Erdalduna gañera.

—Balciteke.

—Arpegi tšarrekoa.

—Osoro.

—Irantzalleren bat.

—¿Irantzallea? ¡Jum! Gantzak ateratzen dituana ezpada...

—¡Eene! Alaše izango da. ¿Zer zeukan zer joan or barrura olako gizon arrotzak? ¡Baserritar gaišoak! ¡Jesus, Jesus! ¿Ta gure umiak? ¿Nun ete dira gure umiak?

Jaungoikoak daki noraño elduko zan emakume bildurtien irudimena ta zer iskanbilla sortuko zuten, Aranzazutik bera erritar zaldun bat azaldu ezpalitz.

—*Don Bizente*—csan zioten ikaraz—
¿ikusi aldu or gizaseme apaiñ bat?

—Bai.

—¿Ta zer deritzo?

—Zatartu egin dala.

—¿E? ¿Zatartu? ¿Baialdaki zein dan?

—¿Jakingo *eztot* ba?

—¿Zein, zein?

—Joanesen semea.

—¿Zabaletakoa? ¿*Trosuetan* ebillena?

—Berbera.

—¡Jas! Ta onek gantz ataratzallea izango dala.

—Nik eta zeuk, guztiok; ez emen norbere errurik inñori bota.

—Danok *be*, utsetik gezurtegiaraño joateko *etzara* tsarrak zuek.

Zabaletako seme gazteak etzeraman baterc Oñatikoen gogamenik. Etserago ta azkarrago, alderdi guztietara begira, nolako arrera egingo zioten amesetan, Uribarriko auzotegira urreratu zancan, gurdi bidetik lenengo, ta gero, iru arri malla igonda, soro ertzeko bide zigorretik, ezkerretaruntz asi zan baserri aldera zoli zoli.

Aiñ zuzen orduantse zegoan Pedro Anton zarra belarra ebakitzen muno baten egian.

—¡Jaungoiko maitea!—esan zuan, berrondoan eskua zabalik ipiñita, bidastiari begiratuaz.—Gizon orren ibillerea... Egin-

gō nuke geure Juan Andres dala... ¡Bera data! ¡bera data!

Aguratsoak, itai, belar ta otarra utzirik, izugarrizko antšitšiketan erten zion bidera Juan Andresi, ta estutu batzuk eman ondorean, oiuka ta losinka, eutsika ta bulzaka, lagundu zion mutillari etšeraño, aspaldian ikusi gabeko nagusiari zakur leialak egin oidioten antzera.

Laster jakin zan Uribarri guztian mutillorren etorrera. Gau artan ta urrengo egunetan, andreak eta gizonak, gazteak eta zarrak, lagunak eta auzoak, denak joan bear izan zuten Juan Andres ikustera ta berak esaten zituanak entzutera. Izan zuan nork entzuna ugari.

“Pankorbo zeritzaion erri zakar batean egon zan bera lenbizi, gero Santa Olallan. Alderdi artako erriak baldar ta tširoak ziran geienak; ango lurak, agor, lau, zabal ta berdiñak, zugazti ta belardi gabeak; baño batere itšurarik etzutela, ar koskor artean bada ere, garia ematen zuten galanki. Lur aietan etzan artorik; dena garia, edo garagarra, edo oloa, edo zekalea, itšasoa beste luzerako salletan. Gizadiak osteratšikiak, igarrak, beltzak eta nolabaitekoak

iruditu zitzaizkon. Bai, *prantzepak*, gaztelarrak eta euskaldunak nastean ibilli ziran burnibideak egiten; baño etzuan billatu arrobian, argintzan edo lurra jasotzen euskalduna bezelako gizonik. Euskaldunak egiñ zituzten, anitz lekutan, lur azpiko bide luzeak; euskaldunak zabaldu ta jantzi zituzten Atapueta, Karraskal ta Astorkillaskoak. Erri asko ikusi zituan berak, Juan Andresek, batzuk andi ta gizatsuak, Bribieska ta, Burgos ta. ¡Burgos! ¡Ura bai zala uria! Ango elizak, ango *katredala!*... ¿*Katredala* zer zan? Eliz andi eder bat, Oñatikoa baño ere askozaz andiagoa ta ederragoa. *Katredaleko* apaizak *kanonigoak* ziran, beste apaizak baño *gradu geiagokoak*, eta eliz artako buru *Artzobispoa* zegoan, Aita Santuaren urrengo gizona. ¡A ze urrezko tšapela erabilli zuan arrek Dagonilleko Andre Mariaren egunean! Urrezkoa, bai, urrezkoa, baita beartzean zeraman erastun lodia ere... Urrutietara joan ezkerre edozenbat gauza ikusten ta ikasten zan. Ara, berak, etsetik erosten zuanean, tutik etzekian erderaz; baña oraiñ edozeñekiñ mintzatzeko beste bazekian. Gaztelarrak burnibideari *perroka-*

rrill esaten zioten, ta prantzezak osterat
tšemen de per. Ondo esan bear zan ba-
ña: *jtšemén de perrr!*“

Ondamuz zeuden Juan Andresen ingu-
ruko lagun ta aditzalleak. Bai ba; ederki
jantzia zetorren, ainbeste gauzen berriak
ematen zituan, erderaz ere bazekian, ba-
zan diru piška baten jabe, ziotenez: ¿zer
geiago eskatu zezakean gizonak? Bateri
baño geiagori erne zitzaion bularbarruan
prantzez ikastera joateko gogoia, diru apur
bat egiñaz ta Artzobispoa ikusiaz.

Manueltšok, ordurako indartua zegoan
ta, bere naia ezin gorderik,

—Aita,—esan zion Jose Ramoni—nik
ere osabarekiñ joan bear det.

—¿Osabarekiñ? ¿Eure gazteria lur az-
pian igarotzera? Ez, bertan daukagu emen
zer jana ta non lan egiña, iñora joan gabe.
Lurpean baño obe dek lur azalean arlotu,
eguzkiaren argitan auala ta zeruaren eder-
tasuna dakuzkala.

Malentšo, neška zizkortu zoragarriak:

—Ama, ni, anditzean, ¿Artzobispo egin-
go alnau?

—Bai, nere kutuna, nik egingo zaitut
zu Artzobispo ta *Katredal* ta Burgos guz-

tia baño andiago ta ederrago; eliz barruan, Aita *San* Iñazioren ondoan jartzeko euskaldun donerik politena egingo zaitut.

Etorberriaren gurasoak mutillaren esanakiñ etziran batere lausotu. T̄sit abegi ona egin zioten lenbizi, oso atsegiñez artu zuten beren besoetan; baña semearen erdal soñekoak begiratu, epeltasuna ikusi, euskera nastua entzun ta maitetasunik eza igarri ziotenean; ta batez ere, mutillaren erbestera berriz joateko asmoa jakiñ ta gero, pozaren orde z naigabe minkaitza jaiki zitzaien erraien erdian.

Ara emen aitak Juan Andresi, bakarrik arrapatu zuanean, esan zizkon itzak:

—Ez aiz mendikoa, eztidurik gutarra, joan zaizkik emengo garo usaiak.

—¿Zergatik? ¿Erderaz dakitelako?

—Erderaz jakitea ona dek, euskeraren kaltean ezpada.

—¿Gaztelerrian adiskideak dauzkatalako?

—Kristauak edonun bear ditu adiskideak, obeto esango det, edonun dauzka bere anaiak.

—¿Zergatik, bada?

—Eure baserrira, eure gurasoakana, go-

gorik gabe etorri aizalako. Igartzen diat: ez ago i ondo emen; eure etše barruan atzerritarra dirudik, jazkera ta izkeragatik baño buru ta gogoagatik geiago, bada ire buru ta gogoia erdalerriko irabazian dauzkak.

—¿Nork eztauzka? Baño nik alderdi guztietan goratu det Euskalerrria.

—Eure burua goratzeagatik, apika. Ik eta beste askok, aotan Euskalerrria, Euskalerrria; biotzean norbera, ¡norbera! Ta norbera esatean, dirua esaten diat iri. Esagutze aut: gartzelar ta prantzczak beratzeko gaizki esaten dek, baño aien diruagatik eure sorterrria zalduko eukealata nago.

—¡Aita!

—Bai. Ta i bezelako euskaldunak badi-ra makiña bat.

—Ezbeza orrelakorik esan, aita.

—Ez adi orrelakoa izan, seme.

Ana Josepak ostera, betondoa zimurtuta, betiko aserre itšuran:

—Mutill, gauza batekiñ natšiook arrituta.

¿Zer ekarri dek or, españ gañean?

—Orišen da galdera. *Bibotea*.

—¿Bibotea? Kendu itzak bizar oiek

ainbat lasterren, gurcan eztek orrelako zinkinkeririk beñere izan ta.

—¡Bai zera kendu! (*Beatzex igortziaz*)
Ondo egoki dauzkat.

—¿Egoki? ¿Zertarako egoki? ¿Sudurreko urentzat malatua egiteko? Kendu bearko dituk laster, edo ta bestela...

Semeak etzituan kendu, baño Ana Josepak egin zion egitekoa. Juan Andres lotan zegoan tšolartean, guraiza zorrotzez, trist, trast, moztu zizkion goi-españeko bizarrak (1). ¡Ze demontre! ¡*Fuera bizarrez!* Zabaletan etzan bear biboterik.

Gertaera parregarria zan ura, ta parre andiak egiñ zizkioten orduan lagunak gurre mutillari, baño berak etzuan batere parrerik egiñ. Sapuztuta, minberatuta, muturtuta, igaro zituan egun batzuek etsean; baño laster, amak egiñ zionagatik, edo aitak esan ziona egia zalako, edo eztakit zergatik, beñik beñ aspertu zan Oñati aldean, gogait eragiñ zion bere baserriak, eta gurasoen damuzko itz ta egiazko mai-

(1) Gertatua da.

tetasunaren eskariak entzun nai ezik, artu zuan berriro erdalerrirako bidea.

Etzuan orratik beste zartada bat eramangabe Gipuzkoako lurra utzi. Zumarragara ia eldu zanean, zaldizko batek, Patšiko sendatzalleak, soro tartetik,

—¡Jeup!—deitu zion.

—¡Ola, Don Prantzizko!

—Astia detanean, prantzezez mintzatu bear diagu.

—Ezta ba onezkero errez izango.

—¿Zer ba?

—*Kanpora* nua.

—¿Nora?

—*Trosuetara*.

—¿Ez altziok atšurrik Zabaletan?

—Baño beste leku batean dauzkat nik nere lanak.

—¿*Papa Moskas* ill aldeak?

—Beti *unore* onian berori.

—Ez, alajaña. Ziñez galdetu diat. *Papa Moskas* ill badek eskatu zak arren tokia iretzat. Berebizikoa aiz: Ez aserratu egia esan diatalako. Agur, astokillo, ikusi arte.

Bidastiak etzuan ezer erantzun. Kopeta goibeldurik eta españak dardar zituala, lepoa eman zion sendakiñari.

—¡Petral, zikiñ, urde arraioa! ¡Mooño!...
—esan zuan bere artean.

Ta Patšikok, zaldia zigorrez joaz:

—¡Je, je! Igesi dijoan zakurrari bustanean su eman diot.

Andik aurrera Juan Andresen albiste gutsi izaten zuten Zabaletakoak. Orratik ere, noiz edo noiz etorri oi zan eskutitz bat edo beste, etsekoak egindakoenaren erantzueran, gaur Billadiegotik, biar Palenziatik, orain Medinatik, gero Zamoratik, bein Orensetik eta Braganzatic urren-goan: baño beti elkor ta laburra, zeregiñ asko ta gogo gutsiako gizonak egin oiduten bezela. "Ondo nabill", "Astudillora goaz", "*Katapaz jarri naiz*", "Ogetamar gizonen burutzat nago", "Lau illabeteko lana daukagu emen", "Poliki irabasten degu", ta orrela urte askoan; arau batean ta murrizki.

—¿Ez aldu ezer geiago ipintzen?—galdetu oizuan amak.—¿Noiz etorri bear duanik ere ez? Ainbeste illabetean zai egonda... Orišen bai dala itzak zenbatuta bialtzea, ontzurreak balira bezela. Gaitzerdi poliki irabasten badu. Ara, Joanes, *poliki*, baserritarren mintzoeran, *asko* esatea

beste da, ta asko irabaziko du gure mutillak. Ikusiko dezu, aberastuta etorriko zaigu semea.

—*Urruneko eltzea urrez, etšerat orduko lurrez.*

—Bai beste batena, ¿baño Juan Andre-sena? Ez siñistu. Arrek eztu dirurik eralgiko, lengoa bada. ¡Tšanpon bat bakarra etziran eman errira etorri zanean ere! ¿Non gordetzen ote ditu diruak?

—Zurc sakelean ez beintzat. Orregatik diot: *etšerat orduko lurrez.*

—¿Non leuzkake obeto? Ta badauzka nonbaiten, bai, nai ta nai ez iduki bear.

—Zenbat daukan baño naiago nuke jakiñ nolako bizikera darabilen.

—Zuzena izango alda mutilla, geurca data. ¡Andia da orratik ezer ez geiago adieraztea!

Bere gurasoak etzekiten, baño nik badakit nolako bizitza zeraman Gaztelerrian Zabaletako semeak: beste ango adiskidien bizitza berbera, zeken zikoitz diruzalien bizitza. Alderdi askotako gizonak zebiltzan alkarrekiñ; baño, zerbaiten agintea zutenak beintzat, berdiñ samarrak ziran, kristau otzak, asmo ta gogamen bakarre-

koak: nondik eta nortara lortu zitezkean tñanponak errezago ta oparago. Aien artean etzegoan ez Jaungoikoaren agindurik, ez otoitzik, ez oitura onik, ez izkuntza garbirik. Iñork etzuan gurutze bat kopetan egiten edo *Aita gure* bat esaten, kristau oroipenik etzualako edo lagunak bildurrez; denak utzitzen zuten jai egunetako Meza, elizetatik urruti zeudelako edo alkarren lotsaz; denak egiten zuten lanik gogor ta neketsuena, igandietan ere, nagusiekikoa idukitzeagatik edo besteak baño gutsiago ez irabazteagatik.

Denak esan ezkeru esana dago, Juan Andresek ere bai. Bizikera orrek, egia da, miñ ematen zion lenbizi biotzean ta osoro illuntzen zion anima; baño laster ito ta estaldu zituan biotzeko arrak eta animaren kezkek. Lagunak bezela ez izatea etzan itsurazkoa, bere ustez; iñork ez aña indar ta gaitasun iduki ta besteak baño geiago ez irabastea etzegoan ongi. Parre ere egingo zioten. ¡Parre! Naiago zukean ukabilkada bat artu, bere burua gizonen parregarritzat erabilli baño. Ez, jakiñ zezatela zenbaterañokoa zan menditarra. Izketan ta

berriketan eramango zioten, baño ez lanean, ez oriñe.

Iritzi oker oien zirikadak lañotu zioten adimena Juan Andresi, gogortu zioten errai-barrua eziñ geiagoan, ta astu zitzaizkon euskal mendiak, euskal oiturak, aideak, gurasoak, sinistek, oroipenak eta baita ere Jaungoiko Altsu Donearen aginduak.

—“¡Bal—jardun oizion bere buruari, zerbaitez gogoratzean—¿Zer dijoakit Euskalerrira biurtzeaz edo ez biurtzeaz? Utsa. Eztat ajola emen edo an bizi, euskeraz edo gaztelarrez itz egiñ, arto lizuna edo ogi legorra jan, baburrunez edo barbantuz ase, ardo beltza edo sagardo gorria edan. Ardoa ohea baño ezta indarra emateko... ¿Zer ateratzen det otoitz egiñaz ta Mezatara joanaz? Ezer ez. Lan orduak eta tñanponak galdu. Ezkaude gaur orretarako. Gero ere, zartzaroan, izango det bai astia naikoa Mezak entzuteko ta otoitzak egiteko. Irabazi, irabazi: ori da gizonak gazte dagoan bitartean egiñ bear duana. Ta ementsen, Gaztelerrian daukat irabazbidea, geroago ta ugariago, geroago ta arago, bada langilleai agintzea ta arretaz begi-

ratzea da nere zeregiñik andieña. Irabazbidea ta gizon andien adiskidetasuna gañera. Burni bideko nagusi ta agintariak beti zarabilzkit nere atzetik deiezka: "Juan, etzaite emendik aldendu, ta ikusi ezkeraldeko langille oiek zer egiten duten." "Juan, ia gurdi auck azkartso biraltzen dituzun." "Juan, zeuk asi bearko dezu orko edo ango arrobia." "Juan, emengo lanak bukatzean, gurekiñ etorri bearko dezu onelako edo alako errira." Astokillo esan ziran neri *Don* Pranzizko zendatzalleak, baña ez nauka ni emen iñork astokillotzat. Bera da ura astokillo, berritso, ergel, ziztriña. Irri egiñ bear iñori, urtean amar milla erreal doi doi irabasten dituan gizonak."

Eziñ ukatu genezake Juan Andresek arlo andiak zeuzkala zegoan tokian; berez ta jatorriz trebe, zintzo ta langille ona zalako, nagusiak ongi begiratzen ziotela, gogoz aitortzen degu; baño, belarrondora ta erdi lotsaz bada ere, beste ipuitso bat agertu bearrean gaude.

Bazebillen an norbait, burutik okozperako zapiduna, gona motz ori lodiz jasten zana, bularrean gurutzeturiko oial zirpil-

tzuz lotua, gerri zabal, mokor astun, ibilbaldarreko emakumea; bazebillen gau ta egun, goiz ta arratsalde, euskaldun gizasemeaz amesetan, morrosko sendoa non ikusiko, bere karruko itšaropen ta bildurrak mutillari nolatan esango. Dionisia Gomez Junkeiro zeritzaion, langillien arteko galizitar erari zaltzallea zan, Antonio Gomez Moreno *Katapazaren* alaba. Arretšek zekizkian ondo Juan Andresen albisteak, bera zan geienbat gure menditarrak Gaztelerrian egoteko zeukan zioa, bera Zabaletako gaztearen lika ta lakio, jabe ta etšekoandre. Bai, Zabaletakoak pozik emango zizkon begi biak Dionisiari, onek eskatu ezkerro, bere biotza oso osorik emanda zeukan bezela. ¡Alkarrekiñ ezkontzeko zeuden neska mutillak!

¡A! Ta galizitar emakumea etzan ez eder, ez garbi, ez aberats. *Naikeriak edertzen ditu gauza itšusiak*. Gezurra diruri, baño gezur irudiko egi asko gertatzen dira ezkontzako gauzetan. Irakurleak badaki.

Noizbaiten bada ere, aditzen eman zion zer asmo zerabillen Juan Andresek aitari. ¡Ai onen samiña orduan! ¡Ai Ana Josepa-

ren zotiñak! Esan zioten semcorri jarren! oroi zezala antziñakoen esakera jakintsua: *urrutira dijoana ezkontzera, edo da engañatua edo dijoa engañatzera*. Alperrik... Esan zioten, ¡Jaungoikoaren ize-nean! etor zedilla etšeruntz ainbat lasterren, bazirala Euskalerrian neskatša onak, ezkonsaria ero ero emango ziotela. Alperrik... Esan zioten eziñ zitezkelak gurasoak urrutietara joan; etzala itšura, erbestean, jedozeñekiñ!, aide ta guraso gabe, sasiko baten irudian senartzea. Alperrik... Esan zioten negarrez zeudela aitamak, anaiak, illobatšoak. Alper alperrik: sua itzaltzeko, labe gori gartsuan izurtzea malko batzuek bezela.

Juan Andres emaztegaiaz itšutua zegoan: Dionisiak, paparrean ezartzen zaigun musker baten antzera eutsi zion senargaiari, ta etzion utziko zazpi errietako kanpaiak jota ere (1).

Euskaldun basetšetarra ezkondu zan Gaztelerrian ta gaztelarren taiuan. ¡Zer

(1) Oraindik bada gure artean ume sifiste itšoro au: muskerrak gizonari eltzen dionean, piztiak gizonari utzitzeko jazpi errietako Kanpaiak jo bear dirala!

egingo zaiot! *Bakoitza bere zoroak bizi du* (1). Utzi daiogun pakean, ta goazen beste Zabaletakoak nola zebiltzan jakitera.

.....

Iñazio Marik luzaroan jarraitu zion bere jokorako seta gaiztoari. Egun batean galdu ta bestean irabazi, oraiñ gañeko ta gerošcago galtzalle, Jose Domingorekiñ gora bera andiak erabillita, Abadiñotarra menderatu zuanctik aurrera, urtietan iduki zuan Euskalerriko aizkolarien nagusitza; baña nola betiko illargi beterik eztagoan, Beizamatar gazte indartzu batek azpiratu zuan beñ, geiago ez nagusitzara jaikitzeke adu tšarrean, ta beste batzuek baztertu zuten ostera azkenengo aizkolarien zingo ta mugetaraño.

Ala ere, iñok ezin zuan bere jokoetatik atzeratu. Alde batetik, lenagoetan entzundako tšalo soñuen oroimenak deitzen zion lagun artera; eta beste aldetik ondo zcri-tzon, nunbait, jokotik dirua errez irabazteari, erdi lanean edo alperreri osoan bizitzeari; bada, Gipuzkoako azoka ta dema geienetan, etšckoen išillik edo denak ze-

(1) Cada loco con su tema.

kitela, saltzalle asmoan edo erösle ustean, jokatu naian edo erakutzi *bearrean*, auzoko ariarekiñ edo etšecko ollarrarekiñ, bei zarra eramateagatik edo tšal berria ekartzegatik, aizkorak edo palankak autatzca zala, narrarria ikustea edo zuaitz neurketazala, ta besterik ezcan atšurrak eta laiak zorroztecko garaia zala, aitzaki maitzaki, gezur ta abar, non da nere gogoa an da nere zankoa, Iñazio Mari azalduko zan azoka zelaian arro arro, aterako zan dema zalien ondoan, gizonik oituena, aukerakoena, premiazkocna bezela.

Ta jakiña; urte oietan Azkarragak etzuan batere aurrerapenik izan. Alogerekoen eskuetan dabillen lurak irabazi gutši ematen du, nagusia begira ezpadauka, ta beti zebillen alogerekoen eskuetan Azkarragako bazterra, nagusi zar indargeak eziñ begiratu ziotelako ta nagusi gazte buru-ariñak jolas-demetan zeukalako ainbat zeregiñ.

Esagun zuan baserriak. Euri lanbro bat crori orduko, iztilla zeriokcon alderdi guttietatik tanga tanga; tellatuaren išurki bat abe ustelduen gañean larregi etzinda zeukan; etše-arpegi zabala, azpaldietan zuritu

etzalako, narras ta loia agiri zan; sukalde ta geletako ormak puslatuak zeuden, asabak tolestutako arrimuturrak kare urratuaren tartetik erakutziaz; ganbarako aleak eta ukulluko elcak urtean baño urtean geiago urritu ziran, ta soroetan, soro-bidietan, zelaietan, munoetan, baserriko lur landuen ertz, egal ta inguru danetan gardo ta belar gaiztoak, iak eta tšillarrak, sasiak eta elorrak, masustak eta bašakanak elementian ugaldtu.

Esagun zuan etše artako nagusi gazteak ere. Etzan guk Mondragoiko enparantzan esagutu genduan ura: argala ta larrakitua zegoan, ille banaka batzuek tšuritu zitzaizkon, len baño soñeko maiztuagoak jasten zituan.

Seme alaba bi zeuzkan, Paula ta Martin; au, illabete gutši-geiago, Malentšoren idekoa; ura, urte ta erdi gazteagoa. Auktakoren bat eskutik zuala joaten zan noizean bein Zabaletara, Joanes etšcan izan ezik. Etzuan nai bere burua aitaren aurrean agertu, onen jardunak miñ ta lotsa ematen ziotelako; baña artzai zarrarekiñ iñoiz arkitzen bazan, apalkiro entzun oizituan semeak gurasoaren patšadazko erakuste zu-

zen ta ongarriak. Baita itza eman ere, benetan gero, etzala iñongo jokotan berriz sartuko, ta lanari eutsiaz biziko zala bere baserria jasotzen; baña urrengo beta zeforkionean jagur agindu onak, agur asmo ederrak!, beñgoa ezer etzalata, berriz ere berera ta lenera. Animaren etsaiak, bakoitzean *beñ* baiño estu eskatzen. Arrek jakiñ *beñ* askok egiten duala *beti*.

Amaren esanakgatik, zorrotz ta garrazagoak izanta ere, etzuan ainbeste ajola izaten Iñazio Marik.

—¡Ai, tankarra, tankar nagia-asten ziztaion ura-baator i oraiñ ere zerbaiten billa. ¿Ez altziok *aposturik* iñun? ¿Ala jokorako dirurik ezaldaukak? Gurean etziok ba. Joanari Peru Odolkigana, arrek emango dik kauka. Amaika bidar jan dik ire umien ogia eskallu, saskel, tšotšolo, arloteak alakoak. Ire ondoren ikusten detanean, ara, barru guztia irakiten jartzen zait... Maškar billatze aut. ¿Gaišorik alago? Ez, ez uste izan; ire kupidarik eztaukat, ire ume ta emastearen erruki nauk. ¡Ezkenduan guk *prenda* tšarra Azkarragara bialdu!

—Ama, erre beit lukainka muturt̃so bat, *sermoia* baño goñoagoa data.

—Lotsagabe lotsagaldukoa, obeto egingo uke nere itzaldiak ondo entzun ta elizakoetara sarriago joango baintz. (*Labana eskuetan zuala lukainka ebakiaz*). Martint̃sorentzat erreko diat, ez iretzat... ¿Paulat̃so nola ekarri eztek? ¿Amarekiñ gelditu alda? Ik añako ikasbideak emango dizka. ¡Mikalla gaiñoa! Esaiok asti aldi batean etorri dedilla onuntz, urdai zati bat eta lukainka batzuk eramatera... ¿Bai aldezute baburrunik aurten? Ez ba, ereiñ ezik... Asto, baldan, alper, ondatzalle... Buruan jotzeko gogoia ematen diak, orra.

Jose Ramonen ziskotik atera oizuan Iñazio Marik diru apurren bat, estualdian.

—*Ermano*, bost *duroko* bat eman bear diak.

—¿E? Bost *durokoa*? Zer dalata?

—Gizarteko gauzak. Lengo igandean, Moñolo ta ni asi gaituk, zaragia esku bakarrrez jaso baietz ta ezetz, ta galdu eginian. Ezertako ez nauk ia, Jose Ramon.

¿Baño zertan sartze aiz i orrelako isti-lluctan?

—Egia diok, egi andia; ez nuke nik sartu bear, ta ez nauk geiago, sartuko. On-do garbatuta niok, ondotšo alare. *Tira*, emaidak oraiñgoagatik, gaur eramatekotan gelditu nintzan ta. Aurki biurtuko diat.

—Bai, aizerik eztan urtean.

—Biar edo etzi...

—Edo etzidamu: Jaungoikoa zartu baño len.

Joanesen mendekoak, bitartean, be-ren ardurazko bizitzari jarraitzen zioten ederki.

Manueltšo etzan Manueltšo, Manuel baizik. Asko indartu zan, aukerazko base-
rri-mutill argi, bikañ ta osasuntsua zegoan, ta soro-mendietako arloetan tšit langille ta zentzunez betea zebillen. Ikasiak zeuz-
kan lurrean azia botatzeko aro ta giroak; bazekizkian arto-gariak biltzeko, baratz landareak aldatzeko ta sagar-udareak tšer-
tatzeko era ta garaiak; gutšik eramango zion atšurrean edo laietan; gutšik beiak ongi uztartzen, bide oker estu koskatsue-
tan gurdia zuzen eramaten, gaztañak jeis-
ten, aritzak iñausitzen, edo Gorordo gañe-
ko garo mardula ebakitzen; ta, Joanesen ondorengo bati zegokion bezela, beste

edozeñenen artean, millaka izanta ere, banan banan ta ziur ziur esagutzen zituan etše-artaldeko ardi ta arkumeak edo norbere beortegian jaiotako zaldi mošalak.

Jose umezurtza, Iturraldetik ekarria izanarren, Zabaletako semetzat zeukaten mutill gaztea, goiztarra, ernaiia, biozbera ta eskerduna, beti zegoan parre antzean, agintzen zizkioten gauza danak egiteko gertu, naiz urian naiz etšean, nola soroan ala mendian, orobat egunaz ta berdiñ gabaz. Arrentzat etzegoan ez ordu tšarrik, ez lan gogorrik, ez gauza astunik, ez akiakularik. Berak egiten zituan besteak nai ezta utzita zeregiñak; bera zegoan neke gabea besteak nekatuta zeuden orduetan; bera jaikiko zan gaberdian, trušuaeren zaparrada entzun ezkeru, euri-osiñak arekatik zear bialtzera; bera joango zan sarri Aloñara, aitonaren orde, pagadietako bide itzaletan gora, baso piztien bildurtzake, Jaungoikoaren bildur ta maitetasuna lagun zaramazkialako. Euskalerriko gaztientzat eredu andia zan Iturraldeko Jose.

Pedro Anton ta Joanes, urtez bete beteak, zerbait erori ta ajeatuak zeuden, morroia nagusia baño indarge ta mekoago.

Ana Josepa egundañorik piškorrena zebillen. ¡Emakume zimelagorik!

Egiaz: morroi zarra etzan gauzá anditarako. Artoak zuritu, abarkak josi, artillezko sokak egiñ, belar piškabat ekarri, arbastak kimatu, beiai jaten eman, esnea bitu, ta beste orrelako arazoren batzuk izaten ziran bereak; baño Joanesek etzien oraindik betiko eginkizunai utzi. Gerriko miñ apur bat euki edo ez euki, etzuan gizonak lanetik aldendu bear. Alaz guziz ere, len baño maiztsoago ta apeta geiagotortzen zan Aloñatik etšera, ez bakartadeak izutzen zualako, baizik illobatsoa ikusteko pozak zekarrelako.

¡Illobatsoa! ¡Malentso! ¡Arretšek irabazi zuala bai galanki! ¡Urašen bai zegoala benetan maitagarria! Asi, zabaldu, bete, ta guritu zan, baño ez geiegi. Malentšok etzcukan geiegizko gauzarik, ez gorputzean, ez animan. Esakran tolesgabea, ibilkeran adjutua, begirunean samurra; esnea beziñ zuria, olio beziñ leuna, ezta beziñ gozoa; garbia, tšukuna, liraña, burutsua, ona ta ederra beste on ta ederrik iñon bazan, aingeru bat zirudian ta aingerutzat

zeukaten, etsekoak, esagunak eta erri-tarrak.

Gaitz bat zuan Malentšok, aldi batzuc-tako amonaren esanak siñistu nai badira: esku zabalegia izatea. Eltzekondoa bazan, esne beroa bazan, ogi puska edo geeli za-tia, bere atorra edo amaren gonea, berca-laše jan edo jantzi eragingo zion Malenek atararira zetorren beartsuari. Zabaletakoak lortu alzuten guztia emango zukean, utzi ezkerro. ¡Neskatša purtzill nabarmena! Be-re buruari ezer opa ez, ta eskalientzat da-na bear: *San Blasetan* piper-opilla ta Ostegun Doncan garapaio (1) ederra amandreak ekarri, ¡ta *Abe Mariaka* zeto-rrren landerrak iruntzi Malenen piper-opill ta garapaioa! Maitetasuna galtzeko ere ba-zan illobaren eskergabekeria.

Ana Joseparen esanak eztira siñistu bear gai orretan, bađa mingaña ta biotza etzebilzkon batera. Ez, etzitzaien Zabale-takoai Malentšoganako maitetasuna gal-tzen. Egunean baño eguncan geiago maita-tzen zuten; eroturik egoten ziran Kataliñ ta Jose Ramon alabatšoaren ganora ta ma-

(1) Garapaio. Amabitsik besoetakoai eman oidien arrantzaz apaindutako opilla.

raztasuna ikustean, t̄soratzen aiton-amonak illobat̄soaren mendu ta z̄erzeladak nai añan eziñ jasoaz, ta amona ber̄a izaten zan, beste eraldietako esateak astuta, Malent̄soren goramenik atsegiñenak antolatzen zituana.

Baño, batez ere, Joanes ta Malent̄so ziran alkar artuak eta bata bestearen maitale andiak. Malenek ertetzen zion aitonari larrañera, ura menditik zetorreanean; Malenek kentzen zizkion sorbaldetako zorro ta esne ontziak, Malenek abarka mantar legorrak atera, Malenek barruko jantzi zuri garbiak oe gañean ipiñi; Malenek, arto me zeetuz, esne zukurik gogozkoenak egosi; Malenek, artzaia Urbian zebillela soroetan egindako lanak esan ta uritik et̄sara ckarritako tresna, oial ta jakiak erakutzi. Joanes, lorea billatu duan erlea bezela, edo neguko eguzki epela *artzen* dagon agurat̄soaren gisa gelditu oizan Malent̄soren ondoan.

— Jaungoikoak sortu zinduzan — esan oizion bakarrik idorotzean — Jaungoikoak sortu zinduzan nere azken egunak alaitzeko. Zuk aztu erazten dizkidatzu nere nekeak, nere samiñak, nere beastunak. Zuk

urtzen didazu nere animako izotza, zuk ematen didazu indar ta osasun berria, zuk gaztetzen nazu, enetsoa. Zu bezelako illobak ames egin ditut nik nere ondorengotzat, Euskalerrriaren onerako, Jaungoikoari eskeiñtzeko.



VII.

LOREAK ETA ARANTZAK

Bazan ba beste bat ere ondo biotzetik Malentšo maitatzen zuana.

Etšeke umezurtz gaztea: Jose.

Azal zuri, begi urdiñ, gorputz iaioko mutilla, alai ta askatua, aratz ta belatsa, jai egunctan, soñeko garbiak jantzita, eleizarako gertatzen zanean, ikustekoa egoten zan Jose. Neskats̄ batek baño geiagok egi-ten zion agur bizia, abegi esankorra, Oñatirako edo Aranzazurako bidean, ta bestek baño askozaz obea Azkarragako Paulatšok, mutillaren edertasunaz gañera bere mendu ta zerzeladak ondo zekizkialako. Baño Joserren begiak etziran iñongo neskatšctan beñere jarri: etšcan zeukan nori begiratu, etšcan zeukan Malentšo.

¿Noiztikoa zan baña Malentšogana-ko maitetasuna? Betikoa: beti maitetu

zuan Josek Malentšo, beti era berdiñetan izan ezarren. Malentšo aurra zanean, aurrari zurikeriak egiñaz edo ume koskor polit ura, elizako aingerua erabiltzen dan begirunez, lepoan erabilliaz; zizkortu zanean, ikastetšera neskatuari lagunduz ta ikaslerik gogozkocnari bezela *Gurutze Santuaren* eragiñ edo *Aita gure* ta beste arrenak esaten erakutzi; anditšo egiñ zanean, lenbiziko marrubiak, masustarik elduenak, sagarrik zindocnak, gaztañerrik bigunenak emanaz edo zelaietan jaiotako lorez egindako sortatšoak eskeñiaz.

Malentšok oñez ikasi zuanetik aurrera, alkarren adiskide ta lagun esagutu genduzan neskatilla ura, Manuel ta Jose. Mai baten jan zuten ainbeste urtean nabasi, etšeko guztien ondoan; sukalde baten egiñ zituzten goizeko ta gabeko eskari bero zintzoak Aranzazuko Amaren irudi aurrean; bata bestearckiñ jolastu ziran irurak, katakumien tajuko ume jolas garbi errugabekoctan; berreun ta geiago aldiz esan zizkioten Manuelek eta Josek Peru ta Maria-ren ipuia, Amabi lapurrena, Tudelatik zetorren astoarena, Anbotoko Andrearena, Basojaunarena, gabeko amabie-

tan lišiba jotzen zuten sorgiñena, ta beste onelako gezur-ele zar *koipatsuak*, elizan entzundako erakusgarri eder batzuekiñ nasteen; anai-arreba maitale maitegarrien antzera bizi izandu ziran beti, egundaño apeta gaiztoaren kutsuak iñori ta iñola ikutu gabe, ta etzitzaien beñere otu bizitza guztian berdiñ jarraitu bear etzutenik; baño Malentšok andre itšurak artu zituanean, goizetik gabera, neskatoaganako atzeka ta lotsakor biurtu zan Jose.

¿Zer zelata? ¿Zer zuan mutillak? Ezta errez ondo esaten.

¿Ikusi aldezute, nola, eguzkiak jotzen duan lurrari, batez ere lur on ta emankorra bada, ernetzen zaion ustekabero usai gozodun lili apaña? Orrela erne zitzaion Iturraldeko Joseri Malentšoganako jas, lera edo zaletasun berria. ¿Begiratu aldezute iñoiz, nola, Jorraill aldean, legor itšurako Makilla landareari ertetzen dion murgill bigun berdeak, ostoa, lore ta garaua aurki emateko? Era berean erten zion Joseri kezka batek, ames orduetan poza ta esnatzean larritasuna ematen zion kezka eztiak. ¿Somatu aldezute iñoiz, izateak basterren batean ipiñi duan azitik, nola

sortzen dan mamorro narraztia, laster mitšeleta egalari polita izateko? Eredu orretan sortu zitzaion Joseri barruko ar bat, izakai bat, gazi-geza, lakatz-leuna, gozominkaitza, gogozkoena ta bildurgarriena.

Bai, Joserentzat, Malentšoganako maitetasun berria, batzuetan, anima barruan erne ta narotutako lilia bezela zan, usai gozoz bakarrik kordea kentzen zion lilia bezela; mamorro bat zirudian bestietan, errai-alozen erdian atšimur egiten zion mamorro isill gaiztoa; mitšeletaren itšurak artzen zituan noizean beiñ, bada irudimen aurrean zebilkion zilibokatzalle, adarrrik adar edo itšaropenik itšaropen; biotzeko murgill samurra zan beti, osto, lore, garau mizkeak eman bear zituzkean kimua.

Baño jai! etzitian emango. Ezin zitezkean. Amesak ziran, Josereren ustez, bere gogamenak, ganoragabeko mutill ausarditsuaren ames tšoroak. ¡O zer zoriona ames aiek gertacra biurtu al izan ezkerok! ¡Nola biziko zan orduan Malentšorekiñ! ¡Zein apalkiro itz egingo zion! ¡Zein bigunkiro bizitzen lagundu, nolako pozak eman, nolatan maitetu! Lurreko zerua izango zu-

kean Malentšorekiñ, Urbiako tšabolán bi-
zi bear izanta ere.

¿Elikatuko ote zituan Josek, beretzat
bakarrik, gogamen auek, biotzaren jaki-
tzat, animaren jai orduetarako? ¡O, ez!
Indartu egingo zitzaizkon, ta naikoa indar
zeukaten jaiota bereala ere. Lotsagarria
zeritzon bera bezelako umezurtz lander
batek etšejauntzako neskatš aberatsa nai
izatea. ¡Ta nolako neskatša! Lurbiran ema-
kumerik etzan bezelakoa, Egillearen Jau-
regiko donea zirudiana.

“Eskergabea—deitzen zion bere barruak
Joseri — ¿Orrela ordaintzen dezu emen
jandako ogia? Soñean dauzkatzun prakak
iñorenak dituzu, ta Uribarriko gazterik
ondasuntsuena nai zenduke? Morroi sar-
tu ziñan, semetzat asi zaituzte, ¿ta etšeko
alaba bakarrarekiñ ames egiten ausartu ze-
ra? ¿Noiztik ona senartzen dira jauregiko
morroiak erregiñarekiñ, ipuietan ezpada?
¡Dollorra zu! ¡Eskergabea zu galanta!”

“¡O Iturraldeko umezurtza etzan es-
kergabea. Berak ausi, galdu ta soilduko
zituan animaren liliak edo biotzaren ki-
muak; berak itoko zituan bidegabeko ames
ta itšaropenak egiaren itšasoko ur garra-

tzetan. Ta ito ezin baziran, iges egingo zuan Zabaletatik edozein lekutara, gordeko zuan bere burua nunbaiten ta betiko.“

Josek, bere gogo ta amesak esagutu ezker, etzuan bururik jasotzen Malentšoren ondoan.

Aisa igarri zuan neskatšak zer gertatzen zitzaion mutillari, ta onen aurrean osoro illundu zan. Aserretzake illundu, trumoi gabe goibeldu, maitero aldendu, bada-ezpadan urrutiratu. Obea zeritzon bakoitza bere aldetik ibiltzea.

Jose, jangar, zurbill ta indarge, lumea berritzen dagoan tšori baten gisa, zearo mututurik zebillen. Egonaldi tšikiak egiten zituan eguncz etšean, ta gabaz, betiko lanak amaitu ondorean, goizago esnatu zalata, nekatuta zegoalata, aguro jaikitzen zan sukaldetik lotara. Eziñ eraman zuan Malentšoren illuntasuna, itzik ez egitea, igeska ibiltzea, berak, Josek, izurria balu bezela.

Egun batean, Joanesi bidera ertenda,

—Aitona — galdetu zion — ¿bai aldaki Juan Andres zein erritan dagoan?

—Ez, aspaldian eztegu eskutizik izan. ¿Zergatik galdetzen diak?

—Eztakit ba. Neu ere beragana joateko cdo...

—¿Juan Andresegana joateko? Zentzun obekoa itzala uste nian, Jose. ¿Nai-kua ogi ez aldaukak?

—Orain artean naikua ta geiago izan det.

—¿Bigunagoa billatu nai aleuke?

—Eztet nik bigun ta gogozkoagorik idoroko.

—¡A! Orduan..... bai, diru billa joango aiz. Askonaikoa izan i ere.

—Gipuzkoa guztiko diruakgatik enitza-teke Oñatiraño jetsiko.

—Ba, zer dekan etzekiat; baño, dana dala, eskergabea arkitze aut.

—¡Eskergabea ni!

—Andienetakoa, Jose, ta eznuan uste, eznuan esango.

—¡Aitona, ni eznaiz eskergabea! Nere zañetako odol guztia eskatu bedit esker onaren agergarritzat eta dena emango diot, dena zor diot eta.

—Mutill, ezin ulertu diat; len baño oke-rrago jartzen nauk. ¿Zer darabilk iragoko ill bi auetan? Esazak garbiro, biotza za-baldu zak.

—Esatekoa balitz, edo esan albanuke...

—Oraindaño ez aiz ba motela izan. Tira, asi ari.

—Ara... zerbait zertzeko ustietan nagoa...

—¿Zerbait zertzeko ustietan? ¡To, to, to! ¿Andregeia nai al cuke? ¿Ta urrutikoa? ¿Ire baldintasunak urrutietan obeto aldakizkitez?

—Nik eztaikit zer nai detan ere. Orain artean Euskalerrian bizi ta illtzeko asmoan izandu naiz.

—¿Ta orain ez? Mutill, ezkondu naia baño besterik ezpadek, etziok Gaztelerrira joan bearrik. Askotan gogoratu zait urtietan aurrera uala, ta Manuelek etšera emazteren bat dakarreneerako iretzat ere aukeratuta neukan norbait.

—Eskerrikasko, aitona, milla ta milla esker; ¿baña norberak autatzea ez alda obe?

—Bai, beti obe, zentzunezko gaztien artean ta gurasoen baimenaz bada; baña nik eznian uste ik iñor begiz jota cukanik. Gañera, emaztegaia bestek aukeratu ta eskeintzea, ezta nai ta nai ez artzeko esatca: ongi badator artu egiten da, gogoz-

koa ezpada utzi. Alegia, ezluteke danak orrela utziko gure Malentšo; eznioke neuk ere edozeñi emango.

—¿Malentšo?

—Malentšo.

Tšimista kiskalgarri bat aldemenean erori balitzaio bezela gelditu zan Jose, zuri zuri, konkortuta, Joanesen aitormena ezin siñisturik.

—¿Zer esandu, aitona?

—¿Gaizki aldeitzok?

—¿Gaizki? ¿Nola irudituko zaio gaizki gaišoari sendagaia? ¡O, nere amesak egiak balirake!

—¿Ori egiñ aldeak ames?

—Orišen berbera.

—Banengoan ba, banengoan ba. ¿Nola ulertu ez zu ta Malentšo?

—Baño, aitona, Malentšok, zerbait igarri ditan ezkerroan, iges egiten du nigan-dik.

—Ondo egiña: suaren ondotik arda-gaia kendu egiñ bear da.

—Eztu naiko nerekiñ *zertu*.

—Ikusiko diagu.

—Amonak ere ez. Diruduna banintz baña...

—Manuelck beste ezkonsari izango dek, etšekoa aiz ta.

—¡Jaungoiko maite maitea! ¡Au atsegiña ematen dit! ¡Au astuntasuna kentzen zait! ¡Neuk bakarrik dakit barruan nerabilen arantza samiña!

—Arantzak eta naigabeak beti izango dituk, gizon guztiak ditugun antzera. Ara, Jose: nik eztiat nai etšcan gaztien arteko kiñurik eta tšutšu-putšurik. Orain dakitana ikasi detalako, gaurtik aurrera, uda onetan beintzat eta gero ere bai gauzak zuzendu arteraño, Aloñan bizi bearko dek geienbat. Eure gañ gelditzen dituk artaldeak, larrabeiak, beortegiak, esparruak, eskortak eta saletšek. Mendietako errege bezela biziko aiz. Bertara eramango diat bear dekan guztia, edo euk artuko dek Mezatara jaizte aizenean.

—Edonun biziko naiz ongi, aitona; edonun izango naiz orain doatsu, bada nere barruan daramat alaitasunaren iturri gozoa.

Zar-gasteak, nagusi-morroiak etšeratzean, Ana Josepak, mutillaren arpegiko gorritasuna ikusita

—¡Jesus!—esan zuan—¿Zer du mutill

onek? Tšarranpiñak er ten bear diola esan leike.

Eta Joanesek:

—Erten dio.

—¿Erten diola?

—Bai, ta neu izan naiz sendatzalle.

—¡A ze nolako Petrikillo! Jolaserako goguaren bizarra dakartzu zeuk.

Zabaletan ezer geiago agertu gabe, urrengo goizean, bere poza ezin gorderik, joan zan mendira Jose, tan mendian egon zan, sei illabete ta geiagoan, Jaungoikoari eskerrak emanaz; Danielen lagunak bezela, Egilleak sortutako gauza guztiak bedeinkatuaz; Jakob artzaia bezela, bere lanarekiñ emaztegai maitea irabazten; Urbian ibilli zan ederki, epero ta peku gabe, akitika ta *bertsolari*, zoroko ta tšit ume turik, arkumetsõakiñ jolasean, basauntz irudira lasterka, etorkizunari parrez begira, itšaropen gozoz janaritzen, zoriontasunez gañezka.

Baño ala ere, iñoiz edo berriz, etšez oroitzean, bere kopeta leuna zimurtu oi zitzaion Joseri. Ara emen geientsu miñ ematen zion kezka: “¿Esan ote dio aitonak Malentšori nere amesa... ta berea, ai-

tonarena? ¡Aitonarena, bai, aitonarena! ¡O zeñ maitagarria dan Zabaletako etsejaunal Illobatsoa arrek maitatzen duan bezela maitatu ita neri eman nai! ¡Neri, umezurtz ezerezari! ¡O Joanes mazala! Eriotzaraño belaungorrien gañean ibillita ere etzaitut ordainduko. Jaungoikoak opa daizula nik opa dizutana. Zuk emango dirazu Zabale-tako aberaska gozoa neretzat, neretzat ba-karrik... ¿Bai ote? ¿Nola iruditu ote zaio amonari, Manueli, Malentsoari? ¿Gaizki? ¡Jesus Maria ta Josel... ¿Ta zergatik ez gaizki? ¿Zer naiz ni? *Tira*, Jose, begirazak eure burua! ¿i zer aiz? Joanesek etsetik jaurtigi ezkeru, eskale bat. Beñipeñ lan billa joan bearko euke erririk erri, aterik ate. ¡Erromaraño joango itzake, oñutşik eta eskale, Malentsoaren diña izatearren! Aterik ate ibilli bearrak ez au i samintzen; neskatša orren diña ez izateak samintze au. ¡Ta eziñ izan! Ezta berriz jaiota ere, ezta aberats izanta ere, ezta erregeren seme biurtuta ere. ¡O Jaungoiko andia! ¿Zergatik egiñ dezue Malentso ainbeste doeren jabe?”

“Baño ¿zer dalata begiratu bear det alderdi tsarretik nere etorkizuna? ¿Joanes

nerre alde eztaukat? ¿Malentšo ezta emakumerik apalena? ¿Ez aldezake aitonaren iritzia ontzat eman, langillea ta eskertsua naizelako, bestek ez bezela maitatzen detalako? ¡A, nor legokean arren buruko gogamenak irakurtzen! ¿Zai ote daukat Zabaletako atarian parre piška baten bitartez baimena emateko? ¡Geldirik ago, nere biotza! ¡Ez adi lertu!“

Orrezaz gañera, garai batzuetan, nekeari sendoro cutsi ta arriskuaren aurrean ausardi jarki bear izaten zuan gure gazteak.

Bai, ezta dana doe ta pake osoa izaten artzaiaren bizitzan. Artzaiak ordu onak eta ordu neketsuak oiditu, erazko egunak eta egun larriak, patšadazko egoerak eta ibilbear estuak.

Pozgarria da, egiaz, udako eguzkiaren jaikiera mendietako artzaiarentzat. Berak ikusten ditu lenbizi, bealdeak lañoz estalirik eta lotan dauden bitartean, eguzkiak edertzen dituan gallur ermoak, baso galantak, urjauste argitsuak eta intzez narotutako zelai ezeak; berak entzuten ditu, beste inork baño len, zugaztietako tšori aldra iskanbillatsuen tšiotšo tšiotši pipi-

rrio alaiak; berak bakarrik esan dezake nolakoak diran garo, millu, menda, t̄sulufriñ, elorri, eriñotz ta beste baso belar lore landarien goizeko usai gozo bizigarriak; berak dauka noiznai, begi sudur belarrietan, gorputzeko zentzun ta animako almenetan, Izateak gizonari eman aldezakion gozamen guztia; berak, kristau ona bada, beste anaiak baño Jaunagandik urrerago bizi danari dagokion gisa, eskeintzen dio Egilleari arrenik errez, samur, apal ta egiazkoena.

Manaz betea da, eguzkia goietan dabilen bitarte guztia, mendietako artzaierentzat. Bera da, artzaia da benetan bere buruaren jabe; uritar andikiak baño askozaz lasai ta askatuago dabil; opa dituan arauak jartzen dizka bere artaldeari; nai duan tokian billatzen du lorezko oia, nai duan lekuan belar bigunezko maia; deitzonean etzin deiteke ta gogoia datorkionean jaiki; kerizpean zabal zabal dagoala zaintzen ditu bere ondasunak; arrikada batez crakusten dio eleari legea; ta ameslaria bada amesetan, nagia bada erdi lotan, langillea bada galtzerdiari ekiñaz, oso epero igarotzen zaizka berebiziko astiune luze luzeak.

Eztauzkagu ere arlo astuntzat egunero-ko esne jeistek, noizean beiño gaztai egiteak, Orrill edo Urriko ille-moztutzeak eta era orretako beste arazoren batzuek; egokia, aukerakoa, gogobetekoa dala esan geinke bazkatzallearen bizitza alderdi onetatik begiratzean; baño arreta gabeko orduren baten bere ardiak geiegi sakabanatu baldin badira, larrabei ta mošalak urrutietara iges egiñ badute, ekaitza indarrean ta egiñaletan gañera badatorkio edo abere basatiren bat usterik ezean agertzen bazaio, lanak eta nekeak izaten ditu bazkatzalleak, bei lardi mošalak saletšera ekartzen, kemena bear du, bakartadean, tantaiari erantzita edo arkaitz zuloan kuškur-tuta, erasoaren arpegi zomatzailea begira, trumoi gogorraren burrunbadak entzuten, oñaztarraren susko lerroak ikusten edo abere gaizto aragizaleari arpegi emanaz ermo egoteko. Bai, azkortasuna ta ausardia bear ditu artzaiak zaintzalle ona izango bada.

Bear izan zituan Josek, batez ere oraiñ azaltzera nuan gertaera jazotzean. Udazkena zan: illunabarra. Orduantše ostendu zan eguzki gaišo indargea Udalaren atze-

tik, bere ondoren argi motel pitin bat utziaz. Otz zegoan; lur dana goizetik artzalde-berandura eroritako euriz asea; toki lau 'guztia likitsez, lokatzaz ta osiñez loitua; errekaak, oso puzturik, irakiten ta apartsu zijoazen ibarretara; ipar beltzak izugarrizko odci matasa lodiak zeramatzian egoaldera bultzaka; zuaitz ostoak, beren sorlekuetatik iges eginda, alkargana mordozkaturik zeuden tšabol ondoan, sasi tartean, erreka inguroan; ta oraindik adarretan gelditu ziran banakak, ori, zimur ta ia igartuak, dardar zebiltzan eriotzaren bildurrez.

Josek, ardiak goiztšoago ellorrera sartuta, tšabol barruan apari izkibat egiteko asmoak zerabilzkian. Zakurtzarra, Tšuri, aldamenean luze luze, aora begira zegokion, zerbaiten zai. Bat batera, zakurrak, itšumustuan jaiki ta ekiñ zion zelaian zear estu estu zaunkaka; ardiak, artega ta ikaraz, gorde zituzten beren buruak bata bestien ille tartean, ta entzun zan, urruti šamarean, mošal nabarmenduen irrintzi larria.

—¿Zer ote da emen?—gogoratuaz—Josek alderdi guztietara bota zituan begi biak,

¡Aranzazuko Andre Maria! Sartaldeko egi gañean, tšabolatik berreun kana bezela, zeru zurikatuaren aurrean garbiro, abere itzal bat agiri zan: jotsoal *Aitaren* egiten dan baño ariñago, legorpetik orbelak atera, egur pillä baten azpitik ipiñi, ote moltsoz su eman ta eskuratu zuan adaki bat, ingurokorik sendoena. Ordurako bazetorren zakurra, bazetorren, atzeraka ta alboraka, makur baño makurrago, ulua ta marrua, zemaika ta arnaseztuka, ortzak eta agiñak erakutziaz, amorruzko pitsa ta lerdia zeriola; baño basatarrarekiñ borrokari asi naiezta.

—¡To, tšuri, nere albora!—deituaz—beragana crakarri nai zukean Josek, baño alperrik.

Izugarria zan otsoa. Astiune tšikian ikusiarren, ezurretarañoko ikara sartu zitzaion artzaiari. Suagandik ogei bat oiñurre gelditu zan aberca, aurreko anka bat jasota zuala, ao gosca zabalik, lepoko illeak tente, odolezko begietatik tšingar gorria boteaz ta gizonaren gañera erortzeko itšuretan. Inpernuko gaizkiñ madarika-tua zirudian.

Gure mutilla, Aitzgorriko Jesusi lagun-

tasuna biotzez eskatuta, ill edo bizi, arnaseak zirautzan artean, esetsaldirik arrigarriena jokatzeko gertatu zan; baño, edo suak edo gizasemearen jarkierak izutu zualako, edo beste alderdiren baten aragi biguna usai egiñ zualako, aldendu zan otsoa lasterka bizian, ta otsoari jarraika artzaiaren zakurra, zaunka ta zaunka, basoetako oiarzunai jaiki craziaz.

—¡To, tšuri, to; *fiii, fiii*—deadar ta tšistu egiten zion berriz ere Josek. Eta *ooo ooo... iii, iii*—erantzuten zuten oiarzunak, artzaiari berari bildur berria emateko eran. Etzuan nai mutillak bere tokia utzi, bada-etzpada ere; etsaia bakarrik bazan edo ez etzekian, ta ellorra zaintu bear zuan lenbizi. Mošalak gaizki ibilliko ziran, ori bai; baño ezin zitekean bazkatzallea toki guztietan batera egon.

Egundañoko surik andienak berriro egiñaz, esna, susmotsu ta izerdi patsetan igarro zitzaizkon orduak, ordu minkaitzak, bakar bakarrik, gabaren zurrumurruak ernai entzunaz, illuntasunari zoli zoli begira, zegoana ta etzegoana ikusiaz, arkaitzak otso iruditzen zitzaizkola, isatsak eta itsuskiak eztakit nungo pizti, garraren keriza

ikaragarrizko mamu, gautšorien oiuaq norbaiten inka (1), aizearen cretak ilzorikoen adia, (2) orrien dardarra eriotzaren urrats, eta sapar (3) sasien zabun bakoitzaq animarañoqo sarrakioa sartzen ziola.

¡Ura egoera beltza! Etzeukan orduantše nasaitasun ta atsegiñ andirik gure gazteak.

Gaberditik laster, oiñkada batzuek aditu zituan. ¡O ez, etzan irudipena: zerbait zijoakion zuzen zuzen beraganuntz! ¡Aiñaniño arraio pola! ¿Otso aldraren bat? Pizkor jaiki zan mutilla, aurki artu zuan adakia eskuetan, azkar jarri zan edozertarako prest; baño ezer geiagorako astirik etzuan izan. Adakia jasotzerako, sartu zitzaizkon izter tartean abere zikiñ itšusi bita aien atzetik agertu zitzaion beste gauza beltz arrigarri bat... Tšuri ta Bustamotš ziran abereak, anketatik belarrietaraño basaz beterik, eta Pillipe artzaia zan *gauza* beltza, tšartez batean burutik bera estalia.

—¡Jeup!—oles egiñ zuan Pillipek, tšanoa garrondoruntz jetsiaz.

—Orišen da bildurra eman diakana.

-
- (1) Queja.
 (2) Gemido.
 (3) Matorral.

—Neuk ere naikoa badakart. ¿Otsorik ikusi aldek?

—Illunabarrean.

—¿Zenbat ituan?

—Bat bakarra.

—¿Bat? Gure sarobe ondotik Arteaga aldera joan dituk amar bai gutšienez.

—¡Jesus Jaungoiko andia! ¿Amar aña?

—Bai, amar... edo asko beintzat, ardi, beor, mošal ta otso danak nastean, bata-bestaren atzetik leiaz, garo salletan aurrera itšuturik, otarietan barruna zarrapaz-taka, traba ta esi guztiak ausi ta urratuaz, aballako arria baño zunburruntsuago, ego aizerik gogorrena baño zazpi milla bidar ariñago ta zakarrago. ¡Eztute ondamena makala egin bear otsuok!

—Agur orduan gure beortegiak.

—Beortegiak, artaldeak eta artzaiak.

—¿Artzaiak ere bai?

—Baita; biar goizean lagunen ezur bitzea izango diagu.

—Ezalda orrenbesteraño elduko.

—Ikusiko dek, bizi baaiz.

—Biziko algaituk.

—Etzekiat, motell, etzekiat.

—¿Eta nola ausartu aiz onaño etortzen?

—Izuak ekarri nau. Etsi det, gaur, nere tšabolatik alarauak entzuten negoala; baño Tšuri ta Bustamotš ate ondoan ikusi ditutanean, berakiñ batera jia mutillak! eragiñ diet ankari laguntasun billa. ¡Jas! ¡Nik ekarri det abiadea!

—¿Alarauak entzun dituk beraz?

—¡Ta nolakoak! Aitzari ere mara mara negar eragitekoak.

—¿Norenak ote ziran?

—¿Nork daki? Adiskideren batenak edo...

—¡Gure Aingeru Jaolak zaintu gaitzala!

Orrelako autuetan joan zitzaizten orduak Jose ta Pilliperi goizalderarte, batak bestea dendatzen edo bildurtzen, beti ere suari egurrak geituaz, beti ere alderdi guztietara begira, beti ere alkarri išo-išoka, andik edo emendik zarataren bat ote zalakoan.

Goizean jakiñ zuten ainbesteraño triskantzarik etzala igaro. Iru edo lau ardi galdu ziran; mošal bat billatu zan, errekar-tean, belaunburuak ausita; beor bat zelaian, mokor ondoan aragi tato (1) batzuk gutšiago zituala, odolustuta, ia illean.

(1) Tato, zatiai edo puekari esaten zaio.

Beor ta mošal errukarriak, galbidearen aurrean elkaturik, arpegiz arpegi lagun guztiak batera jarrita, etsaiari atzekoaldea erakutziaz, gogor egiñ zioten noski ostikoka, bada atzetik zituzten beren zauriak, eta gañera, otso ta beor-oñatzez, pitsez, korotzez ta odolez naspillatutako lokatzustai zabala zegoan Arteagako bizkarrean.

Uraše zan nunbait gau artako guda-enparantza. Antšen izandu zan, jan bearrak eta bizinaiak ematen duan indar ta adorerz abere basatiak egiñ zuten borroka errimea.

Jan bearrak eta bizinaiak askotan darabilzki esetsaldietan abereak... eta gizonak. Eta noiznai oidira otsoak eta otsotarrak nagusi.

Egun orretan, Urbiako artzai danak artalde ta beortegiak aurretik zituztela, beren etše ta neguko ellorretara jetši ziran. Gertatu zana gertatu ezkeru, ezin zitezkean mendian egon.

Etzan bada-ezpadakoa baserrietara eraman zuten poza. Bai ba: gizasemea edo nun edozerk aspertzen du, luzaroko gauzetan badabill, ondo ibillita ere. Gizasemeak arpegi alaia jartzen dio gauza berriari

edo aspaldikoari, ta baserrietan zeukaten gizon aiek aspaldietan iduki etzutena: baserrietan zeukaten, mendian baño ajola gutšiagoz, aterpe ona, jan beroa, jatordu jakiña, jantzi garbia, oe biguna, kezka gabeko lo gozoa. ¡A ze gaztañerre janak egin bear zituzten! ¡A ze itzaspertuak! ¡A ze nolako etziñaldiak!

Jose, beste guztiak baño gogotsuago ta urduriago jetšizan, janik eta lorik batere oroitu gabe. ¡Bazeukan buruan aurrerago-ko gauzarik! Malentšo bakarrik zerabillen gogoan. ¿Zer esan zeikeon Malentšori? ¿Berak, Josek? Ezta itz bat bakarra ere: biotza ibilliko zitzaion izketan, osoro esankor; mingaña, lotsariak lotuko zion, ezer iñola asmatu eziñik utziko zion: bazekian. Aitzen emango alzion aitonak neskatšari mutillarekin izandako izketartea, ta etzan gciago bear. Baiezkoa ulertzeko, etzuan Josek irritšo baten argia baño besterik eskatzen. “Jaun zerutarra—otoitz egiñ zuan etšera urreratzean—jirribarre bat neretzat Malentšoren españetan!”

¡Ai ene! Irri-abarrik etzuan billatu: Malentšo, lenbiziko ongiettorriak csanta bereala, lenago baño arduratsuago asi zan Jo-

seren igesi, lenago baño mukerrago ta gozakaitzago gelditu zan: Joseren maitetasunarentzat etzeukan erantzupenik.

¡O! Inork eztaki, igaro gabe, zenbaterañokea dan atsegiñ garaian ta pozaren tokian arkitzen degun naigabea: eztago naigabe samiñagorik. Eta ori bera gertatu zitzaien artzai umezurtzari: zoriona itšaron ta atsekabea idoro, sari billa joan ta neke berriak arkitu, ezta ames egiñ ta mingoztasunean ito.

Josek, zearo galdu zituan mendiko pakea ta patšada ona, ta sarri esan oizion bere buruari: "gau tšarra igaro uan azkenengoa Urbiako zelaian, baño ala ere, obeto uke otsoarekiñ borroka ibilli arku-me maitcaren destañapean bizi baño. Bai milla bidar."

Ta ¿zer egiten zuan aitonak bitartean? Aitona, mutillaren kupidan edo, išill išillik zebillen. Ezczkoa esango zion Malentšok eta...



VIII.

GAZTEKERIAK

Irakurleak esagutuko ditu erri tšikieta-ko zalduntsoak. Gauza gutši esagungarriagorik.

Zaldun oietako geienak zalditarako eztaukate; batzuek, ozta ozta irabazi dute baburrun saldaterrako; baña danak dira zeregiñ gabeak, itšuretan beintzat.

Jan-edanik inun ezpada, jolasak norabaitera eraman ezpaditu, kafetegi edo arangelaren baten egon oidira jai ta aste, ia egun osoan, nagi nagi, aulkietan erdi etzinda, ister bata bestearen gañean ipiñita, edo sorbaldaz ate-alboari eutsika, orkoagatik edo emengoagatik marmarrean, urliari edo sandiari atšimurka, goiko ta bekoai erruki gabe larrua kentzen.

Gazteak dira geienak, tšitatsoak, giza-

kumeak, adimen laburrekoak; baña beren burua gizonik eldu ta andienarena baño obe ta argiagotzat daukate.

Esana dago eztirala jakintsuak, jbai zera! zerbait ikasiak geienez ere, azal azaletik liburutšo bat edo beste ikusi dutenak; edo erbestean denda morroi, pelotari, bizargiñ, perratzalle ta abar irabazbide errezen billa nolabait ibilliak; baña jakintsu guztien gañetikotzat daukate beren iritzia, ta berak astindu, orraztu ta erabaki oidituzte agintarien arauak eta jakintsuen auziak. Eztago gauza on bat, erri tšikietan, zalduntšoen baimenik ezpadu.

Arro aña lotsagabe, gauza okerrari tšalo ta egintza onari parre, mendeko gaišoai ziri ta araugille (1) zintzoai destaña, bertako lagunagatik ijiji ta aldemeneko esagunagatik ajaja, eztiote ezeri ta iñori paketan utzitzen, ta ezta inguruetan zalduntšoen izekaz erre ta zauritu gabeko gizonik izaten.

Nekazari ta langilleak baño obešcago jantzita oidabiltz mutillok, erdi-andiki antzean, ongi naiezcan bezela, baldan itšura ikasian, *zapata* polit edo abarketa berri

(1) Legegille.

tšuriak oñetan ta euskal tšapel urdiñ biguna buruan dituztela.

¡O burua! ¡Amaika ikutu ta igortzi egin-dako ames jauregia! Buruan dago gazte oien arretarik andiena. Illea koipe leunez betea, usai gozozko urez bustia, tšit~~o~~ ajolaz tolestatua, erdi aldean lerro tšuria dua-la ta kopeta gañean tšaplatatšo bat, ikustekoa egoten da zalduntšoen burua ta alegi-ñak egin oidituzte beren goialde ariñ aize-tsua erakusten.

Izan ere, aukerakoa da gaurko euskaldunen tšapela orretarako. Biguna, aldakor ta erabilkorra, nai dan itšurak artzen ditu ta era guztietara jantzi deike. Ta ala, bartzuen buruan soso-abia dirudi edo perretšikoa edo abatsa, ta bestiencan mats-orria, koskordun tremesa edo talo zapala; auek garrondoan ipiñita darabilte, beste aiek ezkerreko edo eskuiko belarri gañean, orkoak inguru guztian zuloak eginda, ortzez jositako gurpil baten antzera; emengoak, (emengoetan daude gure zaldunak) lerro tšuria ta kopetako ille kiskurra agertzeagatik, aurreko ertza oso egoki jasota.

Buruko apaindurian aisa esagutu leiteke zenbat ames darabilten gizonak... eta ema-

kumeak. Neri askotan erakutzi dit nor zein dan tšapelaren jaskerak eta illien orraztuerak. Baita parre algara gozoak eragiñ ere.

Guazen arira. Esan degun erako mutillak errez ikasi oidutē zeintzuk neskatša diran aberatsak errian edo auzoan, ta neskatša oien atzetik nabaitu geinkez tšurikerian ta on irudian dabilzala, beste badaezpadako neskatšen billa jarraitzeari utzi gabe.

Orrelako mutill gazte asko zeuden Oñatin, ta beren artean zarkote, alper, jolasbillako ardozaleren batzuek. Mošoloren ardangelan bituta, amaiketakoa zala edo lauretakoa, ardao zarra edo tšitšardiñ berria, biatzak eta españak olio z bustita, nabarbenkeria baño nabarbenago, arrapatzen zuten jakia ioranez iruntzitzen, beltzetik edo zuritik zurrutean, edo ta bestela beritšukeriarik tšoroenetan, sudur zuloetatik keia boteaz ta ate ondotik kalean zijoaizen neskatša guztiai tšistadaka igarotzen zituzten egunaren orduak.

An zeuden beti, Oñatiar zintzoak ziotenez, zorrari ortzak erakutzi, lotsari lepoa eman, oar onari gaizki erantzun, beartsua-

ri *or konpon* egiñ, ta premia guztien aurrean ¿neri zer dit? esanaz, beren buruai bakarrik begira, griña gaiztoak asetzen bizi nai zuten gizonak.

An zegoan egunero, au neuk dakit ziur, Peru Odolki, tšopiñ bat ardogatik edózer-tarako erne, ta baita ere guk antzina esagutu genduan etše artako semea, Mošolo gaztea, Manueltsoren lagun kaiskarra. ¡Uf! Orañ beste gauza bat zan. Ameriketan izana, Bilbon, Barzelonan ta Madrillen pelotari egona, goizetik gabea eztakit nola dirutua, papar zabalean urrezko katea zuala ta katean ontzurre borobilla, Mošolo Potolo (orrela deitzen zioten) askotan oizan beste *jakintsu* guztien nagusi, buru ta albistari.

¿Zer esan zezakean baña mutillak? Gauza onik ez: Abanan edo Montebideon pelotariak beiñ egindako iruzur petrara, Madrid edo Barzelonako basterretan ikusitako zatarkeri lizuna, ur-ontzietako ugari jatea edo galanki edatea, iñoiz baten *duruakiñ* eztakit zeñi arrika eman ziotena, beste batean lagun guztiak *tšanpañez* arpegia garbitu zutena, ta era orretako beste astakeri batzuek.

¡Arranictan! Tšanpaña edatiarren, belarri bat emango nitek—esan oizuan Odolkik.

Gizon aiek etzituan iñork errian maite, ardozaltzalleak izan ezik: beren gurasoak ez, zeukatena ta etzeukatena, sortua ta lortua, Mošolonean ondatzen ziotelako; errizaiñtzalleak ez, zalduntšuok gaberdi-tik aurrera ere, deadarka ta iskanbillaka, etšeratu cziñik ibiltzen ziralako; elizgizonak ez, erakuste okerrak, animen kaltean, nonai ta edonoiz zabaltzen zizkiotelako. Baño ¡lotsagarria da azaldu bearra! Mošolonean zegoan, len esan degun bezela, irañ, irri ta izeka guztien kabia, ta izeka irañ irrien bildurrez, gizontšo aien mingañetan ez ibiltzeagatik, geiegizko begirunez begiratzen zioten erritar guztiak. Garbi-roago: oñatiar zintzoen argaltasunak ematen zien indarra ta ollarkeria Mošolonekoai.

Orratikan ere bereak eta bi entzun gabe etziran izaten ereti batzuetan. Patšiko sendakiña zan, Oñatira zijoan guztian, ederki asko kilimatzen zituana. Ezin zan erritik erten garrakeri batzuk zalduntšoai bota gabe,

—¡Mutillak!—jardun oizioten—jau ustel usaia dago zuen artean! ¿Zetan zaudete beti emen sartuta? ¿Norbaiti azpiak jaten? ¿Iñilleko gertacrak usaika? ¿Loikeri dantetan muturra jartzen? ¿Tšerriak bezela gizentzen? ¿Egia alda tšitšarien aldeko *sosiedade* bat asmatu dezutena? Ori ere bada ba lana, lurpeko arrak jaki geiago izan dezaten, zuen burua guritzen jardutea, beste egitekorik gabe... ¿Ala bai alde-zute beste arloren bat? ¿Erriko gauzak zuzendu naian alzabilzate? ¡Etzeok toki tšarrean zuzenbidea! ¡A ze nolakoak zuek, salobre urdailtsuak, ziraun makurrak, dollor, galdu, naspillari arraioak; a ze nolakoak errien diru ta ondasunak zaintzeko ta ugaltzeko! Badakit nik zer ugalduko zenduteken zuek: zorra ta zimaurrea. Ni *alkate* banintz, gurdi bati uztartuta erabiliko ziñuzket ¡aida, añaniñuok! antše, koi-pea kendu ta gerria bigundu arte.

Ta ederra da ipuia. Patšikori onian artzen zizkaten ospinkeri guztiak eta etzioten miñ emateko gauza bat egundaño esaten, arpegiz arpegi. Zanbroak sortzeraño zigortzen zituan, erruki gabe, ta oso leunki, izaturik bezela erantzuten zioten mu-

till pardelak. Zalduntsoen artean, abere gaiztoen biguntzallea zirudian Patšiko sendakiñak. Iñoren ajol gabeko gizatšar trebe ta argiaren izena zeukan ta... ¡O! Ezta gaizki, garaietan, ausarta izatea.

Ardangela orren aurretik igaro bear izaten zuten Paulak eta Malentšok elizara zijoazenean, ta eztago zer esanik, barruan zeuden gizasemeak, zar ta gazte, danak er-tetzen zirala neskatša oiei begiratzera.

Lengusu biak ziran ikusgarriak, baño batez ere Malentšo. Menditar gazte ura ederren erregiña zan Oñatin, berez, jaiotzaz, jaskeraren apainduri gabe; arren ondoan erritar neskatšarik aukeratuenak, urri, ziztriñ ta itšusi agertzen ziran; ura zebillen tokian edertasunaren argia ta anima garbiaren usai gozoa bezela utzitzen zuan, onela esan badezaket. Orregatik gelditzen ziran ergelduta begiraleak, zer esan asmatu eziñik. Bazekiten, bai, Zabaletakoak ezkonsari ona idukiko zuana; baño, aitortu bear da, guztiak ezkonduko zitezkean pozik Malentšorekiñ, naiz ta onek tšanpon bat izanez. ¿Zer bera baño ezkonsari oberik?

Mošolo Potolo zegoan itšutuena ta Mo-

šolo Potolo agertu oizan bero ta urdurien ardangelako atari ertzcan, parrezka, kiñuka, gezur-estulka. Malentšok etzuan aintzakotzat artzen mutill arren ziñurik: al-demenetara begiratu gabe, benaz, itzal ta lerden jarraitu oizion bere bideari; baño ala ere, beñ, norbaitek bidean gelditu zualako, ikusi zuan, zearka, Mošolo Potolo, ta parreak erten zion gure neskatša ederrari.

Izan ere parregarria zan Mošolo Potolo. Laburra, zabalotea, beso ta isterrez oso lodia, buru andiduna, illetsua, ia begietaraño bizarrez jantzia, okotz biren jabea, beltzeran berde samarra... bere ortz ustelak erakutziak belarrondotik belarrondoraño aoa ireketzen zuanean, izutu egiten zan edonor lenbizi, ta gero parreak berez ertetzen zuan españetara.

—¡Jesus! ¡Oriše da mutilla!—esan zuan Malenek—Jaungoikoak parkatu daidalata, ankadun upela dirudi.

—Upela gerri aldean ¿ta arpegian? ¿Ikusi aldiozu arpegia, Malen?

—Ondo ez.

—Ba ikusi daikcozu urrengo baten. Ara, bart cuki nuan *pronostikoa* eskue-

tan, ta antŕen dagon illargia bezelakoa da.

—Zuk esango dituzunak.

—Egi egia. Arto zati batez ohea egin leiteke.

—Zagoz iŕillik, neska.

Ordutik aurrera askotan parre egin zuan Malenck illargi betearen arpegia gogoratuta.

Paula, Malentŕo aña ezarren, oso zan emakume itŕurazkoa ta maitagarria. Andi ta guri samarra, yayoa, otzana, langillea ta begiratua, amaikak artuko zukean pozik emaztetzat, berak nai izan ezkeru.

Baño etzuan nai, ikusten zanez; etzion beintzat iñori jaramonik egiten. Bai, nairgaberren bat bazeukan Paulak ondo gordeta; arren begi gozoetan beti agiri zan illuntasun bat, zerbaiten errañua, arimako beastunaren albistea. ¿Zer ote zuan?

Ura ta Jose (ara beste goibela) jai arratsaldietan, amonaren etŕcan arkitzen ziranean, beti zeukan mutillak, aiñ zuzen ta iŕilla izanda ere, ardangelakoakgatik zerbait esan bearra, ta beti entzuten zion Paulatŕok gogoz ta arretaz.

—¿Zer mezatan izan zerate gaur?

—Zortziretakoan.

—An egongo ziran, Mošoloncan, Oñatiko alper guztiak.

—Eztakit ziur, baietz uste det.

—Bai, egongo ziran. Zuk ezpadakizu, besteren batek jakingo du.

—¿Zeñek? ¿Malenek?

—Bai.

—Malenek eztu ardangelara begiratu andirik egiten.

—Begiratu gabe erakutzi leike barruko zera.

—¿Nola baña?

—Parre tšoroak egiñaz. Badakit parrez joaten zeratela.

—Bai, iñoiz bai. ¿Zeñek egiñ ez parre Potolo ikustean? Gizon zatarragorik...

—Eta aberatsagorik. Aberastasunak dana edertzen du, Paula.

—Ez, ori ezta oso egia. Nailuke Potolok beste batzuen entzute ona, nai luke neuk dakitan baten arpegia. Ara, Jose; naiz ta diruz josita egon, Mošolo Potolo ezta egundaño zu aña izango.

—Norbaitentzat ez, bear bada; baña.....

—Iñorentzat erez. Zu, gizona, espaz

beterik zaude; baña Malenek eztauka Mo-
šolotarrakin zer ikusirik.

Paulak, egizalea zan ta, egia esan oizuan
miñez bada ere; baño gezurtatzera bezela
etorri zitzaion Peru Odolki illuntze ba-
tean.

Gazte biak ate aurreko larrañean zebil-
tzan, batera ta bestera, astiro astiro, ezetz
ta baietz, lelo arduratsuagorik etzeukaten
ta, aspaldietakoa berriro astertzen, mutill
zar tšatšua jeupadaka agertu zitzaienean.

—Kaišo Peru ¿Zer dakartzu olako or-
duetan gurera?

—Zuentzat ezer ez.

—¿Zeñentzat ba?

—Beste neskatša gazte polit polit baten-
tzat.

—¿Malenentzat?

—Bai.

—¿Zer bear diozu zeuk Maleni?

—Nik edo beste batek.

—¿Zeñek bada?

—Orišen da jakin bearra. ¿Etšcan al-
dago?

—Bai, amonarekiñ, janari piška bat jar-
tzen.

—Ezaiozue atera dedilla onaño. Baña,

iño, amonak eztezala ezer somatu, ¿e? Atsorik eztegu bear.

—¿Baño ezaldiguzu zer darabiltzun azalduko?

—Ezin dezaket... Ara, iñil iñillik euki-tzen badezute... Potolok biraldu nau tšarteltšo batekiñ. Oso erotua dago mutilla Malentšo dala ta eztala; ia zer egiten duan eztaki gizagaiñoak; ez omen du iñun orrelako neskatšarik ikusi egundaño; ez omen dio mutillak nai lukean bezela arpegirik ematen Malentšok; ez omen daki arrek, gañera, neskatšari nun ta nola itz egin leikion, ta (*kolkotik tšartel bat ateriaz*) paper onetan jarri omen dizkio eztikeririk andienak. Bai, goñoak izango dira emen dauden itzak, baña goñoagoa izango da gaurko nere aparia. Zuek eztakizute, ¡tsanpañez *gonbiratzen* nau Mošolo Potolok! ¡Ori dek gizon izatea, ori! ¡Etziok *probin-tzi* guztian Potolo bezelako mutillik! ¡Tsanpañña! ¿Tsanpaññaren izenik entzun aldeute? ¿Ez, e? Urrutietako edaria da ta. Edari tšuria, edari garbia, edari *fiña*, andiki andikien edari garestia. Ba nik nai añña edango diat gaur. ¡Aufa! ¡Nik arrapatu bear diat *mokolloa!*

Jose, Peru izketan aizan bitartean, zuri-
tu, gorritu, otzitu, berotu, edertu ta it̄susi-
tu zan iru edo lau aldiz bai.

—Tira—jarraitu zuan Odolkik—esaio-
zue Maleni ertetzeko.

—¿Ez alda berdiñ t̄sartela geuk erama-
tea?—galdetu zion Josek.

—Ez, neskat̄saren eskuetan bertan utzi-
tzeko agindu dit.

—Utziko diozu, gizona, utziko diozu;
baña neuk ikusi nai nuke lenago, gañetik
bada ere. Eman zadazu apur baten.

—Ez, ez.

—¿Baño zergatik ez? ¿Zer galtzen dek
nik estalkia begiratzcaz?

—Eztetala nai, eztetala nai. Potolori itz
eman diot Malent̄sok bestek estuala ikusi-
ko ta eztiola ikutuko.

Onetan zebiltzala, erten zuan Malenek
zurrumurrura, ta azkenengo itzak entzun
zituanean,

—¿Zerñentzat dezu t̄sartela?— galdetu
zion Odolkiri.

—Zuretzat.

—Bada neretzat izan ezkeru, neuk ba-
karrik artu bear det.

Aurreratu zan gure neskat̄sa ederra,

kendu zion eskutitza mutilzarrari, ta geiagoko gabe, sartu zan sukaldera patšada osoan.

Larrañekoak aoa bete ortzekin gelditu ziran, itz bat atera ezinda.



IX

ITŠAROMENDI

Jaungoikoak jarri zuan Bizkaian Urkiolako mendia, Arabaren ondoan, Gipuzkoatik urre samar, ta mendi orren gañean ipiñi zuten euskaldun siñistetsuak Antonio Donearen elizetšea, zorion guztien itšaropenerako.

Mendi orretara joaten dira sarri Bizkai-koak, Arabarrak eta Gipuzkoa eder onetan jaiok; mendi orretara joaten dira, donerik errukior, miragillerik andien ta sendatzallerik onenaren jauregira bezela, uri andi gizaditsuetatik eta baserri tšiki padutarretik, aberatsak eta tširoak, gizon zindoak eta osasungabeak, indarge jaiotakoak eta ezurren bat ausi dutenak; errenak eta itšsuak, ankokerrak eta besomotšak, gorrak eta zauriz beteak, totelak eta zanpatuak; buruko tšorabio, zuldar, legen, eztul, berako, minbizi, anditsudunak: etsita daude-

nak, bizi nai lutekenak, irabazbidea idoro-
tzen dabilzanak, euri edo eguzkiaren bea-
rrean arkitzen diran lur-jabeak, Amerike-
tan semeren bat daukaten gurasoak, guda-
ra joan bear duanaren aideak, ikastolatik
etšeratutako mutillak eta ezkontzeagatik
mototša zalduko luteken neskatšak: itz gu-
tšitan amaitzegatik, gogo, estutasun, samiñ
edo premiaren baten arkitzen diran eus-
kaldun guztiak, osasun billa, argi eske, la-
guntasuna itšaroaz, zoriona irrikitzen edo
eskerrak ematen; eta bertan, Urkiolan,
egin oidituzte benetako arrenak eta bertan
utzi, beren oparitzat, egurrezko *makuloak*,
argizarizko anka ta besoak, zillarrezko bio-
tzak, ille tširikordak, ontziak eta soñekoak,
izenak eta kondairak, samiñ, aje ta neke
askorekiñ batera.

Beti dago norbait Urkiolan meza bat
eskeintzen, argitšo bat ipintzen, bederatzi-
urrena egiten; beti dijoa mendi artatik ze-
ruraño euskaldun batzuen eskaria, Anto-
nio Donearen bitartez.

Baño batez ere Garagarrillaren amairuan
izan oida billerarik ospatsuena. Egun artan
Urkiolako mendiak erririk andienaren
itšurak artzen ditu.

Goizean goizetik azaltzen da eliza barrua argiz ta gizadiz betea, ta eliz-ataria liburu, bederatziurren, errosario, kutun, gurutze ta Antonio Donearen irudi saltzalez ornitua; laster agertzen dira, mendi egian, mait̃so banatan edanontzi garbiak eta mai azpian sulla-pedarrak dituztela, ur gozatuaren emale t̃šukunak, eta beren aurrean, urez eziñ ase diran mutiko ta emakumeren batzuk; zelaien erdian, egun baterako tajutu dituzten sukalde apalak, el-tze, tupi, zartagi, plater, pit̃sar, antosiñ, katilluz inguraturik, eta suaren urrean, mendi-ostatuak, oialezko t̃šosnak, ogi, ardo, aragi, bakallao, arrai, piper, egazti, arrautza ta gizon jatunez ugariegi bezela; t̃šosna ostean, opill gozodun mendarotarra, bala-saskia lurrean zabaldua, erosle gozozaleak noiz agertuko zai pat̃sadarik andienan iñill iñillik; zuaitz ondoan, era guztietako eskale arrotz zirpiltzuak, anka ta beso igarrak erakutziatz, ingurukoen biotzak biguntzecatik *¡Santa Lucia le garde!* ta *¡San Antonio le ampare!* erdi negarrez oiuka: tokirik t̃šokoenetan, atso zimurrak eta agure adikatuak, mezatara baño len amilla jasten, oñetakoak aldatzen, bu-

ruko oiala ipintzen edo salda beroa zurrustadaka; bide-ari danetan, siñiste, itšaropen ta maitetasunak Doncagana daramazkian gizadi berriak, egunerako jakiz, otarra edo pardelez zamaturik; nondik noranai, atserritar arloteren bat *¡merke merke!* deadarrez, orratz, orrazi, aiubet, ispillu, labana, tšilibitu, paper, luma, jostallu, erastun, belarritakoak eskeñika. Edonun ta edonoiz ikusi litezke euskaluri dantako gizaseme ta andrazkoak, banaka, biñaka edo zamaldaka, oni ta besteari, aurreko ta albokoari bultza egiñaz, gallurrean ta egalean, elizan ta zelaian bear aña leku idoro eziñik; or daude Durango, Elorrio ta Ermutar elizkoiak, an dabiltz Billarreal ta Otšandioko langille irmeak, arutzago Bilbotar apañak eta Bergara, Tolosa, Azpiti-azkoitiar atsegiñak; emen Bermeo, Lekeitio, Mutriku, Ondarroako arrantzaleak; aldean Zeanuri, Billaro, Dima ta Larrabetsuko nekazariak... Jaungoikoak daki zeñ ez ta nongoa ez, erritar, esagun, adiskideak alkarri eutsika, kaišiok, galdezka ta agurka, egundañoko itzots, zurrumurrulazka zaratarik bizienean. Ta batzuk elizatik erren orduko, beste batzuk sartzen di-

ra gogozko arrenetara; egarbera zeudenak alde egitean, egarri daudenak inguratzen dituzte urzalien maiak; ase ta beteak t̄sometatik ertetzean, salobre ta goseztoak jartzzen dira aien tokietan; opill edo jostallu saltzalleak erosle bat aurretik kendu baño len, aurrean dituzte iru edo lau ikusle urduri; goiztarrak edo urrutikoak, gizadizko erreken antzera, et̄seruntz dijoazenean, urrekoak edo berandutarrak badatoz mendira t̄sindurriak t̄sindurtegira bezela, oñez edo zalpurdietan, manaz edo neketsu, aberien indarrez edo norbere adorez, arpegia aizemalez (1) egurastuaz edo aurren bat lepoan dutela izerdi patsetan; dana batera esateko, eguzkia jaikitzen daretik lotara dijoan arteraño alderdi guztietan ikusi ta entzun litezke, naspillaturik, nagusi jaunak, maister t̄sikiak, et̄seko andreak, neska gazteak, mutill eroak, lurbarrukoak, it̄sagizonak; usai-belarrak eta eliz-kandelak, krabeliñ sortak eta opill mordoak, eskeak eta eskeintzeak, algarak eta t̄silioak, otoitzak eta irrintziak, arrenak

(1) Aizemale—Abanico.

eta aureskoak, tuntuna, *panderoa*, *gitarra* ta *filarmónica*.

Bai, *gitarra* ere bai, *filarmónica* ere bai. Egun orretan eztira danak Urkiolara Donegatik joaten: gazte asko jan edanaren usaiak eta jolasaren durundiak jasotzen ditu mendiraño, ta orrelakoak Donearen oroimenik eztaukate. Jaia da oientzat ere Garagarrillaren amairugarrena, baño urdall-jaia, jantzi berriak eta buru arroak erakusteko ereti ona, jaikika trisketan egiteko aroa, t̄sorakeri, nasaikeri, astakerietan ibiltzeko egunik egokiena. Orrelakoentzat jotzen dituzte *gitarra-filarmóniak*, t̄sorakerien laguntzarako, astakerien indargarritzat.

Lenago esan ditugun gertaeretatik laster, Urkiolan dakusgu, Antonio Donsuaren eguncan, gure antziñetako adiskide on batzuek: Joanes, Malent̄šo ta Jose. Eliz atarian daude: bata, t̄šapelpean pipea piztu eziñik; bestea, anpolai zuri-gorria baño ezkoago, eliz-oiala tolestatzen; irugarrena, zurbill samarra, pardelt̄šo bat eskuetan duala, Malent̄šori maitero begira.

Aurretiaz erakutzi zuan Joanesez, et̄sean, Urkiolarako gogoa, onenean Jaungoikoak gerriko miña Donearen bitartez ken-

duko ziolata; aurretiaz aukeratu zituan
 juan etorri orretarako lagunak: Malen, etše-
 tik iñora beñere ertetzen etzualako; Jose,
 mutill gizagaiñoari atsegiñ pişkat eman nai
 ziolako.

Goizaldeko ordubietan erten dute Za-
 balctatik, eta lasterbidietan zear etorri di-
 ra, oñez, jakiña ba, Meza nagusitarako.

Eztaude aiñ nekatuak: elizkizunak amai-
 tu ondorean, aitonak pipea piztu ta gero,
 jo batera ta jo bestera dabiltz basterrik
 baster, aldrarik aldra, tşosnarik tşosna,
 gauza guztiai begira, nun jarriko, zer jan-
 go, zer erosiko.

Gizon koişkor bizartsu bat ikusten du-
 te mai baten gañean garraşika. Zolia du
 mingaña, azkarrak dauzka beso ta biatzak.
 ¡Bai arranietan! Berebiziko itz iturri naro
 ausarta dario etengabe, paper batzuek egan
 botatzen ditu ta eskura joaten zaizka be-
 rriro, mutiko bati tşanponak ateratzen diz-
 ka musutik, belarrietatik, nai duan lekutik,
 edozeñen gogarteak asmatuko omen lituz-
 ke. *¡Pamerialen* adiskidea zan iñolaz ere!
 Baserritar kaiku pilla andia dago gizontşo-
 ari begira. Aoa zabalik daude geienak.
 Onik onenean, jolasari utzita,

—“Ni naiz, — esaten du erderaz — ni naiz Rosinak sendatzalle izendatua. Lagun urkoari on egiteagatik lurbira guztiko erri ta it̄sasoak igaro ditut, liburu guztiak asertu ditut, jakintsu guztiokiñ itz egin det, sendagarri guztien indarra neurtzen gau ta egun ibilli naiz eta miñ oiñaze danak osatzeko gauza bat asmatu det. ¿Zer da bera? Ara, jaunak, emen daukazute; artzaren koipea da, leoi en koipez nastatua. Koipe onezaz igortzit̄so bat miñ dan tokian eman ezker o, miñ guztiak beti betiko joaten dira. Eztago gaurtik aurrera ez buruko miñik, ez gerriko miñik, ez beso, iztar, belau netako miñik geiago. Nik sendatu ditut Paris, Londres, Berlin ta Bienen eri zeuden gizadiak. Ta ¿zenbatean da koipe ori? esango dezute. ¿Ze diru bear da koipe ori erosteko? Utsa, baterez, t̄sanpon orduitu batzuek, *peseta* bat, orra. Peseta batean ematen det lagun urkoai on egiteagatik. Oso gut̄si dauzkat. Biar, gero, emendik ordu batera eskean bazatote, eznazute ni billatuko. Ni banua, laster nua emetik, eta eznator ni onuntz geiago. ¿Nork eskatzen du beste bat?”

Eta baserritar geldotzarrak, eskuak lu-

zatuta, beren biatzetan makur tšuriak erakusten dizkiote itzontziari.

Baziran orratik onela itz egiten zutenak:

—¿Zetarako du baña dirua, musutik ateratzen badaki?

—¿Dirua musutik atera ta alkondara zikiña jantzi? Amari esaiok.

—Gizon *prestua* izateko ipurdia lurretik urrean zeukak orrek.

—Aitona—galdetu zion Josek Joanesi —¿ez aldu orrelako koiperik erosi bear?

—¿Nik? ¿Zertako? Jaungoikoak nai badu, sendatuko naiz; Arrek nai ezpadu, gizontsoaren koipea gora bera, eznaiz sendatuko. Egin det nere eskabidea, Antonio Donearen bitartez.

Gure esagunok, koipedunagandik laster, nunbaiteko *bibolin* jotzalle itšua idorrotzen dute. Lagun argia dauka itšuak aldemenean, mutill soster bat, eta lagun orrek eun-oiala darabill makilla batean jasota, itšuragabe ta zirriborroan egindako gizirudiz betea. ¡*Horroroso crimen!* jartzten du oialean, ta noiz itšua, noiz mutill sosterora onela mintzatzen dira: “Tšanporean saltzen degu Toledoko urian gertatu dan oben likitsaren albistea. Paper onetan

adierazten da nola Eujenio Barelak bere amagiarrebari arrigarrizko eriotza eman zion, emastearen amak alperra deitu ziolata beste gabe. Amazazpi aldiz sartu zion labana zorrotza lepo, bular ta erraictatik zear ta, odola išurtzez nekatu zanean, gibela ta giltzurriñak jan zizkon, sutan erre-ta. Oialaren alderdi batean daukazute gizon erallea emakume kupidagarriari eriotza ematen eta bestean urkamendira igotzen, bere orñia nai ta naiez artzera. ¿Nork eskatzen du beste papertšo bat?« Eta oituzko eresaldi bat egiñ ondorean: «Baita ere badakarzkit Kandelasen lapurreta burutsuak eta Jose Maria ta Diego Korrientesen egitada okerrak. Baita ere badauzkat *Santa Jenobebaren* bizitza, Bertoldo ta Bertoldinoren liburua, *Santa Ritaren* be-deratziurrena, *Santa Klara*, *Santa Katalina*, *San Jose*, *San Pranzizko*, *San Antoniorenak*, *Begoña*, *Iziar*, *Aranzazu* ta *Karmengo Amarenak*. ¿Nork nai du beste bat?«

Eta baserritar zentzugabeak, erallearen irudiari begira begira egonda gero, Toledo-ko gaiztakeria goiz artan igaroa balitz bezela, Elorrion gertatua balitz bezela entzuten egonda gero, obendunaren berriak

zekarzkian papera eskatzen zioten it̄suari, eztakit zertarako.

It̄sua baño oiñkada batzuk aurrerago, estarri garbiko euskaldun alai bat arkitzen da oiulari: *¡Bertso berriak*—ots egiten du noizean beiñ—*Senpelarrek jarriak!* (1) Eztauka *biboliñik*; estarria du *biboliñ-gitarra* ta jardunaren jardunez, ekiñaren ekiñez saltzen ditu bere paperak.

—¿Bai aldaukazu *Gernikako Arbola*?

—Gernikako Arbola Gernikan zioke, motell, ta astunegia deke nik onaño ekartzeko.

—Ta ¿*San Iñazioaren mart̄sa*?

—Ez, maite; datorren illean *kantatuko* degu ederki, Loiolan.

—Zuk eztakartzu ezer, gizona.

—¿Nik eztakartala ezer? Senpelarren bertsoak, berri berriak, Prantziako pelotariari ateriak.

*Amalau españoletan
Mateo prantzeza a
Partidu onetant̄še
Izanda trabesa a.*

(1) Bertso guztiak ziran orduan Senpelarrenak, pronostikoa Mariano Kastillok egiña bezela.

Lau lautara
Ziran asi
Altzuenak
Irabasi...

Bertsodunaren urre samar neska-mutill buru ariñak alkarren aurrean dabiltz, triskatzen, antšume zoroen antzera, akitika, bira biraka, irrintzika. Zabaletakoak aiei begiratzeko astirik eztute artzen.

Tšosna baten alboan gizapilla iskanbilla-tsuaq ibilpidea galerazitzen diote. ¿Zer ote da? ¿Borrokaren bat? Ezta borroka, ezta aserrea: jan baietz ta ezezko auzia darabilte *kankallu* bik.

—Arkume osoa.

—Bai.

—Lau librako ogia gañera.

—Bai.

—Bi pitšar ardorekiñ.

—Irurekiñ naiago.

—*Bueno*, irurekiñ.

—Amar *duro*, ezetz.

—Amar, baietz.

—Jango dik.

—Eztik.

—Bai, jango dik, idiak baño urdall ohea zeukak eta.

Gure oñatiarrak, era oietako ikuskizunez aspertuta, gizartetik alde batera egin da, ezarri dira nonbaiten; zerbait jatera dijoaz.

Artzai zarrak arrautzopill puska bat beartzetan duala,

—¡Samingarria da!—esaten du.—
 ¡Amaika bidar egin det Zabaletatik onañ dagoan osteral! ¡Amaika bidar jan det emen, gozoro, nere baserrian erretako taloa, ta oraiñ arrautzopilla ta ogi zuria ezin irentsi! Dana dago latza, dana badaezpadakoa: janaria, gizonak eta lurra bera. Bai, lurra ere bai. ¡Zenbat aldiz ikusi ditut emendik agiri diran gure mendiak! Ederragoak ziran len, milla bidar ederragoak. Ezta irudipena: azpietatik zulatu dituzte alderdi batetik besteraño; beren egaletatik tontoretara bide zabalak egin dituzte; beren arrizko ta burnizko erraiak eguzkitara ateratzen aidira, ta gure umeak mendi zulotatik zear dijoazkigu, eztakit nora, bide zabaletatik datorzkigu eztakit nongoak geure gallurretaraño. Benetan, lur guztia egin du Jaungoikoak bere semientzat eta denok gera bere semeak, denok: gureak ere badabiltz nonbaiten ta betoz Euskalerrira

etorri nai duten arrotzak, betoz zorionean; baño eztezatela gaiztakeririk onuntz ekarri. Len ere naikoa gaizto gera gu, on itsurretan.

—Aitona, ez bedi orrela betillundu. Jan beza.

Baño aitonak eztu ia ezer jaten. Malenek urdaiazpiko zatia ipintzen dio ogi gañean, baño Joanesek eskura zer eman dioten eztaki. Gogamen astunak dauzka iñolaz ere.

—Eztet ondo itz egiñ—jarraitzen du. Gizonak berarekiñ eraman oiditu bere oiturak, onak edo tšarrak. Geugan dago iñoren oitura tšarrik ez ikastea; bai, geugan. Gugana datorren ikazkiñak ezkaitu beltzitu, geuk nai ezpadegu... ¿Badantzuzute auspo soñularia, filarmonika? Nik eztakit Euskalerrira zeñek ekarri duan, baño badakit zeintzuk jotzen duten: euskaldunak, menditarrak...

Bazkaritšoa amaitu da. Malenek eskale bati ematen dizka enparatuak. Josek biotzaren jakia nai luke: maitetasuna. Joanes urrutira begira dago, gaztetako egunetara.

Aguratšoa bat jarri zaiote aurrean begira,

makill buruan esku biak eta eskuen gainean okotza ipiñita.

—Adiskidea—galdetzen du—*barkazioz*, ¿oñatiarra altzera?

—Bai.

—¿Zabaletakoa?

—Bai.

—¿Joanes?

—Bai.

—Antzeman dizut orratik.

—Eznaiz ba zuzaz oroitzen.

—Orain dala ogetamar urte alkarrekin jan genduan arako zoko artan.

—Izan leiteke.

—Ala da. Bergarako azokan esne-bei eder bat saldu ziazun, ederra alare, ta bei diruak artzera etorri zifian.

—¡A, bai! ¡Aingeru jaola! ¡Austifian zera zu, elgetarra!

—Elgetan jaioa, iragoko larogei urte auetan Arriolan bizi naizena.

—¡Aspaldiko Austifian! Urteak dira ba alkar ikusi eztegula.

—Esan det: ogetamar.

—¿Ez algera geiago ifinun ikusi?

—Nik etzaitut geroztik begiz jo. Lenago bai, lenago sarritfo ikusi oigifian, bata

besteaz artu-eman asko erabili oigenduan, alkarri ondo lagundu oigñon.

—Bai oriše, bai anbat; zuk eta nik, Azurtzako Militonek eta Irigoienko Kaisparrek alkar billatzen bagenkian. ¿Zer egin zuten adiskide aiek?

—Ill ziran.

—¿Ill ziran?

—Bai, antziñatšo. Baita Zezeagako Turubio ta Eguzkitzako Tšomiñ ere.

—Gizon zintzoak, gizon maitegarriak.

—Gaurko egunean gutši bezelakoak, Joanes.

—Gaurkoak ere gure ondorengoak dira, Austiñ.

—Bai, baño gugandik ctenak. Zuaitzetik ebakitako adarrak dirudite, adar igarrak. Galeran dijoaz euskaldunak eta Urkiola bera galeran dijoala deritzot. Goizean etorri naiz, Aramaion ezkondata bizi dan seme batek ekarri nau, ta bereala gogait egin det emengo alderdiak ikusten. Eztago emen adiskide on bat. Esagun batzuek ikusi ditut, baño españetatik españetarako izketarte otza izan degu alkarrentzat: biotzetik biotzera itz egiteko, egiazko adiskidea bear da, antziñetako lagun zarra.

Nere aita zanak esan oizuan: “urdaia ta ardoa urtekoa; adiskidea urtetakoa.” Orre-gatik poz andi bat artu det zu ikustean.

—Eskerrikasko. Zu ikusi baño lenŕea-go zerbait gogoratzen ainitzan, ta zure itzak nere ustien oiarzuna dirudi. Ala ere zalan-tza piŕkaren bat badaukat. Gu zarrak gera, Austiñ; naigabetuak gaude, ta biotz naiga-beak itz garratzegiak oiditu. Gure gazteri-ko egun alaiak joan zitzaizkigun, ta egun aientzat gordetzen degu oraindik animeta-ko maitetasuna. ¿Nork daki, bada, gure ustea zuzena ta ziurra dan ala ez?

—Neuk dakit, zeuk jakiñ bear zendu-ke. Oraingo Urkiola ta gure gaztetakoa eztira berdiñak, ta ordukoa ohea zan.

—Oraiño eguzkia ta nere umetakoa berdiñak dira, gaurko lorea ta ordukoa berdiñak, orduko ta oraiño arrautzak era berekoak; baño gaurko eguzkiak eziñ poz-tu nau, gaurko liliari eztiot usairik artzen, arrautzopilla tŕarra dagola iruditu zait. Geu gaude gu alperrik galduak, Austiñ.

—Joanes, edo eznaiz zure oiarzuna, edo, ni tŕurikatzeagatik, zure iritziaren ata-len bat barruan gordetzen dezu. Nik ba-dakit gure zentzunak alperrik galduta dau-

dela, baño ez gure animak. Aitortzen det lengoak dirala eguzkia, loreak... eta arrautzak, baño eziñ ukatuko dezu au eztala lengo Urkiola. Len euskal-usaia, garo usaia zegoan emen; gaur, mendiko egúrats garbia oso kirastua dago.

—¿Bai ote?

—Makilla eskuetan daukate bezela.

—¿Zeñek kirastu du?

¿Zeñek? Gaitz da erantzuten... Uri andietako aizeak, baserritarren griñak, gizon batzuen siñiste otzak, askoren nasaikeriak; arrotzak eta euskaldunak, etsaiak eta geuk, danak eta danok. *Zu pekataria* esaten badakit, baño *Ni pekataria* etzait astu.

—Ederki mintzatu zera, adiskidea. Jarri zaite nere ondoan gauza oiek obeto argitaratu ditzagun, pipakada bana errez. Zuek, gazteak, etzaudete ondo gure illetak entzuten; zoazte, bada, orrutz zerbat ikus-tera.

—Ondo gaude, aitona.

—Ez, zoazte; erosi itzatzue gozo batzuk etserako.

—¿Illobak aldituzu, Joanes?

—Illobak.

—¡Landare onak! Garo artean artu dezatela lurra, Aloñatik urrean.

—*Amen.*

Adiskide zar biak beren erabakiak ematen dabiltzan bitartean, gure gazteok, gizartetik zear dijoaz alkarren lotzaz, batak besteari begiratu gabe, ezertan arretarik ipiñi ezinda. Zer egiten duan eztakiala, ainbeste opill erosi ditu Josek, kopeta illuna darabill Malenek, biotz gabeko neska mutillak dirudite biak, aserratuta daudela esan leiteke.

Bat batera.

—¡Jesus!—dio neskatšak.—¡Gauza lotsagarriagorik!

—¿Zer da?

—Osaba Iñazio Mari *dantzaurrea* egiten.

—Egia zan. Giza-ustai baten barruan, tanboliñaren aldemencan, Zabaletako aizkolari ospetsua, Azkarragako Paula ta Martiñen aita, obeto esateko, birbiztuta, ardoak berotuta, esku baten tšapela zuala, paparra agirian ta gerriko tšistana atzeko aldean dindilizka, besoak zabalik zebillen goragoraka, alzituan gaitasunak erakusten, baño zabulunak neurtu eziñik eta oso parragarri.

—¡Peru Odolki atzezko!

—Sokan dauden guztiak dira oñatiarrak, Mošolo Potolota.

—¡Jas! ¡Ez lotsatzea osaba, orrelako gizonakiñ bere burua bat eginda! Aldendu gaitezen, geu iñork ikusi baño lenago.

—Arritzen naiz.

—¿Zergatik baña?

—Mošolo emen eukita iges egiten dezulako.

—Nik eztaukat Mošoloren bearrik.

—¿Benetan?

—Eznaiz gezur zalca. Goazen aitona-gana.

—Ez apur baten, Malentšo; ez, Jaungoikoaren izenean. Izketan asi geran ezkerro, gauzatšo bat esan nai neukizu.

—¿Zuk?

—Bai. Aspaldian daukat nik zuri agertzeko uste bat, ames bat...

—Zaude išillik.

—¡Išillik, beti išillik! Ito egin bear det beraz nere gogoa.

—Badakit zer esan nai zendukean... Badakit maite nazuna, baño ez itšaron nigandik ezer.

—¡A! ¡Zure itzala izateko eznaiz duiñ!

—¡Ezta orregatik!

—Bai, biotzak adieraztzen zidan: utsa naiz, oinpean darabiltzun autsa bezela naiz, ¡Zabaletako morroia!

—Ezta ori. Zabaletan morroirik eztago. Zu ta ni anai-arrebak gera... Jakiñ zazu beiñ, zure barruko arra kentzeko. Iñorekiñ izatekotan, zurekiñ izango naiz; baño ez itšaron, Jose, ez alperrik itšaron. Billatu zazu beste bat, zure idekoa. Neskatša on bat opa dizut, ni baño ohea opa dizut.

Eta orrela itz egitean, tšit bigun begiratzten dio mutillari, errukizko begi cderrak erakusten dizka.

—¡O Malentšo!

—Išo. Naikua csan dezu, geiegi eran-tzun det. Guazen azkar.

.....

Aitona biak, oso samurturik, agur egiñ diote alkarri.

—Agur, Austiñ.

—Agur, Joanes, lagun zarra.

—¿Noiz arte?

—*Josapateko* zelaira arte.

Zabaletakoak ekiñ diote etšerako bideari, danak išillik, barruko ames ta etsipenai begira danak.

Urkiolako alaitasuna ezker eskui asi da

zatitzen: algaraka dijoa, algaraka ta lekaio luzeak egiñaz bide, baso ta ibarretan zear; urrutiko baserrietatik tuntun ots berria dator gure bidaztien belarrietara aizetsoaren egoetan.

Ta ots bigun arrek gizonak poztu edo samintzeko eskubidea izan bear du; tuntun arrek, norbera iñillik dagoancan, ba-koitzari barruko amesa zirikatzen dio, ba-koitzari norberak nai duan bezela itz egi-ten daki.

Ara Joseri zer esaten dion: "Iñorekiñ izatekotan zurekiñ izango da. Ta bat edo batekiñ izan bear. ¡Au egun ederra!"

Ara zer Maleni: "Agertu bear zitzaiona agertu zaio. Nere biotzetik astuntasun an-dia kendu det. ¡Au pakea!"

Ara zer Joanesi: "Zureak egin zuan. ¡Au larria!"

Aiton-illobak badabiltz Oñatiruntz, egun argitan dabiltz; baño anima, gerora begira, lañotan bezela daramate. Usteak uste di-rala, ¿nork daki etorkizunak zer gordetzen digun?

.....

Biaramon goizean Peru Odolki, tronpolloz *apaindua*, ezkerreko begia eztaidu-

rik zuala, sendakiñaren galdezka zebillen Oñatiñ.

—¿Zer dek, Peru?—esan zioten.

—Atzo Urkiolan izan giñan da...

—¿Moskorra galanta, e?

—Iñoiz bestekoa ez ba.

—¿Borroka egiñ alde?

—Ez, Mošolo Potolok jo ninduan.

—¿Zer zalata?

—Malentšo izan omen zan Urkiolan, ta nik esan bear omenion Mošolori. ¿Nik zer dakit ba nor nun dabillen?

—¿Orregatik aserratu alzan?

—¿Aserratu? Gizon beroagorik eztet iñoiz ikusi. Pitsa zeriola, arao ta birao, ekiñ zion ukabilka, ta ni artzeko.

—Beti bezela. Tšanpañña ere artzen omen diozuta.

—Bein bakarrik tšanpañña, geiagotan ostikadea.

—Ez astoakana joan, ta egiñ lana gogotik.

—¡Lana, lana! Lan egitea ere naikoa astakeri da ba.



X
AULERIA

Urkiolan ikusi genduanetik urrengo neguan guztiz aunatua idorotzen zan gure Joanes. ¡Orduan bai zarra gizagaiñoa, orduan bai aula!

Burua, Abenduan Aralar gaña bezela zuri, zillarrezko ari albañu luzez jantzia ikusten zitzaion; kopet andi zabala, itñas ertzeko ondarraren antzera, lerroz ta zimurrez betea agiri zuan; besoak tñito adoregabeak zeuzkan; ankak zerbait indarge ta sorrak; belarriak naikua gor ta motelak; soñ guztia makilla baten gañera eroria zerabillen. Nekez ta laburrak ziran Joanesen oinkadak, gutñi entzuten zuan, ia etzuan ezer ikusten. Pipiak jotako abea zirudian, zedenak jandako zura. Bai, urtien pipiak eta lanaren zedenak jango eztuan gauzarik ezta jaio.

Elurte baten galdu zan geiena. Azaroa-

ren erdi aldera, uste baño lenago agertu zan negua, ta Zabaleta baserrikoak, done Zizilli goizean, Oñati alde guztia elurrez tšotildurik arkitu zuten. Lurrik etzan iñon agiri: bide lerroak, bete betean ostenduak zeuden; zelaiak, koska ta utsune gabe, aspaldikorik laban, guri ta bikañenak: sorroak, naiz ta beren jantzi garbia tšotš, printza, mallasto buruz or ta emen urratua iduki, gutsitan bezela lau ta tšukunak; sasaki ta otariak, estalki lodi azpian zearo gordeak; urki, gorozti, tšillar ta izatzak, geiegizko zamapean nai ta naiez auspezturik, eta pago, arte, aritz, gaztañak, zein baño zein naroago, adar bakoitzean, kima bakoitzean, elur zerrenda samur kiskurrez arro arro apainduak. Dana zegoan zuri, eder, leun ta limuri, bada eder ta leuntzallea da beti elurra: etšcaurreko osiñtsoa, soro-arteko luebakia ta errekastoen aria bakarrik ikusten ziran illun ta itšusi, iñoiz baño beltzago ta itšusiago.

Ta elur erortzea etzan bukatu. Oinbete lodi bazegoan, ta mara mara zetorren zeru goibeletik bera, aldeka, okerka ta astiro, mitšeletazko euri bigun ikusgarriaren itšuretan.

Aizan elurra galanki, gelditu gabe aizan, ta mendian zeuden oraindik ardiak eta mošalak, Joserren agindupean.

—¡Ene badata! ¿Zer egingo du orañ gure Josek? Emen onenbesteko elurra danean, Urbian gerrirañokoa bada—zioten emakume izutuak.

—Manuel, deituiok osabari: Jose Ramon, bituitzak lagun batzuk eta azkar danok Urbiara, azkar baña—agindu zuan Joanek.

—Zazpirak aldean erten zuten gizonak Urbiaruntz. Zabaletako nagusiak etseko larrañetik ikusi zituan nola zijoazen errenkadan, beiñ bat aurretik eta gero bestea, besoen indarrez bideak idikiaz, ta nola eskutatu ziran basoan gora, elur malotan barruna.

—Gauza ez ni oien burutzat joateko—esan zuan.

Ta Pedro Antonck:

—Guk ere beste orrenbeste bagenkian egiten lenago. Gaur gaztien tšandea da.

—Jaungoikoak lagundu daiotela.

Andreak arrenetan abiatu ziran, ta Joanek etzekian zer esan, zer egiñ ta zer nori agindu. Luze joan zitzaizkon eguna-

ren orduak. Orain ukulluan sartu, orain sukaldean aurkeztu, beti ere *Santa Maria* espāñetan zuala atarira erten, beti ere alde batetik edo bestetik zeru beltza ikusi, artega ta kuperea ibilli zan luzaro.

Jo zuten amarrak, jo zuten amabiak, jo zuten ordubiak, eta etzan mendikoen berririk.

Irurak aldean, artzai zarra, auzora balioa bezela, atera zan mendiruntz iñori ezer esan gabe. Bai zori tšarrean. Gogo aña kemen izan balu, laster elduko zan lagunakana: baño lengo kemenik etzuan errukariak, eta elur marduletan drist eta draust, or tširrist eta emen larrapast, bisutsetan ia itšuturik, zurrunbilloan arnasarik artu ezinda, laster unatu zuan nekeak, bereala etsi zuan aitonak eta esker-eskui, aurrera ta atzera begiratu larri bat egiñaz, bide basteurrean eseri zan eriotzaren zai... Lauterdietan idoro zuten menditik bera zetozenak, otzituta idoro zuten, gogortuta, itzik ere gabe, ta arratsalde artan etzan ill Zabaletako jauna eskerrak bere semien igortziaz, eskerrak oe bigunari, ur goriari, erari on irakiñari, etšeko guztien arreta zindolari. Baño berotasun andiak igaro zituan,

gaiñorik iduki zuten, ta oetik jaikita gero ere, alegiñ guztiak eginda ere, Joanes etzan geiago lengoa izan. Ordutik auleria.

Baño gorputza lotua ta abaildua gelditu bazitzaion, ez orratik bere anima: anima beñere baño argiago, biziago ta azkarragoa zeukan. Joanesen oroimenak iñoiz ez bezela gogoratzen zituan bere gaztetako urte alaiak, Joanesen adimenak egundaño ez bezela esagutzen zituan Jaunaren betiko egi sakonak, Joanesek biotzak beñere baño samurrago ta zintzoago maitatzen zuan Jaungoiko Egille Altsua.

Sutondoko zizaillu zarrean jarrita, arbasten gar biziari edo enporra miazkatzen zuan urrezko su-mingañari begira, bakarrik gelditzen zanean, jo nolako samin gozoz oroitzen zitzaizkon bere bizitzako gertaera guztiak, ume koskorra izan zaneetik agure mekoa zan arteraño! Lendabiziko giza-jantzia, lendabiziko errira jeistea, lendabiziko mendira igotzea, arako mutill-jolasak, urte askotako *San Migelak*, ezkontza aurreko egun eztiak, bere semien jaiotorduak, illobatsoen etorrera pozgarria... dena zirudian atzo goizekoa, dena zeukan bere ondoan, dena zekarkion iru-

dimenak bertara, ekaitz aurreko egoaizeak urrutiko lur ta mendiak guganutzen dituan gisara. Izan ere *atzo* ta *gaur*, uda ta negua, gaztetasuna ta zartzaroa eztaude alkarren urruti; gizonaren goiz ta illuntzea dirala esan geinke, tñanpon baten arpegi biak bezela zerizkion Joanesi.

¡O zeñ garbiro erakusten zion adimenak gizonaren ezereza Jaungoikoaren betikotasuna gogoratzean! Bera, Joanes, sortu baño len, askozaz lenago, Jaungoikoa bazan, eder, andi, altsu, zorioneko, gauza guztien egille ta zaintzalle; bera, Joanes, criotzara urreratu zanean, Jaungoikoa lengo lengoa gelditzen zan, altsu, andi, eder, zorioneko. Ta era berean billatuko zuten Joanesen ondorengoak eta era berean utziko zuten, bada orrela zan ta izango zan, beti altsu, beti berdiñ; asierarik gabe asiera guztien iturri; azkenik etzeukala, azken guztien bukaera ta goen.

¡Zeiñ maitagarria azaltzen zitzaion Joanesen biotzari Jesus Jaungoikoaren irudia! Jesus gizonen Artzaia zan, ardi galduakgatik bizitza eman zuan Artzai Ona ta Zabaletako etšejaunaren adiskide andia. Sarri egon zan au, Aitzgorri gañeko clizatsoan,

Gurutzean josiari eskariak egiñaz; sarritan agertu zizkion, paduko bakartadean, animaren naigabe ta ipui eskutuak; etzan egundaño adiskide bien maitetasuna urratu, etzan beñere Jesusen irudia Joanesen biotzetik aldendu, ta askotan, tñit askotan esan zion mendian, zelaian, elizan ta etñean: "Urbiako artzaien Artzaia, gorde gaitzatzu; zaintu zadazu nere etñea, zaintu zazu, arren, gure Euskalerra."

Adiskide andi ura ainbat lasterren arpegiz arpegi ikusteko leia erne zitzaion, ta orretarako gertatua zegoan, oso gertatua.

Orratik ere gauza bat nai zukean lenago, Jaunaren oldea bazan: bere seme ta illoba guztiakiñ Gabonak igarotzea. Azkarragakoak nola zeuden bazekian: ondatuta. Inazio Mari etzan ezereen jabe, ta bere mutilla, Martiñ, Somorrostrora biraldu zuan zerbait irabastera: ¡Somorrostrora mutilla ta basterrak erabiltzeko naikoa indarririk ez etñean! Gaztelerrikoen albisteak ere bazituan, albiste onak. Aberastuta bizi omen ziran, seme bat zuten, asi samarra, argia, pizkorra, sendakintzarako ikasten aizana. Oso jakintsua, gurasoak ziotenez. Baño Zabaletako aiton-amandreak etzuten orain-

dik illoba ura esagutu, etzuten oraindik esagutu erraiña ere, ta orretarako gogo andia zeukaten. Batez ere illobatsoa ikusteko, berari laztan gozo batzuk emateko, ta bere jakiturizko itzak entzunaz aspertu artean egoteko.

—Ara—esan oizion Ana Josepak senarrari—zeure illobak sendatuko zaitualata nago. Emengo sendakiñ guztiak baño geiago jakingo du, ta gañera iñork eztizu illobak beste arretaz begiratuko.

Orra zergatik Joanesek eskutitz bat eragiñ zion Maleni osabarentzat, Gabonak urrean ziralata, aitonarentzat baldiñ azkenengoak izango ziralata, bere ondorengo guztiakiñ beñ bada ere egon nai zukealata, jaietarako danak etorri zitezala, arren bai arren eskatuaz.

Bitartean, eri gelditu zanetik aurrera oizuan ez, sukaldean bizi zan geienbat Zabaletakoa nagusia, sukaldera zijoazkion baserriko seme ta illobak zer egiñ bear zuten galdetzera, antñen ematen zituan Joanesek bere agindu ta erabakiak, antñen inguratzen zuten etzeko danak gabero gabero, bertan egiten zituzten beren otoitzak, bertan irakurri *Testamentu zar ta berriko*

egi ederrak eta azkenean, oera orduko, beti zerbait esan bear izaten zien aitonak, bere burutik.

“Agertuko dizutet ba—zion beiñ—Urbiako zelaian nik aspalditsoan egindako amesa. Egun auetan gogoratu zait.”

“Bazkal ostean, aritz tantai baten zañetan jarrita, pistu nuan nere pipakadea.”

“Errozabal, gerri lodi, lepoker, buru orritsu, gorengo abarrak ia zeruetan zitua-na zan aritza. Sustraiak, sendo sendoak, inguru danean lurretik ertenda zeuzkan; azala, zartatuta, lertuta ikusi nion, gerri-aldeko mamiñ errea oso agirian, agure batzuen paparra bezela, ta kopet ondoan zulo andi gorri-beltza erakusten zuan, aspaldiko zauri sendakaitzaren irudira.”

“—Zarra aiz ba—oartu zitzaitan, pipako ke-laño artetik aritzari begiratuaz.”

“Gabean lo gutschitso egiña nengoan, ta igarri gabe, pipa gordetzeko astitzake, itši zitzaizkitan begiak, loak artu ninduan.”

“Ta loak artu beziñ laster asi nintzan amesetan.”

“—¿Zarra naizala?—esaten ziran zuaitzak. Egia da, bai; neuk ere eztakit zenbat urte dauzkatan. Nik eztakit urteak zer ta

zertako diran, baño ezta gizon batzuek ere... ¿Noiz izandu naiz ni t̄siki? Noizbaiten bai, noizbaiten nere adar gañ ertzean dauzkatan ezkurretako bat aña izandu naiz. ¿Nork siñistu?... Lurpean sartu ninduen edo sartu nintzan, ori eztet ondo ikasi, gauza t̄siki guztiak lurpean egon oidirata; baño nere bizinaian, astiro astiro, apurka apurka, atera nuan burua lurpetik azalera, ikusi nuan zeruko argia, lortu nuan indar pitiñ bat, erro edo anakak alegiñean bera boteaz jaso nituan geroago ta gorago nere besoak, eta egunak zabaldu ta egunak it̄si, urteak joan ta urteak etorri, uda berrian osto berdez jantzirik eta negu beltzean ezur utsetan bezela, eguzki galda beroen azpian ta curi zaparrada galantak luzaro igaroaz, andi, sendo ta mardul egiñ nintzan, inguruko zuaitz lagun guztiak baño andiago, sendoago ta mardulago.“

“Asko ikusia naiz, geroztik, nere bizitza luzean. Ekaitzak neri egiñ dizkitan iraintasunak cziñ zenbatetu ditezke. Sarri artu bear izan det nere gañean kaskabarraren zartada zitala, sarri jo ta zauritu nau odeietatik biziro jet̄si dan arri trinko zoliak, milla ta gciago aldiz bai aize indartsuaz bu-

rruka gogorrean gau osoak igaro ditut, eta garaietan, guda beltzaren erdian adarrik onenak urratu zaizkit. Sustrai sendoari eskerrak, ez tet nere bizitza osoa galdu. Sustraia, sustraia bear da mardula izatēko ta ekaitzari arpegi emateko: batetik bestera aldatzen dituzten zuaitzak, lirañak, sustrai gabeak, or erortzen dira buruz bera ta parragarri ekaitzaren aurrean.“

“Ainbat goialdeko ipui ta lurpeko gertacra badakizkit, urteak erakutzita. Nere zañ luzien bitartez neurtu det mendi onetako lurrak norañoko loditasuna daukan, jakiñ det zenbat ezkotasun ta koipe dituan, arri ta arkaitzak non dauden, beti gordeta egon oidiran samorro tšiki askoren biziera išilla nolakoa dan. Nere kopetaz goialdera begira ikasi det zenbat argi gozo agertzen diran gabaz zeru urdiñean. Anitzez gau zoragarriak igaro ditut, illunabarretik goizalderaño, bakar bakarrik, pake pakean, or goiko izar garbi maitagarriai begira. ¡O zeñ ederrak diran zeruko izarrak! ¡O zer atsegiña dan gau išill išillean, erretšifñolaren soñu eztiak adituaz, ozkarbiko edertasunak nabaitzen egotea!“

“Baita ere badakizkit gizonen uste ta

itšaropen batzuek. Maiz etortzen da nere ondora Urbiako artzai gaztea ta emen aterra oiditu, oiulari, bere biotzeko maitetasun zintzo zintzoak. Mutill orren eresiak poz ematen dute, intza bezela jetsiten dira animaren erdi erdian... Iñoiz beñ jarri oida nere oñetan, zu oraiñ zauden antzera, uri gizon igar bat, eta bakarrik dagoalakoan, aitortzen ditu, aopean, bere ondamuak, bere dollorkeriak, lagun urkoarentzat gordeta dauzkan gorroto gordiñak. Gorrotoak eztute pozik ematen. Eziñ ulertu det zergatik gizonak gorrotatzen duten alkar: guk eztaukagu bata bestearen gorrotorik, zuaitzak izanda ere.“

“Nik ez beintzat. Ni izandu naiz egazti mota guztien jantoki, aterpe ta logela; nere gañean esan dituzte tšoriak, gau ta egun, beren tširripititšiorik pozgarrienak; nere beso tartean egiñ dituzte beren kabi ta bizilekuak; ni naiz karnaba, okill, tšintšort, lepitsuli ta tširriskilloen sorterri; kuko, eskillaso ta pagousuen jarleku; mika, miru ta zapelaitzen zelat-etše bezela. Aldetan aña on egiñ diot edozeñi: nere orri ta ezkurak, urteoro, aberien oe ta janaritzat eman ditut; nere adar guztiak aga, kerten,

makilla ta esolatzat edo gizonen berogarritzat kendu dizkate. ¿Alneike geiago?“

“Emen nago ni azken orduaren zai. Oraindik iraungo det (zuaitzak beti irauten degu gizakumeak baño geiago), baño etorriko zait nere azkena. Bai, or sukalde basterren baten, basoetako tantaletan ekaitza t̄sistuka dabillen orduan, ta basetsetarrak, nere ajolarik gabe, kondaira zarren batzuk aditzen daudela, t̄sinpartak boteaz agur egingo diot nere izateari, suzko malako goriak īsuriar... auts biurtuko naiz.“

Esnatu mintzan. Aritza bere tokian zegoan, geldi geldi. Arrek etzuan itzik esan.

—Banengoan ba, zuaitzak orrelako gauzak esatea...

—Ez, etzuan itzik egin, Ana Josepa. Nere irudimena ibilla zan onduan langille.

—¿Ta nondik dakartzu gaur ames ori?

—Nere auleriak erakarri dit burura.

—¿Nolatan baño? Zuaitzak eta zuk, ¿nondik daukazute alkarren antzik?

—Biok gera mendikoak, biok lagun zarrak, biok asko ikusiak, biok aldegun aña on egiñ degunak, arrek, ori bai, zer egiten duan zetakiala, nik jakiñaren gañean. Alkarren it̄surak baditugu, zarrak geralako;

baño, egia, ezker a gauza guztietan berdi-
ñak, ezta urrik eman ere. Zuaitzak eztu
errurik izan ta nik bai, erruak eta utsu-
neak; zuaitzak, egurrezko anima daukata,
eztu egiazko malkorik išuri ta nik bai;
zuaitzak sariaren itšaropenik eztauka ta
nik bai; zuaitza betiko amaitzen da ta ni
betikotasunaren atarian nago. Zorionekoa
ni ate onetik sartzen banaiz.

—*Pralle* izan baziña ja ze nolako *ser-
molaria* zu!

—*Pralle*, *pralle*... gaur goizean izandu
naiz *pralle*.

—¿Zer diozu gizona?

—¡Je je! Zuek soroan zabilatzatela, Pe-
dro Antonek atera dit *meztidura* (1) ta
soñcan jarri det apur baten.

—¡Aitaren Semearen...!

—¡Aitona!

—Bai, jarri det, eta luzetšo daukat. Edo
neu laburtu naiz, edo luzetšo egiñ ziazun,
emazte. Malenek laburtuko dit.

—¡Jesus, Maria ta Jose!

—¡Bego išillik, bego išillik!

—Bai, išillduko naiz, lotara joan bear

(1) Iljantzia. Antziñetako oitura zan, Euskalerrian,
iljantzia, bear zanerako, etsean gordeta idukitzea.

deguta. Baño beste itz bat, Malentšo: Gaztelakoak eztute oraindik erantzun, ta berriro esan bear zaiete aurten nere ondoan nai nituzkeala. Aditzen emaien.

—Bai, jauna, biar goizean.

Malentšo begiak igortzitzen ta Ana Josepa españak estu estu eginda sartu ziran geletara, ta Kataliñek, bakarrik gelditu zanean, sutako autsa bituaz, illetiak astinduaz, enporrak joaz, onela zion:

—¡Au gauza guztien amaitu bearra! Badijoakigu, laster dijoakigu. ¡Etsea beteko gizona! ¡Jeesus!



XI

EGUBERRI TŠARRAK

Aloña ondotik erbestera erten aldi bat egin bear degu.

Somorrostrora joan gintezke lenbizi.

Bizkaira esatera ninjoan, baño damutu egiñ zait; bada Bilbotik itšasoruntz goazela esker aldetik dauden erriak eztirudite Bizkaikoak. Toki aietan Bizkai barrutik agiri dan zeru garbirik ezta ikusten; Gernika, Durango ta Markiñako ibarretan daukagun pake ta tšukuntasunik ezta billatzen; etšeko izkuntza maitearen durundi gozorik ezta iñon sumatzen.

Nerbion ibai zabala, ibai ospetsua, Euskalerriko ibai guztien ibaia da, denok dakigu. Bere gañean daukazki, Bilbotik asi ta Portugaleteraño, erridi askotako itšasontzi sendoak; bere azpian, uretan edo urertzeko basatan, tšalopa saiats, *gabarra*

zati, soka ustel, kate zar ta aingura ordoituak; bere albo legorretan, erbestera eraman bear diran edo erbestetik ekarri dituzten mia pilla ugariak, neurrian ebakita-ko piñu olak, arri, kare, gatz ta burniak; burni me zapalak, biribill luzeak, utsak eta beteak, bidietarako, zubiak egiteko, aterpeak jasotzeko, etšien abe izateko; eta batez ere burni oien sorrerako labe goriak, berebiziko lantegirik andienak, sua ta garrara, autsa ta ke lodia borborrean zerua iluntzeraño jaurtigiaz; antšen dakusgu jantzi loi, izerdi usai ta begirune gaiztoko langille zikiñ zetakaz beteak eta bertan entzun litezke uri andi baten indar, almen ta bizitza erakusten duten gizadi marmarretak, malluen danbatekoak, itšasontzien turruntak, tšimist-gurdien tšintšiniñak eta sugurdi azkarren tipirri taparra luze adoretuak.

Nerbion inguruari Euskalerriko alderdia baño *Londresko* auzotegia obeto deritzot.

Gorago daude Galdames, *San Salvador* ta Abantoko mendiak, Ortuella ta Gallartako lur ta gizon gorriak.

Mendi aietan eztago zuaitzik, eztago lorerik, eztago belarrik ere. Mendi gorri aiek

burniz urratu dituzte, izerdiz aña odolez intzatuak dirudite.

Gizon gorriak oster a izen gaiztoaren jabeak dira. Asko, geienak bear bada, guraso zintzoen semeak izatea baliteke; baño gizatšar, lagun oker biurrien artean gaiztakeriak kutsutu ditu. Ausardia dute nagusi, nasaikeria adiskide, indarra lege, añeneko a ziri ta zigor. Birao lurrunean, likiskeri zakarrean lizundu zaiote anima; baño jau negargarria! kalte orren ajolarik iñork eztauka. Somorrostroko langillien gurasoak eta toki artako arrobien jabeak gauza bat bakarrik nai luteke: dirua irabazi dezatela semeak, mia galanki atera dezatela arrobikoak. Otoitz egiñaz irabazi edo zartakeriak esanaz atera, ezta batere arretazko gauza.

Enda, oitura ta izkera guztietakoak nas-tean dabiltz: *ingeles*, *prantzes* ta españatarrak, euskaldunak eta erdaldunak; Arabar ta Naparrak Galizia ta Asturiaskoen ondoan; Santander, Palenzia, Burgos, Balladolid, Soria, Logroño ta Zaragozakoak Zamudion edo Mušikan, Amoroton edo Errigoitin, Errezillen edo Asteasun, Amezketan edo Ataunen jaiio diranakiñ batera;

denak alkarren etsai, denak bata bestearen eziñ ikusian, denak bakoitzaren sorterrria bestien gañetik jasotzen dutela garaicitan, lagunai miñ emategatik bada ere.

Eziñ dute iñor maita, baño erreztasun andia daukate edozeiñ gorrotatzeko. Beti oida norbait gorrotoaren erakusle, beti jardunleren bat ondamuaren kolkotik ertetzen dioten itzak lagun artean ereiñ oidituana.

Ta itz oien asia, aberatsen ganako gorrotoa, agintarientzako amorrua ta Jaungoikoarentzat eskergabekeria erakusten duan asi tšarra, errez ta edonun sortu oida, lenengo ereiñaldian ezpada, bigarrenan edo laugarrenean. Baita euskaldunen biotzetan ere. ¡Ai zenbat euskaldun zabartu diran Somorrostroko lur gorrietan!

Antšen zegoan ta bertan alperrik galdu zuten Azkarragako Martin, Iñazio Marin semea, Joanesen illoba. Lagun arteko irakaspén gaiztoak aditzean, lenbizi, etzituan aintzakotzat artu nai; gero, seta okerrak akullatuaz, irakaspén aick onak zirala irudititu zitzaion; urrengo, egiarik andienak zerizkiola esaten ausartu zan, ta azkenez,

adiskidien tšaloak tšit narotu zioten uste dollor ori erraien erdi erdian.

Arrezkero ogi bedekintua bezela irakurri oizuan, igandietan, kertenkeriz ornituri-ko paper purtzill bat eta baita bere buruari esan ere: "Oñatiñ eztute onelako gauzarik egundaño ikasi, oso itšutuak eta atzereak daude ango gizonak."

Utzi dezagun oraiñ gure mutill zentzugabea, ta Zabaletako gertaerak jarraitu baño len, jakiñ ditzagun gure galizitarren albiste batzuek geiago. Juan Andresek, semea irakastoletan crabiltzeagatik eta emasteak nai zualako, Santiagon bota zituan sustraiak. Uri ospetsu artan bizi zan, aberats bezela, andiki antzean, zeregiñ astunetatik zerbait aldendua, baña, oraindik, alderdi askotako lanetan zer ikusi ta zer irabazi *politak* zerabilzkiala. Ondo esagutzen zuten euskaldun gizona urreko ta urrutietako etše, bide ta nasagilleak eta bazekiten bere berri Jijon, Abiles, Prabia, Ribadeo, Ferrol, Koruña ta beste ainbat lekutan. *Tenpraneiro* deritzon karrika batean zeukan etšea, bere berea, ederrene-takoa, ta etše artan, goi-beak maisterrai utzirik, bigarrenko bizitzan arautu zuan

bere kaiola, tšit erosoá, semeak eskatu zion gisara mai, jarleku, oe ta oial bereziz egokitua. Goi ta beko maisterrak, oso aberratsak izan ezta ere, bai ongitšo jaioak, tšurikerietan ta gezur gošoak esaten aski oituak, arpegiz arpegi *Don Juan* deituraren, gero atzetik, Juan Amots esaten zioten; baño, egunik utzi gabe, toki jakiñeko *kafera* zijoanean, *qué hay Don Xoan, ola Don Xoan, siéntese acá, póngase ahí*, bene benetako abegi ona egiten zioten ango adiskideak, au da: bere artuemaneko langille buruak; zalpurdi jabe ta mandazañak; ogi, ardo ta aragi saltzalleak; karobi, arrobi ta basoen nagusiak; bizar luzeko Santšez edo Lopez *sarjentoak*, eta gipuzkoatarraren dirua usai egiñ zuten beste askotšok. Adiskide aientzat guztiz bikaña zan Don Juan euskalduna. Ia ba, gorriak eta beltzak, bi aldiz, erriaren ondasunak zaintzeko iaioena bezela, gizon ura udaletšcan sartzeko jo ta ausi zakarrean ibilli ziran da... Eskua zabaldu izan balu zerbait... semeari, orduan ere, jaramon egin balio...

Seme bakarra zuan, Juanito izenekoa, beltzerana, erkintšoa, arro samarra, bere-

koa, gaizki asia, andizalea. Anitzez irri egiten zion aitari esaldi nastu moldakaitzean jardun oizualako aitak, bada Juan Andresek, dirua irabazten bai, baño gaztelarrez etzuan beñere ondo ikasi. Amarekiñ berriz etzuan iñora erten nai, bada Dionisia Gomez Junkeiro len baño oial obez jantziarren, etzan len baño asko geiago garbitzen, ta esagun zitzaion bere iturburu narrasa ta antziñetako bizibidea izkeran, jaskeran, orrazkeran ta begietako makarretan. Berez bear Billabonakoa.

Amazazpi urte dauzka mutillak Santiagon idorotzen degunean, ta adierazi genduan bezela, sendakintzarako ikasten asita dago. Aitor dezagun argiro: ikastoletan *dabill...* ta baita ere joko-etše, jolastoki ta *kafeterietan*, gurasoak ematen diotena ta berak arrapatzen duana aisa eralgitzen. Jakiturirako bide onak baño bide ari errezak naiago lituzke, ta esku artean, liburuen orde, egunoroko paper albistariak darabilzki. Bere iritzia egiñ bear izaten du etšean, bere ta gurasoen ustetan aitamak baño argi geiago dualako, ta ijakiñal Juanitok irakurri du Zabaletako eskutitza ta Juanitok

erabaki du Gabonetan gurasoakiñ batera Zabaletara etortzea.

Badatoz... edo etorri ziran; bada nik, noizean beñ, gaurkoak bezela agertuagatik, gertaldi auek igaro zirala urte batzuek badira.

Etorri ziran, ta etorri zan Somorrostrokoa ere.

Izugarrizko arrera egin zioten; baño ¡Aranzazuko Ama maitia! ¡Ura lana erori zitzaien baserri artako gure adiskidiai!

Iñondik iñora ezin ulertu zuten alkar Ana Josepak eta bere Galiziko errañak.

—Bancukan zuek esagutzeko gogo—
esaten zion arrek.

—*No le entiendo á V. una palabra*—
erantzuten zuan besteak.

—¿Esne *sopak* jango alditu mutillak?
¿Urdai azpikoa jarriko aldizuet?

—*Lo mismo que si me hablara V. gringo. ¡Jesús qué lenguaje!*

—Etzaite aserratu, emakumea.

—¿*Qué dice tu madre, Juan?*

Juanitori berriz dana iruditu zitzaion badaezpadakoa, it̄susia, t̄siroa, Zabaletan. Baserria uritik urruti, bideak aldapatsuak, ataria lokatzaz betea; sukaldean ke miña

zegoan, nunaitik aizea zetorren, jarlekuak tšarrak ziran, oiak gogorrek, janariak nolabaitekoak, aideak oso ezjakiñak, aitona agure baldarra, amona atso parregarria. Beste erabatekoak nai zituzkean arrek bere aitonak, jauregitarrak, andre-zaldunak, bere arrotasunean ames eginda zeukan bezela. Ezin zuan aserrea gorde, ta arpegi errean igartzen zitzaion naigabea.

Alperrik zebiltzan etšeko guztiak gazte ura tšurikatu naian. Etzion arrek aitari paketan utzitzen:

—*Vámonos de aquí cuanto antes.*

—*Ten paciencia, hombre. Espera unos dias.*

—*Si, unos dias más entre humo, y cuando vuelva á Santiago ni tendré ojos para estudiar, ni me conocerán los amigos, porque me habré convertido en cecina. Eso, si antes no muero de pulmonía. ¡Qué tierra esta!*

—¿Zer du zure semeak, Juan Andres?

—galdetzen zuan Joanesek.

—Etšera nai omen du.

—¿Au ez alda ba zuen etšea?

—Bai, baña...

—Baña bestea zuenago. Ala oida. Za-

baletatik aldendu ziñanean urratu zenduzan emengo lokarriak. Nere odolekoak zerate oraindik, baño nere illobagan, Zabaletakoen odola metu egindala uste det.

Juanito aiñ atzeka ta gogo tšarrekoa ikusi zutenean, Manuelek eta Josek etzioten ondo begiratzen.

—¡A ze Markeško arroa! Petrala ori gatañta—zion batak.

Eta besteak:

—¡Markeško! Eztirudi ba, amaren alde-tik ere, jatorri goitar bikañekoa.

Baña Juanito beziñ petrala ta milla bidar lotsagabeago zan da, Martiñekin izan zituen eztabaidarik andienak.

Azkarragako mutillak, Somorrostro-tik etšeratu zan ezkeru, bere buruari geiegi zeritzon ta goitik bera begiratzen zien lengusuai. Paper bat eskuetan zuala agertzen zitzaien egunoro, *biboteak* igortziaz, ta bereala asten ziran gazteak alkarri miñ ematen.

—¿Zer dek paper ori?

—*El Rasero.*

—Gauza onen bat bai.

—Onenetakoa. Emen egi andiak esaten ditu.

- Ebangelioa izango dek.
- Obea.
- Ago išillik, lukainka.
- Zuek illunpean zaudete.
- ¿Ta i eguzkitan? ¿Eguzkia iretzat bakarrik egiña dala uste aldek?
- Ez, danentzat egiña da, ta danok artu bear genduke.
- Guk, ertetzen duan guztian artzen diagu ederki.
- Baña nik ez.
- Eu aiz orduan illunpekoa.
- Ezta orrela. Lur azpian ere argia izan geinke.
- ¿Kriseillua?
- Batere kriseillu gabe, lur azpian ta lur gañean, eguzkirik eztan orduetan, gabaren erdian...
- Ipurtargia.
- Etzaitetze nizaz tšuliatu; adi zadazute benaz. Egiaren argiak egiten dio gizonari argi nunai ta edonoiz.
- ¿Ta nork emango dik iri egia?
- Paper onetšek.
- Ba ba... Albistari orren egia ta astoa-ren arrantza or nunbait dituk.

—¡Astoaren arrantza! Zeuek zerate zuek astoak, zeuek, ezer eztaizutenok.

—¡A Salomon, Salomon kaiku! Obeto egingo uke paper ori irakurtzen baño etše-ko soro basterrak garbitzen saiatuko baintz.

Orrelako izketaldiz naikua minberatuta zeuden gure mutillak, eta Jose batez ere, ipui oezaz gañera, Azkarragakoa Malentšori kiñuka somatu zualako, kiñuka ta geiegizkeriak esaten ere bai. Pozik emango zizkioken belarrondoko eder eder bi. Ta samiñ oiek asko etzirala, Gabon gabeen sortu ziran mingarrienak Zabaletako base-rrian. Etzan gau egokia, baño usterik gutšien zanean erten zuten aserre naigabeak.

Ez, etzan gau egokia. Gabona, bertso-lari ta idazlariak era guztietara goratu duten gaba, gau alaiia, gau gozoa, oroitzaz betteritako gaba da; pake bigun, jolas garbi ta eresi samurren gaba, umeak ainbeste aldiz ames egin duten gaba, gizonik zarrenak gaztetzen dituan gaba, illuntasunik estuan gaba, egunik ederrena baño ederrago dan gaba, Jaungoikoaren gaba; itz batean esateko, lurbirako alderdi guztietan gaurik

andiena, ta Euskalerrian, eztaukagu zer esanik, iñun baño ere andiagoa.

Eztago euskaldun semerik, euskalduntasuna galdu ezpadu, edozeiñ tokitik, gau orretarako makilla bat sorbaldan, pardeltsoa makillan, bakallaoa pardelean, gurasoen irudia buruan ta pozik neurrigabienea biotzean duala, bere lur maitea joko ez-tuanik, eta bere lurrean jaioterria ta jaioterrian sortetseko atc kutuna. Eztago euskaldun etsekoandrarik, estuen ta larrien bizi dana bada ere, seme senar gurasoentzat, ortik edo emetik, janari gozo ugaria lortuko ez-tuanik gau orretarako, naiz ta beste gau asko baratsuri salda utsez igaro.

¡Errukarria Gabon gabeen bere etsetik urruti dagoan euskal semea! ¡Kupida zazute gau orretan bere maitientzat nai aña janari idoro estuan euskaldun etsekoandrea!

Bidezko gauza da, bada, Joanesez, azkenengo egunetan, seme, illoba ta aide guztiak Gabon gaberako bere sukaldean bitu nai izatea, ta baita ere Zabaletako emakumeak gau orretarako aparria ondo jartzen alegiñak egitea. Goizean goizetik ekarri zituzten jaki ta gozagarriak uritik, eta arratsalde osoan euki zituzten su andiaren

aurrean, lapikoak gargar, *kašuelak* pill-pill, *tanboliña* (1) plist eta plaust eta, azken orduan, zartagi ta *arranparrillak* tšir tšir tšir. Zazpiretako dana zegoan gertu: asa zuria ederki bigunduta, bakallaoa *saltsa* gorrian, besiguak erreta, tšitšardiñak (2) oliotan berotuta, sagar zatiak azukreakiñ egosita, *kanela* ta guzti, ai gozoa per-tzean lagatzetik dindilizka, gaztañak esku-zapi garbian zapaldurik, maia zamau zuriz estalduta.

Pozak etzuan lokarririk Zabaletan. Apari onaren ustean alai, denak zeuden izketan, berriketan, jolasketan, gauza guztiak usaika, eltzeai estalkia kentzen, eskuak igortzitzen, etšekoandre zarraren gaitasunak goren gorenean jartzen. Juanitok berak lasai ta askatuago zirudian.

Alako baten,

—¡Bakoitza bere tokira!—agindu zuan Ana Josepak, eltzekada bat asa izugarrizko platerean itzuliaz.

Jarri ziran danak. Joanes maia bedein-katzen asi zan... ta baita ere parrez Juanito ta Martin.

(1) Padera.

(2) Angulak.

—¿Zeri egiten diozute parre?—galdetu zioten.

—Otoitzari.

—¿Otoitzari parre? ¿Zergatik?

—Tšorakeria dalako.

Begirune beltzak ipiñi zizkioten mutill biai; arpegi guztiak naigabe-soñekoa jantzi zuten. Alde batetik, etzan etše artan era orretako itzik beñere entzun, ta bestetik etšeke guztien gogoa Joanesi poz ematea zan.

—¿Noiztik ona da tšorakeria?—jarraitu zuan Zabaletako jaunak.

—Aspalditšotik. Orain ezta inun otoitz egiten.

—Ainbat gaiztoago. Orregatik daude gizadiak dauden bezelakoak... Bada, jakin zazute, umetšoak: nere baserrian beti egiñ izan da otoitz, beti egingo da, ni bizi naitzen artean beñipeiñ... ta gero ere bai... us-te det.

—¡Bai, jauna; bai, jauna! ¡Ezkenduke besterik bear! (Malentšok, Manuelek eta Josek, batera).

—¡Aita ta Semea! *Judioak* baño okerragoak zerate zuck, ikusten danez. (Amonak Martiñi ta Juanitori.)

Juanitok:

—*Bueno, no se enfaden ustedes: cada cual tiene sus ideas.*

—Juan Andresek:

—Gaztien gauzak.

Paulak:

—Gazte gaiztoenak.

Joaneselek:

—¡Nere ondorengoak orrela izan bear zutenik eznuan uste!

Amonak, gizonen bekokietan trumoia ikusita:

—Tira, tira, naikoa da: aztu ditzagun aztu bear diranak, Gabon gaba data.

¡Aztu! ¿Nork aztu biotzaren erdian eman zaion sastadea, zauria barruan badago?

Iñork etzuan ezer geiago esan, baño alaitasunak Zabaletako zukaldetik iges egin zuan. Alperrik Ana Josepak eta Kataliñek egin zituen egiñalak maikideak gozaten: Martin ta Juanito espāñetan iguin-parrea zutela gelditu ziran; baño beste gizonetakoak illun ta goibel, galizitar emakumea tšito zapuztua, Jose ta Manuel ukabilka ekiteko amorratzen, Mikalla... Mikallari malko lodiak zeriozkion. Alperrik Malen-

tšok, bereak animan gordeta, aparia zerbait aurreratu zanean, eresi zituan Gabon eresirik bigun biguncnak, gertaera samiña astu crazteko; alperrik ibilli zan aingeru-etzarri garbiz onela esaten:

«Izarrik ezta	«Gure argi ta	«Illeak urre
Goietan, baña	Gure zorion	Begiak urdiñ
Argitan dago	Pake pozaren	Zerua bera
Lur guztia.	Ekarlea.	Dirudizu.
Belenen Jesus	¿Nola izan ez,	¡Ai, aur ederral
Jaio da eta	Biotz ta anima,	¡Ai, aur gozoal
Jesus Bera da	Jesus, ni Zure	¡Ai maitetuko
Gure argia.»	Maitalea?»	Baninduzu!»

Gauza bat bakarra iritši zuan Malentšok: bere lengusu Martiñek, edanez ausarditurik, neskatsari belarrira esatea:

—Neuk maitetuko zaitut iñork baño geiago ta obeto. Ikusiko dezu.

Autorrera onek etzion Maleni onik egiñ.

Ezta ere, iñori, Gabon gabeko apariak: denai mindu zitzaieten ai gozoa.

—Nerea da errua;—zion aitonak oera-koan—nere biotza kiskaltzeko egurrak bitzen ibilli naiz; ezta nekarrelakoan beastuna ekarri det. ¿Baño zeñi otuko zitzaion orrelakorik, zeñi?

.....

Galizikoak, jaiak igarotzeko asti gabe aldendu ziran Zabaletatik, baña ez Martiñ. Martiñ Azkarragan gelditu zan, ez sorolanetarako, ez gurasoai lagun egiteko, ez bere jaioterria maite zualako: alperrerez ta Malentšo ikusteagatik. Malentšoren irudia animaraño eldu zitzaion, ta egunero, goiz ta arratsalde, aidien artean ezer gertatu ez-palitz bezela, Zabaletan sartuta zegoan, geiegi sartuta. Neskatšaren atzetik zebillen beti alderdi guztietan, etzion iñondik iñora pakcan utzitzen, ta beiñ batean lotsagarrizko gauzak esan zizkon Malentšori. Bai, lotsagarrizkoak; ta Pedro Antonek, itz aiek entzunda, gogor samar arpegi eman ziolako, bultzaka bota zuan mutillak morroi zar maitagarria. Bultzaka bota ta ostikopean ibilli gaizkille lizunak. ¡Pedro Anton gizagajua! Elbarrituta oera zeramatenean, “erori egiñ naiz, erori egiñ naiz”—zion—Martiñi errurik ezarriko zioten bildurrez; ta gero, Malentšo zauriak garbitzen ta sendatzen zegokonean:

—Išo, maite, išo; ez iñori ezer esan, ezta ondota; baño, berriz orrelakorik aitatzen badizu, jaikiko naiz ta burua puskatuko diot. ¡Lotsagabeca alakoa!

Zabaletan Martiñen makurkeria etzuten jakiñ, baño jakiñ izan balitz ere, bazcukan makurkeri guztiak zeñek estaldu. An zegoan amona, illoba orren esakera ta egikera tšarrak entzutean, beti mutillaren alde; ta sarri esan oizuan, aitzakiren bat billatu eziñik zebillen garaietan:

—Okerra da, bai, okerra da; baño andregei zindo batek ondu dezake. Andregei zindo bat bear du Martiñek.



XII

USTEAK ETA MINTZOAK

- ¿Zeñi lur eman diote?
—Zabaletako Pedro Antoni.
—¿Pedro Anton il da?
—Bai.
—¿Zer izan du?
—Eztakit *pa* nik. Erori egin zala edo...
Gauza andirik bear ez, zarra zan da.
—¿Zenbat urte zituan?
—Larogetik gora.
—Naikua lan egin du arrek bere ur-
tietan.
—Bai oriše. Aspalditsoan ez baña, le-
nago...
—¿Luzaroan egon alda gaišorik?
—Luzaroan makal, gaišorik amabost
eguncan.
—Zeruan gerta dedilla.
—¿Ta Joanes? ¿Zer egin zuan Joanešek?
—Obeto eidabill.

Irauten du orratik. Berea zala esango nuan gaurko elizkizuna. ¡Au gizonez dator! ¡Au andrazkoz!

—Jakiña ba, Zabaletakoen aide ta artu-emaneko guztiak. Pedro Anton etšekoa bezela zeukaten: badakizu.

—Ara Mikalla ta Kataliñ aurretik.

—Ondo zurbill ta maiškarra dago Mikalla gajua.

—Bai, eztauka orrek, gaur, ezkondu zanean aña patšada ta nasaitasun. Oroitzen naiz: ementšen geunden oien eztaia or zear igaro zanean. Bazan orduan ijiji ujuru ta deadar alaia galanki; bazan orduan jana ta edana, etše-bizitza ta ontzurrea... baña gaur, geu baño gutšiago.

—Inazio Marik urtuko luke, ondatuko luke, baita... Orain ere ura ezta or agiri. Zeregiñen bat izango du Mošolonean.

—Arrek Mošolonean zeregiñak eta emazteak etšean estutasunak.

—¿Martiniñek ez aldiote ezer ekarri?

—Zera, jateko gogoa galanta. Ori ere, aitaren antzera, Mošolotarren adiskidea omen da. *Azak berea kirtena, ta aritzak bere arikoa ezpala.*

—Aizan beste gauza bat.—Mošolo esan-

da oroitu zaidan—¿Egia alden Peru Odolki ire atzetik dabillena?

—¡Um! Ez... Tira, arrek nai izan du, baño ezkera zertu... Len ere, iñor eznuakako eznaiz egon: neuk artarako zerik ez, orra.

—Obeto den neskazar, Peru traketsaren emazte baño.

—Bai, baño ez uste izan mutill ura añ zera danik. Nork zainturik eztu euki ta...

—¡Ja jai! Oriše-re jolasa litzateke. I baño ardo zarra naiago diñ arrek.

Onelako mintzoa zerabilden soro-lanetan zeuden emakume bik, Aranzazuko bidean zear beltzez jantzita zijoan gizadiari begira. Emakume aietatik bata, Iñazio Marin ezkontzako egunean esagutu genduan atšur-neska zan, arako Luisa tuntuna.

Peru ta Luisaren arteko ipuien albistea eztakit jatorri onekoa bazan ala ez, gero jakin daikegu; baño Luisak Azkarrakoak-gatik esaten zuana, ori bai, ori badakit egia zala.

Sorokoak maišiatzen aiziran bitartean, Mikallak berak aitortzen zion Kataliñi, era onetan:

—¡Ai, Kataliñ! Negarrak, bai, negar an-

diak egin ditut! ¡Eta egiteko dauzkatanak!... Ondo dakizu nere senarraren berri: azoka dala ta jokoa dala, gelditu gabe dabill orrutz ta onuntz; asko beardu, oso asko, ta gurean eztago ezer. Lenago bai. Ni tñikia nintzanean—ezta arrokeria, Kataliñ—baster guztietan geunkan guk urrea: ontzakoak, ontzerdikoak, eun errealekoak, ogetabatekoak, ¿zer ez? Nere amak nik aña ezkonsari etzuala auzotegian bestek izango esan oiziran. ¡Ikusiko baluke gaur nola nabillen! ¡Nere aitak ikusiko banindu! Nere aizpatsoa Jaunak eramán da laster, nairgabez ilziran aiek bear baño lenago, etsearen ondamena ikusita... Gaur eztago Azkarragan zorra baño besterik: eskuan daukatan argizaria ere zorretan artu det. Ia zer janik eztaukagu, itñurak egiñ arren. Ameriketán genduzan gure itñaropenak, baño joan ziran betiko. Gure osaba orrek lurra jo emen zuan da. Eskerrak zueri: zuenetik datorkigu artiriña, urdaia ta baburruna; zuen bizkarretik gabiltz. Ta samiñ auek naikoa eztirala, oraiñ semea, ¡nere semea siñiste gabe ta *protestanteak* baño tñarrago etorri zait! ¡Ai, Kataliñ, zuk ezta kizu nolakoa dan nere oñazea!

—Jaungoikoak arautuko gaitu. Berak argi egingo dio zure semeari, Berak bigunduko dio biotza.

—Bai, Jaungoikoak dana bere eskuetan dauka, baño...

—Ara, Millaka, berri on bat eman bear dizut; gure amonaren asmoa.

—¿Zer da bera?

—Ezkondu egiñ bear duala Martiñek.

—¿Zeñekiñ baña? ¿Nork artuko du gure mutill zakarra?

—Zuzenduko duan neskatša batek. Amonaren iritziz Malenek zuzenduko du.

—¡*San Migel* Aingeru ederra! ¡Ai olako bat! ¿Baño, Kataliñ, zer esaten aizera? ¿Malentšok zer dio?

—Gure neska orrek eztu ezer aitatu; baña urtietan aurrera dijoa ta... amonari gogoratu zaio.

—¿Ta zuek?

—Guk, Jose Ramonek eta nik, miñez baña, beiñ edo beiñ bear dalata, denok ondo izategatik, *bueno*, esan degu, joan dedilla Malen Azkarragara, Paula gurera etorri dedilla, alkarri lagundu daiogula ta Jaungoikoak guztioi.

—¡Tšoratu bear zait! Baña Malentšo...

—Gure Malentšo eztirudian bezelakoa da, ona ta zorrotza, ezta ta ospiña, bear dan orduan bear dan bezelakoa. Bai, Kataliñ, amonaren ustea iritšiko da. Malenek nai duan guztia egingo dio Martiñi: egun auctan, *konfesatzera* eramán bear dualata, koipea baño bigunago darabill. Iñazio Mari ere bildurrez egoten da gure neskatšaren aurrean: ikusiko dezu nola ekarriko duan bide onera.

—¡Ai olako bat! Kataliñ, zerua dakust.

—Eskatu eikcozu Jaungoikoari.

—Belaungorrien gañean joango naiz Aranzazura, asmu orrek ondo ertetzen badu.

Gurasoak baño atzeratšoago agiri ziran Paula ta Malen, tšutšuputšuka. Ara zer zioten.

Malenek:

—Egingo nuke, gure amak eta ezkontzeko ipuiak daramazkitela.

—Bai zera.

—Ik eztakiñ: ire anaiak nere eskabidea egiñ diñ.

—¿E? ¿Martiñek?

—Bai, ta nere aitamak baiezkoa erantzun zione, edo itšaropena eman, gutšienez.

—Malen, nere anaia gaiztoa den, neuk zekiñat ondo: gaiztoa den ta etzatorkiñ egoki, Jose balitz eztiñat esaten. ¡Jose bai aukerakoa!

—Ala dio aitonak. Ura bezelako mutillik etzegoalata jardun ziñenan atzo.

—Ez, eztago, ta maite au, asko maite au.

—Baita ik ere bera.

—Eziñ ukatu niñeken; barkatu bear dian.

—¿Zergatik barkatu? Maitetasun ori nere gogobetekoa den, Paulatšo.

—¡Ire gogobetekoa!

—Bai.

—Bada orduan... nere barrua itzuli bear diñat, lertu baño len. Egia den, Malentšo; ¡maite diñat! nere ama beste diñat maite edo eztaikit nik geiago bada ere; Iturraldeko Jose animaren erdian, biotzaren tšokorik ederrenean zeukanat, bere izena entzuteak atsegiñ ematen zidan, bera ikusteak alako sarrastada bat... ¿Baña benetan alabill? ¿Ezalden iretzat bear?

—Ezten neretzako egiten dana.

—¿Ta Martiñ?

—Gutšiago.

—¿Mošolo?

—Gutšiago.

—Baña ¿nolako emakumea aiz i? ¿Ez-
ten iñor maite?

—Bai.

—¿Andikiren bat?

—Andiena.

—¿Aberatsen bat?

—Aberatsena.

—Aitaren, Semearen... ¿Jakiñ liteke
zeñ dan?

—Jakingo da. Orain ago iñillik.

Emakumien urrengo, lagunetatik alden-
duta, arretazko esamesak zeramazkiten
Josek eta Manuelek ere.

—Albiste berriak, Jose,—zion Manue-
lek.—Aitak, garaia dalata, zerbait egin
bearko degula esan dit. Ni Paulakiñ se-
nartzea etse bietarako ongi omen dator.
¿Zer deitzok?

—Bai, ezta gaizki.

—Ain zuzen lengo baten asi nintzan
Etšenausiko Isabeli zerbait esaten... Ik
esagutzen dek Isabel.

—¿Jose Marin alaba gaztea?

—Bai. Emakume ona dek Isabel, iñilla,
elizkoia, maratza, lurlangintzan oitua; baña
gurasoen gogokoa Paula dan ezkerro...

—Paulari eztio Isabelek eramaten.

—Emakumez emakume Paula ederra-
goa baño eztek. Eguzkia baño garbiagoa,
baratsuria baño zindoagoa.

—Alaseñ dek.

—Lengusua izatea.

—Lengusua, Iñazio Marin alaba ta Mar-
tiñen arreba... ¿Noiz biurtu bear dik So-
morrostrora Martiñek?

—Geiago biurtuko danik eztiat uste.

—¿Zer ba?

—¿Ezaldek ezer aitu?

—Nik ez.

—Ba nere belarrietara zerbait ekarri
diate.

—¿Zer baña?

—Malentšorentzat *egiten* dutela edo...

—¿Zer esan dek? ¿Martin Malentšo-
rentzat? ¿Otsoa arkumearentzat? ¿Dea-
bruarentzat aingerua? Ori eztek egia izan-
go. ¡Eziñ liteke, Manuel, ezin liteke!

—Ezluke bear.

—¡Onak gaude, benetan baldin bada!
¿Ez altziok ezkontza ori galtzeko neu-
rririk?

—Naiago nitek. Baño amonaren asmoa
omen da ta... Arrek eztio bereari utziko.

Etzion iñork ere utzi. Norbere animan beñ agertzen dan itšaropena, bikañegia izaten da alde batera utzitzeko.

Malentšo ezkondu nai zuten guztiak zeukaten itšaropenerako iturria: iru senar-geiak, bi amak eta amona zoli arduratsuak; eta guztiak saiatu ziran bakoitza bere la-beari su ematen.

Josek etzuan su bearrik gar bizian gori gori egoteko. Aberats aberatsen ondasuna, gizonik argienen jakituria ta gorengo agintarien agintaritza bear zituzkean Malentšoren oñetan jartzeko ¡ta etzeukan ezer! Tširo, argal ta umezurtz izateak erretzen zuan geienbat. ¡Etše obean jaió balitz! ¡Aitamak dirutsuak izan balira! Bere alde zerbait idoro naian, buru ta biotzean beti azterka, gogoratzen zituan mutikoa zanetik Zabale-tan išuritako izerdiak, soroetan egindako lanak, Urbian eramandako nekeak, aloger gabe, janaren ordañez, etšeko bezela, gogoz, adorez, gau ta egun, alzuana aña, ta ortik azaltzen zitzaion Joseri itšaropenaren arpegia, doi doi ta urrutitšoan bada ere. Añ eskergabeak etziran izango... Oroitzen zituan ume umetatik Malentšoz idukitako arretak, bien artean erabillitako anai-jola-

sak, onik onenean errai barruan asitako maitetasun andi, sakon, neurrigabearen goraberak, berariz neškatšak Urkiolan esan zizkion itz zoragarriak: "iñorekiñ izatekotan, zurekiñ izango-naiz", ta oroitza oien ondorean, Josek argi ta garbiro ikusten zuan bere itšaropena. Zabaletako alaba etzan gezurtia... Gañera, tšit askotan zetorkion umezurtzari, egunean milla bidar edo gelagotan zetorkion burura aitona egizalearen agindua: "Manuelek etšera emazteren bat dakarreneerako, iretzat ere aukeratuta neukan norbait", eta agindu orren gogamenak, ez-bai ta bildurrak kenduaz, osoro gozatzen zion biotza. Joseren amesa lortuta zegoan.

Martiñek, griñaren aizez, Malentšo ikusiaz ta aidien aurrean apal itšurak egiñaz išiotzen zuan bere labea. Urduri zebillen, bai, oraindik etzan ezkonduta; baño esku onetan zeukan bere leia, ta bazekian zer epai emango zioten aurki. Bera zan etšekoa, bera bakarrik, etšekoa zalako laguntzen zioten amak, izekok eta amonak, onek batez ere, ta amonaren gogokoa bazan, nai ta naiez garaitu bear. Ta garaitzean jaufal Uribarriko neskatšarik ederreña Marti-

ñentzat, lengusuen ondasunak beretzat, erdiak gutsiencz, ta ¡viva la Pepa! ibiltzeko naikua tñanpon.

Mošolok berriz dirua izan ezkeru dana eginda zegoala uste zuan, dana, *por diñero balla perro*, ta berak aña diru etzeukan beste mutillek, Oñatiñ. Egia, Malentšok Odolkiren bitartez bialdutako eskutizari etzion erantzun; etzion iñun ta iñola ere arpegirik eman, baña iruditzen zitzaion Mošolori zergaitik: neskatša ura oso lotsatia zalako. Nolanai ere Ana Josepak irikiko zituan ezkontzarako bideak ederki. ¿Martiniñek bear zuala Malentšo? ¡Ba! etzegoan Martiniñen bildurrik: Martiñ besterik ezeko ezkongaiia zan. Atsoak pelotariaren sakel betea ikusi zezanean, *¡guardabajo toro el mundo!*... ¿Ta ezezkorik balitz? Ezezkorik balitz, bide laburrak billatuko ziran: etsi ez beintzat. ¿Mošolok etsi? Ezta, ezta... ¡Ona zan bera animaren zaletasuna lagatzeko! Astorik ez setatsuagorik.

Mikallak eta Kataliñek osteru, Jaungoikoari laguntza eskatuaz ta gizonen aurrean amona goratuaz indartzen zuten itšaropena. Etzekiten noraño jaso etšekoandre zarra. ¡Gutši amona bezelakorik! ¡gutši alako

arretadunik! ¡gutši etšea zaintzen eraman-go zionik! Bazeuzkan bere akatsak: esnea geiegi neurtu, arrautzak azkar gorde, ogia giltzpean cuki, lukainkak sarritšo ikusi, gaztai artzea eragotzi, aleak kutšetan berak ipiñi, mallatutako sagarrak etšekoai jan crazi, edonungo belar pitiñ, aza orri, arbi galdu ta gaztaña ustel banakak tšerrientzat bitu, ta beste orrelako zurkeri batzuek egi-ten bazekian; baño, baita ere, garaietan, cdozer premiari arpegi ematen. Goserik ez ta geiegirik ez; sartu aldana ta jarioak itši: ori zan bere esakerea. ¡Ai arrek etšeari erantsitako zatiak! Ondo zijoazen amonari jarraituaz.

Azkenez, Ana Josepari, bere ustearen etsai iñor izango zanik etzitzaion bururatu ere. ¿Zeiñ gero? Iñor izatekotan, Joanes. Baño Joanesek, besteak bezela, belaunekoen onari begiratzen zion. Ainbat. Emazteak igarrita zeukan: belarri biak moztuko zituzkean Joanesek, Azkarragako semeak ondo ikusteagatik. Ala ere, aitona Martiñen aserrean zegoan ta ezeritzon senarrari bereala ezer esatea. Ez, itzik ere ez, aserrea joan zakion arte.

Ta dana erabakitzat emanaz, aizan gure

andretsoa gauza guztiak antolatzen ta eten gabeko izketan:

—Kataliñ, begiratu zazu gero nola dauzkan Malenek atorrak eta barruko gonak. Gañeko jantziz ondo dagola uste det. Ezer ere eztu puskatzen da. ¿Ipiñi aldu beñere *Gorputz* egunerako josi giñon soñeko beltza? Oriñen du naikua ezkontzarako. Bai, edozetara ere, mutilla baño ornituago joango da neskatša. ¡Mutill arlotea! *Auskalo* (1) ze praka ta ze jantzi dauzkan arrek: galdetu zaiozu Mikallari. Prantzizka jostuna etšera ekartzea izango degu onena, datorren astean. Berak daki zenbat kana bear diran alkondarentzat, berak aukeratuko dizkigu oialik egokienak. Oraintše artu ditu berri berriak Lukasek: berebizikoak ikusi nituan egoikotzeko (ostiraleko) azoka eguncan... Martiñi ta Manueli berdiñak egiñ bearko ¿e? Baño nai ta naiezkoak bakarrik. Gero ere Malenek eta Paulak utsuneak betetzeko astia izango dute... Gure Malenek tšukunduko du bai Martin; baita osaba ere. Tšukundu ta etšean lotu. Badaukate bearra.

(1) **A buscarlo.** Erderakada zakar au gure basetšetaraño sartuta dago.

XIII

PEDRO MIGEL AZKARRAGA

Urte batzuetatik onunzkoa da toki guztietan gizirudiak (1) elemenian ikustea. Gaur bai, gaur eztago gizirudi gabeko baster bat. Edozeñ etsetan arkitu geinzke bertako jatorrienak, aidienak, adiskidienak, esagunenak, maitienak; edozeñ lekutan daude antzeturik gurasoak eta semeak, aurrak eta agureak, neskameak eta guda-mutillak, erritarrak eta erbestekoak, erregeak eta pelotariak, apaizak eta zezenza-leak, kristauak eta mairuak, jakintsuak eta obendunak, banaka ta pilloan, jaten ta jostatzen, muzuka ta muturka, parrez ta negarrez, makutzik eta dituen apainduriak soñean ipiñita.

Geiegizkoa da ia. Ezerez baten egin oidirata. ¿Zer diot ezerez baten? Duan ere

(1) Gizirudi, gizantz. **Retrato.**

bai, norberak eztakiala, norbere lotsarirako.

Errian, bidean edo it̄sas ondoan, izketan, ibiltzen edo garbitzen, usterik gut̄sien danean, *klask*, at̄sitzen dute nolanai edonor, ta urrengo domekan edo biaramon goizean, asteko albistariak edo eguneroko papert̄soak badakar orkoa edo emengoa, goienetako agintaria bear bada, eroen gisa aoa zabalik, ollarren antzera anka bat jasota, mutikoen irudira uretan edo urerztean etzinda edo zilipurdika.

¿Nork eztu orain bere arpegia paperean ikusi? ¿Nork eztitu esagutzen, sukaldetik jaiki gabe, arpegiz beintzat, Donostiko endorea, Zumarragako t̄sistularia, T̄solo Pot̄solo bilbotarra? ¿Zeiñ da irudiz beterikako albistarian opilla, udarea, arrautz egosia edo abarketaren batzuk bildu eztituana?

Ara zergatik gaur gizirudi geienak aintzakotzat eztiran artzen. Lenago bai. Ni ume koskorra nintzala doi doi ta begirunez ikusten genduzan bat edo beste: Pio IX, Isabel II, Zumalakarregi ta Prin, andikien jauregietan izan ezik.

Ta garai artan, aspaldit̄so, bazuten Azkarragakoak beren gizirudia, askori pozez

erakutzitako *erretratoa*, maiz ta maitero igortzia, atsegiñez ta itšaropenez sarri begiratua.

An zegoan, gizategiko ormatik zinzilika, kutša zar landuaren gañaldean, errealeko ispilluaren azpian, done urdin-gorri zatar batzuen erdian; an zegoan gizona edo gizantza, argal, beltzeran, zuriz jantzirik, begi biak erten bearrean, jarleku ederrari cutsika, lastozko tšapel andia eskuetan zuala. Gizantz ura Pedro Migelena zan, Antonen anai gaztearena, ta ura bera izendatu zion Mikallak Kataliñi.

Azalduko det arren kondaira.

Mutill sendoa Pedro Migel, etšejauntzako semea, baño mendizale purrukatua, gatzetšotik ibilli zan, bere gogoz, Araozko basoetan, ikazkiñ, talogille, goiz jaikiaz, berandu etziñaz, baba beltzez urdalla be-teaz. Aizkolari trebea izatera nai zukean eldu. Beste gauzetarako joera ta griñarik etzuan orduraño erakutzi. ¿Zer gauza oberik?

Baño, beiñ batean, basoko lagunak itšasotik arunzko bizitza erreza jakiñ erazi ta guraria aldatu zioten. Neka neka eginda, lotara orduko, gazta piška bat jaten zeu-

dela, era onetako jarduna entzun zien:

—Zalla dek diru egitea.

—Añ zalla ere ba...

—Ikusten dek.

—Bai emen. Emen dek zalla, mendi tarte auctan.

—Edonun.

—Edonun ez. ¿Ezagutze aldeak Joakiñ Peliñ?

—¿Albizurikoa? ¿Ezagutuko eztiat ba?

—Orrek egiñ dik galanki.

—Bai Ameriketean.

—Nunbaiten. Guk ere, ara joango ba-giña...

—¿Amerika nun zio?

—Ara, garbi garbi esateko etzekiat.

—¿Madrill baño arutzago?

—Arutzago izan bear dik.

—¿Prantzi alde ortan?

—Prantziatik aurrera, Burdeostik zear, amalau edo amasei egunean itñasoz joanda.

—Urruti, aiskiria.

—Ta eztek an ere ollo errerik danentzat izango.

—Olloa edo zer jana bai, langillientzat. Ameriketean, gizona, nai duan beste aloger

irabazten dik edozeñek, illean berrogei *durota*, larogeita...

—*¡Diabru* arrania! ¿Zertan baña?

—Edozertan. *Kafe* ta azukrea biltzen edo...

—¿E? ¿Kafe ta azukrea? ¿Oiek aldituk alderdi aietako uztak?

—*Tabakoa* ere bai; zelai luzietan omen zio, emen artoa baño milla bidar ugariago. Orra tabakoa merke artzeko ta kafe ona edateko aukerea.

—¡Eztik usai tšarra botatzen Joakiñ Pe-lišen tabakoak! ¡Nok leukakcan!

—Eta gañera zillarra ta urrea duten mendiak ere baomendituk, guretan arria bezela.

—¡Alajañena! Orrelako menditšo bat bagiñu, andi andia izan eztare...

—Billatu ezker... Adua bear, *suertea*.

—Batzuk izan die.

Gogoan gorde zuan eleketea (1) Pedro Migelek. “¿Zer?—esan oizion geroztik bere buruari.—¿Emen egon, sei illabete osoan milla erreal eziñ aurreraturik egon, beste lurraldean amabost egun barru ira-

(1) Eleketa. Conversación.

baziko nituzkeala? ¿Emen, beti egurretan, nekepean bizi, ta beste leku baten aberas-
tzeko apukoa galdu? ¿Etsejauntzakoak ge-
ralata, zerbait badegulata, geiago eukitzeko
neurrik artu ez? Tšoroa dek Ameriketa-
ra eztijoan gaztea, al izan ezkerro.

Ta emeretzi urte zituanean, Abanako
bidea abituko ez abituko zalantzan egonda,
adu onari deiez, *suertearen* billa, Ameri-
ketara joan zan, Arjentinako lurretara,
norbaitek babestua, mendiko zeregiña ba-
ño besterik etzekiala, irakurtzen ondo ika-
si gabe; baño biozdun, ameslari, aberats
izateko uste ziurretan.

Alai ta lasai, zangar ta adoretzu egin zi-
tuan Ameriketarako bideak. Euskalerrria
utzi ta beingoan uri nagusi apañak ikusia-
rren, etzan batere arritu; bere burua ez-
ezagunen artean idoroarren, etzan ezertšo
ikaratu; ontzi andi ederretan itsaso iraki-
ñak igarotzean, len baño ere geiago birbiztu
zan: izakeraz, barru barrutik zetorkion bi-
zi-gudarako ausardia; berarekiñ batera ze-
ramazkian odol beroa, kemena, indarra,
gaztetasuna, biotzaren erdian isiltzake dea-
darrez: "Aterako aiz, aterako aiz."

Baia Blankan oña jartzea Bilboko nasa

baten gelditzea bezela iruditu zitzaion.

—¿Zer dakark?—gelditu zioten.

—Osasuna.

—¿Zer dakik?

—Atsurrean da, laietan da, ikaskintzan da, zama jasotzen da...

—¿Besterik ez?

—¿Gutši alda?

—¿Zer nai uke?

—Irabazi, erruz irabazi.

—Ezaiz motela. Igo bear dek.

Baita igo ere. Ziñez (1), deduz (2), bi-ziro, gau ta egun, ekin zion lanari; tšit lan asko egin zuan luzaro, tellagintzan, atšur-lari, ardizai, gurigille, esnezaltzalle; danera, nolako nagusia zeukan, zer agintzen zioten.

Kolorado ibaiaren ertzak badakizkite Pedro Migelek erabilli zituan ots-bero ta istillu larriak, iñoren mendeko egon zan bitartean. Etzuan bereala ollo errerik billatu. Gizonakandik urruti, ez etše ta ez eliza, ez adiskide ta ez anima, mendia erri ta zelaia eskaratz, padua lagun ta išilla oiartzun, gaizki janean ta lo bearrean, piztien bildurrez ta eskergabien ogipeko; iñoren

(1) Con empeño.

(2) Con honradez.

itzik entzun gabe, illetarik nori jo ezta, barruko jantzia zeñek garbiturik etzuala, ondoez baten nork begiraturik etzeukala; osasun bikaña zatika utziaz, almen zoliak iñoren lurrari emanaz; ospel, asper, bear-tsu ta elbarri; tširoen astoa beziñ lerdekata, tšakur gosea beziñ maiskar ta igar... bizitza estu, latz ta lakarra eramane zuan Pedro Migelek lendabiziko ereti luzean.

¡Egun itzalak aiek! ¡Amaika bidar damutu zitzaion etšetik irtena! Gipuzkoatik begiratuta, lurralde onak ziran Amerikakoak: Ameriketatik begiratu ezkerro, askozaz obeak Gipuzkoako mendi-basoak.

—¿Baño ezer gabe nola etšera biurtu? Saio bizi bat egin artean ez; lenago ill. *Gutšika gutšika urrutira joan diteke*, ta Pedro Migelek, gutšika gutšika, eskukada bat tšanpon lortu zuan, arkibide batzuek ikasi zituan, bere gañ jarri zan. Ta ordutik aurrera, gaur belardi bat iritši, diruak idoro ta soroak urratu; biar lur geišeago cran-tsi, osiñak bete ta barrutiak jaso; urren-goan idi-beiak ipiñi edo kendu, urlia esagunarekiñ elkartu ta sal-erosketa berrietan asi; ondorean zor guztiak kito egiñ ta artu-eman sakonagoetan pizkor leiatu; ekiñ

beti; atsedenik gabe, zirt edo zart, ortik edo emetik jo ta ausian ibilli; oparo nai, edozeri eldu, gogotik eraso, dana ondo etorri... gure ikazkiña, ogei urte baño len, oso aberats ta jaun ospetsu izateraño goratu zan.

Igoerako malla guztiak iragarri zizkaten gurasoai, bada Pedro Migeli, goraldirik andienean ere, etzizaion egundaño Oñati burutik eta biotzetik joan.

Zenbat eta naroago euki, ainbat areago zetorkion oroimenera bere t̄soko atsegiña. T̄soko artan erakutsi bear ziran ondasunak (¿zertarako ziran bestela?); ant̄sen tajutu bear zan jaiotet̄se zarra gurasoentzat; ant̄sen jauregi ederra norberetzat eragiñ; ant̄sen bere buruari begiratuaz pat̄sadan bizi; bertan ezurak utzi, aldeaurrekoen ondoan. Baña gerōseago, arloak amaitzean, lan-sare nastuak t̄sito ebakitzean.

Diruak egin ta laster eun ogerleko bialdu zizkon amari, eun ogerleko ta guk dakigun gizirudia (jura gauzaren polita, Jesus Maria ta Jose!) ta ostera berriz urteoro etorri oizan baserrira mutill emalearen eskupekoa, amarentzat edo aitarentzat, orratzertarako, t̄sokolatca artzeko, tabako orria

erosteko. Ara zergatik Pedro Migel izan-
du zan Azkarragako itšaropen ta jaungoi-
ko tšikia.

Bai, abagunc artan, Azkarragako nagu-
siak, batez ere gazteak, ezin zuten gorde
beren poz ta arrokeritšoa. Iñun entzuten
bazuan Antonek, onelako nekazari bei ba-
tena ezin ordaindurik zebillela, naiz ta be-
rari ezer galdetu ez, aurki asiko zan:

—Guk ba, Jaunari eskerrak, iñoren bea-
rrik eztegu. Nere anaia orrek lasai egote-
ko dio ta...

—Len ere naikua lasai zeundeten.

—Lengoa utsa da, utsa Oñatiko andi-
kien aberastasuna nere anaiarenaren on-
dorako.

—Soñua badu beintzat.

—Soñua ta izana. Legorretako *india-
noa* etorri zitzaigun atzo geu ikustera, bes-
te gabe, ¿ta badakizu zer esan zigun?

—Ez ba, zeuk azaldu bearko.

—Ameriketa guztian etzeudela euskal-
dun bi, ¿aitzen? euskaldun bi etzeudela
gureak adiña egin zuanik.

—Obe, obe zuentzat.

—Gizonik andienak ere tšapela kentzen
ziotela.

—Zorionean izan dedilla, ba.

Auzo-billeretan iñor aberats-ipuirik aitatzen asi ezkeru, Mari Batistak azkar aterako zuan maira bere aidea:

—Aberatsa gure Pedro Migel. ¡Arren lurrak eta arren abere taldeak omen dira alakoak! Bere basterra ikusteko bost ordu bear omen ditu, zaldiz. Millaka omen dauzka beiak eta idiak. Karrika bat osoa berea omen du Buenos Airesen. *Probin-tzi* guztia erosteko ta geiago zillar izango duala aitu degu.

—¡Eene Jaungoikoa! Errege beste bada noski.

—Errege beste... Tira, an ez omen da erregerik, baña...

—Bera egiten ezpadute...

—¿Nork daki?

—¡Jas!... ¡Aita San Isidro *bedeinkatua!* Guk ikusi bear ditugu ikustekoak ura datorrean. ¿Bai aldator?

—Baietzcan dago; berak Oñatin ill bear omen du.

Baña etzan etorri. Ogei urteko ardura ta lan zindoak nekez baño nekez gallurtu zuan bezela, etengabeko beraldi okerrak, sei edo zortzi illabetean, oso aisa t̃sautu

zuan Pedro Migelen aberastasuna. Bata bestearen atzean ezbearrik andienak gertatu zitzaizkon: lenbizi lur-ikarak; gero le-gorteak; urrena berriz agindu naikoen gu-da zitalak, kurruka makurrak, azpikeriak, lapurretak, erri ta ibar kiskaltzeak; eta guz-tia zearo bukatzeko, ekaitz ujolde leitsu negargarriak. Ondasunez beterikako gizo-na ezerezera itzuli zan, bada.

Oñatiñ albiste tšar auek jakin ziranean —jau kristau batzuen izakera dollorra!— Uribarritarrak etzuten batere naigaberik izan.

Albokoa norbera baño gorašcago ez ikusteagatik, larogei eguneko garizuma iga-roko lutekenak badira, maiztšo, maiztšo. Azkarragara etzan geiago Ameriketako dirurik azaldu, ez dirurik ez albisterik. Az-kenengoak, eztakit zeñen bitartez eraka-riak, Pedro Migel ezin jaikizala zioten, etzipenean erorita bestien bearrean ze-goala.

Orduan elorrio. Lotsariak oso išildu zituan Antonen ta Mari Batistaren minga-ñak eta Pedro Migel zanik etzuten aitatu ere nai.

¿İšildu? Eztago gauza egokiagorik zer-

bait aztu erazteko. Gure izena mingañean ezpadabill, aztu gerala dirudi edo aztuta gaude.

Aitamak ill ziranean azkar aztu zan ikaskiñ zorigabea. Tšito baña, aspaldietan baña.

Mikallak berak etzuan esagutu, *erretretoan* izan ezik. Neskatša zala esan oizion amak:

Ikusi zan, Mikallatšo; ara emen Ameriketako ire osaba, asko dezakean gizona, etšc ta lur ugarien jabea. ¡Arrek iri ekarriko dizkian belarritakoak, crastunak, pitšiak eta soñekoak! Danerako zeukan, eskuzabala den, maite gaitun. Andi aizenean *kotšean* ibilliko auanala uste diñat. Baño arrezkero, luzaroan, urtietan, mutik ere ez, osaba ill balitz bezela.

Ezkontzeko aurrean galdetu zuan Mikallak:

—Ama, ¿gure osabaren berririk ez alda?

—¡Ai umel! Andik etzion ezer. Geurea rekiñ bearko.

Etzan geiago Pedro Migelen izenik entzun Azkarragako baserrian.

Ala ere an zegoan oraindik bere giziduria, loi ta ezaña, autsez ta pekaz betea, amaraunez erdi eztaia, beztunez bezela

orizkatua; lengo tokian zegoan, betiko agortu dan iturriaren tankera, arrenik egiten etzaion donearen itšuretan, ganbara basterrerao aurki, garbiketaren bat egiten zancan.

Zar guztiai begirune diet, aztutakoan adiskide naiz, erorita daudenak erruki ditut, eta orregatik irakurburotšo au Pedro Migelen oroitzan egiñ det.

Goazen orain geure arira.



XIV

NAI TA EZIN

—¿Eizera, Mošolo?

—Eizera edo... Izerdi piškat atera bear detalata, ibilli.

—Izerdia aterako dek, baño eperrik eztek iñun billatuko. Etziok ezer aspaldietan.

—Izango aldeak sosoren bat edo beste.

—Aizak, ara, or ziatorrek erbi bat, erbiñudea.

—¿Zeiñ?

—Zabaletako andre zarra.

—Baitare.

Bazekian Mošolok zeñ zetorren. Enparantzan ikusi zualako erten zion bidera.

—Egun on, Andre Josepa.

—Egun on, eiztari.

—Itz bat esan nai nikizu.

—¿Zer dek, Mošolo?

—Zure illobak itšuturik nauka.

—¿Zeñek?

—Malenek.

—¿Itšuturik? Eztek orduan ezer ikusten.

—Gauza andirik ez, baña zoriona non dagoan badakit eta bere billa nabill.

—Berandutšo abillela uste diat.

—¿Nola?

—Zoriona beste batentzat dalako.

—¿Martiñentzat?

—Bai.

—Etzaitzu astuko Martiñek dirurik ez-tuala.

—Ik eztakik ori.

—Badauka ere, nik aña ez beñipeñ.

—Zer daukaken guk etzekiagu, baña ontzurre ori erakusten dek beintzat, tšilbor gañean.

—Bat erakutzi ta asko gorde, asko; ontzurreak eta *librak*, Ana Josepa.

—¿Urretan?

—Urretan.

—¡Joosus! ¡Libraka urrea! Orratik ori ikustekoa izango da.

—Ara bat emen.

—¿Ori aldeak libra bat?

—Bai, *libra esterlina*,

—*Eskerliña, eskerliña...* Ori, mutill, cun errealekoa dek Oñatiñ.

—Baña libra esaten zaio.

—¡Ai enetsoa! Esatetik izatera bide an-dia zio. Orrelako asko bear dira libra bat egiteko.

—Baño au ezta bakarra. Etsean ere badi-tut eta *Bankoan* eta *korrituan...*

—Danetara, ¿zenbat izango dira ba ire diruok?

—Danetara, laurenbat milla ogerleko bai neureak, eta gero aitarenak.

—Geiago eukala uste nian, ainbeste arrokeri jotzeko.

—¿Gutši alda ba?

—Ez, gutši ez; nekazari baten alabaren-tzat...

Ana Joseparen barrua, urre pillaren ar-gia bere aurrean irudituta, irakiten bezela jarri zan, ta barruko berotasunak arpegira erten zioten andreari. Gauza ona zeritzon odolekoai begiratzea, baño ainbeste diru ateaurrean utzitzea ere ba...

Igarri zuan besteak andrearen ezbaia, ta parre antzean, aoa belarrietaraño zabalduaz,

—Bankian nik—esan zion—ezetzik etziazula erantzungo.

—Eztiat ezer agindu, mutill. Berandu etorri aiz.

—Lendik daukat eskabidea eginda.

—¿Zeñi?

—Maleni.

—¿Noiz?

—Zortzi illabete bada.

—¿Ta zortzi illabete andian ezтик ezer aditzen eman?

—Ez, lotsatia da ta.

—Bada orduan...

Bat batera otu zitzaion Ana Josepari eskabideak luzapena bear zuala. Alde batetik diruari begiratzon zion, ta dirua beti zan atsegingarri; baño bestetik norbere itza jatea etzan itšurazkoa, ta gutšiago, etšekoen berri gabe, aidien kaltean epaia ematea. Gañera, Malentšok zer zerabillen ta ze gogo zeukan jakitea etzetorren gaizki. Arrek nai izan ezkeron... baño bestela ¿zer egingo zan ba!

—¿Orduan zer?

—Astia badagolata... ez gaitzatzula ito.

—*Bien, bien;* baña gogoan euki Martiñek eztizutela ezer eramango.

—¿Berriz ere? Gizona, ire dirurik izan ezarren, baburrinak jateko laiñ badiagu.

—Ala da, bai; baño ezta gaizki Martiñek baburrinak bear baditu, ni ezatorrela baburrin billa oroitzea. Nik Malentšo nai nuke, Malentšo bakarrik. Neuk emango diot jaten, neuk jantziko det, neuk ekarriko dizkat pitširik ederrenak, neuk eramango det erri andietara, neuk...

Ekin zion Mošolok maitetasuna esaten, Malentšo goratzen, Ana Josepa tšurikatzen, ta beiñ abiadea artu zuancan, etzegoan mutilla išiltzerik. Esan ta esan, cragiñ ta crabilli, geroago ta biziago, aspertu eziñik egon zan bere leloa Zabaletakoari azaltzen, iñork uste baño tankera obean. ¡Ura etorria!

Etzuan berealakoan amaituko, Ana Josepak itza kendu ecpalio.

—Tira, joari Oñatira, naikua data. Ezarri alperrik agortu. Ire jarduna, ezkongei guztien jarduna dek. Jardun ori gora bera, egiñ bear dana egingo diagu Zabaletan...

—Ba, neuk deitzotana ecpada...

—Ik deitzokana ecpadek ¿zer?

—¿Zer? Nere burua Urrejolako arkaitzetik bera botako detala.

—Botazak nai badek.

Zapuzturik eta mingañean zeuzkaten zi-

talkeriak nekez irentziaz, batak besteari bizkarra eman zioten.

Bazijoan amonatsoa, bazijoan baserrira, neskatša gaztea baño piškorrago, ardatza baño tenteago, bere artean mintzatzen, bazegoan gaiata. ¡Arranian albistea!

Mošolok, Oñatiruntz ibilli aldi bat egin da gero, andreagana biurturik, bere griña ta zima tšarra onela esanaz erakutzi zuan:

—¡Atso sorgiñ *madarikatua!* ¡Ez siñistu, nere burua botako detanik ez siñistu! Ez nere bururik: besteren batena, zurea izatekotan. Bada-ezpadako erantzuera badakartzu, *¡sentellas!*...

Ana Josepa, etšeratu zaneko asi zan Maleni erausika:

—¡Bazenki zer igaro zaitan! Mošolo Potolok erten dit bidera, eskean.

—¿Eskean?

—Bai, neskatša baten eskean.

—Neure billa.

—Ara. ¿Jakiñan gañean altzeunden?

—Aspaldian dabill mutill ori...

—Aspaldian, ¿e? Guk ezgenkigun ba.

—¿Zertako? Ezer egiñ bear eztanean...

—Etziñateke, beraz, Mošolorekin ez-konduko.

—Ezergatik ere ez.

—Lau milla *duro* omen dauzka.

—Berdiñ da ogei badauzka ere.

—Orra ba, orra ba... Ondo da jakitea. Zalantza piškak izan det, baño, tira, nai ezpadezu..... Martiñ etorriko zaigu obeto. Mošolok diruak dauzka, bai, baño, egia, ezta baserrirako gizona ta ezta zu ere ar dangelarako emakumea. Ardangelan zu epintzea, erregiña tšerritegian jartzea bezela da, aketza lorez apaintzea. Eztakit nola otu etzaitan. Lau milla *duroak* ematen dirate miñ. Martiñek balcuzka... ¡Utzia ta baldana bai gure Martiñ! Orrek onezkeru dirua aurreratuta euki bear zuan ba. Zeuk erakutziko diozu aurreratzen, langillea ta etšekoia izaten, elizara joaten...

Malenek etzizkon bukaerako itz auek entzun. Martiñen izena aitatu orduko, muker ta minkaitz, aldegin zion amandreari.

Onen mingaña etzan, ala ere, gelditu. Belarrondoko tšimak zapipera sartuaz, gañeko gonea kentzen edo oñetakoak aldatzen aizala, berak bakarrik jarraitu zuan:

—¿Nora joan ote zait umea? Lotsakorra da, bai, lotsakorra da, ta eztu orrelako

autuetan ibilli nai. Tamal andia izango zan ori Mošolonean sartzea. Baña joriše dago bal tšanponak euki Mošolok. Lau milla *duro* bereak eta aitarenak gañera. Aitarenak geiago, askozaz geiago. *Auskalo* igaroko urtietan zenbat irabazi duan ardo zikiña edo ibaiko ura zalduaz. Jaungoikoak badaki geure Iñaziok berak zenbat eman dion lapurrari alakoari... Eztio ajola, geu ere utzik ezkaude ta jaso daikegu oraindik Azkarragako baserria. Obe da belaunekoari laguntzea, obe da pakca.

Ana Josepak onela ziarduan bitartean, aizan Mikalla ere, Azkarragan, Paula burutu eziñik.

—Gauza bat esan bear diñat, neska, bakarrik gauden ezkerro.

—Asmatuko nioke.

—Etzakiñat; ustegabca den.

—¿Ustegabea, dio?

—Bai, usterik gutsienean Jaunak zerutik biraltzen digun doaia.

—Ainbestekoa ezteitzot ba.

—Ago iñillik eta aditu zan. Gu gaizki bizi gaitun, oso gaizki. Nik eziñat nere estutasunen erdirik agertzen, baño aspal-ditšoan, estu asko bizi naun. Oliotarako

etzcukanau, aora daramagun ogi pusqueta zor ta lorrean jaten diñagu, nolako lotsariak igaro ditutan iñork etzekiñ. Erañegun goizean, Anton Urdaik, ia noiz eman bear nion berea esan zidan, ainbesteren aurrean; gaur bertan, Panpotek, zorra ordaintzeko ordua dala adierazi dit.

—¡Eta neri ezer aitatu ez!

—Ezniñan aitaturko ere, oraiñ dakitana ezpaneki. Ez larritu: guztiai emango ziñenau berena, ta laster. I ta Martiñ ezkontzeko era egokia etorri zaidan. I Zabaletara ezkonduko aiz, Manuelekiñ izateko; Martiñ etšerako geldituko den, Malentšo emaztetzat duala. ¡Au zori ederra, Paula! Beiñ edo beiñ. Malentšorekin batera zertorkiñau dirua, baño baita ere diru ta ondasun guztien gañetik dagoana: zeruko argia, pakea, osasuna.

—Ez amesik egiñ, ama: Malen ezta gurera etorriko.

—Ezten siñisgarria, amesa zirudiñ, baño egia den. Amonari berari gogoratu zaion, ta Kataliñek eman zidan albistea lengo baten, iñillik euki diñat baña.

—Kataliñek eta amonak nai duenik ezta gertatuko.

—Bai, gertatuko den, Jaungoikoak nai diñ ta. Etorriko den Malentšo, ta berak alaituko gaitzin, berak jantziko din gure etše zarra, bera izango den Azkarragako aingeru. Ik berriz Zabaletan, aitonen ondoan, zorioneko egingo den Manuel zintzoa, ta emengoak an ta angoak emen, nai degun tokian biziko gaitun, denok alkar ondo arturik, beti alkar maitatzen, illarteraño Jaunari eskerrak ematen.

—Ez siñistu, ama: ni... Manuelentzat ez naiz izango.

—¿Zer dion, neska?

—Barruak eztit agintzen.

—Manuel, gazterik iaioena, etšejauntzarik andienetakoa, oberik eztuan mutilla, inguruetan iñor ez bezelakoa, ¡nai ez!
¿Zergatik baña?

—Neuk dakit.

—Paula, ezaut gaur esagutzen. I, nere poz bakarra, oraiñ artean añ ona, añ leiala, añ errukitsua, añ ama zalea, añ... Ta keišu aldi onetan... (*Negarrez*) ¡Paula, ik eznaun maitel!

—Itz oiezaz eriotza ematen dit, ama.

—Eriotza neri zetorkiñat laster, neri. Ire ama gaişoa işito, beartsu, iguinduta

ikusiarren, iri eztiñ ajola, jez, eztiñ ajola!

—¡Ai, ama! ¡Biotza lertu bear zait! ¡Kupitu bedi nizaz!

—Ni kupitu ¿ta i?

—Laztan bat, amatšo.

—Bat ez, bi, lau, zortzi. Ara, ara, ta ara. Baño... ¿ezkonduko aiz, ezta? ¡Premi andian arkitzen naun ta!

—¡Eziñ neike! ¡Eziñ niteke!

Izketa oiek ostiral bateko goizean ziran, epaillaren erdi aldera. Bazkal ondoan, Manuelek eta bere aitak Oñatiko azokara jectsi bear izan zuten, ta—¿esango aldegu?—baita ere Azkarragako Iñazio Marik. Jose gelditu zan etšaldeari begira, ta Martiñ alderdi guztietan usaika, Malentšo nun arkituko, neskatšari nundik zerbait adieraziko.

Arratsalde beranduan, Malentšo aitona-rekiñ atarian zegoala jakinda, berakana joaten ausartu eziñik, Martiñ, Zabaletako beitegian sartu zan ta beitegian billatu zuan Iturraldekoa, abereai bazka ematen.

Mutill biok, aspalditšoan, ezin zuten batak bestea ikusi, etšeko zakurrak auzo-koari bezela begiratzen zioten alkarri, ta

beren arteko mintzoa aopeko marmarreta izan oizan geienbat.

—Arratsalde on.

—Bai zuri ere.

—Egualdi polita gaur.

—Ederra.

—Onelakoak badira, aurki joan bear-ko dek Urbiara.

—Ori nai euke.

—¿Zergatik diok?

—Zerbaitegatik.

—¿Miñ aldeak? ¿Nik auzia irabazi deta-lako miñ? Iz... ari ba.

—Etzekiat auzia irabazi dekan ala ez, baño i ezaiz senargei ona Malentšorentzat.

—Eu obea, eu. ¿Ze uste uan ik? Gu-rera morroi sartu ta bertako jaun ta jabe izatea? Ez jaun ta ez morroi, ezaiz iñola emen izango.

—¿I alaiz nagusi? Ik baño lan geiago egin diat nik emen.

—Baita jan ere galanki, goseak ekarri ituen da.

—Obeto itz egin zak.

—Nai detan bezela itz egingo diat. K... egiten diat nik iri.

—¿Zer esan dek?

—K... iri, k... ire aita ordi akerrari, k... ire ama ustel zikiñari.

Jose kiskaldu zan. Lipar baten, tšimista bezin agudo, Martiñi lepotik eldu, simaur lindinga jo erazi, ta bere gañean luze, zintzurretik estutzen zuala, zapladaka eziñ aseaz, buru, musu ta okotzean ukabilka, tšautu ta zukutu zuan etsai likitsa, artzanorak mendean daukan otsoa zukutzen duan bezela. Ikaragarrizko biraoa kertetzen zioten azpikoari, ta gañekoak, birao bakoitzeko, eskukada korotza ematen zion aora. ¡Ortše, arraiorrek! Nere gurasoen izen garbia, Jaungoikoaren izen donea loitu nai badek, ara satsa, ara ziriña. ¡Jan zak, lizun orrek, jan zak!

Borrokarien oiuetara beingoan inguratu ziran sukaldeko emakumeak, eta gallen ikusi zuanari eman zizkon Ana Josepak, atšur kirtenaz, iru edo lau zartateko, galantak baña.

—¿Zertan daukazu zuk zer jo gure mutilla?—zion amonak, tšilioka, suak arturik.

—Orrek esan duana entzunda...

—¿Orrek esan duana? ¿Ta ik egiñ de-

kana? ¿Ik, zital, gizatšar, naspillari orrek egin dekana?

—Ori ta ni eziñ gintezke zorro batean bizi.

—Bada orduan alde, alde nai dekan lekura. Ori etšekoa da, ta i etzekiat nungoa. Mukizu bat etorri itzan, zer janik ez uala...

—Aitu det, amona; len ere aitua det, eta gañera neuk ere banekian, bai ondotošo.

Azkarragakoa tšistuka, arpegia igortzika, ta norbaiti esteak aterako zizkola esaten utzirik, Jose aitonagana aurkeztu zan larrañera.

Joanesez, nola gorra baizegoan, zerbaiten zurrumurrua baño besterik etzuan sumatu.

—¿Zer izanda or?—galdetu zuan.

—Ezer ez; Martin ta ni aserratu gera ta...

—¿Ta?

—Jakiñ nai nukeala ia zertan dagon arako bedorrek esan zirana. Malentšo nereztat izango zala edo...

—¡A, bai! Ara ba, Jose, nik nai nian, baño eziñ diteke... Berak, oraintše bertan...

—Naikua det, geiegi det. Ondo geldi bedi.

—¿Nora ua, mutill? Ator onera.

Ana Josepak, ukulluko atetik, zar-gaz-tien izketa urratuaz:

—¡Ortzak loka loka jarri dizka! ¡Aotik odola dariola ipiñi du nere illobea! Ergel, sepatsu, ziraun, kilimakor, gaizkille...

.....

Ordu batzuk geroago, eguna zabaldu baño len, Zabaletakoak lotan dauden bitartean, Josek, jai-soñekoz jantzirik, sagastegiko *estratan* bera, Oñatirako bidea artzen du. Arpegia illun darama, illunagoa biotza. ¿Nola ez? Auzotegiari betiko egi-ten dio agur, Zabaletatik betiko ateratzen da. Etse artan egin ditu bere umetako jolas apurrak, antšen jan du izerdiz ondo irabazitako taloa, antšen uste izan du zorionaren edaria eran bear zuala. Bai, etse artakotzat zeukan bere burua, baño angoa eztala esan diote ¡ta beste aterperik eztauka!

Naigabearen eztenak izugarrizko sastadak ematen dizka. Sastada zoliak Malentsoz oroitzean. ¡Errukarria Malentso! ¡Esku onetan erori bear du!... ¡Ai! Neskatša

ura ezta itzeko emakumea izan. "Iñorekiñ izatekotan, zurekiñ," esan zion beñ, ondo gogoan dauka. Aingeru batek orrelako gezurra esan bear zuanik etzuan uste. "Zu ta ni anai-arrebak gera", azaldu zion, ta Jose *anaia*, esakerarik garratzenez iraindu zutencan, etsetik ertetzeko agindu ziotencan, itz gozo bat ez, begirada bigun bat ez *anaiarentzat*. Ez Malenek, ez beste iñork. Arkaitzczkoa zuten erraia.

Min bizi bizia dauka Josek Joanesen oroimena datorkionean. Maite du aiton zarra: ura izan du bere guraso; ura da, Zabaletan, biotzik andi ta samurrenekoa. Ez-tio mutillak agurrik egin: badaki etsean gelditzeko eskatuko ziona, badaki umezur-zagatik arpegia aterako zuana; baña ori eztu nai umezurtzak. Entzunak entzun da gero, ikasiak ikasi ezkeru, ezin dezake arnasarik Zabaletan artu: ito egingo litzateke. Ta gañera, Martiñen aurrez aurre berriz jartzean ¿zeñek daki zertaratuko zan?

Garbi ezta ezer ikusten, baña bide bas-terrean norbait dagoala dirudi... Bai, emakume bat, neskatša gazte bat... Paula.

—Goiztarra zabiltz, Paula.

—Zu goiztarrago.

—¿Zerk zakarz?

—Zu ikusteko gurariak.

—Eskerrikasko... Negar egin dezu.

—Egunoro nik negar. Bart arratsean egiñ ditut negarrik andienak... ¿Norako asmoak dituzu?

—¿Aldakit? ¿Zeñek jakiñ non geldituko dan ekaitzak aurrean darabilen osto legorra?

—Zuzpertu zaite, gizona, zuzpertu zaite. Zu etzera osto legorraren antzekoa.

Or nunbait. Ez aitarik, ez amarik, ez aiderik, ez dirurik, ez zeri eldurik, goian zerua ta beian lurra...

—¿Eztizute ezer eman?

—Eznuan artuko ere.

—¿Baña zeuk ertengo zenduan?

—Eginzazu jaurtigi egin nautela.

—¡Zu jaurtigi!

—Bai. Adu oneko egin ditzala Jaungoikoak.

—Jose, ¡zure gisa nago ni ere!

—Ez, nere gisa eztago iñor.

—Adi zadazu nere illeta: orretara etorri nazaitzu. Gure baserrian, atzo jakiñ detenez, oso bearrean gaude. Aita, bere bizi guztian, ziranak eta etziranak eralgitzen

ibilli da, Martiñek gaiztakeria baño besterik eztingu ekarri, ardita zer dan ia eztingu. Ta nere amak eta gure amonak, etsea zerbait jasotzeko, ni Zabaletara ezkontzea nai luteke.

—Ta Malentso Azkarragara.

—Utzi zaiozu orri. Ni Zabaletara, ni, Manuelentzat.

—¿Zer gauza oberik?

—Zer okerragorik esan naiko dezu. Alde ortatik dator nere inka. Burutik beraño larrua eskatuko balit, eznioko nik amari ukatuko; egundaño eztiot atsekaberik eman, egundaño eztiot ezetzik esan, ta atzo ezetz erantzun nion.

—¿Ezetz?

—Bai, ezetz. Ni eznaiz Manuelekiñ ezkonduko, ezta zuzi zuzi, zati zati, birriñ birriñ egiten banaute ere.

—¿Zergatik baña?

—¿Zergatik? Nik ere, zuk Malentso maitatzen dezun bezela... edo geiago, beste bat maitatzen detalako.


—Erruki zaitut.

—Bai, erruki nazazu, Jose.

—¡A ze bi gauden gu!

—A ze bi... ¡bat izan bear gendukeanak!

- ...Agur, Paula, ikusi arte.
—¿Eztirazu ezer geiago esaten?
—Iñori baño esker ohea zuri zor di-
zutala.
—¿Besterik ez?
—¡Eziñ!
—Agur ba jagur!



XV

AGERPENAK

Zabaletako baserria utzi baño len galde-
tu izan balio Josek, errez jakiñ eraziko
zion aitonak nondik zetorren lengo usteak
aldatzea. Gogo bazuan.

Ain zuzen, gure umezurtza larrañean
aurkeztu baño lenñeago, Joanesek eta Ma-
lentšok agerpen andiak egin ta esatekorik
eskutuenak esan zizkioten alkarri.

Arratsaldea zan alakoa, ezti, garbi, eder
ta esnagarria, biotzean egoak ipiñi ta ani-
mari zerurañoko bide zabalak ireki eraz-
teko arratsaldea. Eguzki epel indargetua,
lurrik geiena kerizean utzirik, azkenengo
argi-orratzak mendi gandorrari sartzen ze-
goan, zearka-šortaka; egurats emea, illun-
tzeko aizetšoa, osto berrietan jolas cğiñaz,
belar luzeak zabalunduaz, aiton-illoben
arpegiak igortzitzen aizan, bigun bigun,
aingeru lumaz bezela; tšori še alaiak,

tarin, burubeltš, karnaba, tšantšangorriak, egun guztiko ibillera ta tšio jotzez nekatu rik, sasi-zugazti barruan zeuden, lumapean mokoia gordeta, tuntun jotzalleak bere tšistua zorroan gordetzen duan irudira; saguzar itšusi baldarrak, enaiz-banaizko ega tšepeletan, batera ta bestera zebiltzan eiztari, eltšo ta samorro billa; lenbiziko izar gozoak, ozkarbi urdiñ sakonean, agertu zuan bere argi atsegiña, urre ale biziaren gisara, ta osiñctako igeltšoak, klin klon, klin klon, asi zuten baserrietako gau soñu berdin ta iraunkorra.

Joanes ta Malentšo, españik zabaldu gabe, izadiari begira gelditu ziran.

—Guri entzuten iñor balego...—mintzatu zan Joanes, bat batera. ¿Eztaukazu zer esanik, Malentšo?

—Ez, ba.

—Aspaldietan goibel zabiltzalata nago.

—Egia da.

—¿Zer dezu, enetšoa?

—¿Zer? Gauza bat, gogo bat, ioran bat...

—¿Ezin iritši ditek?

—Iritši bai, denok batera etorriko bagia.

—Aitor zadazu.

—Miñ emango diot.

—Aitor zadazu: zu poztutzea da nere poza.

—Nik... mojatarako ustea darabilt.

—¡Neskato!

—Bai, antziñatik, oso antziñatik. Alde-tan guztian Bidaurretako elizara nua; bertan, nere arrenak egiteko tšoko jakiña daukat; ez-titan bezela egoten naiz, barrukoen otoitzak entzuten; zerua deritzat aien artean bizi alizatea... ta gauza guztien gañetik oriše nai nuke.

—¡Au albistea!

—¿Tšarra?

—Tšarra ez, tšarra ez... baño eznekian, eznuan uste, etzait bururatu... ¿Bai aldaki bestek?

—Jaungoikoak eta Bidaurretakoak.

—Aditzen eman diezu beraz.

—Bai, jauna.

—¿Zer diote?

—Tokia badagola.

—Nik Joserentzat nai ziñuztan.

—Amonak ostera Martiñentzat.

—¡O, ez! Martiñentzat ez: eznion nere baimenik iñola emango.

—Baña Jesusi bai, aitona; Jesusi bai, ¿ezta?

—Jesusek berea zaitu... Alabatsoa: nere begi gandotuak, ia ezer ikusi ezin duten begi auck, ordua datorkitanean, laster, zeuk itšiko zeunztalata nengoan... Zu zera, ez bakarrik nere samiñen ezta, baita ere nere luzapena, Zabaletako zuaitz zarraren kimu berri maitea... Baño neuk ere, nere antzera, Jaungoikoari eskenita zauzkat eta Jaungoikoak ondo artu bear izan du nere oparia. ¡Bere oldea egin bedi!... Nai dezunean, bada, berbertatik joan zindezke. Ni ilda gero joango baziña, neuk utzitakoa emango nioke Jesusi, ta eznuke orrela nai: eztiot neuk utzitakoa eman bear; neuk daukatana, neuk lurrean geien geien maite detan izatea emango diot, naiz ta, zuk etšetik ertetzean, nere biotza zauriturik odola dariola gelditu... ¿Ta Joserena? ¡Jose gizagaiñoa! Jaungoikozkoa da mutilla ta orri eskerrak. Etsiko aldu... Zoazkit, Malen, Martiñek alde auetatik iges egin dezan; zoazkit ainbat lasterren Jose gurca nolabait artetu dediñ. Bera ta Manuel izango dira nere azken orduetako lagunak, zure orde, zure izenean.

—¡O zeñ on dan nere aitagoia! Ederki esaten du: Jaungoikoari guretzat geien opa deguna eskeñi bear zaio, ta gerorako utzi gabe, biar edo etzirako luzatu gabe. Berak ordainduko du gaur berorrek egi ten dion oparia. Nik, besterik eziñ deza ket, baña egunoro otoitz egingo det berorren alde.

—Bai, egiñ otoitz nigatik, zure aideak gatik, Euskalerra guziagatik.

—Baño ta ¿nork esango dio amonari nere asmoa?

—Neuk: nere gañ utzi zazu.

Onetan zeudela igaro zan mutillen borroka, ta bereala Jose aitonagana aurkeztutzea. Etzan beta egokia.

Burua norbere gauzaz betea dagoanean, iñoren eztabaidetan sartzeko gogorik ezta izaten.

Malentšok gau artan lo gozo gozoa egiñ zuan. Lo gozoa ta amesik ederrena. Aingeru zúríz inguraturik Bidaurretako elizgoian zegoala iruditu zitzaion, etše on artako beste emakume garbien aldamenean, zerutar lore tartean bezela, ta Jesussek ongietorri zintzo bat emanaz, Jaungoikoaren izkera leun zoragarrian, itz auek esan ziz-

kiola: "Zai nengoan, Malen, bada neretzat sortua zera. Anima zalea naiz, animen egarria daukat, eta luzaroan egon naiz zurearen atarian, luzaroan egon naiz zuri deiezka. "Banator, banator," esaten zira-zun, baño etziñan agiri. Noizbaiten ere Zabaletako lokarriak urratu dituzu, zure aideak nigatik utzi dituzu, nik zugatik zeruak utzi nituan tankeraz. Sarituko zaitut. Gaurtik geiago zu ta ni alkarrekiñ izango gera. Ementšen egongo naiz beti zurekiñ ta zure aizpatsoakiñ; ementšen aseko zera nere maitasunez; bertan apainduko zaitut zeruko doaiz; bertatik ikusiko dezu, Aloñatik baño urrerago nere betiko jauregui ederra. Nerea da, baño zuri eman nai dizut, errege naiz ta erregiña egin nai zaitut, dena dezaket eta eskatzen dezun guztia iritšiko dezu". Ta Malentšok, belauniko jarrita, eskerrak emanaz, malko gozoak išuriaz, jarleku berezia eskatu zion Jesusi aitonarentzat, berarizko laguntasuna etše-ko danentzat.

Joanesek etzuan orrelako lo ederrik egiñ. Gau guztia begirik itši gabe igaro zitzaion, gañera zetorkion bakartade itzala neurtzen, bere burua oso minberatzen, itz

batzuek bakarrik esaten: “¡Jauna, Jauna, asko zor dizut, baña ematen dizutana baño gauza oberik eztaukat; nere oparia, Zuk badakizu, nik aldezaketanik andien andiena da!”

Jaiki zanean, etsekoandre zarrarekiñ naikoa itz eginda gero, Joseri deitu zion.

—Datorrela Jose.

—Eztakigu non dan.

—Billatu zak, Manuel: arrekiñ egon bearra zeukat.

Kataliñek:

—Norabaitera joan ezpazaigu... Jaiegunetako jantzirik eztauka gelan.

Malenek:

—Egingo nuke... amandrearen atzoko garrazkeriakatik...

Manuelek:

—Etzuan orrelakorik egingo..... ¿Neri aitzen eman gabe?

Malenek:

—Ezkenduan ezertso dendatu. Egia, ni eznengoan ezertarako... Baña Josek badakiki, jakiñ bear luke amandrea nola dan ta gu zer geran.

Ana Josepak:

—¡Außen dek auße! Batak *moja* dijoala,

ta besteak, norbere berotasunean zerbait esan zaiolata, etšetik alde.

Kataliñek:

—¿Zeñek moja?

Malenek:

—Neuk, amatšo.

Kataliñek:

—¡Jesus Jaungoiko andia!

Manuelek:

—¡Onelako istillurik!

Azkenengo itzak, esanbearraren esanbearrez, bata bestearen gañean, alkarri eutsika, naspillaturik erten zuten; baña itz-matasa guztia baño sendoago Joanesen galdera larria entzun zan:

—¿Zer egiñ diozute Joseri?

—Utsa.

—¿Utza? Utsagatik ezta ura etšetik al-
dendu..... Zabaletako atean etzaio iñori egundaño bultzarik egiñ, ez errikori ez erbestekori, ta gutšiago beartsua izan bada. Edozeñek euki du gure maian oppra (1) bete salda eta etzaio ukatuko ere ni bizi naizan artean. Etše onetako morroiak etšetik ezkondu dira edo bertan ill

(1) Katillua.

dira, beren gogoz erten ezpadute. Baño ezta Jose gure morroi, ta neke azpian erabilliarren, eztiogu beñere alogerik eman. Etzazute aztu: nere adiskide on baten semea da; neuk esan nion orren aitari, eriotz aurrean, nere illoben antzera maitetuko nuala Jose, ta maite det, maitegarria data. ¡Bai maitegarria! ¡Neuk dakit zer gurutze daraman ta nola daraman!

—Geuk ere maite degu.

—Ekarri zadazute, bada ¡Jesusen ize-nean! ekarri zadazute dagoan tokitik. Aurki idoro bear det nere adiskide zarra ta eznuke bere aurrean lotsatu nai. Manuel, joari Joserren billa.

—Nora baneki.

Malenck:

—Paulagana joan zaite. Arrek jakiñ oiditu Joserren ipuiak. Eta ezer ezpadaki ere, bera baño oberik ezta iñor Jose nun dabillan antz emateko.

Arriturik gelditu ziran gure gizadiak albiste auk ezagutzean. Batez ere Malen-tñoren burubidea.

Ana Josepak aitonari ezer erantzuteko gaitasunik etzeukan. Eztedilla iñor miraritu: maitetasunak arpegi edo alderdi asko

dauzka, ta alderdi guztien berri jakiteko, nor dan maitale, noiz dan maitale, zeñen zale dan, norako joera daukan ezagutu bear da. Begira dezagun nola maitatzen duan aurrak aurt̃soa: berez, kezka, lege ta eragozketa gabe, t̃sepets̃ak t̃sepets̃a bezela; begira nola gazteak gaztea: biotzez, bero beroan, its̃u its̃uan, irudimenaren laguntzaz indarturik; begira nola gizon zarrak: buruz, benaz, otz samarrean, norbaitek dauzkan zerzeladakatik. Ez, gure maitetasuna ezta danentzat era batekoa, ezta ere beti berdiña. Sakon ta iraunkorra izanarren, lotan egon oida sarri, aztuta, gordeta, estalirik, auspean dagon suaren antzera. Maitetasunak, bere agerraldirako, egun, ordu ta garaiak dauzka, ta ordurik samurrena maiteari agur egiñ bear dioneko garaia izaten du.

Ordu ori sumatzean berritu zitzaion Ana Josepari Malent̃sorentzat gordeta zeukan maitetasuna. Berritu, ezetu, esnatu edo orrela zerbait.

¿Ta Kataliñi? Kataliñi, ama zan da, bere alabaganako gogo bizia, lera zintzoa, griña sutsua, beti berri ta eze iduki zuan griña ona, t̃sito asi, zearo anditu, beiñgoan zoli-

tu, ezin geiagoan minberatu... Neskats̄a ura, neskats̄arik argiena, maratzena; egundaño oker bat egiñ etzuan neskats̄a, eran-tzuera gaizto bat eman etzion umea, zital-keri bat zer zan etzekiana; eskurik garbie-nekoa, biotzik biguñenekoa, elurrezko azal ta izar-begien jabea; alaba ederra, alaba zogia, alaba liraña, alaba kutuna, zar-tzarako itšaropen gozoa jorma itzalen ostean sartu bear zitzaiola! ¡Jeesus! Ainbeste tšera ta palaguz seaskan ta magalean aurra euki; ainbeste arazo ta neke norberre umea norberetzat asitzen artu; amaren ondasuna ume ura izango zalata ainbeste ames egiñ; bere begietan bizitza edateko, etšean eziñ bazan etše inguruan lotu nai... ta onik onencan, goizetik gabera, bazijoa-kiola, burni-sare baten atzean ikusi bear-ko zuala, noizean beiñ, besteren batzuk utzitzen ziotenean... ¡A! ¡Ori etzan lege ona! Benetan, orrenbeste ta geiago opa zion Jaungoikoari... baño... sartu zitezela bestien alabak; egiaz, aingerutzat asi zuan Malentšo ta Bidaurretan zegoan aingeru-tegia, baño ¡Jesus ba, Jesus!

—Jose Ramon, ¿zer egin bear degu?

—Jaunaren oldea izan dedilla.

—Orişen da gizonaren baretasuna.

—¿Zer nai zenduke ba? ¿Baimena ukatzea?

—Ez, baña...

—¿Jaungoikoari gogor egitea?

—Ez, baña...

Etşekoak beren elean utzita, Manuel Azkarragaruntz atera zan. Goibeletik trumoirra, euritik erasoaldira.

Paula ta Martiñ agiraka zebiltzala, ta gogor ala cre, urruti aldetik ezagutu zuan Manuelek.

Atean sartu baño len ekiñ zion Paulak, oicz bezela, beretik ertenda, deadarrez, estanda egiñ bearrean:

—Borreruak zerate zuek, biotzgabeak, gizagaizkiñak. Egiñ lana Zabaletan, urkatu arte lan egiñ, ondo erantzungo dizueta. *Bear zaitut eta geldi zaitte, bear etzaitut eta ken zaitte.* Orrelakorik ezta iñun ikusi. Baño auzotegiak zuen egintza jakiten duanean, erriak jakiten duanean, lotsatuta gelditu bearko dezute. Neu izango naiz gaiztoen gaiztoena zuen nabarmenkeria zabaltzen.

Martiñek:

—Ago işillik, tşotşina.

Paulak, ezentzun eginda:

—Ta ez uste izan, zoriobekoak izango zeratenik, ez uste izan. Jaungoikoak ezingo zaituzte bedeinkatu: ez Jaungoikok, ez gizonak. Gaurtik aurrera, zuen etxean giza-di zintzoak ezluteke ankarik ipiñi bear. Nik beintzat...

Mikallak, aria ebakiaz:

—Iño, Paula, iño.

Paulak, bereari jarraituaz:

—Ez, ama, ez tet iñildu bear: obeto du nere aotik jakitea. Manuel, ni eznaiz zurekiñ ezkonduko.

Mikallak:

—Etzaiozu jaramonik egiñ: gaur onek zer esaten duan eztaki.

Paulak:

—Bai, amatño, badakit; badakit etxean kaltean dana, badakit berorri negar eragiten diotana. Eznioke miñik eman nai, ta ala ere biotzak biraltzen dizkit itz auek aora, biotza darabilt agintari. Manuel, gu lengusuak gera ta ez senargaiak: amonak egin gaitu senargai ta ez Jaungoikoak. Zu beste bati zerbait esana zera...

Manuelek:

—¿Bai aldakizu Jose nun dabillen?

Paulak, deadarra beratuz:

—Bostak baño len, sagastegiko *estratan* bera, negargarri joan da.

Martiñek:

—Lupuak jango aldu, dagoan tokian lurrak irentziko aldu.

Manuelek Martiñi:

—Mingaña luzea ik. (Paulari) Paula, guk eztegu bialdu Jose.

Martiñek:

—Neuk aterako det, makilka.

Manuelek:

—¿Ik? Guretik ez beintzat. I ezaiz gurean sartuko.

Martiñek:

—¿Nola esan dezu?

Manuelek:

—Ezaizala gurean sartuko; ¿ez aldekatu?

Martiñek:

—¿Zergatik? ¿Zer dalata?

Manuelek:

—Geuk nai eztiagulako... ta gañera Malen moja dijoalako.

Martiñek:

—¡Erre... koondo!

Mikallak:

—¡Aitaren ta semearen!...

Paulak, dana gozaturik:

—¡Jaungoiko maite maitea!... Manuel, billatu zazu Jose... edo bestela neuk billatuko det ¡baita lurpean badago ere!

Martiñ, etxean eziñ egonda, Zabaletara urreratzen ausartu ezta, tresna batzuk ausi ta biurrikeri okerrak Paulari esan ondorean, aserrez irakiten, erraiak jaten, errira jetși zan, ta errian Moñolonera sartu. ¡Tokitara!



XVI

IJIJI ¡AIENE!

Labana da ba irakurburu onen asiera. Bildurrez nago norbaiten aserrean eroriko ez ote naizen, azkazal zorrotzen batzuk sartuko ez ote dizkaten. Arretaz ibilli, lumatsoa.

¿Zer da baña ainbeste arretazko ipuia? Ondo begiratu ezkerro, utsa: neska zar igatuen gañean, geure arloctara goazela, irristadan, itz bi esatea.

Ez, mutsurdiñai (1) etzaiete ikuturik egin bear, naiz ta berak, beti berriketa zaleak, cdozeñ ordutan edozeñ orraztu. Orrazi gabe, jakiña: danak ez, baño geienak mingañez dakite cderki orrazten.

Mota guztietakoak daude. Batzuk zearo apalak, bidegabeko arrokerietan beñere ibilli eztiranak, mutilletatik eta tšorakerie-

(1) Mutsurdiña—Solterona.

tatik iges eginda, beren gogoz senartzake daudenak. Oiek, emakumerik onenctakoak dira, langille ta ongilleak, norberaz oso aztuta beartsuai laguntzen, gaiñoak ikusten, done-irudiak garbitzen, elizmaiak jazten, Jaunaren bideak erakusten ta beste gauza tšalogarri askotan dabilzanak. Oientzat nere tšaloa.—Beste batzuk, andiki zaleak, beren buruai askotšo deritzoenak, eder ustean itšutuak edo azpilduraz josiak, ezkontzeko asmoetan biziarren, geiegi nai zutelako, batere gabe gelditu diranak. *Oñezkorik nai ez, zaldizkorik etorri ez.* Naikua lan daukate auek beren buruak apaintzen, illeak beltzitzen, arpegiak irintzen, zimurrak estaltzen, urteak gordetzen. Ia etsian bada ere, ezkongai daude oraindik, baño aberats edo goitarrentzat bakarrik. Pakean utzi daiegun, ta goazen aurrera.—Irugarrengo mallan jartzen ditugu egundaño etsiko eztutenak, onek begiratu diola ta arrek agur esan diola beti amesetan dabilzanak, mutill guztiai abegi ona egiten diotenak, edozeñ artzeko gertu daudenak, datorrena datorren bezela, gaztea ezpada zarra, ezkongea

ezpada alarguna, zalduna ezpada tšorroskillea.

Irugarren auetakoa zan gure Luisa, ona gajoa, baño zentzun gabea. Gizakume gazteak etzioten itz legun bat iñoiz esan, zarkoteak ere benetako eskabiderik etzioten egin; baño etzuan Luisak bizitza guztian ezkontzeko leia utzi, ezta tšimak oso zurituta gero ere. Neska zarraren leia danak zekiten, ta bere lepotik parrez ibilli oiziran. "Luisa, onelakok zuretzat eskumuñak eman dizkit". "Luisa, beste alakok zure galdea egin du". "Luisa, Martoloren biotzekoa zu omen zera", gezur andiak esan oi zizkieten ta edozer gauza siñistu erazi.

Ta Luisari lagun artean gertatzen ziztaiona bera gertatzen zitzaion Mošolonean Odolkiri.

Bazan ura ere bat, beste askoren eradura. Gaztetan alper, zartzan arlotc, beti berekoi ta buru ariña, askatasunari eder ta nagikeriari ondo iruditurik, urtean baño urtean okerrago, piškaka piškaka begiramen danak galdu zituan, arduragabeke-rian berengo ondarretaraño erori zan, ta azken aldera, naikua edari euki ezkeru, jateak, jazteak eta iñoren esanak ajola gu-

t̄si ematen zioten. Orregatik ibilli oizan Oñatiko alderdietan, basterrik baster, zularik zulo, guztien morroi, danen adiskide, oni egurrak t̄sikitu, ari pardela eraman, urliari zama bat jaso ta besteari agindu batzuek egin; erdi lanean ta erdi janean, oraiñ t̄surrut eta gero moskor, ezertarako ordurik etzuala, nun lo egiñik etzeukala, jai ta asteak berdiñ zituala, egunero zarpatsu, askotan soñ-ale gabe, noiz-nai traskill, tarratadaz, koipez ta zirpillez geiegi osatua.

Bein batean, isterrak agirian zerabiltzala ikusirik, Mošoloneko ardanglan, batatak eta besteak zirika, ezkontzeko bero bero jarri zuten.

—Gaizki abill orrela. Ezkondu egin bear euke.

—Norekiñ balit̄seok.

—Beti zioke eroren bat.

—Eroa izango litzake ba nerekiñ ezkontzeko.

—Luisa dek ona iretzat.

—Bai ta eztek t̄sarra. Iñoiz lenago bururatu zaitak. At̄surrean edo laietan, jateko aña irabazi egingo likek.

—¿Ta cdateko?

—Edateko, ortik edo emetik, neronek aterako diat.

Eta“ joan ari, esaiok, ondo artuko au, ordua dek, noiz arte ago, mingañ gabeko tšintšarria sasian usteldu zan,“ ekiñ ta eragiñ, ara non dijoakion andik laster senar-gaia Luisari bere esku mardularen eske.

—Gauza bat, Luisa.

—¿Zer da bera?

—Zu ta ni bakarrik gaude.

—Egia.

—Gure buruaren jabe gera.

—Baita.

—Nai deguna egiteko iñoren baimenik eztegu bear.

—Alašen da.

—Zertu giñaizke, bada, biok.

—¿Ta errian esango lutekena?

—¿Guri zer digu? ¿Nor da emen gure nagusi?

—Len ere *poportzioak* izan ditut.

—Baña oraiñgoa bezelakorik ez. Tira, nik alkondara garbitzeko ta prakak arabakitzeko norbait bear det.

—Josten ondo eztakit.

—Neuk ere eztizut gauza andirik eskatzen... ¿*Konprome?*

—Baietz esan bear ko.

Obeak badira—zion gero Luisak bere artean—baña nik ere senarra izango det—beñipeñ.

Ezkongaien berria zabaldu zanean, al-gara ederrak egin zituzten Oñatiñ. ¿Nola ez? ¡Berri politagorik! ¡Odolki ezkondu! ¡Luisa ezkondu! ¡Jas! Ibilli ta ibilli lortu zuan arrek bere gurutzea, ta ez t̄siki t̄sikia. Baña *gogozko tokian aldaparik ez...* Neska-mutill zarren ezta-egunerako, jolas andi bat asmatu bear zan, t̄sin-t̄sarri-jotze on bat gertatu bear zan, zorrotza, *pijoa*, izugarria.

Baita gertatu ere, Mošolonekoak oke-
rren zirala.—Goizeko seirak baño len, cliz
aurrea uritar gizadiz josia zegoan; ingu-
ruetako leioak t̄simadun andre buruz be-
teak agiri ziran; mutiko-neskatoak, saguen
gisa, lotsagabetšo, urdiriegi, Jaunaren
Etšean sartu-ertenga, ateak indarrean it̄si
ta irekiaz, “laster da” “badatoz” “orain-
t̄še” azalduaz, erritar guztien albistaritza
pozik egiten zuten. Ta ezkonberriak eliza-
tik ateratzean ¡ja mutillak! ¡jura zan tupi,
oliontzi, piper *poto*, pertza ta padelai era-
gitea. ¡Ura zan burni zarrezko trumoi ta

kaskabarra! ¡Ura zan algara ekaitza! ¡Ura
irrintzi, garrañi ta jeupaden erasoaldia!
¡Ura ustegabeko jai gozoa!

Peru etzan orregatik batere lotsatu. Ain-
beste mutill koskorren erdian, karrika zear
dabiltzan *komediantien* antzera, batari ta
besteari agur egiñaz, oso alai ta lasai zi-
joan.

—Ederki egiten dezute—zion—*tanbo-
linteruari* emateko eztaukaguta. Guk ere
zerbait bear genduan.

Oñatiko emakumerik geienak, ezkonbe-
rriak igarotzen ikusirik, parrez ito bea-
rrean, esakera tñotillak bialtzen zizkaten
alkarri, leiotik leiora:

—¡Ja ja iii! Eztula ta Burukomiña uz-
tarrian.

—Baneuka ta Balitz.

—Eroko ta Nagiko.

—Garaian oroitu zaiote.

—Jaungoikoak adimena eman daigula.

—¿Iñora bai aldijoaz?

—Bai, beren lurrak eta maizterrak eza-
gutzero.

—¿Non dute gozaria?

—Gaur eztakit, baño tñirotegian aurki.

Non ta zer gozaldu zuten eztet ikasi,

baño jakin det Mošolonean zegoala Peru amaiketan, andrearen kezka gabe, ardo zuria edaten, lagun guztien jolas-itzak entzuten.

Orduantse sartu zan Azkarragako Martiñ, egundañokorik aserrien.

—¿Zer dek? — galdetu zion Mošolo gazteak.

—¡Errekondo, errekkondo! Eskuetan neukan tšoriak iges.

—¿Zer tšorik?

—Malentšok.

—¿Malentšok iges? ¡Je je! ¿Besteren baten kaiolara, ¿e?

Mošolori Zabaletakoak bere alde jarriko zirala otu zitzaion.

—Bakoitzak nai duana egin bear dik;— jarraitu zuan—kaiola batzuek zotzezkoak dituk, beste batzuek burnizkoak, baño urrezkoak ere badira. Aukeran, edozeñek naiko likek urrezkoa ta janari onez betea. Tira, ez adi ozpindu.

—Ozpindu ez... ¡Karrasko! Eu nere tokian baego...

—Berotasunak joango zaizkik; oztuko aiz.

—Ez beingoan.

—Billatuko dek beste bat, neska geiegi zeudek. Ia ba, Odolkik ere billatu dik eta... ¡Ji ji ji!

—Pakean utzi dak.

—*Mundua* orrela dek, mutill: auzoa illetan ta gu opilletan. Ni, gaur, oso alaia natšiok. Ia, ¿ze artuko dek? Neuk *gonbiratze* aut.

—Edena bear nikck.

—¿Zer dek ori?

—Pozoia.

—Pozoia baño obe dek napar piška bat, arrautzatšo birekiñ. Bakalloa ere baziok.

—Ekarri naparretik.

—Baño ¿ze gertatu zaik? ¿Malentšok zer dio?

—*Moja* dijoala.

—¿E?

—Bai, Bidaurretara.

Itzetik ortzera, asuna baño berdeago jarri zan Mošolo; beazun guztiak begietaraño igo zioten.

—¡Gezurra diok!—deadar egin zuan, ukabillez maia joaz.

—¡Larrumieta! Obe bai gezurra balitz. Eztira ordu bi Manuelek esan ditala.

—¡Gezurra ik, gezurra Manuelek! Ziria sartu nai diak, baño eznauk añ motza.

—¿Nik ziria sartu?

—Bai.

—¿Zerdalata?

—Auzia neuk irabazi diatalako.

—¿Auzia? ¿I ere Malentšoren atzean alebillen?

—Bai, ta neurea dek. Malentšo ezta zorritsuen zale.

Martiñ zegoan lekutik jagi zan, ojuka:

—Aizak i, zorritsuak edo zorri piztuak zeintzuk diran bazekiat eta edozeñi erakusteko gertu natšiok... I añakoak bagaituk, gutšienez i añakoak. ¿Ainbeste igo alaiz? ¿Nik lortu ezin detana jadtšiko aldek? ¡Lajañeta!

Pelotariak borrokarako astirik izan bazu, eskuetako pitšarra buruan auziko zion Martiñi; baña Mošolo etzegoan eztabaidetan gelditzeko.

—Laster ikusiko diagu,—esan zuan—baña ori orrela bada ¡sentellas! *derrefente* garbituko det bat edo bat.

Eta *derrefente*, ardangelako gauza guztiak bertan bera utzirik, zigorrez jo duten astoaren gisa, an ziak Mošolo Potolo Zabaletara.

Ikusten nagola uste det. Bai, an ziak al-dapan gora, puzka, arnasestuka, izerdi patsetan, koipea dariola. ¡Sentellas! Ana Josepak zer erabaki duan berari, mutillari, esan bearuko dio; arpegiz arpegi ikusi bear du Malentšo ta bere aotik jakin zer asmo darabillen: ez, geiago ez bitartekorik. Neskatša ura ezta Bidaurretara sartuko: onean edo tšarrean, Mošolorentzat izango da.

Zenbat eta baserritik urrerago, ainbat eta ibillera motelagoa darama gure gazte baldarrak, nekatu dalako, barruko bultzadada gutšitu zaiolako, Zabaletara baño len zerbait gogamendu nai dualako... ¿Gogorreen zer egin dezake?... ¿Atsoa ill?... ¿Tagero?... Esi ta maratillak kentzeagatik, Malentšoren eskua atšitzearren, atsoa ta agurea, etšeko ta auzotegiko guztiak illko zituzkean; baño ta, korapillo danak askatuta ere, ¿Malenek ezkondu nai ezpazuan? ¿Naieza baño eragozketa okerragorik bai alda?... Ez, egingo zana onean egin bear zan. Onean, adiskide bezela itz egingo zion Manueli, Jose Ramoni *zigarro* bat eskeñiko zion, Ana Josepari urreak erakutzi, diruak agindu.

Zabaletakoak etzeuden iñorekin berri-

ketan jarduteko. Egun beltza zan ura. Josek etsetik alde, Malentšok erten bear zuala, aitona beñere baño illunago, Kata-liñ goiz guztian negarrez, amona jaiki zonetik agiraka, Manuel Paularen aotik ezezkoa entzunda, denak biotzeko miñ bizia gogoratzen... Eztakit, Mošolo, eztakit nolako arrera izango dezun.

—*Ke ai*, Manuel, lagun zarra.

—Emen gabiltz.

—¿Lanean?

—Arazoan. Gogo andirik eztago, baña...

—¿Ezbearren bat aldezute?

—Naikoa.

—Neuk ere zerbait entzun det. ¿Bene-takoa alda Malentšoren asmoa?

—Bai, tšantsetako gauzarik eztu orrek.

—Bada, debekatu egin bear diogu.

—¿Nola? ¿*Diogu*?

—Debekatu egin bear zaio. Amonari ta Maleni itz egitera nator.

—¡Jum! Iñoren gauzetan sartze ori... Ni eznaiz joaten errira zaragiak nun erosi bear dituzun erakustera.

—Zure amonak badaki nik zer darabilten.

—Amonak badaki, or dator ta nai de-

zuna esaiozu: jakingo du zer erantzun.
Baña gaur nere arrebarik eztezu ikusiko.

—¿Zergatik ez?

—Nai eztetalako.

Ana Josepak, pelotaria ikusita:

—¡Ara bestea! ¿Zer degu, Mošolo?

—Ia zertan geran edo...

—¿Zertan geran? Galduan: galduan i, galduan i baño lenagokoa, galduan etseko guztiak. Oraintse aukera Urrejolako ar-kaitzetik eure burua botatzeko.

—¡Ala Jainkoa! ¿Ori alda gizonari emateko erantzuera?

—Tšarragoak ere badizkiat.

—¡Arraio pola! Nere diru guztiak Maleni emateko ustean etorri ta...

—Gordeitzak: geuk ere badizkiagu ik aña, ainbeste arrokeri gabe.

—Bera ikusi bear det orratik.

—¿Zein da *bera*?

—Malentšo.

—Gaur ez.

—Gaur bai.

—Etziok orretarako.

—Buruan sartu zait.

Manuelek, sardea eskuan zuala, Mošoloren aurrean jarriaz:

—Baita neuri ere zuri kaskarra bertzea.

—¿Zuk neri?

—Azkar gero, emendik mošolotegira czpazuaz.

Mutill biak, ezetz ta baietz, geroago ta beroago, geroago ta itsuago, gorri gorri eginda, alkarri ederrak emateko daudela, ara nun datorren Tšuri, Kataliñen deieta-
ra, ara nun datorren artaldetik, begi an-
diak Mošologan ipiñita, aoa zabalik, bere
a lorea nagusi gaztearen alde jartzeko as-
moetan.

—¡Guau, guau!—egiten du eldu baño
len,—¡banua, banua! esanaiaz bezela.

Zakurtzarraren ortzak ikusi dituanen,
Potoloren berotasunak bereala otzitu dira,
odol guztiak izotz biurtu zaizka. Etzai oke-
rra da ura.

—¡Arrano!... ¡¡Ee!!... ¡¡Zakur ori!!—oju
egiten du, larri ta zatika.

Ta Jose Ramonek, zakurraren atzetik
agertuaz:

—Lepo gañera botako diat, auetatik ez-
paua.

Bi aldiz estu csan. Abercari cutsi diote,
baño zematsu dago, gogorrean dabill, Mo-

šologana erori nai luke, ta ezta Mošolo batere artetu. Asi da etšeruntz, bildurrez, zearka, okerka, zakurrari begirik kendu gabe, ta onela dio:

—Oraindik egingo det nik egitekoa.

Ta etšekoandre zarrak:

—¿Ez aldeak egiñ? ¿Atzeko aldega garbi aldaukak? ¡Ja jai!

Iseka onek mutilla oso erotzen du. ¡Arren birao biribillak! ¡Arren gorroto beltza! ¡Arren barruko sua! ¡O, kemena baluke! ¡Altsua balitz!

Zerbait aldendu danean, patšada ta arnasa piškat artzean, Tšuri etzitzera dijoala sumaturik, Zabaletara begira, beso biak jasoaz, amorruzko lerdea dariola, idoro aldituan itzik gordiñ itšusienak jaurtigiaz, berriren berri ekiten dio:

—Eltze, lirdinga, ezjakiñ, ustel, urde, basati; arrapatzen bazaituztet, *eskopeta* baneuka, *derrefent*...

Baña itz-errenkada guztia eztu amaitzen.

—¡Ša, ša!—esan diote zakurrari—jel-
duiok! ¡zatitu zak!

Eta Tšuri jaikitzen ikusirik, jañaniñoa! bai zankoak erabilli gure zaragi-mutillak. ¡Ura laisterketa! ¡Ura abiadea! Itšumus-

tuan, iraulka, orpoz ipurdi, erori ta jaiki, estu ta keišu, arraio ta moño, ia errirarte ezta gelditu Mošolo. ¡Eztauzka anka makalak!

Baña etšera orduko makaldu zan. Makala, illuna, eroria, azaletik izerditan bustia ta barrutik su-garretan errea eldu zan etšera.

Ez anka ta ez buru idoro zuan Odolki ardangelan, emaztea zearo aztuta, ezereen kezka gabe, ainbeste lagunen erdian, batak eta besteak ematen ziotena geicgi edaten, larregizko berritšukerietan, lagunai parre eragiñaz, galdera guztiai jolasean erantzunaz:

—¿Andrea nun utzi dek?

—Eztek galduko. Oñez ibiltzen ikasia zio. Ekatzak beste *bašo* erdi.

—Gaitz egingo dik.

—¿Gaitz ardoak? Ez, *motell*; ardoz sendatzen dituk gizonaren zauri ta mallatuak; ardoak osasuna, poza ta indarra ematen dizkik. Aitu, aitu:

*Edari maitagarria
Tristearen alegria,
Dezu alaitzen begia,*

*Kentzen melankonia,
Mutua ipintzen kantari
Eta errena dantzari (1).*

—Kantari, dantzari, ta neurrik ezpada, lau ankan ¿e? Gaur ere arrapatu bear dek ederra.

—Bai, gaur bai; mozkor gabeko jaia eguzkirik eztan eguna bezela dek, eta nik gaur jai diat, jai andi.

*Ardo gabe ezta funziorik
Ez mezarik eta ez eztarik,
Bada au faltatu ezkerro
Ez da arkitzen gero
Baizik naigabeko tristura
Illuntasuna ta malura (2).*

—Begira gero andreagana nola joango aizen.

—¿Ez alnazute ba eramango?

—*Bapo* esan dek.

Berez lotsagabe ta edandakoan t̄sit auserarta, Odolkik iñoren begirunerik etzuan, ta Mošolori ere ikusi orduko ekiñ zion:

(1) A. Meager'en itzak. Ezagunak diran bezela, garbi-seagoak eta obeto neurtuak balira nai nuke.

(2) Ibid.

—Igartzen diat, *konpañeo*: gaizki erantzun die iri Zabaletan. Ire diruen jabe banninduk ni, erregeren alaba ekarriko nikek Oñatira; baño ik, diru ta guzti, baserritar bat ezin irabazi dek. Moldakaitza izan, jorziok ba!

¡Ai enc badata! ¿Nork agindu zion zezen aserrearri cup egitea? Zezenak, edo Mošolok, bat-baterako zalaparta bizian, iñork uste baño len, maipera jaurtigi zuan ezkonberria, ta Manuelen gañcan erori bear zuten ukabilkadak, ostikadak eta mintzo nabarmenak Odolkiren buru, arpegi ta bizkarrera erori ziran. Zapi zarraren gisa lurrean erabillita, odoldua, ezaindua, gizonaren itšura gabe atera zuten mutilla Mošoloren atzaparretatik. ¡Kristiña! ¡Zerñek eta Odolkik zirikatu bear bera, Mošolo!

Andreagana zeramatera esan zioten Odolkiri:

—Aiskidea, gaur bertan izango dik Luisak ire prakak josteko era ona; oraintšcardo egoziz zauriak gozatu bearra.

XVII

LASAI TA LARRI

—¿Ezalden entzun?

—Bai, andrea.

—¿Ta zertan zeunden etše barruan?

—Aitonari begira, ezer sumatuko ete zuan bildurrez.

—Iñoren etšera etorrita... ¡Potrollo sabel andi!... *Bienke* Mošolo.

—Errukitu egin zait.

—Eztauka berak gure errukirik. ¡Onak jarri gaitu! Malen, gauzak bereala erabaki bear dira. ¿Eurean alago?

—Ni bai.

—Bada, orduan, ainbat lasterren. Gau-tšoriok ušatu ditzagun. I baua, Mošolorik ezten agertuko. Begietatik urruti, ezta biotza negarti. Zakurra kendu ezkeru, amorurik ez.

Au, gutši gora bera, esan zion Maleni amonak, zelaitik sukaldera sartu zanean.

Arratsalderako, zeregiñ berriak zetorziola nabaiturik, arlo berrietan sartzeko leiaz, goizean iduki zituan naigabeak aztu zitzaizkon ia.

Oriše zan bere jakirik onena: artu-emanetan, eutsi ta ekatzu ibiltzea; etšeko joantorri goraberetan, burutsu bezela, gauza guztiak antolatzen jardutea.

Eziñ zan geldirik eta išillik egon, ta egun berean asi zuan arloa. "Bidaurretara beraz. ¡Ederrak eman dizkigu! Ezkenduan asko uste... Nai duanean joan dedilla, bejondaiola, Jaungoikoak gorde gaitzala... Mojak ikusi bear nik oraiñ. ¿Euskaldunak aldira? ¿Nondik egiten zaiete itz? ¿Azkenengo zeñ sartu zan? ¿Errekatsoko Josepa? ¿Zenbat eraman ote zuan?... Ogei milla gutšitšo, ogetalau naikoa, ortik aurrera geiegi, badago zertan zabaldu... Gelarako gurutzea, sartuerako jantzia, bururako lore-ustai, eskurako argizaria... ¿Nola ekarri litezke? ¿Onenak non ote daude? Apañak jarri bearko... Tšit ederki egongo da, aukerakoa neskatša, artarakoa umea, errian ez politagorik, zerupean ez oberik... ¿Eli-zan nortzuk bituko gera? ¿Zenbateraño bazkaritan? ¿Zeintzuri esango diegu?...

Urlia auzori eztakit, onclako aideri bai, alako adiskideri ez; ezer eztiogu zor; berak ere, alaba ezkondu zanean, etzigun iñori deitu...“ ¡Jaunak eta ura emakumearen itz jario ta arautu bearra!

Senar, seme ta illobak beregañ utzi zioten: nai zuana esan ta egin zezala. Utzi Kataliñek, izketarako gogorik etzeukalako; utzi Joanesek, orrelako arazoetan ezer etzekialako; utzi Jose Ramonck, Manuelck, Malenek, amonari poz ematearren ta bera baño antolatzalle oberik iñun etzegoalako.

Ana Josepa, samiñ itšura gabe, eztaietan ibilli zan, jo ta ausi, aruntz ta onuntz, etšerik etše, mojetara ta apaizetara, papceren eske ta soñeko billa, dirua ortik eta oiala emetik, ori nai nuke ta ezta merkea, etorri zaita ta lagun zadazu; aistian ozpiña baño garratzago edozeñi agiraka; aistian olio ta ezta baño leunago ta gozoago neskatša onaren azkartasunak esaten; beingoan zimur, tšanponik atera nai ezta; beingoan jori, bere illobarentzat dana gutši zalata; beti buruko illeak jasotzeko astirik artu ezinda, alderdi guztietan Malentišoren sarrerako albistea parra parra zabaltzen.

Ara nolako jardunaz.

Eliz-etšera aurkezturik:

—*¡Are mai puišima!*

—¿Zeiñ da?

—Neu, jauna.

—¿Zer degu, Ana Josepa?

—*Batismoa* bear det.

—¿Bataiatu gabea zaude?

—Ez, jauna, ez; bataio gabekorik ezta gurean. Nere illobak berorrek bataiatu zitu-
tuan, nere semeak ostera Gerriko zanak,
eta ni Gerriko baño lenagokoak, antziña-
tšo. Berori ere ezta makala, baño Gerriko
bikarioa gizon argia zan, otsandiko aba-
dea, ta ni bataiatu ninduana berriz...

—Badakit, badakit. ¿Zer nai zenduke?

—Agiria ba, mojetarako agiria. Nere
illoba orrek moja joan bear omen du ta...

—¿Malenek?

—Bai, jauna.

—Ori ondo.

—Ondo edo tšarto, arrek berea.

—Zeuk ere zeurea egin zenduan.

—Bai, alašen da. Obeto zan moja sartu
banitz. Ainbeste buruko miñ eznuan era-
billiko. Egia, ni eznaiz beñere barru-zale
izan. Barruko itzalak eta barrukoen bizi-

tzak ikara ematen dirate neri. Ia ba, oraintse arte mojarik eztet egundaño esagututa. Gaur ikusi ditut, jauna. Bidaurretatik nator. ¡Jas! ta patxadakoak eta *korrientiak* dira. Eznuan nik ala uste. Naikua gauza esan degu. Nik aiek baño geiago. Aora begira egon zaizkit, parrez parrez...

—*Bueno, bueno*, agur; biar ipiñiko det agiria.

—Azkar egiñ beza.

—Biar bertan; agur.

—Ondo geldi bedi.

Lukasenean:

—Ia oial batzuk.

—¿Zuriak ala, beltzak ala...?

—Zuriak bai beñipeiñ, maindireak egitekoko.

—¿Zeñentzat dituzu?

—Malenentzat.

—¿Ezkontzen alda?

—Bai zera ezkondu. Bidaurretara dijoa.

—¡Eecne! ¡Alako neska ederra!

—Bakoitzak bere usteak.

—Ezertso eznekian.

—Geuk ere ez, atzo arte.

—¿Ta añ laster?

—¿Zertan egon bear du? Beiñ erabaki ezkeroko... Tira, ¿au zenbatean?

—Eun biguna aukeratu dezu.

—¿Zenbatekoa da?

—Errekatšokoak oriše bera eraman zuan.

—Gu ezker a gutšiago.

—Ez ba, ez ba... Ori, lau ta erdian jarri nezake.

—¿Lau ta erdi *kanako*? Nagoan išillik.

—¿Asko alda?

—Asko ez, geiegi. Guk baño errezago irabazten dezue; bai anbat.

—Zaude: beste bat aterako dizut.

—¿Zer beste gero? Auše bear det, baño lauan ematen ezpadirazu, ni banua. Añ zuzen, nun eresia badago.

—Errekatšokoak lau ta erdian eraman zuan ba...

Enparantzearen erdian, aideren bati:

—Aizu, Brijilla, Malentšoren eliz-jaira etorriko zera.

—¿Noiz degu?

—Eztakit. Ni banabill, baña gurcan ankarik jaso ere ez iñork, eta mutik ere ez, gañera.

—Naigabez daudeta.

—Ze naigabe ta naigabe oste. Naigabea denok daukagu. Ezertarako izan ez; guztia neuk egin bear, orra.

—¿Zeñek obeto?

—Mojetan bi aldiz egon naiz, *bikario-ari* paperak eskatu dizkat, *arrioa* josten aidira, A. Pillipe *sermoia* gertatzen dago, bazkaria nola eman erabaki det, Bitoriatik jantzia badator, gero Mezatarako izango dan jantzi aberatsa, urre lore ta guzti... Berbiziko jaia tajutuko degu.

—Esango dirazue noiz.

—Bai, onezkero laster izango da; zortzi egun barru bai. Aitzen emango zaitzu.

Iñori aitortu ezarren, bereala antz eman zion Ana Josepak etzala zeregiñ zalletakoa Malentšo Bidaurretan ipintzea: ez, bideak erekita zeuden, atek zabaldua idoro zitu. "Neskatša satorra! Azpitik lana egin da euki arrek, azpitik eta lenagotik. *Latiñak* eta guztiak ikasita zeuzkan ba ta. ¡Umea bai argia!"

Malentšoren asmoa Joseri ere jakiñ crazi zioten. ¿Non zegoan baño bera? ¿Ekaitzaren indarrak, zorigaitzaren zartadeak noraño bastertu zuan? ¿Umezurtz errukarria non zebillen? Mondragoitik laster Bergara baño lenšeago, Deba izeneko ibai ertzean, Barrena deritzaion arrobian.

Baserritik atera zan egun berean, non

sartuko, zer egingo, zeri eutsiko gogamenduaz, alderdi guztietara begira ordu larriak igarota gero, arratsalde beranduan, jaiki zanetik ur pitin bat edan gabe, baño beazunez zearo elikatua, etsi etsian norabaitera bidezko zijoala, arri-zulatzallien burniotsa sumaturik, aiekana urreratu zan gizagaiſoa, gau illuneko ibiltari galdua argi bakkarrera joan oidan itsuretan.

—Arratsalde on—esan zien.

—Bai zuri ere.

—Zeregiñik bai alda edo...

—Aigera beñipeiñ.

—Beste iñorentzat ote daukazuen diot.

—Bai: or, ibaian ur malatuak egiteko ta, Bergaran lantegia jasotzeko ta, arri asko bear degu. Aurtengo lain badago.

—Nik ere ba ogibide apur bat nai nuke.

—¿Emen?

—Al bada.

—Lan gogorra da gero au.

—Oitua nago.

—¿Nongoa zera?

—Oñatiarra.

—¿Zeiñ etsetakoa?

—Eztaukat etserik eta gurasorik.

—¿Sasikoa beraz?

—Or nunbait.

—Ainbat okerrago. Ia ba, zeuk badeit-zozu...

Josek etzuan iñola ere Zabaletaren aitamenik egin nai. ¿Zertako? ¿Zer dezu ta nola zatoz aztarna billa asi zitezen, galdezka? Bere anima barrura ¿zeñek sartu bear zuan? Joseren naigabeak ¿zeñi ajola eman-go zion? Gañera, Barrenako arrobian etzan bera luzaroan egongo. Ez, diru piška bat eskuratu artean bakarrik: gero, Jaungoikoak laguntzen bazion, urrutira joango zan, oso urrutira, Oñatiren ta Zabaleta-koen izenik entzungo etzan lurretaraño. Baña, orduan ere, gauza bat zeukan oker ta izua: jail biotza eziñ jaurtigi, norberarekiñ eraman bear, beñere išiltzake, beti espaz, miñez, eri ta negarti.

—¿Non geldituko naiz?

—Ortše zerbait aurrerago daukazu Lokatza.

—¿Baserriren bat?

—Ez, ostatua edo...

Etzan baserria ta etzan ostatua. Baserria ez: gure baserriak, etše zabal patšada-koak, soro zelaien erdian, baso itzalen inguruan, bidaztien ardura gabe, lurrak eta

abelgorriak ematen duenetik bizi oidira, ta norbaitek iñoiz baserriko eskaratzean aterperik bear edo nai badu, nekazarien bazkari edo aparia etšerako dagoan eltzetik ematen zaio. Etzan ostatua: gure ostatuak, tšukun ta garbiak, tresna erosoak ta gela ederrez jantziak, ardo ta edari onez beteak, arrautz, aragi, arrai ta egartziz ornituak, beti daukate zer jana ta zer edana, ta sarri gogoak eskatzen duan guztia.

Joseren ostatua (nolabait esan bearko) etše tšikia, etše medarra, mendipe añubean, sailtšo elkorrean, ibiltari arlotien tšanponak bildu nairik, bidearen albora ertenda zegoan. ¡Makiña bat bizikera bada! Ez soro ta ez zelai, ez arto ta ez belar, ez bei ta ez tšerri, arkaitza batetik, oiana besetik, larreko auntzak eznea labur, ogei oñeko baratzatšoak sei baratzuri ta lau tipula ziztriñ, etše artakoen janaria non lortu zitekean etzan iñola ikusten.

Baña Lokatzako nagusiak, Joakiñ Arraio ta Antoni Tšistu, senar emazteak, gazte samarrak, bata otarragillea ta bestea zirt cdo zart egitekoa, borroka ere bai bear izan ezkeru, etziran añ estu bizi. Oñezkoa zala edo zaldizkoa zala, gurdiduna edo

mandazaña, zerbaiten irabazia egunero sortu oizan.

¿Zer zeukaten baña etse barruan? Laster azaldu geinke. Mai luze zikiñ bat aulki biren erdian; piper batzuek apalean, ozpiñetako piper berdeak gordiñik jateko ta gorri-beltz zimelduak zukua berotzeko; sardiñ zarrak, intšaurrak, *azukre* illuna, bakallao buztana ta urdai tatoa iltzean be-
ra, gaztai erdika ori gogorra, ogi zatar andi legorra, amar *librako* olio ontzia, lau *arroako* zaragitšoa, ur irazekidun bonbilla motza... ta euliak, euliak erruz araza, mai, orma ta janari guztien gañean, batez ere or-cmen eroritako salda pitin ta gozo apurretan mardokiro pillaturik.

¿Nori deizkio gauza gutši? Etzan geiago bear, astegun buruzurian beintzat. Jaietarako Bergaratik crakarri oizuten ogi ta aragi berria oso ugari, jaietarako ta azoka egunetarako; bada egun oietan etsetšo ura aruntz-onuntzkoen geldi-leku jakiña izaten zan, edalien iturri egunaz, tšori askoren kaiola gabaz, jokalari maltzurren leize-zulo ta nekazari geldoen ondamendi edonoiz. ¡Amaika bidar gau beranduan uritik bota zituen nekazariak asi oiziran Lokatzen, be-

randuago, *enbidoka* ta *ordagoka!* ¡Amaita bidar atera oizuten Lokatzatik gizon ordiren bat, goizalderuntz, bultzaka edo tatarrez bidearen erdiraño. Zijoala bere lekura, edonun gelditu zedilla, nai zuana egiñ zezala, *or konpon.*

Jose Lokatzan sartu zanean, orma gorrian ikatzez eginda, oar lakarra ikusi zuan:

Oy no ce pia, manana zi.

¡Albiste polita arditik gabe zegoanarentzat! ¡Eta nork crantzunik ez gañera!

Etšekoandrea burutik oñctaraño begira gelditu zitzaion. Andre ura, andre-gizona, soa (1) ta itz gogorreko emakumea, bidaztien sakelari usai egiten ederki oitua zegoan. Bere aurrean igaro ziran, milla ta geiago aldiz, baserritarrak eta uritarrak, cutsiak eta banatzalleak, apalak eta arroškoak; bere mai zakarrean jan zuten gogoz, onetik edo merketik, aragi serra edo ogi zatia, bakallao errea edo tipula gordiña, auzoetako gizonak eta urriñetako neska-mutillak, alkondare zuridunak eta atorra gabekoak, zerbait zeukatenak eta gizadi

(1) Mirada.

beartsuak, beartsuak batez ere, *ijito*, *pasiego*, *barkillero*, eskale, perzgille, aulki-
giñ ta abar. Etzituan alperrik, *kopaka ba-*
soka, ainbeste bonbilla ta zaragi ustü.
Edozeñ bidezkori laster igarriko zion di-
rurik bazuan ala ez, jantzian, esakeran,
ibilkeran, begietan, edonun.

Añ iñill ta geza ikusirik

—¿Zer dakartzu?—galdetu zion Joseri.

—Lanera nator.

—¿Nora gero?

—Alboko arrobira.

—¿Gurean egoteko?

—Bai.

—Aurrez ordaindu bear dezu egoerea
ta jana.

—¿Aurrez?

—Bai.

—Orain eztaukat ba.

—Ala uste nuan. Agertu zeraneko, pe-
ku tšarrean jarri naiz. Askotšo ikasia nago
ni. Pardel gabe ta, lanera...

—Gaurkoa beñipeiñ, sapaian bada ere...

—Emen eztago sapairik.

—Soñekoa baituko (1) dizut.

(1) Baitu—Poner ó dejar en prenda.

—¡A! Orretara bada bai, orretara ezte galduko.

Ta kopeta beltza batere argitu gabe, milla petralkeri geiago esanaz, gertatu zitzaion mutillari bada-etzpadako aparitsoa, eman zioten nolabaiteko etzatokia.

Baño alako gazte sendoa zurbill, buruz bera ta lotsakor nabaiturik, senar-emazteak iñola eziñ artetu ziran. “Jaungoikoak badaki zeñ dan”—dio bata. “Alprojaren bat galanta”—besteak. Jose lotara ostendu zanean, susmuka ta zelataka gelditzen dira biak, eta gure umezurtz gizagaiñoa belaurniko, *Aitaren* egiñaz, negarrez ikusten dute. Orduan, “eztirudi gaiztoetakoa”—azaltzen du Joakiñek.—Eta emazteak: “Izan ta irudi berdiñak eztira. Ernai egon. Bear eztanen bat egin du orrek; bai, damutu bazaio ere, zerbait egin du. Ta urrekoa da, urrekoa non edo nongoa...”

Oraiñ badakigu Jose non gelditu zan: Lokatza esagutzen degu. Zabaletatik erten ezkerro, Lokatzen jaten zuan gosea kentzeko aña baburrin ta ogi zuku, zorretan dagoan gizon lotsatiak aldezakean bezela, neurriz, arretaz, begirune andiz. Antšen epeldu oizuan oe purzil bat gabero gabe-

ro, baño gau beltza gogo illuncan igarota, goizean, gorputza ezer gozatzake ta anima gaiñoa oerakoan baño larri ta gaziago zuala jaiki oizan. “¡Ai! Etše otza dek au, ostatu legorra dek au—zion berekiko—Urdallarentzat zerbait baziok, baña biotzak eztezala ezer eskatu. Nektan ago i, Jose, baño ire nekien ajolarik etzeukak iñork. Ta Euskalerrian ori gertatzen bazaik, erdalerrictan ¿zer izango da izaz?...” Etorkizunari begira jarrita, bere burua urruti aldean ikusten zuala zeritzon, bidasti arrotza gure lurretan oibezela, jan edo lan billa, oñez, bakar, itzal, minbera, loi ta zirpiltsu, kemenge ta motel, zama zakarra eziñ jatorik, goscak eta egarriak galtzeko zorian, non zebillen etzekiala, ezkerrera edo eskubira ekiteko zalantzan, alderdi guztietan irria ta iraña idoroko zuan bildurrez... “Iturraldeko semetñoa—zion berriro—naigabe zelai andiak igaro bear dituk. Laztasuneko bidearen asieran abill; geroago ta garratasun andiangoak datorzkik. Erbesteko aiz emen ta erbesteko izango aiz edozeñ tokitan; arrotz izango aiz edonun, arrotz igüingarri.”

Erbesteko izate au berezkoa da gizo-

nentzat, edonun ezpada, lekurik geienetan. Erbestekoa da, ez bakarrik *alemana* Españian edo Zamorakoa Euskalerrian, baita ere donostiarra Bilbon, getariarra Zarautzen, karrika batekoa bestean, auzokoa gurean ta maizegi—eziñ ukatu—etse barrukoa gure biotzean. Askoren iritziz, erritarizatea norbere uste ta gogokoa izatea baño ezta. ¡O zenbat arrotz alkarren ondoan, berak eztakitela!


Josek bazekian bera etzala iñungo, bera etzala iñoren biotzeko, ta ortik animaren samiña.

Orratik ere, gizon ta erri guztien Aitak, tšorien ajola duan Jaungoikoak, gozamen apur bat biraldu zion.

Zabaletakoen aginduz ta Paularen erakutziz Joserren billa zebiltzan adiskide onak, gure gaztea idorotzean, osatu ez, baño zerbait zabaldu zioten bere barrua.

Albiste onak zekarzkiten: “Martin etzala Zabaletarako.” Ez ba, eziñ ba. Gizatšar alper andia langille zintzoen artean, ¿nola egokitu? Euskal oituren iraintzalle gaiztoa ¿nola izan Zabaletako seme on? Jaungoikoaren etsaia ta Jesusen maitalea ¿nola ondo alkartu? Eskerrak, ala ere, garaiz

oartu ziranean... "Mošolo zakurrak ia jan zuala." Bai, zakurrak aiša esagutzen dute zein nolakoa dan, gizonak baño aišago noski. Sen geiago dute ta esker ohea. Gizonak egin ziotena eziokcan Tšurik egingo, ez alegia... "Malentšo moja zijoala." ¡Moja! ¿Nori oroitu? ¿Nori baña? Berari, Joseri, maitetasunak itšuturik euki ezpalu. Aingeruak beti dira zerukoi. Orduantše zekuzan garbiro Malentšoren izakera, zaltetasuna ta gogo eder beroa. ¡O! Jaungoikoarentzat izan ezpalitz, neskatša zoragarrri ura beretzat, Joserentzat izango zan. ¡Siñiste alai! ¡Gogamen atsegingarria! ¡Eztiz intzaturiko gogamena! Eztiz ta beazunez. ¡Ezingo zuan iritši! ¿Zer da gizon zirzilla, erregetzarik andiena idukita ere, zer da Jaunaren ondoan? ¡Jesus, Jesus! Malentšo naian Jose nabarben ibilli bada, ez jakiñean ibilli da... "Aitona deiez zegokola." Bai, samurra zalako, samur ta zuzena, Euskalerrian besterik iñor bazan. Damu zuan mutillak aitonari miñ emana, agurrik egin eza. Aurki joango zitzaion parka eske, alogerak artutakoan, urrengo astean...



XVIII

BERE KABIRA

¿Nork esan zenbat eratako anima gauden? Gorputzik aña bai, ta gorputza bezela edertasun ta it̄susikeri guztietakoak. Alaiak, illunak, argiak, motzak, ausartak eta zaputzak; bigun, zuzen, zogi, gozoak; erren, t̄sango, ezkel, zitalak; aldakor ta iraunkorrek, dollor ta maitagarriak, azpikeri zaleak eta beren ustea edozeñ umeri agertzen diotenak; deabruaren it̄surako animak eta Jaungoikozko anima garbi atsegiñak.

¿Gaizki aldiot? ¿Animak eskutuan dau dela? Baita agirian ere. Batzuek, naiz ta urtietan gure ondoan bizi, eztitugu egundano ezagutzen, ¿baño ez aldakigu beste askoren berri gure aurrean lau itz esan orduko? ¿Ez alditugu ikusi, ainbat aldiz, norbaiten tolestura ta izurrak? ¿Ezaldegu sumatu urlia edo sandiaren argirik-eza,

dollorkeria, apaltasuna, esker beroa, griña ona edo griña t̄sarra? ¿Ta nondik datorkio gizonari alai edo goibel, on edo gaizto izatea, animatik ezpada?

Bai, gauza jakiña da, ta gizon batzuen eztabaidak entzutean, sarri esan det: “¿Ori? Anima ezkela: ezkerretaruntz begiratzen du. Anima bekaiztia: iñoren ona ezin du ikusi. Añotsua: dana beltz iruditzen zaio. Aldakorra: atzo beste iritzia zeukan. Errena, zitala: beti oker dabill, beti garratz. Ernaia, samurra, patšadakoa: asko daki, lagunari biotza emango lioke, ezta ezergatik aserratzen.”

Ta anima berdiñeko gizadiak aisa billatzen dute batak bestea, naiz ta gorputzez alkarren antzik ez euki. Norbaiten adiskide izateko etzaio gorputzari ainbeste begiratzen, gorputzaren zerzeladak zer ikusirik eztaukate. Argala izan edo lodia, zudur luzea edo zudur motza, lerdena edo korkoña, eztingu batere ajola. Gure uste, gogo ta iritzikoa izan dedilla ta edozeñ dator ongi, edozeñ da era erako adiskide. ¿Ez-takusgu, edonun ta edonoiz, nola inguratzen diran gorriak gorrietara, zuriak zurikana, t̄soroak t̄sorakerira, elizkoiak eliza-

runtz, mutillak eta neskatšak, zarrak eta gazteak, goikoak eta bekoak, bakoitza bere aldratšoan, bakoitza beretarrakiñ, baño andi ta tšiki, makal ta indartsu, iaio ta itšusi danak pilla ta moltso batean? ¿Zerk inguratu ditu? Gorputzaren egokitasunak ez, animarenak: animak dira alkarren antze-koak, animak alkarren aide.

Era berean biltzen dira anima ben garbiak, bakartadea nai dutenak, lurreko aberastasan, andikeri ta gozamen guztiak alde batera utzirik, zerura begira dabilzanak, Jesusck beretzat aukeratu dituan anima maitegarriak.

Bidaurretakoak, Malentšo zijoakiotelako, tšito alaiak zeuden. Malentšo beren gogo betekoa zan, beren bizitza bear zuan neskatša zogi aratza, Jesusen maitale andia, oso berentarra. ¡O, nolako arrera egingo zioten! ¡Zeinbat aizpatšo idoroko zituan besoak zabalik! Aizpatšoak eta Ama bat ere bai, andre argia, bioz bera, Jaungoikozkoa, animai begiratzen oitua, zalantzetako laguna, onbide askoren erakuslea, maitetasun garbien su-emale beroa, moja berri guztien Ama.

¿Ta nork esan Malentšoren poza? Senar

zintzoak, emazte onak, ¿oroitzen zerate zuen ezkontzarako mugaldea nolakoa zan? Emakume gazte ameslariak, ¿oroitzen zerate zein tirtiri egon ziñaten, jantzi luzez ta ille arroz apaindurik lagun artera lenbizi erden bearreko garaian? Legegizonak, apaizak, sendakiñak, etše, bide ta zubi asmatzalleak, edozeñ eratako jakituri eske ibilli zeratenak, ¿gogoan daukazute zuen gozotasuna, ikasteak oso amaitzean, zerbaiterako aginpidca eman zizutenean, legegizonen longaña jastean, aurreneko Meza ematera gertatzean? Ameriketari izandako gizon errikoiak, ¿etzerate aztu, zuen irabaziaz sakelean gordeta, "etšera noa, Euskalerrira noa" esan zenduten orduaz?

Oroitza oietatik atera dezakezute, bada, Malentšoren atsegiña Bidaurretara zijoan egunean.

Egun andia ura gure gaztearentzat, egun estua bere gurasoentzat, itšaropen gabeko ta inkurriozko egun beltza neskatšaren eskua jadišči etzuten gizonentzat.

Goiz jaiki zan Malentšo. Jaiki ta soro mendi zugaztai begira leioan egon, beren itšura irudimean gorde nairik bezela luzaro egon, ta bat-batean gero, ganbaratik

ukullura, basterrak eta tresna guztiak ikusten abitu, ikusten, aratzen, garbitzen, tajutzen. Bere oia, bere seaska, umetako tšintsarri ta jaskera, aitonaren makilla ta zizallua, amonaren liñari ta gorutšapelá, aitarene edo amaren atšurra edo aulkitšoa... bei zarra, biai gaztea, ollo nabarra, ollanda zuria... ¡Ura gauza! ¿Danakiñ izkitarako gogoa etzetorkion ba? ¿Danak zerbait mintzatzzen ziotela etzuan ba? ¿Eztzitzaion ba iruditzen etzituala egundaño ondo ikusi, etziela beñere bear aña jaramon egin?... “¡*Purra, purra!* Tira, gaišoa, tira, ale batzuek nere eskutik, azkenengo aldiz.”

Onelako arazoetan arkitzen du Paula lengusoak.

— ¡Au poza nerea, Paula, ta orobat au bildurra, au argaltasuna edo etzekiñat nik!

— ¿Baoalako?

— Bai.

— Gelditu.

— ¡Ori esatea! Nere bildurra etšekoak-gatik den, Paula, ez nigatik. Nere maiteak oñazez daudelako, nere biotza oñazean zeukanat, eta ala ere pozarren natšion. ¿Nork siñistu?

— Neuk. Maitetasunaren indar ta zau-

riak bazekizkiñat. Zauri gozoak ditun oiek.

—Zabaletako baserria beste inõrgatik ezniñan utziko, baña Jesusegatik...

—Geiago maitatzen denalako.

—¿Nola ez? Maitetasunik andiena Berari zor zaion, Beretzat jo, nere Jesusentzat! dana den utsa... Baño utsa ere argalarentzat astun... Gaurko eguna igarota baltiseon... Orraztu bear naun.

—Bai, azkenengo aldiz... ¡Illearen ugaria!

—Ta laster baterez. Aurki naiz kaskamots, Paula. ¡Ja jail!... ¡Ene! Amak ez alzidan algarea entzungo... ¡Außen da zoria ta izua, dana batera!

.....

Malentšoren sarrerako abagune ta jazoera guztiak begien aurrean dauzkat. Bidaurretako eliz-mai nagusia argiz ta lorez tšit ederturik dago; *moja kanpaiak* dinbili-danbala piškor alaietan gelditu eziñ dira; or dijoaz elizara, oso apañ, Malentšoren aideak, adiskideak, auzoak, ezagunak, erritar elizkoiak; emen datoz Ana Josepa ta Kataliñ, Paula ta Manuel, Mikalla ta Inazio Mari; gurdian dakarte Joanes aitona, gure artzai buruzuria, ta eliz-mai au-

rreko aukietaraño Jose Ramonek darama besotik; zelaiaren erdian daude, gorrotozko lokarriz alkaturik, Mošolo, Martiñ, Peru Odolki ta beste orrelako naspillari burugogor batzuek, ikusnaian, marmarrean, etsi eziñik, irriturik, ondamuz amorratzen, apaiz, *pralle*, *moja* ta Malentšogatik asmatualak asmatzen, gezurrik eta zatarkeririk dollor lizun ta lotsagabienak aoa be-tean jaurtigitzen. Antz orretara itz egingo luteke gabiraiak, izketan baliteke, atzaparretatik usoak iges egitean.

Ana Josepa, bata ta bestcarekiñ mintzatzen, azkenetakoa gelditu da, ta zelai-koctara begira

—Martin—deitzen dio illobari—elizara i ere.

—¿Ni? Barruko alperrai su ematera balitz...

—¿E? ¿Alperrak zeintzuk dituk?

—Or, lanik egin gabe jana daukaten sorgiñ oiek. Eman oiei, eman *dote* ona.

—¿Zergatik ez eman? ¿Gurea ezaldek dirua? ¿Iri eskatu aldiagu?

—Eskatu ez, baño kendu bai.

—¿Iri kendu?

—Bai; agindua ez ematea, kentzea bezela da. ¡Lapur arraioak!

—¿Lapurrak gu?

—Bai; dirua daukaten guztiak lapurrak dira, diru danak lapurretan egiñak.

—¡Aitaren, Semearen!... ¡Au ere entzun bear genduan! ¿Lapurretan egiñak lanaren lanez aurreratutako tñanponak? ¿Lapurretan, ire aitari eman nizkan urreak? ¿Lapurretan, ik, asko edo gutsi, Somorrostron irabazi ta eztakit nun ondatu ditukanak? ¿Ireak ez, e? Ba, i baño lan piñkat geiago egiñak gaituk. Bai oriñe... Nik eztiat iri dirurik agindu, baño agindu banian ere eznian emango. ¡Euri! Ardangeletan ardo biurtzeko, beste zeregiñik eztaukak eta... Ik deitu bear iñori alperra, ik, egun guztian besoak tolestuta *Don Bizente* baño tenteago agoan orrek...

Amonaren oiuetara elizakoak inguratu etzitezten

—Alde zagun emetik,— diote Martiñen lagunak—goazen errira. Atso listorra iñil-tzerik etziok.

—¡Erri *madarikatua!*—crasotzen du Martiñek.—Atsoak eta apaizak dira gaur agintari, baño egunen batean...

Eta Moñolok:

—*¡Sentellas!* Gure tñanda etorriko alde. Orduan ik ez, Martiñ, neuk erreko diat Bidaurreta, neuk, arraioak ezpaituk.

Elizara sartu diranak, zelaikoen arreta lageaz, gogamen ta begiak Malentñogan jarrita dauzkate.

Berariz Kataliñek. Orduaren zai, mojen bizitzako atarian zutik, lerden ta iñill, bero ta ikara, larri ta legor, bere alabatñoari begira, biotzaren taupadak ezin geratuaz, zer egin eztaki, zer esanik eztauka, erotua dirudi, zentzungabea ematen du. Baña barren aldetik norbaiten ibillera sumatzean, giltz ta morrolloen burni otsa garbiro entzun duanean, mojategiko ate zabal astuna intzirika ireki danean, bere altsoan limurki azitako ume kutuna “agur, amatño” esanda barrura dijoala ikustean, ernaitzen da Kataliñ, alaba maiteari lepotik eltzen dio, il zorikoak bizitzari bezela eutsitzen dio, jartzen bere bular gañcan estu joso estu!, ta cuki ta igortzi, eragin ta astindu, negar ta musu, laztan bekokian, laztan begietan, laztan españctan, erraietara biurtu nai luke berriz, erraien erdian gorde nai luke beretzat, beretzat bakarrik... ¡Ai ene

badata! ¡Utzi egin bear, betiko utzi bear!

Beste aideak, oso biozbera, agur egiteko gaitasunik eztute izan.

Kataliñ, Meza bitarte guztian, ezta negarrez naikotu; Ana Josepa, mutill barra-banagatik otoitz egiten ezta išilldu; Joanes, biotzeko samiñ andia zeruko Aitari erakusten inola ezta aspertu; Jose Ramonek eta Manuelek, beren naigabe ta urduritasuna eziñ gorde izan dute; baño denak esan diote Jaungoikoari tšikitan ikasitako arrena: "zeru ta lurrean Zure oldea egin bedi;" denak daude iritzi batean: "Zabale-tako alabak artu duan asmoa baño gauza oberik eztago."

Paula dakust cramanik gutšienekoa, oso artega, ezeren adiera gabe, alderdi guztietara begira ta begira. ¿Zer ote du Paulatšok?

Meza bukatu danean, apaizak, Meza soñeko ta guzti, elizako burni-leiora jetši dira, ta burnien barrutik agertu da Malentšo, eder, lirañ, urre-loraz jantzirik, argi bat eskubian, begiak bealdean, irribarrez, zorioneko, istillu gaistoak igarota bere Kabira eldu dan uso bildurtiaren antzera.

Tšolarate polita ura mojak ikusteko. Uste

orretan, elizkizun artara bituriko guztiak, piškor, lerdekari, zalapartaka, leio-burni ondora pillatu dira. Kabia usaindu nai.

Itz egitera dijoan A. Pralleak ia non jarririk eztauka.

“Nere arrebatšoa—dio—basetše batean jaioa zera, baño jauregi aberatzerako; Zabaletan asi zaituzte, baño Jaungoikoarentzat; zure ama maitearen besoak utzi dituzu, baño Jesus Erregearen besoetara zatoz! ¡Ordu onean, arrebatšo, ordu onean!...

“Gurasoak erakutzi zizuten zure jatorri andia, gurasoakandik ikasi dezu gauza guztien Egille Altsuari Aita esaten, ta Zeruko Aita ori deiezka daukazula jakitean, Beragana zakarkite, naiz ta biotzaren erdian atsekabe artu, naiz ta malko samiñak išuri. Era berean artzen dute miñ iñoren umca norberetzat asi dutenak, ume ura egiazko aitamakana dijoakiotenean...

“Ezta negar egitckoa, atsegingarria da zuretzat eta zure gurasoentzat: zuretzat, antziñetako ames gozoa gaur betetzen dezulako; gurasoentzat, emendik aurrera, oraiñ baño gciago ta obeto, berakgatik Jaiurenaren aurrean eskariak norck egiña izango dutelako.”

“Bai, Jesusen ondoan zure aide ta gurasoen bitarteko izango zera. Eguneroko janari ta atsedena gertatzeko etxean bat edo bat bear dan gisa, Jesusen jauregian bear da norbait beti betiko atsedeen ezitia gertatzeko; ta zure aitamak, zure aiton-amandreak, zure anai ta aideak soro-lancetan dauden orduan, zu egongo zera emen aientzat zorion ta pakca gerorako eskatzen.”

“Lanbide andia zûrca; eztago zerua irabaztea baño lanbide andigorik.”

“Baño oraindik eztezu iritši, jo ez! Jesussek sari osoa eztezu bereala emango. Zeruko bidean ipiñi zaitu, gudara deitu dizu, ekin bear gogorrean zaude. Asi bada berbertatik: asi berriro animaren etsaia purrukatzen, jarrai gogotik aragiaren jaikiera gaiztoak azpiratzen, ekiñ griña oker guztiak zugandik kentzen. Zure mendekoak dira, zure azpian bear dute. Ez ikaratu, eraso bildur gabe, Jauna dezu lagun, zurea da garaitza, zurea da zerua.”

“Bai, zurea da Jesusen atzetik bazoaz, aizpa berrien legeak gordetzen badituzu, gaur dauzkatzun asmoetan irauten badezu.”

“Aurrera, Jesusen maitalea! ¡Aurrera, Jesusen gudaria! Ordua eldu da. Lurta-
rren soñekoak kendu itzatzu: eztira oiek
gudetarako jantzi egokiak, eztira zure bio-
tza betetzen dizutenak. Ezagutzen zaitut:
zu etzera azaleko apainduri zale; barrutik
nai dezu apaña izan, anima nai dezu, done
ta aingeruen ekantzera, tšukun, eder, garbi
ta aberats. Zeruan daukazu iraupeneko
sari osoa, zeruan zure jarleku andia, ta
bertan nai zenduke jarri; antšen, Aloña
baño gorago, odeiak baño gorago, izarrak
baño gorago dagoan betiko maitetasun, ez-
titasun ta edertasun guztien iturburuan nai
zenduke jarri. Zure gogoa bete dedilla,
denok ikusi dezagula...”

Eliz-jaiak bukatuta bereala, barruan ba-
rrukoak utzirik, besteak zelaira erten zi-
ran, erlauntza bezela zunburruntsu, ba-
koitza bere usteak ematen, bakoitza bere
oarrak agertzen: A. Pillipe iztun iaioa zala,
iztunik onenetakoa, Aitarik jakintsueneta-
koa; arren esakera ugaria, arren besoai
eragitea, arren samurtasuna; Malentšo arte
arte egon zala, parre antzean, pozez zora-
tzen; beatzik etzuala erabilli, etzuala zirki-
ñik egin, begirik etzuala jaso; baietz, jaso

zituala, aitonari begiratu ziola, Joanesi mal-ko lodiak erori zitzaizkola; Kataliñen zotiñak, Ana Joseparen *Aitagureak*, Manuelek zeuzkan begi gorriak, Jose Ramoneren eroritasuna; batari moja izateko asmoa erne zitzaiona, besteari etxean egoteko us-tea geitu zitzaiona, beti barruan bizitza danentzako etzana, gurasoen ondoan zerua irabazi zeikeana... Emakume guztiak zeukaten mingaña erabiltzeko zio ta gaia, guztiak zerbait agertu bearra, denak zeuden alkarrekiñ jardunean.

Danak ez orratik. Paulak etzuan itzik ateratzen, etzion ezeri jaramonik egiten. Gogamen bat zerabillen elizara ezkerro, ta eziñ zuan bere burutik kendu: ¿zergatik etzan Jose iñon agiri?

Galdetzera zijoala, Manuelek zekarkion crantzuera, erdi negarrez:

—Oraiñ ere oker andia degu, Paula.

—¿Zer?

—¡Gure Joseri gertatu zaiona!

—¿E? ¿Zer gertatu zaio?

—Garrautsak (1) su artu ta erre.

—¡Erre! ¿Zeñek esan du?

(1) Garrautsa = Pólvora.

—Or dagoan gizon ori dator Barrenatik...

Izendaturiko gizona Joanesi albisteak ematen zegoan. ¿Nola izango zan?—dio. Ara, errez ulertuko dezu. Otarratso baten dauzkagu arrobirako garrautsak. Josek, gaurko eguna beretzat jaia zalata, lan gogorra egin zuan atzo, arri zulatzen. Illuntzean, apaitara baño lentsoago danbada batzuk egiteko ustean, artu du garrautsen saskia, bear dan aña sukarri zuloetan sartu du, ardagai ari luzeak arretaz ipiñi ditu, ta su ematera dijoanean, arrast eta arrast eta arrast, *pospoloak* alakoak, aldemeneko saskira pospolo buru izekia erori zaio ta ijplaut!!... ¡Alako arrigarririk! Suak, lurrak eta kiak igo zuten, eliza ori baño gorago bai, ta Jose gizagaiñoa su-lur-ketan ostendu zitzaigun. Lenengo, ke-lañoak etzuan ezer ikusten utzi; gero, irrikiturik, lagunagana eldu giñanean, arkaitzean erori ta billatu genduan, ikatza baño beltzago, zearo kiškaldurik, zearo baña.

—¡Ill da!

—Ill ez, oraindik ezta ill, baño gaizki dago, oso gaizki. Ara, cziñ leike ondo esan: gizonaren itšurarik eztu, bekañik eta

betillerik eztauka, arpegi dana puslatu zaio,
ura ta zorna dario...

—¿Ezalda sendatuko?

—Ezteitzot; baño sendatzen bada ere,
it̄sua izango emen da.

—¿Non dago?

—Bergarara, gaišotegira eramán dute.

Zabaletakoak, zer erabaki etzekitela,
išill išillik gelditu ziran. Joanesen illeta ba-
ño besterik etzan entzuten:

—¡Bai ondo zorigaiztokoa mutilla! ¡Bai
ondu nekepean izateko sortua!

Arako baten Paulak

—Banua ni—azaldu zuan—ta iñoren
esanik adi nai ezta, aidien zai egoteko as-
tirik gabe, azkar, aizea beziñ azkar, Ber-
garako bideari ekin zion.

—Zaude, Paula, zaude, ni ere banator
deitzen du Manuelek.

Eta beste batzuk, gizonik guri sendoe-
nak, onela diote:

—Gu, jandakoan. Ia amabiak dira ta...



XIX

BI ARPEGIAK

Euskal gizasemeak, bazkari on baten aurrean, errez laga oiditu alde batera naigabe ta zeregin guztiak.

Batez ere naigabea barru barrura sartu ezpazaio ta zeregiña gerorako edo urren-gorako utzi albaleike.

Onak eta jatunak omen gera ta...

Onak, onak... Ori geuk aitatzea baño beste batzuk agertzea obeko degu. Jatunak gerana bai, gauza garbi ziurra da, norbere gorarik eztakar ta neronek azaldu dezaket. Ezta orregatik iñor lotsatuko, ez. ¡Bai zera lotsatu! Ollazko ta illar berrien oroitzez zearo poztu, españak miazkatzen jarri. Orain dala ordubete ikusi det gizon guri potrollo bat. “¡Eztezu tñilborra makala!” — esan diot. ¿Eta badakizu zer erantzun ditan, irakurle? “*Kostata*. Alduanak dauka.”

Al izatea gure atsegiñ. Al izan ezkeru,

iñondik badegu, apukorik bada, ezin gindezke eguneroko baburrinak janda egon. Ez, aukera danean, amarretakoa, amaiketakoa, lauretakoa, azken ordukoa, dena dator ongi, ta gure urdallak eztu beñere ezetzik esango.

Ta mutillak gera gu apukoak billatzen. Aurraren jaiotza, auzokoaren eriotza, eza-gunaren Meza berria, lagun baten etorrera, adiskideari agur egitea, urlia edo urlizari egun-onak ematea; tserria ill dutelako, erbia atsitu degulako, eskalluak ekarri dituztelako, arkumea merke *dabilletako*; gartzetan indar egiteagatik eta zartzan indarra ez galtzeagatik; neguan otzari gogor egin daiozun ta udan izerdiak bigundu ez gaitzan; Gabonak dirala, Iñauteriak dirala, zezenak edo adarrak dirala; *San Juanak*, *San Pedroak*, *Andre Mariak*, edozeñ doneren jaiak, edozer eratako jolasak... beti daukagu zerbaiten apukoa ta beti jan egin bear, asko jan, galanki edan, zintzurrreraño bete, ok egin, ase, ito ta upeldu.

Jatunak alderdi guztietan dira, baña egingo nuke ezta ia iñon Euskalerrian beste ollo-jale ta Tšanton Piperri.

Ezagutzen det bazkari *eder* bategatik

Murziaraño joango litzakean zalduna. Badakit zeñek, apari andi bat eginda bereala, amar saieski jan zituan; badakit zeñek, amarretan, kana ta erdi lukainka.

¿Orrelakoak bat edo beste daudela? Bost edo sei milla gutsienez: itšura duten guztiak eta itšurarik eztuten asko.

Ta ez atšurle ta nekazariak bakarrik; ez, sagardotegian, "amalaugarrena" edo "ama-seigarrena" eskatzen dakitenak bakarrik: urietako jaun azkar burutsuak ere bai.

Makiña bat biđar nabaitu izan ditut gizonik argi ta langillienak, arlo astunen erdian bertan, Azpeiti ortik eta Durango emetik, Donostin ondo ta Iruñan merke, olloa gora ta eperra bera, Urumeako izokia ta Berastegiko amuarraia, albisterik arduratsuenak emango balituzkete bezela, non obeto jaten dan alkarri erakusten ta jakirik gozoena zer ta nola dan adierazten.

Gaišoagana ekarri degun sendakiñari entzun diot, eskuak garbitzen zegoan bitartean, azatan egositako ollagorra baño jakki oberik eztala. Sendakiñ orrek, toki askotako eltzeak ikusi ditu, izen andiko lauortza dauka; gaisoai begiratzen bai, baña, ostaturik onenetan, lagun arteko jan-ba-

tzar alaiak gertatzen ere badaki, ta berak dionean, ollagor egosia ezta tšarra izango.

Baño goazen geure ipuietara.

Malentšo moja sartu zanetik amabost egun geroagoan gaude. Patšiko ta bere langintzako adiskide batzuk, Mari-Teresekek bakallaoa ederki jartzen dualata, Eibarren bitu dira, baño bestetan aña gozamen, aukera ta leku ez tute idoro. Igandea da, eguzki gabeko igande beltza; ostatua gizadiz borborrean dago; etšejabeak, alegiñ guztiak egiñarren, danentzako jakirik eta astirik eztauka, ta gure Patšiko ta lagunai bazkaria baster baten, otza, urri ta kiskaldua ematen diote.

Deiezka ta ontzi joka luzaroan egonda gero, neskameren bat atarrapuzka agertzen dancan,

—Gaurkoagatik barkatu bearko;—esaten du—arpegirik ezin emanda gabiltza.

—¿Zer da gaur ordea Eibarren?

—*Mitiña* edo...

—¿Noiz?

—Iruretan.

—¿Zergatik?

—Langilleak naibeste nekesari eztaukelata.

—¿Nork dauka nai beste?... ¿Gizon asko etorri alda?

Asko ez, baño bai nabarbenak, Bilbo aldetik.

—Zaldibarrera joan bear genduan.

—Zaldibarren ezer eztago.

—¿Ta emen?

—Mitiñean egingo degu parre piškat.

Neskameak esan bezela, iru iruretan, lantegietako gizonak eta Elizaren etsaiak jardun-batzarra atera dijoaz, pelota lekuan. Antŕen, lañoz jantzitako zerupe illunean, suinkiro alkartu dira eibartarrik geienak, onenak ez baña. Onenak ez: gazte arro, zarkote nagi, erdi-langille, oso-edale, gezur-billari, aizeburu, etšekalte guztiak eta emakume arrotz lasai batzuek. Ardangela ta kafeterietatik erten dute, ta denak, piper gorria baño gorriago, *jakintsuen* jarduna entzuteko zai, pilloan daude.

Auzo errietako gizonik ia iñor ezta: gure sendakiñez gañera, lau edo bost ermutar, beste ainbat plazentitar, amabi edo amalau Elgoibarko. Beste urietakorik... Mošolo ta Martin dakustaz ¡maiburuan!

Lenbiziko berriketaria, bizar biko gizon igar tentea, eztakit nongoa dan. Biurri an-

diak egiñaz, begiak zuri jarriaz, ortz ori zikiñak bakan erakutziaraz, eskubiko besoa jaso ta luzatuaz, azkazal lodi okerrak beltz agertuaz, zerbait errapatzera dijoan basakatua dirudi. Gaztelarrez itzultzen du, garrasika, *El Rasero*, *El Motín* ta *Rojo y Verde* deritzaien paperetan ikasitako jakituria...

Bego Eibarren bizar biko garrantsoaren erakastea: guk eztegu lizunkeriari berririk eman bear. Gutšik ulertu diote, baña tsalo andiak jo zaizka, batez ere ipuirik gordiñenak esan dituanean.

Patšikok bakarrik atera du arpegia egi ta garbitasunaren alde. Išillik eziñ egonda, non dagoan aztuta, iru edo lau bidar jaurtigi du aora zetorkion irañña deadarrez, ta aldemenekoak entzuteko eran eztaikit zenbat aldiz: “¡Gezurti! ¡Kakalardo! ¡Labezamorro!... ¡Eztet išildu nai! ¡Arraio tšimual! ¿Nongoa ote da bera? ¡Ta loikeri oiek tšalotu! ¿Baño gu zertan gaude?... ¡Utik! ¡Bere errira dijoala!... ¡Lepo ezurra ausi gabe!...”

Eztakit nola berari ausi eztioten. Ermu, Plazenzi ta Elgoibarkoak zeuzkan urrean ta orri eskerrak.

“¡Bejondaigula!—esaten du bigarren iz-
tunlea jaikitzean.—¡Au dek ohea, au! ¡So-
bresaliente en la facultad de Arran-
tzandi! ¡altzalekoni! Universidad de
Upelondo! bear zaio sermoia,
ederra izango gata.”

Patšikoren irgurukoak parrez aidira, ta
pelora lekuko guztiak len baño arreta gei-
ago dar kate, bada bigarren berriketaria
euskalduna da. ¿Zeiñ? Martiñ, Azkarra-
gako Martiñ.

Ara zer dion, Oñatiko izkeran, ta ara,
tartietan, aditzallien ziri batzuek:

“Langilliak: Euskalerrisan jaišo naiz,
baña euskaldun izatiak ez nau batere arro-
tzen.” (Patšikok: Geuk ere, i emen jaio
aizalako, ze arrotu andirik etzeukagu.)

“Euskaldun izatia baño lurbiratarra izatia
gurago dot.” (Plazenzitar batek, Patšiko-
ren ondoan dendatuta: *Edonongoa ta
iñongoa ez*, ijitoak bezela.) “Euskalerr
guztia, Eibar izan ezik, abadien mendian
dago, ta nik eztot iñon mendian egon gura.”

(Norbaitek: *¡Viva la libertad!*) “Gizo-
nak eztau jokarririk biar.” (Ermutar batek:
Gerrikorik ezpaneuka ba, nire prakak las-
ter litzakez orpuctan.) “Danok gara bardi-

ñak.“ (Elgoibartarrak: andi-tšikirik ezta beraz, erren ta elbarririk ez. ¿Badeitzok, Artola? ¿Siñiste aldek, Julian?) “Gizona lotzeko eskubiderik iñok...ka.“ (Mošolok, bere artean: Ta bear luke.) “Goialdeak utzik dagoz.“ (Ermutarrak: Izarren batzuk gabetan ikusten dira, baña, orrek diñonean... jakintsua eidata.) “Gure gañean eztago iñor, ez erregerik, ez Jaungoikorik...“ (Patšikok: ¡Ondo giñake, astoen gañean iñor ezpalego!) “geuk egin biar ditugu geure legiak, gura dogun *modura*“ (Mošolok: Neuk egiten badizkiat, laster urkatuko diat ire amona.) “Iñok eztauka iñor ilteko eskubiderik;“ (Mošolok: Orra oraiñ, orra.) “Lurrean ezta batere gudarik biar; guda-gizonak alper-gizonak dira.“ (Eibartarrak: Ederto jaok, ¿baña orduan gure *armak* nun zalduko jituagu?) “Ugazabak eta lantegien jabiak gure odolez loditu dira.“ (Plazenzitarrak: Ta zuk ere ori nai, loditu, odolez edo odolki.) “Zortzi orduko lana gura genduke;“ (Mošolok: Askotšo dek, baño, tira, nai duanak egin dezala) “oraiñ artean baño aloger obea biar dogu.“ (Denak: ¡Ori, ori! ¡Betor dirua! ¡Venga diñero!) “Diru-etšcak

lapur-etseak dira.“ (Mošolok: Orrenbeste-
raño ez orratik.) “Asko gara, guztiok alkar-
tu gaitezen ta zor dozkuen eskatu daigun.“
(Ardosaltzalle batek: Neuk ere, zure on-
doko batzuci, edandakoen ordaña eskatu
bear diet.) “Agintarišakana goazen ta esan
deišogun geu gerala geišen, geu gerala in-
dartsuen.“ (Ermutarrak: ¡Ori dok! Uka-
billa nagusi.) “Ezergaitik ez bildurtu; go-
gor egin bear da; gogor andiki, agintari,
legcgille ta abadien aurrian. Geure inda-
rrez, geure kemenez, gauza guztiak goi-
koaz bera jarri biar ditugu: legiak ausi,
agintarišak azpiratu, aberatsak ebaki, pra-
lleak larrutu, elizak erre... (Plazenzitarrak:
Bai, mutill; ator Plazenzira.) “Orrela eka-
rriko degu aginpidia pobrien eskuetara,
orrela izango degu dirua ugari.“ (Lengoak:
Orrela izango degu... adarra jotzia.) “Adis-
kidiak, lagunak: danok batera diar egin
daigun: ¡gora erri langillia! ¡bera legiak!
¡bera ugazabak! ¡bera gizon alperrak! ¡bera
soñeko beltzak! ¡bera argizai jaliak! ¡*Biba
la replública!* ¡*Abajo inkisision!*“ (Gei-
enak: ¡¡Gora!! ¡¡Bera!! ¡¡*Abajo!!* Tšaloak,
oiuak, marruak, *Trágala*, *Marsellesa* ta
Internazionala...)

Mošolo, Martiñen gaitasunez arriturik dago: etzuan uste ainbeste zanik. Eibartarrak, Azkarragakoari begira, zintzo zintzorro diote: ¡gizon andia dok ori! ¡asko jakik orrek! ¡orrek bai daukala *ilustraziñoia!*

Patšiko berriz onela mintzatzen da: ¡Ederki! ¡Ederki jasotzen ditu atzeko anak! ¡Arrane arrania! ¡Eztakite Oñatin nolako semetsoa daukaten!...

.....
Oñatiar guztiak elizan daude. Uri paketsu artara Eibarko *mitiñaren* oiarzunik ezta eldu.

Goienetseko aldapan gora, zirrin-zarran, gizon gazte bi dijoaz. Batak arpegia zapiz estaldua darama ta oña non ipintzen duan eztaki; besteak, besotik cutsiaz, zapidunari ezkerrera edo eskubira eragiten dio, koskarik jo eztezan, utsunietan erori eztediñ.

Beren arteko izketa entzun dezagun:

—¿Noiz artu ditu Elizakoak?

—Zortziretan.

—¿Gaizki alda?

—Oso gaizki: ez omen du gaba ekarriko.

—Garaiz elduko algera.

—Nai nuke.

—¿Non goaz?

—Ia Goienetšen.

—Amaika bidar egin det azkar emendik etšerakoa, baña...

Egualdia, bidaztien kopeta bezela, itzal agiri da. Goibel zerua, odeiak geldi, tšoriak išill, aizcaren izpirik ez, soroetan iñor ez, errekaſtoak ur gabe... izadiaren indarrak bukatu dirala esan leike.

Bada orratik zerbaiten otsa. *Tšuri* zakurra bere baserriko atarian uluaka dabill.

Zakurraren uluak auzotegui guztia izutzen du.

Arratsaldeko iru terdiak dira, baño Joanesen gelatšoan argia jarri dute, il-zorikoen argia.

Oe zurian luze luze, burko bigunean burua ondatuta, arnasarik artu ezinda, izerdi larriz bustirik, azkenetan dago Joanes, Zabaletako nagusi zarra, Urbiako artzai ospetsua, Aloña mendiko jaun ta erregea.

Lenago, Urbian bizi izaten zanean, lotara baño len, ardiak non ta nola gelditzen ziran begiratu oizuan bezela, oraiñ, betiko lotara dijoanean, etšalde maitea nola gelditzen dan begiratzen du. ¡Ai! Bere ondoan dauzka batzuek, baña beste batzuk lurbi-

rako zelai zabaletan sakabanatu zaizka. Denak ikusten ditu irudimenez. Juan Andres oso urruti, arrotzen artaldean, euskalduntasuna galdurik, Zabaletakoen itšura gabe, seme ziztrin ergelaren guraso... Martiñ, askozaz urrutiago: illoba oni anima aldatu zaio, ta animak, aldatzean, tšit urrutira joan oidira, gorputzak lengo tokian egonarren. Bai, argitik illunera, Jaunagandik Etsaiagana, usoak bele ta arkumeak otso egiteraño. ¡O zer samiña norberak maite duan umea otso biurturik ikusi bearrara, sorterri, adiskide ta gurasoen zemaizalle! Jaungoikoak ikutuko al zion Martiñi biotzean, Malentšoren bitartez... ¡Malentšo! Ura ere aldendu zan, baño Jesusen artaldera, zeruetako atarira, animak eskatzen duan zorionaren eske. “¡Malentšo nere maitea!—dio—egiñ otoitz Zabaletakoen alde, nigatik egin otoitz, oraiñ, nere erioztako ordu onetan. Zure otoitzak itšaropen andia dakarkit animara.”

Samiñetan ere paketsu dago Joanes zintzoa.

Pake ta itšaropena musuko argitasuncan igartzen zaizka.

Bere patšadeak, bere begi gozoen leñar-

gitasunak, bere ille ta bizar zuri luzeak, Lege Zarreko Gurasoen itšura ematen diote.

Oiaren inguroan daude, negarrez urtzen, Ana Josepa ta Paula, Iñazio Mari ta Jose Ramon, Mikalla ta Kataliñ. Gogoz emango luteke bizitzaren zati bat, aitonarena luza-tzeagatik.

Aitonak ill bear du; bere ondasuna, Uribarriko etšejauntzarik andiena, laster utzi bear du; baño Zabaletan etše-nagusi jartzeko leiarik iñola ezta. ¡O, gaurko aberatsak, oraingo nagusiak, eztira iñon orrela bukatzen!

Aloñako erregeari, ainbeste baserritarrek opatu duan errege-zigorra berez erortzen zaio, baño Zabaletan ezluke iñork errege-zigor ura eskubian artu nai. ¡O, errege ta gizon agintariak eztira beñere orrela iltzen!

Mitin zaleak kendu ezkerro, denak maitatzen dute Joanes ona: uritarrak, menditarrak, auzokoak, etšeakoak, Aranzazuko Amak, Aitzgorriko Jesusek.

Eskuetan dauka Jesusen irudia, Malen-tšok biraldu zion gurutzea, ta papar gafiñcan Ama Mariaren kutun bustia, arna-

sestauk ematen dizkan neurrietan goruntz ta beruntz, it̄sas irakiñeko ustai azalkorra edo zero-alderako atoi-ontzia bezela.

Iñork eztu mutik eta zirkiñik egiten; gaiñoaren bularreko zurrua baizik ezta et̄sean ezer entzuten.

Baño Joanesen oroimena bizi ta atsenden gabea dabill. Zerutik lurrera, betikotasuntik eguntara, Galiziatik Euskalerrira, Malent̄sogandik Josegana dijoakio.

—¿Bai aldator,—galdetzen du—mutilla bai aldator?

—Bai, aurki onezkero, urrean bear luke... Badantzugu, emen da.

Umezurtz errukarria, astiro astiro, lerdan lerdan, oinkadea bada-ezpadan jaurtigiaz, ate aldamera eskuz idoroaz, Manuelen besotik aurkestu da.

—¡Jose!

—¡Aitona!

Gelako guztiak berriren berri negarrez asten dira, ta Joseri naigabeak jaten dio itza.

—Atoz, zai nengoan.

Bata, oiaren ertzean belauniko, ta bestea mutillaren buru ta arpegia ikutzen, Isaak eta Jakob dirudite; baña emen Isaak baño

it̃suagoa da Jakob, Joanes baño it̃suagoa Jose.

—¿Ez nauk ikusten?

—Ez, jauna.

Ta gaztearen malkoak esku gañean sumaturik,

—¡Ikusteko begirik ez ta negar egiteko bai!—dio aitonak—Asko nai dik gure Jesusek, orrela zamatze auancan... Ez ikaratu: oñaze oiek eztituk betiko. Gabaren ondoren eguzki garbia zio, nekcaren ondoren zoriona. Elduko zaik iri ere, bai alegia. Bitartean, nere ordeazko izan bear dek: sukaldeko zizalluan jarriko aiz, nere lekuan jarriko aiz, nere aginpidien jabe ipintze aut, ni banintz bezela begiratuko diate...

Josek eztu ezer erantzuten, baño bere barruko mintzoa badakit:

“¿Ni emen bizi? ¿Ezertarako eznaizala? ¿Iñoren traban? ¡O, ez! Zuaiza erortzean itzalik ezta. Gaur ondo begiratu izanarren, biar edo etzi nizaz aspertuko lirake. Et̃skoak aspertu baño len neuk ertetzea obeto da, ta ertengo det. Aldapa gora etorriko zait, asko lotsatuko naiz, baño eskean er-

tengo det aterik ate Jaungoikoaren izencan. Ni baño andiagoak ibilli dira.“

—To—jarraitzendu Joansek—to, Jose, arzak Malentšoren gurutzea, mun egiok. Iretzako dek gerošeago; oraiñ, pitin batean, neretzat... Zeruko giltza dala uste diat...

Artzai zarrak, gurutzea, umezurtzaren ezpañetatik bere ezpañetara darama. Jesus, Joanesen aoan besoak zabalik dago, aspal-diko adiskidea Beragan artzeko zai bezela, ta Joanesen animak laztan batean ertetzen dio; laztan bero, gozo, luzearen bitartez ematen dio Joansek Egille Altsuari anima, euskaldun animarik ederrenetakoa...

Zerua goibel, odeiak geldi, tšoriak išill, aizearen izpirik ez, soroetan iñor ez, erre-kastoak ur gabe... Uribarri aldean izadiaren indarrak bukatu dirala esan leike.

Tšuri artzanora saletše barruan gordea dago, ulua ta ulua.

Eliz-kanpaiak, noizik beingo *jdumm... dumm!*... lodi sendoan, Joanesen ilberria zabaltzen asi dira, ta baita ere uritarrak, zeñ ill dan jakin baño lenago, Lurra utzi duan animagatik arren zintzoetan...

Kanpaien ots illuna Bidaurretaraño az-

kar dijoa. Malentšori aitona ilko zala otu zaio, ta gauza guztien Jaunari begira, gogoz, biotzez, iñoiz baño siñistetsuago, arrebatšoakiñ batera, bere otoitzean onela jarraitzen du:

...Desiderium cordis ejus tribuisti ei: et voluntate labiorum ejus non fraudasti eum. Bere biotzeko leia oraiñ bete diozu: bere españetako eskaria ezta izan alperrik... *Magna est gloria ejus in salutari tuo: gloriam et magnum decorem impones super eum.* Andia da bere atsegiña Zure jauregian: zorion ta edertasun ugarietan jarriko dezu...



XX

AZKENENGO ALBISTEAK

Garoa bukatu da.

Nere irakurgaia esan nai det, bada mendietako garo landarea bizi da oraindik eta mendiak dirauten artean iraungo du.

Eztio ajola egi ta egal guztiak iritariz moztuarren. Sustraia gelditu ezker, garoa egondan tokian berriz ere garoa dator. ¡Ai orrela euskalduna zan lekuan euskalduna jaioko balitz, siñistetsuaren lurrean siñistetsua erne, Zabaletan bezela!

¡An bai garoa ezko, iori ta usaitsu! Zabaletako baserrian euskalduntasuna oso lenean daukate, lenean ta berean; arlo, izkera, oitura ta jarraipide guztietan.

Aitona ilzala bi urte badira, baño Joanesen anima bere alderdi ta ondorengotan bizi dala deritzot.

Jose Ramonek, azal ta barru, aitaren itšura ta egokierak dauzka. Burua zuri ta

mintzoa garbi, gorputza lerdan ta gogoa zuzen, beñ baño ere azkarrago, zarrago ta obeago, Joanes bigarrentzat artu deza-kegu. Bera da oraiñ etseko jauna; berak agintzen du non zer lan egiñ; berak igotzen du Urbiara antziñetako bide ziorretatik zear; berak bedeinkatzen du maia, base-rrian badago; berak erakusten du Jaungoi-koaren bildurra oñordekoen artean.

Artalde andien jabe da, mošalak tšito ugaldtu zaizko; ukulluan nai aña ele gorde-tzen ditu, ganbaran bear aña ta geiago ale, ate aurrean ta ellor barruan ainbeste garo ta iñaurkiñ.

Jose Ramonen mendeko guztiak, gure asaben bideari jarraika, Jaunaren agindue-tan pozkiro dabiltz. Pake osoa dago Zabaletan: pakea, ogia, osasun ederra.

Ala ere, baserri artara dijoazenak ikusi dezakete andretšo igar zimur bat, garo legorra baño igar ta zimurragoa, ezpañak egundo bitu eziñik, itza ta otaitza dariola, seme ta illobai agirika edo aspaldiko seaska ondoan ereslari: Ana Josepa da. Bai, sarri entzuten dira Zabaletan amona biziaren zital-itšurako esakerak, batari ta beste-ari oska, *Aita gure—Ave Mariak* edo-

nondik urratuaz:... *ta bedeinkatua da zure zabeleko frutua Jesus*. Mutill, abar batzuek bituitzak, alperrerian egon gabe. ¿Non ago baña, beti lanetik igesi?... *erre-gutu ezazu gu pekatariokatik...* Neska, olioa ekarri zan; lapikoari begiratuion... *oraiñ eta gure eriotzako orduan...* Es-neak erre usaia zeukan... *Gloria Patri Pillio Espirituri Santo...* Orca egiten eztakizute. ¡Bai gatz gutšiko emakumeak! Maratzagoak izan gera gure egunetan... *Sicut erat in printzipio...* Anitzez sumatu oida, sukalde basterrean, amabisabaren eresiketa dardarazkoa, Kataliñek lenago antolatua bera:

*Seaska zarrak aur berria du
Zeruetatik jetšia,
Aingerutšoak ekarri dute
Ezur t'aragiz jantzia.*

*Jaunak emandit neretzako ta
Nerea det nik Madalen.
¡Maite kutuna, ezaidazala
Jaun zerukoak berriz ken.*

¿Zeñen aurra du seaskan? Manuclena. Irakurleak eztaki: Manuel Etšenausiko Isabelekiñ ezkondu zan, Isabelek neskatu

gizen sendo bat eman zion, ta Malentšo dasaiote umeari Bidaurretako izebaren oroimenean. Malentšo bigarrena da Zabaletako jostallua. Pitsitšo ta maitetšo, pa neri ta ma orri, gure pošpolin ta gure kra-beliñ, goazen apapa ta jarri apatš, gazteakandik zarrakana, lurretik musura, seas-katik besoetara, aide guztiak jan bearrean darabilte aurtšoa.

¿Zoritsu dira beraz gure esagunok? Zabaletan bai; obeto eziñ.

Galizitik datorzkiote nolabaiteko berriak. Luzaroetan ezer jakiñ ez ta gero, orain oraintsu izan zituenak Ana Josepari animako gandua kendu zioten, Jose Ramoni negar andiak eragiñ. “Nere anai maitea: —esaten zuan Juan Andresek—aspaldietan eztegu zuen albisterik, baña eroso izango zeratela deritzot. Gu ez, gu ezkaude ondo. Nere egunetan lan asko egin det eta diru asko irabazi ere bai, baña nere semeak geiago eralgi du. Eznuan ondo azi, bigunegia izandu naiz, ta ortik nere ondarena. Ikasten zegoalakoan, joko ta nagikerian igaro ditu egunak eta urteak, eta gaur, bizarrez oso jantzi danean, griñak ugari, diruak urri ta irabazteko gaitasunak

auzoan. Sendakiñ izatera ezta eldu, ogibiderik eztauka ezer, iñork eztu ikusi nai: neuk ere ez, gurasoa izanarren. Gutšitan dator nere ondora. Uri batetik bestera dabill *mitiñetan*, berritšukerietan, naste guttietan, nagusi-morroien tarteko, gizonak eta erriak arautu bear ditualata. ¡Au ere bada ba! Beretzat aña izan ez ta besteak baño geiago dala uste; bere burua oker erabilli ta besteak zuzendu nai. ¡Errukarria! Oraindik eztu bere itšumena czagutzen, baño igarriko dio aurki. Asi zaio jakkerea, atze ta aurre, orpo ta idun, *pobre de levita* dala adierazten.

Benetan *pobre* nik emango diotanagatik... Oso erori gera. Juanito ta bere tajuko alper batzuek zirikatuta, iru edo lau aldiz, estuen nebillen orduan, bertanbera utzi naute langille guztiak, eta nere azkenengo tšanponak *deabruak* eraman dizkit. Galera gaiztoak izan ditut, emengo lanak zero gelditu dira, etšearen gañera geiegi atera det, andrea ere gaišorik daukat eta... larri larri nago.

Ara, lotsatzen naiz, baña... zerbaitean lagundu albazeinkide... millatšo bat *peseta* edo...

—Eskutitz au irakurtzean, Zabaletako guztiak, Manuel aurrengo zala, Juanitogatik egundañoakoak esan zituzten: “¡Orra prestutasunak! ¡Orra jakituriak! Banekian nik, ezagun zuan arrek, tšotšolo andia, tšitšare likitsa, pizti artoa, Junkeirotar burugabea, or *konpon* dedilla, ukalondoa jan dezala, adiskideak eman daiotela“... baño, azkenean, denak kupitsu, osabari laguntzekotan gelditu ziran.

—Bai, Azkarragakoakiñ bat eginda, lagundu egin bearko.

¿Azkarragakoakiñ?... Izan ere, ¿zer egin zuten Azkarragakoak? ¡O! Azkarraga baserriak, bi urte auetan, izugarrizko aldaketea izan du. Ikustea baño eztago bide ta soro basterren tšukuntasuna, etšcak daukan arpegi garbia, atari aurreko loreontziak, sukalde barruko urdai-lukainak, geletan jarri dituen oe bigunak, leioetan dauden oial sareak, gizategirako crosti diran jarleku berriak, ispilluak, doneak eta pitšiak. ¿Oroitzen da irakurlea nola erakutzi nion Pedro Migelen gizantza, ori, pekatsu, pipi zuloz, autsez ta amaraunez betea? Oraiñ beste gauza bat ematen du. Egoki ta apaña, lengotik eskuz trebero

berriztatua, urre lerroz inguraturik daukate, beste gauza polit batzuen erdian. ¡Eznuan asko uste garai batean! Igarle tšarra ni. ¿Nola ordea erosokeri oiek? ¿Nondik orrelako altasunak? Itšaron gabeko lekutik. Joanes obiratu zan egunean bertan jakiñ zuten Pedro Migelen ilberria. ¡Aberats ilzala ta bere ondasun guztiak Oñatiko aidientzat utzi zituala! ¡Gizonaren zoria! Berriz ere jaiki orratik, berriz ere burua jaso. ¿Zertarako baña? Onik one-nean dana utzitzeko, ainbeste izerdiren saria iñori eskeintzeko, aideak ondo izan zitezten. Norberak lana ta besteak jana, norberak nekea ta besteak epea, norbera zamari ta ondorengoak zaldun... eskerrikasko esaten eztakitenak agian. Orrela oida.

Martiñi beintzat eskerrik ematea etziztaion bururatu. ¿Zerñi? Lurpean zegoanak etzuan eskerrik bear, ta etšekoai ¿zer die-te zor? Zegokiona kendu zien, azkar gero kendu ere, Donosti alderuntz iges egin zuan, ta or emen dakuste nasaikerietan kirastua, aragiaren era ta nai guztiak aseaz, osasuna ta dirua banatuaz, animarik ezipalu bezela, biotz gaiztoko, ao tšarreko, zeru

ta lurreko aginduen etsai. Baño ez omen da oraiñ lengo adiskidien adiskide. ¡Dirua etzioten ba eskatu! ¡Alperrai dirua! Eran-tzuera zorrotza bai, erderaz: *el Nunsio que os de, lo mio para mí es y...*

Mikalla ta Paula eskerdunak. Aiek apaindu zuten etšea, aiek osabaren gizantza egokitu, aiek, animaren alde, Mezak atezazi, otoitzak egiñ, elizkizunak eragiñ, opariak eskeñi...

¿Paula czkongai aldago? ¡Bai zera! ¿Diruduna ezkongai? Ez gaurko eguncan, senarrik nai badu. Euliak eztira ta gizonak tšanponetara. Aberats ikusi orduko, mutill gazterik bikañenak abitu ziran Paulari jarraika, tšurikeri labañak išuriaz, maitetasun zindoan itšurak erakutziak, ta baita ere Paula, gezur legunai jaramon gabe, asi zan... Joserren biotza alegiñean irabazten.

—Etorri zaitzu tšandea—ešan zion amak.

—Etorri zait. ¡Beñ edo beñ!

—Oñatiko gizaseme guztiak zeureak dira.

—Ta ni batena izan, batena bakarrik.

—¿Begia zeñi bota diozu?

—Jose bear det.

—¿Iturraldekoa? ¡¡Oraiñ!!

—Iñoiz baño geiago. Len, besterik ezean nai niola esan zitekean; gaur, askoren artetik aukeratzen det, errege guztien artetik aukeratuko nuke. ¿Zetarako ditut ondasunak Joserentzat ezpada?

—¡It̃sua dezu baña!

—Anima du argi.

—¡It̃susia dago!

—Barrutik da eder.

—¡Paulat̃so! Jaunaren izenean, begiratu eizketzu ainbesteren alderdiak.

—Ezagutzen ditut, zaldunt̃soen berri badakit. Onenaren andre nagusi baño naiago det Joserekiñ eskale.

—¡Kasketa!

—Biozduna.

—Ezertarako eztan gizakumea...

—Ezbeza nere biotzean ikutu, minbera daukat, maitetasunez minberatua.

—Ainbeste diru daukagunean...

—Diruak edozeñentzat, Jose neretzat...

—¿Eta berak nai ezpadu?

—¡Baita! Norbaiten bearrean dago, ta neuk zaintuko det: et̃sean edo t̃sirotegian, neu izango naiz Joseren ama, edo arreba, edo neskamea...

—¡Jas! Aita *Santiagok* adiña eman daigula...

Orrelako maitetasunak irabazi ta bertuko eztuan gizonik ezta. Iturraldeko mutilla, gallendua, lilluratua, eskerrez beterik, Askarragako neskatša on, zuzen, gartsu ta kementsuagana osoro auzpeztu zan.

Paulak Joserren emazte izatea iritši du, Joserentzat bizi da, ta Jose, biotz biotzez, Paularentzat. Dancan batera datoz, alkarrren gurariak asmatzen dabiltz; ezkondu ezkerro arantza batek ezte ikutu, abaraskarik gozoena, eztirik eztena miazkatzen daude. ¡Senar emazte berdiñagorik, gizon-emakume apalagorik!

Aberastuak egonarren, nekazariak dira, tšito nekazari ta baserritarrak. Ezin ditezke uri barruan ondo bizi. Beian bekoak, andikerietan, arrotasunean, iñoren ondamuz, jantzi pitšiz, gorontz estuz, oñetako medarrez esiturik, zaldun-andre itšurak ezin eginda. ¡Parregarriak! Beste bizikera bat daukate uri gañean: benetako askatasuna, egiazko nagusitza, aize ta argi obea, ta battez ere garo ta mendi-lore usaia.

¡A! Ta azaleko errea izango zuan nunbait, bada Iturraldekoari begietako argia

ctorri zaio, zorna ta zauri guztiak zearo joan zaizka, batere gaišo aztarnarik eztu ezagun, ta gure umezurtza gizasemerik trebe, lirañ ta bikañenetakoa dago. Paulak csan dezala. Paulak dionez bere senarra bezelako gizon ederrik ezta iñor. ¡Bere Jose! ¿Zeñek berdindu? Ezta semeak ere, ederra zan baña ¡zeiñ ederra!

¿Semerik aldute? Zoragarria, zuri guri ta ernaia, Mikallaren ustez Zabaletako aurrara baño zuriagoa, guriagoa, ernaiaagoa. Oñez badaki, "aitaita" esaten ikasi du, aitonari erotu eragin bear dio.

Au dabill makal, Iñazio Mari dabill ajeatua. Oñazerik ez, baño ito-bear estuak oiditu. Zankoak andi, burua nagi, mingaña totel, arpegia erorita, kokozpeko larrua idi zarraren antzera lasai jura itšura dauka gizagaišoak! Ezertako ezta gauza, ia ezta aulkitik jaikitzen, eztu etsetik iñora ertetzen. ¿Nola? ¿Zertara? ¿Non etsean beste babes? ¿Non aukera geiago? sendakiñaren esana jarraituaz, esnea gciénbat, baña bere gogoari deizkiona ematen diote: ollo zaldea, opill gozo biguña, tšurrut bizigarria, eskatzen duana, biotzez, maitero, dena maitero ta limurki.

Tšurruterako lagun gabe gutšitan izan oida. Goseak edo egarriak anitzez darama uritik goruntz Odolki adiskidea, oleska, kaišioka.

—¡Kaišio lagun zarra! ¿Ze berri?

—Ementše, geroago ta mckoago.

—Sendoa itzan ba i.

—Ondakiñetan natšiok.

—¿Ondakiñetan, e? Ire ondakiñak ez-tituk añ tšarrak. ¡Karai! Orain ere *jereza* ta... *Komentzi* guztien jabe aiz.

—Obe nitek ire osasuna.

—¿Osasuna? Etzeukat ba nik ere nai añakoa. Aspaldietan bera natšiak, Išio.

—Eztek ondo jaten da...

—Emaidak ba, ondo jateko.

Ta iñoren baimenik eskatu gabe, lagun zarrak eskeñi baño ere len, opillari eldu ta jerczari ekiñ, gezurak esan ta legunke-riak irazi... eskupekoa lortu artean. Beñ lortu ezkerro...


—Agur, Išio, baniak.

—Mošolonera.

—Ia ba, gaur goizean Ondarroako le-gatza *etorri* dek eta...

Mošolok amar arroako buzkantza dirudi. Añ dago baldar, borobill, lindinga ta koi-

petsu. Zabaletako atsoa urkatzeko ta Bidaurretako eliza erretzeko beta onaren zai dijoazkio urteak. Eztago aztuta. Beretarrak agintzean, bai, jarraioak ezpaituk!..



Agirre-ren beste lan batzuk

•••• AUÑEMENDIKO LOREA ••••

~ ~ ~ KRESALA ~ ~ ~


IRAKURGAIK, BIZKAITARREZ

Etse onetan saltzen dira.

AURPIDEA

Orrialdea

Irakurleari.....	III
I.—Joanes artzaia	1
II.—Baserria.....	14
III.—Bakoitza bere aldetik.....	32
IV.—Landare berriak	57
V.—Azoka ta dema.....	79
VI.—Erri ta erbestean.....	109
VII.—Loreak eta arantzak.....	138
VIII.—Gaztekeriak	162
IX.—Itsaromendi.....	177
X.—Auleria	200
XI.—Eguberri tsarrak.....	215
XII.—Usteak eta mintzoak.....	234
XIII.—Pedro Migel Azkarraga.....	248
XIV.—Nai ta ezin.....	262
XV.—Agerpenak.....	281
XVI.—Ijiji jaiene!.....	296
XVII.—Lasai ta larri.....	314
XVIII.—Bere kabira.....	331
XIX.—Bi arpegiak.....	347
XX.—Azkenengo albisteak.....	364



Elosu'ren etxean saltzen dira, eta ona egin bediz eskabideak:

Ama-entzako Liburucho osasungarria, bost sentimo.—**Ama Birjiñaren Agertziak eta Lurdesko Gertaerak**, peseta bat.—**Aita Agustin Cardaberaz**, Jainkoaren serbitzari andiaren **Berri Laburrac**, 0'35 p.—**Segur Jaunac** esribitu duan **Comunio Santua**, eguneroco **Comunioa** eta **Mirari batzuec**, 0'65 p.—**Cristauaren Dotriña egulazcoa**, Aita Angel Maria Arcos, Jesus'en Lagundicoac eguiña, Obispo Jaunaren bainenarequiñ, 0'50 p.—**Urteco Domeca guztietaraco Berbaldiac**, Aita Frai Pedro Astarloa-c eguiña, bi liburu, 14 p.—**72 Esaldiac**, Santuen eta Escutapen Miragarrizcoen gafiñcan, Andres Iturzaeta-c eguiña, bi liburu, 18 p.—**Curutze Santearen**, Aita gure ta **Ave Marien ganeco Eracusaldiac**, Aita Frai Pedro Antonio Añibarro-c eguiña, 1 p. eta 1'50—**Pasiño Santuaren Contaera**, Aita Luis de la Palma gandic, eusquerara biurtua, 3 p.—Bere salbazioa segurutu nai duan **Maria-ren Devotoaren Astea**, 0'25 p.—**Jaungoikoaren Ama Birgiña guztiz garbiaren Bizitza**, 0'35 p.—**Jesusen Biotz Santuaren Bederatzi Urruna**, 0'25 p.—**Purgatorioco Arimen Bederatzi Urruna**, 0'25 p.—**Ama Virgiña Doloretacuen Bederatzi Urruna**, 0'25 p.—**San Antonio Urkiola-kuari Bederatzi Urruna**, 0'25 p.—**Cristinaubaren Jaquinbidea** Aita Astete-c erderaz egui-

ña, ipini eban bizkaiko euskeran D. J. Antonio **Moguel** ta Urquizac, 0'25 (eun 15 p.)—Aita Gaspar Astete-ren Cristifianu Dotrinia, **Laudioko** Abade Jaunen encarguz ta costuz arguitara urten ebana, 0'25 p.—Cristifianu dotriñea, urten dau arguira barrero **Busturico** Bicarisco Abade Jaunen encarguz, 0'25 p. (eun 15 p.)—Cristinaubaren Dotriniaren esplicacinua eusqueras D. Martin **Arzadun**, Arima jagoliac ipinija, 0'25 p. (eun 15 p.)—Felipe Arrese ta Beitiak eginiko **Ama euskeriaren liburu Kantaria**, 3 p.—**Peru Abarca**, Moguel Abadeac eguindaco Irakurgeia, 2'50 p.—**Josecho**, Jose Manuel Echeita Jaunak egin-dako Irakurgeia 3 p.—**Jayoterri Maitia**, Echeita Jaunak egin-dako Irakurgeia 2,50 p.—Kiristiñauen irakazterako, euskel Orri egoki asko, (eun peseta bat).—**Elex-Abestijak**, bizkaiko euskeraz, 0,65 p.—**San Inazio'ren Ejertziyuac**, au da: ondo confesau ta Comulgauteco **Iracazquizonac**, Jesus'en Lagundico A. Candido Basabe'cuac, Ejerzijo ta Misiñuetan azalduten dauzan leguez. (Ause da baserrietaraco Mesa liburuen artean egoquiena.)—Z. Vizcarra, Cristifianuaren **Jaquinbide Laburtua**, bacocho amar centimo, eun zortzi pesetan.—**Eleiz Liburuchua**, A. Basabe'keguifia, Mezia, autorkuntza, jaunartzia ta iru oneraspen nago-siak, abesti (kantu) askogaz; daukazana 112 orri-alde, *amar zentimuan* bacocho.







A
3